

Ingeniaritza lanbidearen  
eta lidergoaren  
irudikapen soziala:  
edukiak eta dinamikak  
aztergai genero  
ikuspegitik

**Iduzki Soubelet Fagoaga**

Tesi zuzendariak:

Maider Larrañaga Egilegor

Lorena Gil de Montes

**2019**





## **IDUZKI SOUBELET FAGOAGA**

**Ingeniaritza lanbidearen eta lidergoaren irudikapen soziala:  
edukiak eta dinamikak aztergai genero ikuspegitik**

**ZUZENDARIAK:**

**Maidar Larrañaga Egilegor**

**Lorena Gil de Montes**

**DOKTORE TESIA**

**2019-ko apirila**

**Gizarte-Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila**

**Psikologia Fakultatea**

**Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)**





Tesi hau Euskararen eta etengabeko preskakuntzaren arloko Errektoretzaordeak 2014ko deialdian emandako doktoretza-aurreko laguntzari esker gauzatu da.

Upv/Ehu-ko etika batzordearen oniritzia jaso du ikerketa proiektu honek (M10\_2018\_120)



## ESKER ONAK

la bost urte pasa dira tesia egiten hasi nintzenetik, eta azkenean iritsi gara bukaerara. Urte guzi hauetan bide lagun izan ditudan tesi zuzendariak, lankideak, lagunak eta familia eskertu nahi nituzke.

Hasteko tesi zuzendariak eskertu nahi nituzke, Maider eta Lorena. Maider bereziki, urte guzi hauetan lagundu izanagatik. Lorena berriz, zure laguntza egon garen uneetan biziki baliagarria izan zaidalako.

Nire hurbilekoak diren pertsoneri dagokienez, bereziki nire ama eskertu nahi nuke. Nahiz eta honakoak harrituko dion, eta berak ez uste izan, inork baino gehiago lagundu nauelako egunerokoan, eta bidea samurragoa izan baita zuri esker. Aita, zu ere ez zara gibelean gelditu, eta eskertzen dizut azken fase honetan eman didazun laguntza handia. Milesker ere nire Antiguoko lagun minari, aunitz lagundu nauzulako, eta bide lagun maitagarria zarelako. Nire ahizpari pentsatzen dut ere momentu honetan, batez ere denbora gehiago izango dugulako elkarrekin egoteko. Gogora ekarri nahi nituzke ere Izadi eta Laia txikiak, alaitasunez josten baituzue familia.

Tesia egiten hasi nintzelarik unibertsitatera gutxi joaten nintzen, eta denborarekin piskanaka gero eta gehiago hurbiltzen hasi nintzen. Sorpresa polita aurkitu dut bertan urte hauetan. Pozgarriak izan dira eta lagungarriak goizetan hartu ditugun kafeak, txokoan izandako bazkariak, eta unibertsitatetik kanpora egin ditugun planak ere. Tesia egunerokoan nahiko lan bakartia dela kontuan izanik eskertzekoa da horrelako ingurua aurkitu izana. Beraz milesker zuei ere (Eva, Jota, Lander, Mikel, Marce, Anderson, Uzuri, Gabi, Roxa eta aipatu ez ditudan guziak ere).

Betiko lagunak eskertu nahi nituzke ere. Hasteko, milesker Elorri, Rafu eta Aitor. Bisita ederra egin zenidaten egonaldian egon nintzelarik, alaitasun asko ekarriz. Jaione, zuri ere milesker. Bai tesian laguntzeagatik zein hain lagun ona izateagatik. Itxaso eta Ane, zuei ere milesker lagundu izanagatik. Seguru jendea ahantzi dudala...baina tira, parez pare eskertzea politagoa izanen da.





# AURKIBIDEA

LEHEN ATALA: LAN MERKATUAN ETA INGENIARITZAN GENERO BIDEZKO SEGREGAZIOA, AZKEN URTEETAKO DATUEN AZTERKETA.....	0
1. LAN MERKATUAN ETA INGENIARITZAN GENERO BIDEZKO SEGREGAZIOA .....	2
1.1 SARRERA .....	2
1.2 AURREKARI TEORIKOAK .....	2
1.2.1 HELBURUA.....	4
1.3 METODOLOGIA.....	4
1.3.1 MATERIALAK .....	4
1.3.2 DATU AZTERKETA.....	5
1.4 EMAITZAK .....	7
1.4.1 LAN MERKATUAREN AZTERKETA .....	7
1.4.2 INGENIARITZAREN GENERO SEGREGAZIOAREN AZTERKETA.....	43
1.4.3 INGENIARITZAREN BARNE SEGREGAZIOAREN AZTERKETA .....	51
1.5 ONDORIOAK.....	58
1.5.1 LAN MERKATUAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK .....	58
1.5.2 INGENIARITZAREN GENERO SEGREGAZIOAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK .....	59
1.5.3 INGENIARITZAREN BARNE SEGREGAZIOARI LOTURIKO ONDORIOAK .....	60
BIGARREN ATALA: LAN MERKATUAN GENERO BIDEZKO SEGREGAZIOA AZALTZEKO LITERATURAREN BERRIKUSPENA .....	62
2 LANBIDEEN, ERAKUNDEEN ETA INGENIARITZAREN GENERO TIPIKAZIOA.....	64
2.1 SARRERA .....	64
2.2 LANBIDEEN GENERO TIPIKAZIOA EZAUGARRITZEKO IRIZPIDEAK: LANBIDE MASKULINOEN KASUA .....	64
2.2.1 ZENBAKIZKO IRIZPIDEA .....	64
2.2.2 IKUSPEGI SINBOLIKOA: KULTURA PROFESIONALEN GENERIZAZIOA ELEMENTU SINBOLIKOEI ERREPARATUZ .....	65
2.2.3 IKUSPEGI INTERAKZIONISTA.....	66
2.3 ERAKUNDE KULTUREN GENERO TIPIKAZIOA: GENERO TIPIKAZIO MASKULINOAREN KASUA	67
2.3.1 ERAKUNDE KULTURAREN DEFINIZIOA .....	67
2.3.2 ERAKUNDE KULTURAREN AZTERKETA GENERO IKUSPEGITIK .....	68
2.4 INGENIARITZA LANBIDEAREN GENERO TIPIKAZIOA .....	73
2.4.1 INGENIARITZA ETA MASKULINITATEAREN ARTEKO LOTURA: NOLA GAUZATU DA?.....	73
2.4.2 EGUNGO EGOERA .....	75
3 LIDERGOA ETA GENEROA LANTZEN DEN LITERATURAREN BERRIKUSPENA .....	78
3.1 SARRERA .....	78

3.2	LIDERGOAREN DEFINIZIOAK ETA IKUSPEGI TEORIKO NAGUSIAK .....	80
3.2.1	LIDERGOAREN DEFINIZIOAK .....	80
3.2.2	LIDERGOARI BURUZKO IKUSPEGI TEORIKO NAGUSIAK: TEORIEN AZALPENA .....	81
3.3	LIDERGOAN GENEROA ETA TESTUINGURUAREN ARABERAKO ALDAERAK .....	84
3.3.1	EMAKUMEEN LIDERGOAREN EZAUGARRITZEA: GENERO EZBERDINTASUNA VS BERDINTASUNA.....	84
3.3.2	LIDERGOAREN KONTZEPZIOAN GENERO PERTENENTZIAREN ERAGINA .....	88
3.3.3	TESTUINGURUA, LIDERGO EREDUEN AZALTZAILE NAGUSIA.....	89
3.4	ZERGATIK EMAKUME GUTXIAGO DAUDE LIDERGOAN? GENERO ROLEN BIDEZKO AZALPEN TEORIKOAK .....	92
3.4.1	TEORIA KLASIKOAK .....	92
3.4.2	EMAKUME LIDERREN EBALUAZIOAN NEGATIBOKI ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK .....	94
3.5	LIDERGOA, GENEROA ETA LIDERGO EREDUETAN IZANDAKO BILAKAERAK .....	96
3.5.1	ESTEREOTIPOEN MAILA DESKRIPTIBO ETA PRESKRIPTIBOEN BILAKAERA .....	97
3.5.2	LIDERGO EREDUEN BILAKAERA ERAKUNDEEN BAITAN .....	99
	HIRUGARREN ATALA: MARKO TEORIKOA, IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIA, INGENIARITZA ETA LIDERGOA GENERO IKUSPEGITIK LANTZEKO ERABILITAKO HURBILPENA .....	102
4	IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIA.....	104
4.1	SARRERA .....	104
4.2	IRUDIKAPEN SOZIALEN HURBILPEN TEORIKOA .....	104
4.2.1	IRUDIKAPEN SOZIALEN ABIAPUNTU TEORIKOA: IRUDIKAPEN KOLEKTIBOAK .....	104
4.2.2	IRUDIKAPEN SOZIALEN DEFINIZIOA .....	105
4.2.3	SORRERARAKO BALDINTZAK ETA PROZESUA .....	106
4.2.4	IRUDIKAPEN SOZIALAK, ALTER-EGO-OBJEKTU INTERAKZIOAREN EMAITZA.....	108
4.2.5	IRUDIKAPEN SOZIALEN FUNTZIOAK .....	110
4.3	LANA ETA LANBIDEEN HURBILPENA IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIAREN BAITAN .....	111
4.3.1	LANA ETA LANBIDEEN IRUDIKAPEN SOZIALAK .....	111
4.3.2	LANBIDEEN IRUDIKAPEN SOZIALETATIK IRUDIKAPEN PROFESIONALETARA .....	114
4.3.3	IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAK .....	119
4.4	IRUDIKAPEN SOZIALEN IKUSPEGI SOZIODINAMIKOA .....	122
4.4.1	IKUSPEGI SOZIODINAMIKOAREN OINARRI TEORIKOAK .....	122
4.4.2	DINAMIKA ERREPRESENTAZIONALEAN BOTERE DINAMIKEN ERAGINA: GENEROAREN ERAGINA .....	124
4.4.3	IRUDIKAPEN SOZIALAK ETA IDENTITATE SOZIALAREN ARTEKO LOTURAK.....	126
4.5	GATAZKA IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIAREN BAITAN .....	129
4.5.1	IRUDIKAPEN HEGEMONIKOAK, POLEMIKOAK ETA EMANTZIPATUAK .....	129
4.5.2	HIRU IRUDIKAPEN MOTA IZATETIK IRUDIKAPEN BATEN BAITAKO ELEMENTUAK IZATERA..	130
4.5.3	IRUDIKAPEN POLEMIKOAK ETA TALDE ARTEKO HARREMANAK .....	131
4.5.4	IRUDIKAPENAK, BORROKA IDEOLOGIKOA ETA TALDE ARTEKO HARREMANAK .....	132

4.6	IRUDIKAPEN SOZIALAK ETA IKERKETA FEMINISTAREN ARTEKO ZUBIAK .....	134
4.6.1	ZERTAZ ARI GARA IKERKETA FEMINISTAZ ARITZEAN? .....	134
4.6.2	IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIAREN ETA IKERKETA FEMINISTAREN ARTEKO KIDETASUNAK	135
	LAUGARREN ATALA: LEHEN LAN ENPIRIKOA, TEORIAN OINARRITUTAKO IRUDIKAPEN	
	SOZIO-PROFESIONALA, IKASLEEN IKUSPEGIA .....	138
5	INGENIARITZAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALA GENERO IKUSPEGITIK.....	140
5.1	SARRERA .....	140
5.2	AURREKARI TEORIKOAK .....	140
5.2.1	EGUNGO TESTUINGURUA .....	140
5.2.2	INGENIARITZA ETA MASKULINITATEAREN ARTEKO LOTURA .....	140
5.2.3	IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAK .....	141
5.2.4	HELBURUAK.....	142
5.3	METODOLOGIA.....	142
5.3.1	LAGINA .....	142
5.3.2	TRESNA ETA PROZEDURA .....	142
5.3.3	DATU AZTERKETA.....	143
5.4	EMAITZAK .....	144
5.4.1	ANALISI PROTOTIPIKOAREN EMAITZAK .....	144
5.4.2	COMPLEX-AREN EMAITZAK: EMAKUME ETA GIZONEK EMANDAKO ERANTZUNEN ALDERAKETA .....	148
5.5	ONDORIOAK.....	148
6	LIDERGOAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALA GENERO IKUSPEGITIK .....	152
6.1	SARRERA .....	152
6.2	AURREKARI TEORIKOAK .....	152
6.2.1	EGUNGO TESTUINGURUA .....	152
6.2.2	GENEROAK LIDERGOAN DUEN ERAGINA GENERO ROLEN IKUSPEGITIK.....	152
6.2.3	GENERO ROLETATIK IRUDIKAPEN SOZIALETARA: IKUSPEGI SOZIODINAMIKOA ETA <i>SELF-A</i> LIDERGOAREN AZTERKETAN .....	153
6.2.4	HELBURUAK ETA HIPOTESIAK.....	154
6.3	METODOLOGIA.....	158
6.3.1	LAGINA ETA PROZEDURA .....	158
6.3.2	TRESNA .....	159
6.3.3	DATU AZTERKETA.....	160
6.4	EMAITZAK .....	163
6.4.1	GOGORA EKARTZE GALDERAREN EMAITZAK .....	163
6.4.2	LIDERGO ESTILOEN ESKALEN ANALISIAREN EMAITZAK .....	167
6.5	ONDORIOAK.....	173
6.5.1	LIDERGOAREN IRUDIKAPENAREN EDUKIARI LOTURIKO ONDORIOAK .....	173
6.5.2	“THINK MANAGER THINK MALE” TEORIAREN GAURKOTASUNARI LOTURIKO ONDORIOAK	176

6.5.3	GENERO DINAMIKEI LOTURIKO ONDORIOAK.....	177
	CINQUIEME PARTIE: DEUXIEME ETUDE EMPIRIQUE, ETUDES DES REPRESENTATIONS PROFESSIONNELLES, LA PERSPECTIVE DES INGENIEURS.....	182
7	LA REPRÉSENTATION PROFESSIONNELLE DE L'INGÉNIERIE DANS UNE PERSPECTIVE DE GENRE .....	184
7.1	INTRODUCTIONS .....	184
7.2	LES PRÉCÉDENTS THÉORIQUES .....	184
7.2.1	LES FEMMES DANS L'INGÉNIERIE .....	184
7.2.2	LE CADRE DES REPRESENTATIONS SOCIALES POUR ANALYSER LA TYPIFICATION DE GENRE DE L'INGENIERIE.....	186
7.2.3	OBJECTIFS ET HYPOTHÈSES DE RECHERCHE .....	190
7.3	MÉTHODOLOGIE .....	193
7.3.1	ÉCHANTILLON .....	193
7.3.2	PROCEDURE ET OUTIL DE RECHERCHE.....	194
7.3.3	ANALYSE DES ENTRETIENS .....	197
7.4	RESULTATS.....	201
7.4.1	RESULTATS DE L'ANALYSE THEMATIQUE .....	201
7.4.2	RÉSULTATS DES ANALYSES DES CORRESPONDANCES MULTIPLES.....	242
7.5	CONCLUSIONS .....	286
7.5.1	CONCLUSIONS DES CONTENUS DE LA REPRÉSENTATION PROFESSIONNELLE .....	286
7.5.2	CONCLUSIONS LIÉES A LA PARTIE HÉGÉMONIQUE ET A LA PARTIE POLÉMIQUE DE LA REPRÉSENTATION PROFESSIONNELLE .....	289
7.5.3	CONCLUSIONS LIÉES A L'INFLUENCE DE LA POSITION SOCIALE SUR LA PARTIE POLÉMIQUE DE LA RÉPRÉSENTATION PROFESSIONNELLE .....	292
8	LA REPRÉSENTATION PROFESSIONNELLE DU LEADERSHIP DANS UNE PERSPECTIVE DE GENRE .....	303
8.1	INTRODUCTION .....	303
8.2	LES PRÉCÉDENTS THÉORIQUES .....	303
8.2.1	PRINCIPAL APPROCHE A L'ÉGARD DU LEADERSHIP .....	303
8.2.2	LEADERSHIP ET GENRE .....	305
8.2.3	DES ROLES DE GENRE AUX REPRÉSENTATIONS SOCIALES .....	307
8.2.4	OBJECTIFS ET HYPOTHÈSES .....	310
8.3	MÉTHODOLOGIE .....	313
8.3.1	ÉCHANTILLON .....	313
8.3.2	L'OUTIL .....	313
8.3.3	ANALYSE DES ENTRETIENS .....	315
8.4	LES RÉSULTATS .....	317
8.4.1	LA REPRÉSENTATION DU LEADER GÉNÉRIQUE .....	317
8.4.2	LA REPRÉSENTATION DE LA FEMME LEADER.....	325
8.4.3	LA REPRÉSENTATION DU LEADERSHIP DE SOI (LE <i>SELF</i> ).....	335
8.5	CONCLUSIONS .....	343

8.5.1	CONCLUSIONS PAR OBJET DE REPRÉSENTATION ÉTUDIÉ .....	343
8.5.2	CONCLUSIONS GÉNÉRALES: LA COMPLÉMENTARITÉ DES OBJETS DE REPRÉSENTATIONS .....	353
	SEIGARREN ATALA: ONDORIO OROKORRAK ETA EZTABAIDA .....	356
9	ONDORIO OROKORRAK ETA EZTABAIDA .....	358
9.1	SARRERA .....	358
9.2	LAN MERKATUAREN ETA INGENIARITZAREN GENERO BIDEZKO SEGREGAZIOAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK.....	359
9.3	IKASLE ETA PROFESIONALEN IRUDIKAPENEN ALDERAKETA .....	360
9.3.1	INGENIARITZAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAREN ETA IRUDIKAPEN PROFESIONALAREN ARTEKO ALDERAKETA .....	360
9.3.2	LIDERGOAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAREN ETA IRUDIKAPEN PROFESIONALAREN ARTEKO ALDERAKETA .....	361
9.4	IRUDIKAPENEN GENERO INPLIKAZIOKO EDUKIEI LOTURIKO ONDORIOAK .....	362
9.4.1	IRUDIKAPENEN GENERO SOSLAIARI LOTURIKO ONDORIOAK .....	362
9.4.2	IRUDIKAPENEN EDUKIETAN ALDAKETAK BERDINTASUNERANTZ.....	371
9.5	POSIZIO SOZIALAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK .....	374
9.5.1	IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALA .....	374
9.5.2	IRUDIKAPEN PROFESIONALA.....	376
9.6	EKARPEN TEORIKO-METODOLOGIKOAK .....	380
9.6.1	GENERO IKUSPEGIA IRUDIKAPEN SOZIALETAN .....	380
9.6.2	EDUKI GENERIZATUEN AZTERKETATIK PROZESUEN AZTERKETARA: IKUSPEGI SOZIODINAMIKOA.....	381
9.7	EKARPENAK MAILA APLIKATUAN.....	383
9.8	ETORKIZUNEKO IRADOKIZUNAK.....	387
10	AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK.....	390
11	ERANSKINAK.....	420
-	Ikasleen galde-sorta .....	420
-	Grafikoak .....	430

# TAULEN AURKIBIDEA

1. <u>Taula</u> : Distribuzio indizeak: Lanbideen/sektoreen genero tipifikazioa ezaugarritzeko ehunekoak .....	8
2. <u>Taula</u> : Emakumeen okupazio tasa sektore ekonomikoka (%), 2018. 2. lauhilekoa.....	9
3. <u>Taula</u> : Aktibitate adarka emakumeen presentzia (okupazio tasa, %) 2018. urteko 2.lauhilekoa, Euskal AE eta Nafarroa .....	10
4. <u>Taula</u> : Aktibitate adarka emakumeen presentzia (okupazio tasa, %) 2018. urteko 2.lauhilekoa, Espainiar Estatua.....	11
5. <u>Taula</u> : Sektore ekonomikoka emakume okupatuaren bilakaeraren ehunekoak. Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatua. 1997, 2008 eta 2017 urteak.....	17
6. <u>Taula</u> : Distribuzio indizea (Hakim,1993), interpretaziorako erreferentziarako ehunekoak.....	18
7. <u>Taula</u> : Distribuzio indizearako erreferentziarako datuak, 2008-2017, Euskal AE eta Nafarroa.....	23
8. <u>Taula</u> : Distribuzio indizearako erreferentziarako datuak, Espainiar Estatua 1990-2004 urteak eta 2008-2017 urteak.....	32
9. <u>Taula</u> : Okupazioko emakumeen okupazio tasa, 2018, 2. lauhilekoa, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatua.....	34
10. <u>Taula</u> : Ingeniaritzari erreferentzia egiten dioten aktibitate adarretan okupatuaren % generoaren arabera.....	44
11. <u>Taula</u> : Ingeniaritzari erreferentzia egiten dion okupazioan okupatuaren % generoaren arabera.....	44
12. <u>Taula</u> : Ikasketa adarka emakumeen presentzia (matrikulazioa %), Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatua, 2017-2018ko ikasturtea.....	48
13. <u>Taula</u> : Ikasketa adarka emakumeen presentziaren bilakaera (matrikulazioa %), Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatua, 2008-2018.....	49
14. <u>Taula</u> : Ikerketan parte hartu duten ingeniarien distribuzioa okupazioko (%).....	52
15. <u>Taula</u> : Analisi prototipikoaren emaitzen antolaketa.....	143
16. <u>Taula</u> . Ingeniaritza lanbidearen estimuluaren analisi prototipikoaren emaitzak.....	145
17. <u>Taula</u> . Analisi prototipikoaren emaitzen antolaketa.....	161
18. <u>Taula</u> : Lidergoa estimuluaren analisi prototipikoaren emaitzak.....	163
19. <u>Taula</u> : Lider generikoa eta gizon liderraren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen batezbestekoak eta desbideratze tipikoak.....	169
20. <u>Taula</u> : Lider generikoa eta emakume liderraren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen batezbestekoak eta desbideratze tipikoak.....	169
21. <u>Taula</u> : Gizon liderra eta norberaren lidergoaren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen batezbestekoak eta desbideratze tipikoak.....	172
22. <u>Taula</u> : Emakume liderra eta norberaren lidergoaren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen batezbestekoak eta desbideratze tipikoak.....	172

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. <u>Grafikoa</u> : Emakume okupatuen bilakaera (milatan), Euskal AE eta Nafarroa, 1997-2017.....	14
2. <u>Grafikoa</u> : Emakume okupatuen bilakaera (milatan), Espainiar Estatua, 1997-2017.....	14
3. <u>Grafikoa</u> : Okupatuen bilakaera sexuaren arabera (milatan), Euskal AE eta Nafarroa. 2008-2017.....	19
4. <u>Grafikoa</u> : Aktibitatea adarka emakumeen presentziaren bilakaera (%), Euskal AE, 2008-2017.....	430
5. <u>Grafikoa</u> : Aktibitatea adarka emakumeen presentziaren bilakaera (%), Nafarroa, 2008-2017.....	431
6. <u>Grafikoa</u> : Emakume okupatuen bilakaera (milatan), Espainiar Estatua, 1990-2017.....	24
7. <u>Grafikoa</u> : Aktibitate adar bakoitzaren baitan emakumeen %aren bilakaera, 1990-2004, Espainiar Estatua.....	432
8. <u>Grafikoa</u> : Aktibitate adarka emakume okupatuen %aren bilakaera, 2008-2017, Espainiar Estatua.....	433
9. <u>Grafikoa</u> : Okupatuen bilakaera generoaren arabera (milatan), 2011-2017, Euskal AE eta Nafarroa.....	36
10. <u>Grafikoa</u> : Emakumeen okupazio tasaren bilakaera okupazioka (%), Euskal AE, 2011-2017.....	434
11. <u>Grafikoa</u> : Emakumeen okupazio tasaren bilakaera okupazioka (%), Nafarroa, 2011-2017.....	435
12. <u>Grafikoa</u> : Okupazioka, emakume okupatuen %aren bilakaera, 1990-2017, Espainiar Estatua.....	40
13. <u>Grafikoa</u> : Ingeniaritzako aktibitate adarretan emakumeen bilakaera (%), 2008-2018, Espainiar Estatua.....	46
14. <u>Grafikoa</u> : Fisika, kimika, matematika eta ingeniari zientzietako profesionalen okupazioan emakumeen bilakaera (%), 1990-2018, Espainiar Estatua.....	47
15. <u>Grafikoa</u> : Ingeniaritza eta arkitekturaren matrikulatuen artean emakumeen bilakaera (%), 2008-2018, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatua.....	49
16. <u>Grafikoa</u> : Ingeniarien banaketa okupazioka, generoaren arabera.....	52
17. <u>Grafikoa</u> : Okupazioak, soldata altuenetik (gerentzia) apalenerako sailkapena (irakaskuntza), okupatuen % generoaren arabera.....	54
18. <u>Grafikoa</u> : Lan esperientziaren arabera okupazioka ingeniarien presentzia (%).....	56
19. <u>Grafikoa</u> : Bulego teknikoan lan esperientziaren arabera okupatuen %, generoaren baitan.....	57
20. <u>Grafikoa</u> : Gerentzian lan esperientziaren arabera okupatuen %, generoaren baitan.....	58





---

# ATARIKOA

---



Jarraian aurkeztuko zaizuen tesian lan merkatuan nagusitzen den genero bidezko segregazioaren ulermenean sakontzea bilatu da. Izan ere, gaur egun lanbide gehienek genero tipifikazioa dute, maskulinoak ala femeninoak izanik. Gainera, lan merkatuan genero bidezko segregazioa modu horizontalean eta bertikalean gauzatzen da. Bi segregazio mota hauen ondorioz emakumeak lan merkatuan gizonen ondoan desabantailazko egoeran lan egitera eramana dira.

Genero bidezko segregazioa oinarritzat duen lan merkatua zein modutan mantentzen den ulertzeko helburuarekin, tradizionalki maskulino bezala kontsideratu den lanbide baten baitan garatzen diren lan egiteko moduak, esanahiak, baloreak eta genero botere harremanen inguruan garatzen diren dinamikak aztergai izan dira tesi honetan. Zehazki, ingeniaritza lanbidearen azterketa burutu da genero ikuspegia ardatz izanik eta horretarako irudikapen sozialen markoan oinarritu gara.

Aztertu diren irudikapen sozialei dagokienez, bi irudikapen sozialei heldu zaie: bata, ingeniaritza lanbidearen irudikapen soziala eta bestea, lidergoaren irudikapen soziala. Ingeniaritza lanbidearen irudikapen sozialaren azterketak maila horizontalean gertatzen diren genero dinamikien ulermenean sakontzea ahalbidetu digu, eta lidergoaren azterketak maila bertikalean garatzen diren genero dinamikien ulermenean sakontzea.

Honez gain, irudikapen sozialen azterketa ingeniaritza ikasten ari diren ikasleen eta jardunean ari diren ingeniari profesionalen laguntzaren bidez gauzatu da. Ikasle eta profesionalekin lan egin izanak, lanbidearen eta lidergoaren irudikapenen generizazioa (\*horrela erabiliko da tesian, *gendered* ingelesez) lanbidearekiko sozializazio fase ezberdinetan nolakoa den ezagutzea ahalbidetuko digu.

Marko teorikoari dagokionez, irudikapen sozialen bidezko hurbilpen teorikoan kokatu gara. Irudikapen sozialen markoak errealitatearekiko eta genero gaiekiko hurbilpen dinamikoa egitea ahalbidetuko digu. Modu honetan, profesio kideek eta etorkizuneko profesionalek lanbidearen eta lidergoaren irudikapenen elementu generizatuak nola bere egiten dituzten edota nola eraldatzen dituzten atzematea ahalbidetuko digu.

Aurreratu den bezala, tesi honen helburu orokorra lan merkatuan nagusitzen den genero bidezko segregazioaren ulermenean sakontzea izan da; eta helburu orokor honetan baitan hiru dira garatu diren azpi-helburuak. Lehen azpi-helburuaren bidez, lan merkatua eta ingeniartzan generoan oinarritzen den segregazioaren datuen ezagutzan sakontzea bilatu da. Bigarren azpi-helburuaren bidez, ingeniartzan lanbidea eta lidergoaren irudikapen sozialak zein eduki eta esanahien inguruan eratzten diren ezagutzea bilatu da, genero ikuspegia ardatza izanik. Irudikapenen edukiak eta esanahiak ezagutzaren bidez irudikapenetan genero botere harremanak nola gauzatzen diren ezagutu nahi izan. Azkenik, hirugarren azpi-helburuaren bidez, lanbidea eta lidergoa irudikatzerakoan posizio sozialaren eragina ezagutzea bilatu da. Honakoak, edukien azterketetatik genero dinamiken azterketara igarotzea ahalbidetuko digu, genero perteneziaz irudikatze prozesuan aldaerarik eragiten duen aztertuz.

Tesia jarraian azalduko diren sei ataletan egituratuko da.

Lehen atalean, lan merkatuko eta ingeniartzako segregazioaren ezagutzan sakontzeko datuak aztertuko dira. Horretarako, lehenik, sektore ekonomikoetan, aktibitate adarretan eta okupazioetan gizon eta emakumeen presentzia eta bilakaera aztergai izanen dira, segregazioa horizontala eta bertikalaren ezagutzan sakontzea ahalbidetuz. Ondotik, ingeniartzan arloan eta ingeniartzako ikasketetan emakumeen presentziari buruzko eta bilakaerari buruzko datuak aurkeztuko dira. Azkenik, ingeniartzan lanbidearen baitako barne segregazioaren azterketa aurkeztuko da.

Bigarren atalean lan merkatuan genero bidezko segregazioa azaltzeko literaturaren berrikuspena egingen da. Batetik, lanbideen, lan erakundeen eta ingeniartzaren genero tipifikazio maskulinoa nola gauzatzen den azalduko da. Bestetik, lidergoa genero ikuspegitik aztergai izan duten ikerlanen berrikuspena egingen da.

Hirugarren atalean, ingeniartzan eta lidergoa aztertzeko oinarri hartu den irudikapen sozialaren teoriak zertan datzan azalduko da. Maila orokor batean irudikapen sozialak zer diren azaltzetik, lan mundua eta lanbideen irudikapenak aztergai izan dituzten ikerlanak azaltzera igaroko gara. Zehazki, irudikapen sozio-profesionalak eta profesionalak zer diren azalduko dira. Ondotik, irudikapen sozialaren baitan talde arteko harremanak nola islatzen diren aztertzea ahalbidetuko digun irudikapen sozialaren ikuspegi soziodinamikoak aurkeztuko da. Jarraian, irudikapen polemikoaren

kontzeptuaren bidez, gatazka eta borroka ideologikoa irudikapenen baitako elementuak direla ikusiko da, hauek talde arteko harremanengandik baldintzatuak daudelarik. Azkenik, irudikapen sozialen teoria eta ikerketa feministen arteko zubi teorikoak aurkeztuko dira. Maila honetan, irudikapen sozialek ikerketak ikuspuntu feministatik egiteko marko egokia eskaintzen dutela ikusiko da.

Lau eta bosgarren ataletan tesi honetan aurrera eramandako bi ikerketa enpirikoak aurkeztuko dira. Bata, ingeniari itza ikasten ari diren ikasleekin egin, eta bestea ingeniari profesionalekin egin.

Laugarren atalean, ikasleekin egindako ikerketan, ingeniari itzaren irudikapen sozio-profesionalaren azterketa azalduko da lehenik, eta ondotik, lidergoaren irudikapen sozio-profesionalaren azterketa. Ingeniari itza eta lidergoaren irudikapen sozio-profesionalen azterketa genero ikuspegia oinarri harturik edukien azterketa egin da lehen urrats batean, eta ondotik edukien aipamenean posizio sozialaren, hau da, generoaren eraginaren azterketa.

Bosgarren atalak laugarren atalaren egiturari jarraituko dio. Ingeniari profesionalekin egindako ikerlanean, ingeniari itzaren irudikapen profesionalaren azterketa auzektuko da lehenik, eta ondotik, lidergoaren irudikapen profesionalaren azterketa. Hemen ere, aztergai izan diren irudikapenetan genero ikuspegitik edukien azterketa egin ondotik, posizio sozialak edukien aipamenean duen eragina aztergai izanen da.

Azkenik, seigarren atalean tesiaren ondorioak azalduko dira. Tesian zehar azaldu diren ondorioak laburtzeaz gain, ikasle eta ingeniarien irudikapenen alderaketak burutuko dira. Era berean, tesiaren ekarpen teoriko-metodologikoak aurkeztuko dira eta maila aplikatua egindako proposamenak. Bukatzeko, etorkizuneko iradokizunen atalean tesi honetan aurkitu diren mugak eta ikerketa galderak azalduko dira.



**LEHEN ATALA**

**KONTESTUALIZAZIOA:  
LAN MERKATUAN ETA INGENIARITZAN GENERO  
BIDEZKO SEGREGAZIOA,  
AZKEN URTEETAKO DATUEN AZTERKETA**





# **1. LAN MERKATUAN ETA INGENIARITZAN GENERO BIDEZKO SEGREGAZIOA**

## **1.1 SARRERA**

Jarraian, lan merkatuan eta ingeniariaritzaren arloan generoaren arabera dagoen segregazioari erreferentzia egiten dioten datuen azterketa aurkeztuko da. Lehenik, lan merkatuaren genero segregazioari loturiko datuak azalduko dira, segregazio horizontala eta bertikalaren ezagutzan sakontzea ahalbidetuz. Gainera, egungo datuak aurkezteaz gain azken hamarkadetan izandako bilakaera ezagutaraziko da. Bigarrenik, tesi honetako ikerketa objektuari hurbilpena eginez, ingeniariaritzaren genero segregazioari erreferentzia egiten dioten datuen berri emanen da. Horretarako, helburu ezberdina duten hiru azterketa maila aurkeztuko dira. Batetik, ingeniariaritzan emakumeen presentzia eta bilakaeran ezagutzea sakontzea ahalbidetuz, lan merkatuari erreferentzia egiten dioten datuak azalduko dira; bestetik etorkizuneko belaunaldian bilakaerarik espero daitekeen jakiteko ikasketetan emakumeen matrikulazioaren zenbatekoa eta bilakaerari loturiko datuak aurkeztuko dira; eta azkenik, lanbidearen barne segregazioaren ezagutzan sakontzeko ingeniari profesionaleri buruzko datuak aztertuko dira.

## **1.2 AURREKARI TEORIKOAK**

XIX. mendeko iraultza industrialaren ondorioz, gizon eta emakumeen funtzio sozialen bereizketan sakontze bat eman zen lanaren banaketa sexuarekin sakonduz (Scott, 1993). Hori lan produktiboa etxe eremutik aldentzerakoan eta enpresa mundura eramaterakoan gertatu zen. Orduan, emakumeak etxe eremura mugatzen den lan erreproduktiboa burutzera igaro ziren, eta gizonak fabrika munduko lan produktibora (Scott, 1993).

XX. mende erditik emakumeen lan merkatuetan masiboki eman den arren, ezberdintasun egoera argi batean burutu da (Ibáñez, 2008). Emakumeek lan

erreproduktiboen arduraren jarraitu dute, haien lan merkaturatzea mugatuz eta gizonekin alderatuta baldintza txarragoan burutuz (Torns & Recio, 2012).

Horrela, gaur egun generoaren bidezko lan segregazioak munduko zein mendebaldeko herrialdeetako lan merkatuko ezaugarri nagusienetakoa izaten jarraitzen du (Bettio & Verashchagina, 2009). Aktibitate sektore eta okupazio ezberdinen arabera, gizon eta emakumeak, bi lan kolektibo, independente eta bereiztu bezala agertzeari deitzen zaio lan segregazioa (Martínez, 2018). Hain zuzen, bi eratako segregazioan egituratzen da lan merkatua: segregazio horizontalean eta segregazio bertikalean. Segregazio horizontalak gizon eta emakumeek lan eremu eta okupazio ezberdinetan lan egiteari egiten dio erreferentzia; segregazio bertikalak aldiz, emakumeak lanen hierarkian postu apalagoetan lan egiteari; hau da, soldata apalago eta erakundeen hierarkietan beheko eremuetan presentzia handiagoa eta goiko postuetan presentzia apalagoa edukitzeari (Torns & Recio, 2012).

Egun nagusi den lan ereduak genero bakoitzari atxikitzen zaion eduki ezberdinean oinarrituriko antolaketa eta hierarkizazioari erantzuten dio (Ibáñez, 2008). Edukiari dagokionez, lanbidea numerikoki femeninoa ala maskulinoa izatearen arabera lanbideen ezaugarriak erabat ezberdinak izaten dira (Hakim, 1998; Ibáñez, 2008), eta gizon eta emakumei atxikitzen zaizkien genero estereotipoekin bat egiten dute. Gizonak indar fisikoa, teknizitatea edota ikuskatzea ekartzen duten okupazioetan gain ordezkatuak dauden bitartean, emakumeak zaintza edota prestutasuna atxikitzen zaien okupazioetan gain ordezkatuak daudela ikusi daiteke (Kanter, 1977). Hierarkizazioari dagokionez, egun emakumeek lan merkatuan burutzen dituzten lanbideen ezaugarriek gizonena baino balorazio sozial gutxiago eduki ohi dute (Cantero, Emeric, Zango & Dominguez, 2012). Horrela, lanbide maskulinoetan autoritatearen erabilpen handiagoa ematen da, eta eskumen eta baliabide sozialekiko sarbide handiagoa (Martínez, 2018). Honen ondorioz, emakumeak soldata apaleneko lan eremuetan gain ordezkatuak daude. Zehazki, orduka soldatarik apalenak okupazio edo aktibitate adar femeninoetan jasotzen dira; ondotik integratuetan, eta soldatarik onenak lanbide maskulinoetan aurkitzen dira (Ibáñez, 2010). Lan segregazioak emakumeen lan merkatuan bizi duten zeharkako diskriminazioarekin lotura zuzena dauka beraz (Sallé & Molpeceres, 2009).

Lanbide femenino eta maskulinoek ezaugarri ezberdinak dituzten heinean lan segregazioak egiturazko arazo bati erantzuten dio (Iglesias, 2010; Sallé & Molpeceres, 2009; Torns & Recio, 2012). Norbanakoen hautuetatik harago lanaren banaketa sexualean oinarritzen den jendarte antolaketan ondorioz, sistematikoki gizon eta emakumeak lan eremu ezberdinetan lan egitera eramanez dira. Aldez aurretik ezarria dagoen segregazioak eta genero bakoitzari atxikiriko sinesmenek emakumeen lan aukera eta ibilbideak baldintzatu eta kaltetzerara eramaten ditu (Iglesias & Ilorente, 2008).

### **1.2.1 HELBURUA**

Lan merkatuan eta ingeniartzan generoan oinarritzen den segregazioaren datuen ezagutzan sakontzea da ikerketa atal honen helburu orokorra. Helburu orokor honen baitan hiru azpi-helburu landuko dira:

1. Lan merkatuan genero bidezko segregazio horizontal eta bertikalaren datuen ezagutzan sakontzea.
2. Ikerketa objektuaren ezagutzan sakontzea; hau da, ingeniartza lanbidearen genero tipifikazioan eta bilakaeraren ezagutzan sakontzea.
3. Ingeniartzaren barne segregazioaren ezagutzan sakontzea.

## **1.3 METODOLOGIA**

### **1.3.1 MATERIALAK**

Lehen azpi-helburua erdiesteko biztanleria aktiboaren inkestako (Instituto Nacional de Estadística, 1990-2018) datuetan oinarritu gara. Euskal Autonomia Erkidegoa (Euskal AE), Nafarroa eta Espainiar Estatu mailako datuak jaso dira. Zehazki, segregazio horizontalaren ezagutzan sakontzeko, sektore ekonomikoetako eta aktibitate adarretako datuetan oinarritu gara. Segregazio bertikalaren azterketa burutzeko okupazioei erreferentzia egiten dieten datuetan oinarritu gara.

Errealitatearekiko hurbilpen zehatzagoa egitea ahalbidetzen duelakoan, pertsona okupatuen datuak jasotzen dituzten datuak aztertu dira (eta ez aktiboenak).

Bigarren azpi-helburuari heltzeko, batetik, biztanleria aktiboaren inkestako (Instituto Nacional de Estadística, 1990-2018) datuetan oinarritu gara, Espainiar Estatu mailan ingeniaritza barne hartzen duten aktibitate adarren eta okupazioen datuak begiratzuz. Bestetik, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuko unibertsitateko ikasketa adarretan ikasleen matrikulazioari buruzko 2008-2018 bitarteko datuetan oinarritu gara (Hezkuntza eta formazio profesionalaren ministeritza).

Biztanleria aktiboaren inkesta datu base erabilgarria izan den arren, ikerketa atal honen helburuak erdiesteko hainbat muga atzeman dira. Izan ere, batetik, aztergai izan den lurraldearen arabera datuen zehaztasuna, nomeklatura eta bilakaerari begira eskuragarri dauden datuak aldakorrak direla ikusi baita. Bestetik, aztergai den garaiaren arabera nomenklaturan aldaketak daudela atzeman baita.

Hirugarren azpi-helburua erdiesteko, tesi honetako lagina bilatzen lagundu duen Gipuzkoako ingeniaritza kolegioak erraztutako ikerketetan oinarritu gara. Zehazki, Espainiar Estatuko ingeniari industrialen kontseilu orokorrak 2013. urtean eginiko ikerketa, eta Hego Euskal Herriko lau lurraldetako ingeniari industrialen kolegioek elkarlanean 2014. urtean egindako ikerketan oinarritu da datuen azterketa.

### **1.3.2 DATU AZTERKETA**

Lehen eta bigarren azpi-helburuak betetzeko lan merkatuko eta ingeniartzako datuen azterketa distribuzio indizean oinarrituz (Hakim, 1993) gauzatu da. Horrela, sektore ekonomiko, aktibitate adar eta okupazioen genero tipifikazioa distribuzio indizea oinarri harturik ezaugarrituko da. Hakim-en distribuzio indizean (1993), lan merkatuan okupatuak dauden emakumeen portzentaia eta sektore, okupazio edo aktibitate adar bateko emakumeen portzentaiaren arteko alderaketa egiten da. Sektore-lanbide-aktibitate bateko emakumeen presentziak lan merkatuan dauden emakumeen presentzia %10az gainditzen badu, sektore-lanbide-aktibitate adarra femeninoa izango da. Sektore-lanbide-aktibitate batean dagoen emakumeen ehunekoa, lan merkatuan dauden emakumeen %10a baino txikiagoa baldin bada,

sektore-lanbide-aktibitate adarra maskulinoa izango da. Azkenik, sektore-lanbide-aktibitatea integratua izango da sektore-lanbide-aktibitatean emakumeen ehunekoa, lan merkatuan dauden emakumeen ehunekoarekin alderatuz %10eko tartean kokatzen baldin bada.

Bi dira kontuan hartu behar diren adierazleak sektoreak, aktibitate adarrak edota okupazioak maskulino, femenino ala integratu bezala ezaugarritzeko: sektore-lanbide-aktibitate bakoitzean okupatuak daudenetik emakumeen ehunekoa (adibidez %20a emakumeak; hau da, %80a gizonak) eta lan merkatuan okupatuak dauden pertsonetik emakumeen okupatuaren ehunekoa (adibidez %45 emakumeak; hau da, %65 gizonak).

- $\text{Sektore/lanbide/aktibitate adarrean emakumeen kopurua} \div \text{sektore/lanbide/aktibitate adarrean okupatuak dauden pertsona guztiak} \times 100$
- $\text{Lan merkatuan emakume okupatuaren kopurua} \div \text{lan merkatuan pertsona okupatuaren kopurua} \times 100$

Jarri dugun adibideari jarraiki (lan merkatuan okupatuaren % 45a emakumeak izatea) Hakim-en indizearen kalkulua azalduko da:

- $45 \times 10 \div 100 = 4.5$
- $45 + 4.5 = 49.5$
- $45 - 4.5 = 40.5$

Ondorioz, lanbide bat femeninoa kontsideratuko da lanbidean okupatuaren % 49.5a baino gehiago emakumeak badira; maskulinoa kontsideratuko da lanbidean okupatuaren %40.5a baino gutxiago emakumeak badira; eta integratua kontsideratuko da lanbidean okupatuaren %40.5 eta %49.5 artekoa bada emakumeen ehunekoa.

Bigarren azpi-helburua erdiesteko, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuko unibertsitatetateko ikasketa adarretako matrikulazio datuetan gizon eta emakumeen presentziari buruzko ehunekoak kalkulatu dira.

Hirugarren azpi-helburuari heltzeko, hau da, lanbidearen barne segregazioaren azterketa burutzeko, eskuragarri izan ditugun datuen ustiaketa egin da. Lanbidearen barne segregazio horizontalaren ezagutzan sakontzeko, lanbidea osatzen duten okupazio ezberdinetan emakumeen presentziaren ehunekoak kalkulatu dira.

Lanbidearen barne segregazio bertikalaren ezagutzan sakontzeko, esperientzia profesionalaren arabera okupazioetan ingeniariaren presentziaren bilakaera aztergai izan da, eta honakoan generoaren arabera aldakortasunik baden begiratu da.

## **1.4 EMAITZAK**

Emaitzak hiru ataletan antolatuko dira. Lehendabizi, lehen azpi-helburuari helduz, lan merkatuko genero segregazioari loturiko datuak aurkeztuko dira. Ondotik bigarren azpi-helburuari helduz, ingeniaritza arloan emakumeen presentzia ezagutzea ahalbidetzen duten datuak azalduko dira. Azkenik, hirugarren azpi-helburuari helduz, ingeniariaren barne segregazioari loturiko datuak aurkeztuko dira.

### **1.4.1 LAN MERKATUAREN AZTERKETA**

Lan merkatuaren genero bidezko azterketa bi bloke nagusitan antolatuko da. Batetik, segregazio horizontalari loturiko datuen azterketa aurkeztuko da, eta bestetik, segregazio bertikalari erreferentzia egiten dieten datuak.

#### **1.4.1.1 Segregazio horizontala**

Jarraian lan merkatuko segregazio horizontalari buruzko datuak aurkeztuko dira. Lehen pauso batean, egungo datuen berri emanen da, sektore ekonomiko eta aktibitate adarrei buruzko datuak azalduz. Ondotik, denboran bilakaerarik izan den ezagutzeko azken hamarkadetako datuen azterketen emaitzak aurkeztuko dira.

##### **a. Egungo egoera**

Gaur egun maila lan merkatuaren genero tipifikazioa ezaugarritzeko bi kalkulu egin dira: batetik, aztergai izan den lurraldeko lanbide edo aktibitate bakoitzean emakumeen presentziaren ehunekoa kalkulatu da; eta bestetik, lurralde bakoitzean lan merkatuan okupatuak dauden pertsona guzietatik emakumeen ehunekoa kalkulatu da. Espaniar Estatuan, Euskal AEan eta Nafarroan lan merkatuan emakumeen presentzia 2018an %45.6, %48.3 eta %46.6koa da, hurrenez hurren.

Distibuzio indizeari jarraikiz, Euskal AEn lanbide-aktibitate-sektore bat integratu bezala ezaugarrituko da emakumeen okupazio tasa %43,5 eta % 53,2 artean kokatzen bada; %53,2tik gorakoa baldin bada femenino bezala ezaugarrituko da; % 43,5etik beherakoa baldin bada maskulino bezala ezaugarrituko da.

Nafarroan lanbide-aktibitate-sektore bat integratu bezala ezaugarrituko da emakumeen okupazio tasa lanbidean %42 eta % 51,3 artean kokatzen baldin bada; %51,3tik gorakoa baldin bada femenino bezala ezaugarrituko da; %42tik beherakoa baldin bada maskulino bezala ezaugarrituko da.

Espainiar Estatuan sektore-lanbide-aktibitate adar bat integratu bezala ezaugarrituko da emakumeen okupazio tasa %41 eta % 50.1 artean kokatzen baldin bada; %50.1tik gorakoa baldin bada femenino bezala ezaugarrituko da; % 41etik beherakoa baldin bada maskulino bezala ezaugarrituko da.

1.taula: Distibuzio indizeak: Lanbideen/sektoreen genero tipifikazioa ezaugarritzeko ehunekoak

	2018, 2.lauhilekoa
<b>Euskal AE</b>	
Enplegu orokorrean emakume okupatuena %	48.3
%10 gora	53,2
%10 behera	43,5
<b>Nafarroa</b>	
Enplegu orokorrean emakume okupatuena %	46.6
%10 gora	51,3
%10 behera	42
<b>Espainiar Estatua</b>	
Enplegu orokorrean emakume okupatuena %	45.6
%10 gora	50.1
%10 behera	41

Iturria: norberak egin, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

#### - **Sektore ekonomikoen genero tipifikazioaren analisia**

Sektore ekonomikoen araberako datuen azterketak, lan merkatuan generoaren araberako segregazioa dagoela agerian jartzen du. Historikoki maskulino eta femenino bezala ezaugarritu diren sektoreek bere horretan dira. Ildo honetan Espainiar Estatua, Euskal AE eta Nafarroa mailan nekazaritza, industria eta eraikuntzaren sektoreek maskulinoa izaten jarraitzen dute, eta zerbitzuen sektoreak bereziki femeninoa. Adierazgarria da sektore bat bera ere ez dela maila integratuan aurkitzen.

2.taula: Emakumeen okupazio tasa sektore ekonomikoka (%), 2018. 2. lauhilekoa

	Euskal AE	Nafarroa	Espainiar Estatu
Nekazaritza	21,3	19,0	24,1
Industria	25,4	24,6	26,0
Eraikuntza	10,7	14,8	8,8
Zerbitzuak	58,5	61,8	53,5

Iturria: norberak egina, Ine, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

#### - **Aktibitate adarren genero tipifikazioaren analisisia**

Segregazio horizontalaren ezagutzan sakontzeko, lan sektoretik haratago doazen datuak aztertuko dira, aktibitate adarkako datuak aurkeztuz. Autonomia erkidego eta Estatu mailan nomenklatura ezberdina dagoen heinean datuak bi taulatan aurkeztuko dira (Euskal AE eta Nafarroa mailakoak eta Espainiar Estatu mailakoak).

Aktibitate adarrei dagokienez, hauek dira genero desoreka handienak erakusten dituzten jarduerak distribuzio indizeari jarraiki hiru administrazioetan:

#### - *Femenizatutako aktibitate adarrei dagokienez*

Aktibitate adar femenizatuena “dibertimendu eta entretenimenduzko” aktibitatea da, Euskal AEn 10 enplegatutik ia 8 emakumeak izanda eta Nafarroan 10 enplegatutik ia 9. Ondotik, “administrazio publikoa” ageri da eremu oso femenizatutako lan eremu bezala, Euskal AE zein Nafarroan 10 enplegatutik ia 7 emakumeak izaki (Euskal AEn %67.2a eta Nafarroan %68.3a) . Nafarroan “aktibitate finantziero eta seguruen aktibitate” adarra zein “higienezinena” oso femenizatu da, okupatuena %78.3a eta %100a emakumeak izanik, hurrenez hurren. Espainiar Estatuan, “etxeko langileak, ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten etxeak” aktibitate adar femenizatuena da, 10 langiletik 9 ia emakumeak izanik. “Osasun aktibitateak eta zerbitzu sozialak” ere oso femenizaturiko aktibitate adarra da, 10 langiletik ia 8 emakumeak izanik.

#### - *Maskulinizatutako aktibitate adarrei dagokienez*

“Eraikuntza” ageri da hiru administrazioetan eremu bereziki maskulinizatu bezala. Izan ere, hiru administrazioetan “eraikuntzan” 10 langiletik bat inguru da soilik emakumezkoa (Espainiar Estatuan %8.8a, Euskal AEn %10a, Nafarroan %14a). Ondotik, Espainiar Estatuan eta Nafarroan “Industria estraktiboa” ageri da oso maskulinizaturiko



lan adar bezala, 10 langiletik bat inguru emakumeak izaki (Espainiar Estatuan % 9.3a eta Nafarroan %15a).

- *Integraturiko aktibitate adarrei dagokienez*

Sektore ekonomikoetan ez bezala, aktibitate adarkako analisisan lan eremu integratuak daude. Euskal AEn 11 aktibitate adarreratik lau integratuak dira, eta bat mugan aurkitzen da. Nafarroan, aldiz, bakarra ageri da integratu bezala, eta bat mugan aurkitzen da. Espainiar Estatuan berriz, 21 aktibitate adarretatik hiru ageri dira integratu bezala eta bi mugan daude.

3.taula: Aktibitate adarka emakumeen presentzia (okupazio tasa, %) 2018. urteko 2.lauhilekoa, Euskal AEn eta Nafarroa

	Euskal AE	Nafarroa
Nekazaritza	21,3	19,0
Industria estraktiboak; energia, elektriko, gas, bapore, aire girotuaren hornikuntza; uraren hornikuntza, saneamendu aktibitateak, hondakinen gestioa eta deskontaminazioa	42,0	15,4
Manufakturazko industria	24,7	25,1
Eraikuntza	10,7	14,8
Komertzioa, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa, garraioa eta biltegiatzea, ostalaritza	49,7	52,8
Informazioa eta komunikazioa	44,1	37,8
Aktibitate finantzario eta aseguruak	57,5	78,3
Higiezin aktibitateak orekan	48,6	100,0
Aktibitate profesional, zientifiko eta teknikoak; Administrazio aktibitateak eta laguntzaile zerbitzuak	52,5	49,6
Administrazio publikoa eta defentsa, Derrigorrezko gizarte-segurantza; hezkuntza, osasun aktibitateak eta zerbitzu sozialak	67,2	68,3
Dibertimendu eta entretenimenduzko aktibitateak; Etxeko langileak, ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten etxeak, Erakundeen aktibitateak eta lurraldez kanpoko aktibitateak	76,6	86,8

Iturria: norberak egina, Ine, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

4. taula: Aktibitate adarka emakumeen presentzia (okupazio tasa, %) 2018. urteko 2.lauhilekoa, Espainiar Estatuak

	Emakume okupatuak % aktibitate adarka
Nekazaritza, abeltzantza, basogintza eta arrantza	24,1
Industria estraktiboak	9,3
Manufakturazko industria	26,7
Energia elektriko, ura, bapore eta aire egokituaren hornikuntza	27,7
Ura, saneamendu aktibitate, hondakinen gestioa eta deskontaminazioa	17,6
Eraikuntza	8,8
Komertzioa, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	49,5
Garraioa eta biltegiak	18,3
Ostalaritza	52,9
Informazioa eta komunikazioa	28,4
Aktibitate finantzario eta aseguruak	51,2
Higiezin aktibitateak	55,8
Aktibitate profesional, zientifiko eta teknikoak	48,8
Administrazio aktibitateak eta laguntza zerbitzuak	56,6
Administrazio publikoa eta defentsa, gizarte-segurantza behartua	41,4
Hezkuntza	67,3
Osasun aktibitateak eta zerbitzu sozialak	77,3
Aktibitate artistikoak eta dibertimenduzkoak	40,9
Bestelako zerbitzuak	67,3
Etxeko langileak, ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten etxeak	88,9
Erakunde aktibitateak eta lurraldez kanpoko aktibitateak	31,6

Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta

## **b. Bilakaera**

Jarraian azken hamarkadetan lan merkatuan genero bidezko segregazio horizontalean bilakaerarik izan ote den aztertuko da. Azterketa bi mailatan burutuko da. Batetik sektore ekonomikoen azterketa egingen da, eta bestetik aktibitate adarrena.

Sektore ekonomikoen azterketari dagokionez, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuko datuak nomenklatura berdinean jasoak daude Biztanlaria aktiboaren inkestako datu basean (Instituto Nacional de Estadística). Denbora epe berdina jasotzea ahalbidetzen duten datuak ere ageri dira. Ondorioz, sektore ekonomikoei begirako azterketa bateratua egingo da 1997 eta 2017ko datuak jorratuz.

Aktibitate adarrei dagokienez, Euskal AEn eta Nafarroako datuak nomenklatura berdinetan jasoak daude, eta Espainiar Estatukoak beste batean. Gainera, denbora bilakaera ezberdinari erreferentzia egiten diete datuek. Euskal AE eta Nafarroa mailako datuak 2008-2017 bitartean kokatzen dira eta Espainiar Estatukoak 1990-2017 bitartean. Ondorioz, datuen azterketa bi pausotan egingen da. Lehenik Euskal AE eta Nafarroako datuak aurkeztuko dira eta ondotik Espainiar Estatukoak.


Sektore ekonomiko eta aktibitate adarren genero tipifikazioaren azterketa bakoitza aurkeztu aurretik, aztergai izanen den denboraldi bakoitzean lan merkatuan emakumeen presentziaren bilakaera nolakoa izan den erakusten duten datuak aurkeztuko dira.

Sektore ekonomikoen genero tipifikazioaren bilakaera Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuan

- **1997-2017 artean emakume okupatuen bilakaera**


1997 eta 2017 artean emakume okupatuen kopuruak gora egin du lan merkatuan. Gorakada Euskal AE, Nafarroa zein Espainiar Estatuan gertatu da. Euskal Aeri dagokionez, 1997-2011 bitartean emakume okupatu kopuruaren goranzko joera etengabea izan dela erakusten dute datuek. 1997an Euskal AEen 265600 mila emakume okupatu izatetik 2011an 440700 mila izatera pasa dira. 2011. urtetik aurrera emakume okupatuen beherakada ageri da eta 2014ra arte mantentzen da beheranzko joera. 2015 urtetik aurrera, bilakaera berriz positiboa bilakatzen da, 2017an 417000 emakume okupatu izatera helduz. Nafarroan, 1997an, 66300 emakume okupatu izatetik 2017an 125200 izatera heldu dira. Halere, 2009tik aurrera emakume okupatuen gorakadan moteltze bat izan dela erakusten dute datuek. Espainiar Estatuari dagokionez, 1997-2008 urteen artean emakume okupatuen kopuruaren goranzko joera etengabea izan da. 1997an 4.571.000 emakume okupatu izatetik 2008an 8.605,900 izatera iritsi dira. Ondotik, 2009tik 2014ra arte goranzko joera gelditu da, eta emakume okupatuen kopurua txikitzen joan da, 7,785,000 izatera helduz. 2015etik aurrera emakume okupatuen bilakaera positiboa bilakatzen da berriz, 2017an 8,389,800 izatera iritsiz.

1.Grafikoa



Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

2.Grafikoa



Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

1997tik 2017ra Euskal AE, Nafarroa zein Espainiar Estatuan emakumeak lan merkatuan lekua hartzen joan direla erakusten dute datuek. Izan ere, emakume okupatuaren kopuruaren handitzea ez da zenbaki absolututan soilik gertatu. 1997an emakumeak okupatuaren % 36.4a, %35a eta %35.1 izatetik, 2017an okupatuaren %46.8, %44.7 eta %45.5 izatera heldu dira, hurrenez hurren (6.taula). Okupatu kopuruaren gorakada bereziki emakumeen kolektiboan gertatu den goranzko joera izan da beraz.

- **Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuko emaitzak**

Azken hogeitun urteetan Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuan emakumeen presentzia zerbitzuen sektorean, sektore industrialean eta eraikuntzan handitu da (5.taula). Nafarroaren kasuan nekazaritzan ere ikusi daiteke emakumeen presentziaren gorakada. Alabaina, datu hauek 1997-2017 bitartean emakumeek lan merkatuan izan duten presentziaren bilakaeraren arabera irakurri eta interpretatu behar dira, sektore ekonomikoen genero tipifikazioan ahultzea, mantentzea edota sakontzea izan den zehaztu ahal izateko. Ondorioz Hakim-en (1993) distribuzio indizearen arabera irakurketa egingen da. 6.taulan ikusi daiteke urte bakoitzari dagokion indizea lanbide bat maskulino, femenino ala integratu bezala ezaugarritzeko (%10ko laukiko ehunekoa baino altuagoa bada emakumeen presentzia sektorean, sektore femenino bezala ezaugarrituko da; %10 laukiko ehunekoa baino apalagoa bada emakumeen presentzia sektorean, sektore maskulino bezala ezaugarrituko da, ehunekoa bien tartean kokatzen bada emakumeen presentziaren ehunekoa sektore integratu bezala ezaugarrituko da).

Sektore maskulinizatuei dagokionez, enplegu gehien biltzen dituen industria sektorean 1997tik 2008ra hiru administrazioetan emakumeen presentziaren igoera izan dela erakusten dute datuek. Alabaina, emakumeen okupazioak ez du bilakaera positiboa izaten segitu azken hamarkadan, eta emakumeen okupazio tasa Euskal AEn %20, Nafarroan %24 eta Espainiar Estatuan %25 inguruan mantendu da 2008-2017 urteen artean. Hiru administrazioetako lan merkatuan emakumeen presentziaren handitzea industrian 1997tik izan dena baino handiagoa izan den heinean, industria sektorearen genero tipifikazio maskulinoan sakontzea gertatu da.

Eraikuntzako sektorean enplegatutako emakumeen presentzia handitzen joan den arren, emakumeak ez dira %10ko langa gainditzera iritsi hiru lurraldetan.

Industriaren kasuan bezala, emakumeen presentzia handitu arren, azken hogei urteetan lan sektorearen genero tipifikazio maskulinoan sakontzea eman da, lan merkatuan emakumeek izan duten presentziaren gorakada dela eta. Halere, eraikuntza bereziki maskulinizaturiko sektorea izanik, kualitatiboki baloratzekoa da emakumeak hiru administrazioetan 1997an %5 baino gutxiago izatetik 2017an ia %10 izatera iritsi izana.

Nekazaritza sektoreari dagokionez, Euskal AE eta Espainiar Estatuan emakumeen presentziaren bilakaera antzekoa izan dela ageri da. Izan ere, 1997tik 2008ra emakumeen presentziaren gorakada izan da, 1997an Euskal AEn %30.1 eta Espainiar Estatuan %25.7 izatetik 2008an %33.5a eta %26.9a izatera iritsiz, hurrenez hurren. Ondotik, 2008tik 2017ra bilakaera negatiboa izan dela ageri da, 2017an Euskal AEn %24.2 eta Espainiar Estatuan %23.8a izatera iraganaz. Ondorioz, 1997tik 2017ra nekazaritzan emakumeen ehunekoa apaldu da. Honakoa, lan merkatuan emakumeen presentziaren gorakada aintzat hartzearekin batera, bi administrazio hauetan nekazaritza sektorearen genero tipifikazio maskulinoan sakontze nabarmena izan dela ondoriozta daiteke. Nafarroari dagokionez, Euskal AE eta Espainiar Estatuan baino sektore maskulinoago bezala ageri da nekazaritza. Nafarroan 1997tik 2017 bitartean nekazaritzan emakumeen presentziaren gorakada konstantea izan dela ageri da, %12.5a izatetik %19.8a izatera igaroz. Kualitatiboki baloratzeko gorakada den arren, lan merkatuan emakumeek izan duten presentziaren gorakada baino apalagoa da nekazaritzan 1997 eta 2017 urteen artean izan dena. Izan ere, lan merkatuan okupatuak diren pertsonetatik emakumeak 1997an %35a izatetik 2017an %44.7a izatera igaro dira.

Sektore feminizatuari dagokionez, hau da, zerbitzuetako sektoreari dagokionez, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuan 1997tik 2008ra emakumeak sektorean pisua hartzen joan dira, %51.4a, %52.7a eta %45.6a izatetik %57.4a, %59a eta %53.6a izatera igaroz, hurrenez hurren. 2008tik 2017ra ez da aldaketatik ageri, eta proportzio hauek mantentzen dira. Datu hauek sektorearen genero tipifikazioan izan duten eragina jakiteko, distribuzio indizean oinarrituriko irakurketa egin da. Hain zuzen, 1997tik 2017ra emakumeek lan merkatuan pisua hartu dute Euskal AEn %36.4a izatetik %46.8ra izatera igaroz, Nafarroan %35a izatetik %44.7a izatera, eta Espainiar Estatuan %35.1a izatetik % 45.5a izatera. Beraz, 1997tik 2008ra proportzionalki emakume

gehiago egon arren zerbitzuen sektorean, distribuzio indizeari jarraiki ez da genero tipifikazioan sakontzerik eman. Ondotik, 2008tik 2017 urteen artean, emakumeak sektorean ehuneko berdintsuan mantendu direla kontuan izanik, eta lan merkatuan emakumeak 2017 leku gehiago dutela aintzat harturik, sektorearen genero tipifikazioan ahultze txiki bat eman da. Zerbitzuen sektoreak, beraz, 1997 urtearekin alderatuta, genero tipifikazio txikiagoa dauka, joera feminizatua izaten segitzearena bada ere.

5. taula: Sektore ekonomikoka emakume okupatuen bilakaeraren ehunekoa. Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatua. 1997, 2008 eta 2017 urteak

	1997	2008	2017
<b>Industria</b>			
Euskal AE	14,5	19,9	20,7
Nafarroa	19,9	24,3	23,7
Espainiar Estatua	21,9	24,6	25,0
<b>Nekazaritza</b>			
Euskal AE	30,1	33,5	24,2
Nafarroa	12,5	17,9	19,8
Espainiar Estatua	25,7	26,9	23,8
<b>Eraikuntza</b>			
Euskal AE	2,7	5,3	9,4
Nafarroa	5	11,3	9,4
Espainiar Estatua	3,7	7,2	8,8
<b>Zerbitzuak</b>			
Euskal AE	51,4	57,4	58,5
Nafarroa	52,7	59	58,1
Espainiar Estatua	45,6	53,6	53,4

Iturria: Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.



6. taula: Distribuzio indizea (Hakim,1993), interpretaziorako erreferentziazko ehunekoak

	1997	2008	2017
<b>Euskal AE</b>			
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	36,4	43,3	46,8
%10 gora	40,1	47,7	51,4
%10 behera	32,8	39,0	42,1
<b>Nafarroa</b>			
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	35,0	42,2	44,7
%10 gora	38,5	46,4	49,2
%10 behera	31,5	38,0	40,3
<b>Espainiar Estatua</b>			
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	35,1	42,3	45,5
%10 gora	38,6	46,6	50
%10 behera	31,6	38,1	40,9

Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta

- Eraitzen laburpena: sektore ekonomikoen genero tipifikazioaren bilakaera (1997-2017)

Azken hamarkadetan izan den bilakaeran mugimendu batzuk izan arren, lan merkatuko segregazioa mantentzen da. Administrazioen arabera sektore ekonomikoetan emakumeen presentzia ezberdina izan arren, azken hogeituroteetako joera berdintsua ageri da hiru administrazioetan. Ondorioz, azken hogeituroteetako bilakaeran sektoreen genero tipifikazioan mugimendu batzuk ikusi ahal izan diren arren, ez da sektoreen genero tipifikazioan joera aldaketarik ageri. Sektore ekonomikoetako genero distribuzioak gizon eta emakumeen orekatik oso urrun kokatzen segitzen dute.

### Aktibitate adarren genero tipifikazioaren analisia


Aktibitate adarka izan den bilakaerari dagokionez, lehenik 2008-2017 bitarteko Euskal AE eta Nafarroako datuak aurkeztuko dira. Ondotik, Espainiar Estatuari erreferentzia egiten dioten datuak azalduko dira, 1990-2017 bitarteko datuak izanik.

- **Euskal AE eta Nafarroako aktibitate adarren genero tipifikazioaren bilakaera**

#### **2008-2017 artean emakume okupatuaren bilakaera**

2008-2017 urteen artean Hego Euskal Herrian emakume okupatuaren kopuruaren bilakaera ez da positiboa izan (3.grafikoa). Euskal AEn 2008tik 2014 bitartean emakume okupatuaren kopuru absolutua txikitzen joan dela erakusten dute datuek, 428.400 izatetik 425000 izatera pasaz. 2015tik aurrera emakume okupatuaren kopurua handitzen da, 2017an 417 000 izatera helduz. Nafarroari dagokionez, emakume okupatuaren bilakaera gora-beheratsuagoa da. Nafarroan 2008tik aurrera emakume okupatuaren kopurua txikitzen doa (2011 izan ezik), 2013an kopuru apalena izatera helduz, 402500 emakume okupaturekin. 2014tik aurrera goranzko joera ageri da 2017an 125200 mila okupatu izatera iritsiz. Euskal AE zein Nafarroan, 2017an, ez da emakume okupatuaren kopurua 2008ko mailara iristen.

3.grafikoa



Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

2008 eta 2017ko urteak erreferentziatzat harturik emakume okupatuen kopurua apaldu bada ere, lan merkatuan emakumeek proportzionalki lekua irabazi dute gizonen ondoan. Izan ere, Euskal AEn, 2008an, lan merkatuan okupatuak diren pertsonen %43.3 baziren emakumeak 2017an % 46.8a dira. Nafarroan 2008an lan merkatuan okupatuak ziren pertsonen %42.2 ziren emakumeak, eta 2017an %44.7a (7.taula). Gizonezkoek izandako okupatuen galera emakumeena baino handiagoa izan da beraz. Hain zuzen, Euskal AEn, 2008an, gizon okupatuen kopurua 576.100 izatetik, 2017an 477.400 izatera jautsi da; eta, Nafarroan, 2008an, 170.400 izatetik 2017an 150.900ra.

Jarraian, Euskal AE eta Nafarroan 2018-2017 urteen artean aktibitate adarretan izan den genero tipifikazioaren bilakaeraren aztertuko da. Aktibitate adarren genero tipifikazioan izan den bilakaera Hakim-en (1993) distribuzio indizea oinarri izanda egingo da.

### **Euskal AE-ko emaitzak**

*-Maskulinizatutako aktibitate adarrei dagokienez (begiratu eranskinetan 4. grafikoa)*

“Eraikuntzan” zein “informazioa eta komunikazioan” proportzionalki emakumeen presentziaren igoera eman da, 2008an %5.4 izatetik 2017an %9.4a izatera iritsiz. Igoera hau, alabaina, lan merkatuan emakumeen presentzia proportzionalaren handitzearen parekoa da, orohar. Hala, aktibitate adar honen genero tipifikazioan aldaera gutxi egon dela ondorioztatzen da.

“Industria estratiboko” aktibitate adarrean gora behera aunitz izan dira azken 10 urteetan. Emakumeen presentziaren apaltzarekin bukatu da 2008 eta 2017 urteen arteko bilakaera, %20tik %15era iraganaz. “Nekazaritzan” ere emakumeen presentziaren bilakaera negatiboa izan da, 2008an %34 izatetik 2017an %24 izatera iraganaz. Honakoari, lan merkatuan emakumeek lekua irabazi dutela erantsiz, lan adar hauen maskulinizazioan sakontzea eman dela ondoriozta daiteke. “Manufakturazko industriako” lan adarrean emakumeen presentzia proportzionalki mantendu da %20 inguruan, lanbidearen maskulinizazioan sakontzea ekarriz.

“Informazioa eta komunikazioan” proportzionalki emakumeen presentziaren igoera eman da, 2008an %34.6a izatetik 2017an %40.3a izatera iraganaz. Igoera hau,

alabaina, lan merkatuan emakumeen presentziaren handitzearen antzekoa da, oro har. Aktibitate adar honen genero tipifikazioan aldaera gutxi egon dela ondorioztatzen da.

*-Femenizatutako aktibitate adarrei dagokienez (begiratu eranskinetan 4. grafikoa)*

“Aktibitate artistikoak eta entretenimendukoak” oso aktibitate adar femeninoa izaten segitu duen arren, emakumeak okupatuen %82 izatetik %76 izatera iragan dira. Honakoari lan merkatuan emakumeen presentzia proportzionala handiagoa dela erantsiaz, genero tipifikazioan indarra galdu duen aktibitate adarra dela ondorioztatzen da. “Administrazio publikoaren” aktibitate adarrean, emakumeek %68a izaten segitu dute azken 10 urteetan, eta oso femeninoa izaten segitu arren, genero tipifikazio femeninoan indar pixka bat galdu du. “Aktibitate profesional eta zientifiko eta teknikoak” aktibitate adarra femeninoa izatetik ia integratu izatera iritsi da, 2008an aktibitatean okupatuen %53.1a izatetik 2017an %51.7a izatera igaroz.

“Komertzioaren” aktibitatean ez da aldaerarik ageri genero tipifikazioan, 2008an %47.7a izatetik 2017an %48.9 izatera iragan baitira emakumeak. “Aktibitate finantzario eta aseguruaren” aktibitatea, gora behera handiekin bada ere, azken hamar urteetan feminizatu da, emakumeak %49.8 izatetik %55.9 izatera iraganaz.

“Higiezinaren aktibitateari” dagokionez, 2008. urtean oso feminizaturiko aktibitate adarra zen, okupatuen %58.3a emakumeak izanda. Gora behera izugarri handiekin, maskulinizatutako aktibitate adar bezala bukatzen du hamarkada, okupatuen %40.9a emakumeak izanda.

## Nafarroako emaitzak

- *Maskulinizatutako aktibitate adarrei dagokienez (begiratu eranskinetan 5. grafikoa)*

“Nekazaritza” eta “industria estratiboen” lan adarretan emakumeak %18tik %19.5a eta %24.2tik %26.7a izatera igaro badira ere, lan merkatuan emakumeek enpleguan okupatzen duten ehunekoaren handitzea aintzat hartuz, aktibitate adar hauen genero tipifikazioan ez da eraldaketa handirik izan, eta 2008an bezain maskulinoak izaten jarraitu zuten 2017.urtean.

“Eraikuntzan” gora behera asko izan da azken hamarkadan, eta aktibitatea 2008an baino maskulinoagoa izan zen 2017an, emakumeak %11.3 izatetik %9.4 izatera iragan baitira. “Manufakturazko industria” ere 2008an zena baino maskulinoagoa zen 2017an, %24.2tik %23.5 izatera iragan baitira emakumeak. Lan merkatuan emakumeek enplegu orokorrean okupatzen duten ehunekoaren handitzea aintzat hartuz, azken hamarkadan, bi aktibitate adar hauen tipifikazio maskulinoan sakontze bat eman dela ondorioztatzen da. “Informazioa eta komunikazioaren” lan adarrean intentsitate handiagoarekin aktibitatearen maskulinizazioan sakondu da, emakumeak 2008. urtean %31.6a izatetik 2017an %23.7a izatera iraganaz.

- *Femenizatutako lan adarrei dagokienez (begiratu eranskinetan 5. grafikoa)*

“Aktibitate artistiko eta dibertimenduzkoak”, femenizatuena den aktibitatea, emakumeak 2008an %77a izatetik 2017an %79.7a izatera iragan dira, eta emakumeek enplegu orokorrean okupatzen duten ehunekoaren handitze maila aintzat harturik, aktibitate adarrak maila berdineko femenizazioa izaten segitzen du.

“Administrazio publikoaren” lan adarrari dagokionez, emakumeak 2008an %66.8a izatetik 2017an %63.5 izatera igaro dira. Emakumeek enplegu orokorrean leku gehiago dutela kontuan hartuz, (lan adarrak femeninoa izaten segitu arren), genero tipifikazioan indarra galdu duela ondorioztatzen da.

“Aktibitate finantzario eta seguruen” aktibitate adarrean gora behera aunitz izan badira ere, 2008an %51.9 ziren emakume okupatuak, eta 2017an %51.1. Ondorioz, femeninoa izaten jarraitzen duen baina integratua izatetik hurbilago ageri den aktibitate adarra da.

“Aktibitate profesional, zientifikoak eta teknikoak” lan adarra erabat femeninoa izatetik integratua izatera iritsi da. 2008an emakumeak okupatuen %58,6a izatetik 2017an %44.9 izatera igaro dira.

“Komertzioaren” lan adarrean emakumeak 2008an %49.3tik 2017an%54.1 izatera igaro dira. Genero tipifikazioan sakondu duen aktibitatea da.

“Higiezinaren aktibitate” adarrean gora behera handiak izan dira. Hamarkadaren hasiera zein bukaera femenino bezala agertzen da, aktibitatean 2008an okupatuen %57.1a emakumeak izanda, eta 2017an %52.9.

7. taula: Distribuzio indizerako erreferentziazko datuak, 2008-2017, Euskal AE eta Nafarroa

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Euskal AE</b>										
Lan merkatuan emakumeen %	43,3	44,6	44,9	45,9	46,3	46,7	47,1	47,1	47,0	46,8
%10+	47,7	49,1	49,4	50,5	51,0	51,4	51,8	51,9	51,6	51,4
%10-	39,0	40,2	40,4	41,3	41,7	42,0	42,4	42,4	42,3	42,1
<b>Nafarroa</b>										
Lan merkatuan emakumeen %	42,2	42,8	44,0	44,9	45,7	44,6	45,6	45,5	45,6	44,7
%10+	46,4	47,0	48,4	49,4	50,3	49,1	50,2	50,0	50,2	49,2
%10-	38,0	38,5	39,6	40,4	41,1	40,2	41,1	40,9	41,1	40,3

Iturria: norberak egina, Ine, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

- Emaitzen laburpena: Euskal AE eta Nafarroan aktibitate adarren genero tipifikazioaren bilakaera (2008-2017)


Euskal AE eta Nafarroan 2008tik 2017ra izan den bilakaerari dagokionez, orokorrean aktibitate adar maskulinoek maskulinizazioan sakontzeko joera hartu dutela ikusten da. Aktibitate femeninoei dagokienez, genero tipifikazio femeninoaren mantentzea nagusitzen da. Halere, kasu batzuetan integratuagoak bilakatzearen aldeko joera ageri da. Honakoa bereziki “aktibitate profesional, zientifikoak eta teknikoaren aktibitatean” atzeman da.

- **Espainiar Estatuan aktibitate adarren genero tipifikazioaren bilakaera**

**1990-2017 artean emakume okupatuaren bilakaera**

Espainiar Estatuan 1990-2017 urteen artean jasotako datuek emakumeen kopurua lan merkatuan handitzen joan dela erakusten dute (6. grafikoa). 1990etik emakume okupatuaren kopuruaren handitzea ez da zenbaki absolututan soilik gertatu, 1990ean lan merkatuan okupatuaren % 31.1a izatetik 2004an %38.9a eta 2017an %45.5a izatera iritsi baitira (8. taula). Lan merkatuan 1990etik 2017 bitartera emakumeek gizonen ondoan lekua irabazi dute beraz.

6.grafikoa



Iturria: norberak egina, Ine, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

**Espainiar Estatuko emaitzak**

Jarraian, Espainiar estatuan 1990-2004 eta 2018-2017 urteen artean aktibitate adarretan izan den genero tipifikazioaren bilakaera aztertuko da (begiratu eranskinetan 7 eta 8. grafikoak), diskurtzio indizea oinarri harturik (begiratu 8. taula). Denbora tarte bakoitzean, aktibitate adar batzuetan nomenklatura ezberdina erabili da. Gainera, 2008-2017ko datuetan 1990-2004ko datuetan baino aktibitate adar gehiagori egiten zaie erreferentzia. Honakoa kontuan harturik, 1990-2004 eta 2018-2017 urteetan izen berdina duten aktibitate adarren irakurketa komuna egingen da; 1990-2004 eta 2018-2017 urteetan nomenklaturan antza duten aktibitate adarrak bata

bestearen ondoan aurkeztuko dira; 2018-2017an soilik ageri diren aktibitate adarren aparteko irakurketa egingo da.

- *Aktibitate maskulinizatuei dagokionez*

1990an okupazio aktibitate adar maskulinizatuen bezala “industria estraktiboa”, “eraikuntza” eta “arrantza” ageri dira.

“Industria estraktiboaren” kasuan emakumeek aktibitate adarrean duten ehunekoa handitu dela ikusi daiteke 1990tik 2004ra, %1a izatetik % 8.5a izatera helduz. Ondotik, bilakaera negatiboa bilakatzen da, 2017an %6a izatera jautsiz. Enplegu orokorrean emakumeen okupazioak izan duen bilakaera positiboa aintzat harturik, oso maskulinoa izaten jarraitzen duen aktibitate adarra da. Halere, kualitatiboki aldaketa bat eman dela erakusten dute datuek.

“Eraikuntzari” dagokionez, 1990an emakumeek aktibitate adarrean okupatuak %3a ziren, 2004an %5.7a eta 2017an %8.8a. Enplegu orokorrean emakumeen presentziaren handitzea kontuan hartuz, distribuzio indizeari jarriki genero tipifikazioan arintzerik izan ez duen aktibitate adarra da, 1990ean bezain maskulinoa izaten segituz 2017an. Halere, kualitatiboki aldaketa bat izan dela erakusten dute datuek.

Arrantzaren eta nekazaritza, abeltzantza eta ehizaren kasuan ezin daiteke bilakaeraren irakurketa zehatzik egin nomenklatura aldatu baita 1990-2004 eta 2008-2017 urteen artean. “Arrantzak” 1990-2004 urteen artean izan duen bilakaeran emakumeek %3a izatetik %6a izatera iragan dira. Garai berdinean, “nekazaritza, abeltzantza eta ehiza” %29 inguruan mantendu da emakume okupatuak ehunekoa. Emakumeek enplegu orokorrean lekua hartu dutela aintzat harturik, “arrantza” aktibitatearen genero tipifikazioa mantendu da, eta “nekazaritza, abeltzantza eta ehiza” maskulinizatu. 2008tik 2017 arteko nomenklaturan bi aktibitate adar hauen elkartzea eman zen, “nekazaritza, abeltzantza eta arrantza” izena hartuz. “Nekazaritza, abeltzantza eta arrantza” barne hartzen diren nomenklatura berri honetan emakumeen presentziaren apaltzea nabarmena da, 2017an %2 baitziren aktibitatean okupaturiko emakumeek.

“Ur, gas eta energia elektrikoaren banaketa” aktibitate adarrari dagokionez, 1990ean emakumeek %8.3a izatetik, 2004an %17.3 izatera iragan ziren. Ondorioz, “ur,



gas eta energia elektrikoaren” aktibitateak 2004 urtera arte genero tipifikazioan indarra galdu du. 2008-2017 artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “ Ur, gas eta energia elektrikoaren banaketa” izena zuen aktibitate adarra ez da gehiago bere horretan ageri. Aldiz, 2008-2017 artean aktibitate berdintsuak barne hartzen dituen “energia elektriko, gasa, bapore, eta aire egokituaren hornikuntzan” aktibitate adarra ageri da. Aktibitate adar berri honetan 2008-2017 urteen artean gora beherak ageri diren arren, emakumeak 2008an eta 2017an okupatuena %20a ziren. 2008tik 2017ra, emakumeek lan merkatuan lekua hartu dutela aintzat harturik, maila apal batean bada ere maskulinizatu den aktibitate adarra da. Halere, aktibitate adarrean gora-beherak izan direla kontuan izanik zaila da genero tipifikazioan sakontzeaz aritzea. Bi aktibitate adar hauen irakurketa elkartua eginez gero, 1990tik 2017ra aktibitate adarrean proportzionalki emakumeen presentzia handitu dela erakusten dute datuek, emakumeak 1990an %8,3a izatetik 2017an %20a izatera igaro baitira. Halere, datuak emakumeen lan merkaturatzea kontuan hartuz irakurri ezker, distribuzio indizeari jarraiki, 1990eko maskulinizazio maila beretsua izaten segitzen duen aktibitatea da.

“Garraioa, biltegiatzea eta komunikazioa” aktibitate adarrean emakumeak 1990ean %13a izatetik 2004an %21.2 izatera igaro ziren. Distribuzio indizeari jarraiki feminizatu den aktibitate adarra da. 2008-2017 urteen artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “ garraioa, biltegiatzea eta komunikazioa” izena zuen aktibitate adarra ez da gehiago bere horretan ageri. Aldiz, 2008-2017 artean aktibitate berdintsuak barne hartzen dituen “garraioa eta komunikazioa” aktibitate adarra ageri da. “Garraioa eta komunikazioan” 2008-2017 urteen artean emakumeak okupatuena %19 inguruan mantentzen dira. Distribuzio indizeari jarraiki, lan merkatuan emakumeen presentzia handitu den heinean, maila apal batean bada ere genero tipifikazioan sakondu duen aktibitate adarra da. Bi aktibitate adar hauen irakurketa elkartua eginez gero, 1990tik 2017ra aktibitate adarrean proportzionalki emakumeen presentzia handitu dela erakusten dute datuek, emakumeak 1990an %13a izatetik 2017an %19 izatera igaro baitira. Halere, datuak emakumeen lan merkaturatzea kontuan hartuz irakurri ezker, distribuzio indizeari jarraiki 2017an 1990an baino maskulinizatugoa den aktibitate adarra da.

“Manufakturazko industrian”, 1990tik 2004ra emakumeek aktibitate adarrean duten okupazioaren ehunekoa %22.2koa izatetik %25.3koa izatera iragaten da. 2008-2017ko datuen emakumeen ehunekoa %25 inguruan mantentzen da. Emakumeen presentzia enplegu orokorrean handitu dela aintzat harturik, urteak aurrera joan ahala maskulinizatu den aktibitate adarra da manufakturazko industria.

- *Aktibitate feminizatuei dagokienez*

“Etxeko langileak enplegatzen dituzten familiak” aktibitate adarrari dagokionez, 1990-2004 urteen artean okupatuena %89a emakumeak ziren eta beraz, distribuzio indizeari jarraiki aktibitatearen genero tipifikazioan arintzea gertatu da. 2008-2017 artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “etxeko langileak enplegatzen dituzten familiak” izena zuen aktibitate adarra ez da gehiago bere horretan ageri. Aldiz, 2008-2017 artean aktibitate berdintsuak barne hartzen dituen “etxeko langileak enplegatzen dituzten familiak, norberaren erabilerarako ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten etxeak” aktibitate adarra ageri da. 2008-2017 artean “etxeko langileak enplegatzen dituzten familiak, norberaren erabilerarako ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten etxeak” nomenklaturen baitan ez da bilakaera handirik ageri eta 2017an okupatuena %88a emakumezkoak zirela ikusi daiteke. Ondorioz, distribuzio indizeari jarraiki, maila apala batean bada ere, 2008-2017 urteen artean aktibitatearen genero tipifikazioa arindu da. Bi aktibitate adar hauen irakurketa elkartua eginez gero, 1990etik 2017ra aktibitate adarrean proportzionalki emakumeen presentzia mantendu dela erakusten dute datuek, emakumeak %88 inguruan mantenduz. Datuak emakumeen lan merkaturatzea kontuan hartuz irakurri ezker, distribuzio indizeari jarraiki 2017an 1990an baino genero tipifikazio ahulagoa duen aktibitate adarra da, nahiz eta bereziki feminizatua izaten segitzen duen aktibitate den.

“Osasun eta albaitaritza aktibitateak, eta zerbitzu sozialak” adarrean, emakumeak 1990ean okupatuena %65.8a izatetik 2004an %73.7 izatera iragan ziren, distribuzio indizeari jarraiki genero tipifikazioan aldaerarik izan gabe. 2008-2017 urteen artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “osasun eta albaitaritza aktibitateak, eta zerbitzu sozialak” izena zuen aktibitate adarra ez da gehiago bere horretan ageri. Aldiz, 2008-2017 artean aktibitate berdintsuak barne

hartzen dituen “osasun aktibitateak eta zerbitzu sozialak” aktibitate adarra ageri da. 2008-2017an “osasun aktibitateak eta zerbitzu sozialak” nomenklaturaren baitan emakumeak aktibitate adarrean okupatuena %77 inguruan mantentzen dira hamarkada guzian. Ondorioz, distribuzio indizeari jarraiki 2008-2017 urteen artean apala bada ere aktibitatean genero tipifikazioa arindu da. Bi aktibitate adar hauen irakurketa elkartua eginez gero okupazio adarraren genero tipifikazioan ez da aldaera handirik ageri, eta bietan oso femenizatua mantentzen da.

“Bestelako aktibitate sozialak eta komunitatearekiko zerbitzuak” aktibitate adarrean, emakumeak 1990ean okupatuena %41.8a izatetik 2004an %52.4a izatera igaro ziren. Distribuzio indizeari jarraiki 1990-2004 artean ez da aktibitate adarrean genero tipifikazioan aldaerarik ageri. 2008-2017 urteen artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “bestelako aktibitate sozialak eta komunitatearekiko zerbitzuak” izena zuen aktibitate adarra ez da gehiago bere horretan ageri. Aldiz, 2008-2017 urteen artean aktibitate berdintsuak barne hartzen dituen “bestelako zerbitzuak” adarra ageri da. “Bestelako zerbitzuak” aktibitate adarrean 2008an emakumeak okupatuena %68.5a izatetik 2017an %65.6a izatera igaro ziren. Distribuzio indizeari oinarrituz, aktibitatearen genero tipifikazioaren ahultzea ematen da 2008-2017 urteen artean. Bi aktibitate adarren irakurketa elkartua eginez gero, azken hamarkadan genero tipifikazioan arintzea eman arren, oso femenizatua den aktibitate adarra dela ikusi daiteke.

“Hezkuntza” aktibitate adarrean, emakumeak 1990 okupatuena %60.9a ziren, 2004an %65.2a eta 2017an %67a. Oso femenizatua izaten segitzen duen aktibitate adarra den arren, emakumeek lan merkatuan lekua hartu dutela aintzat harturik, 1990tik genero tipifikazioan indarra galdu duela erakusten dute datuek.

“Higiezinaren aktibitateak eta enpresa zerbitzuen alokairua” aktibitate adarrean emakumeak 1990an %41.1a izatetik %49.9 izatera igaro dira 2004an. Distribuzio indizeari jarraiki 1990-2004 urteen artean ez da aktibitatearen genero tipifikazioan aldaerarik ageri. 2008-2017 urteen artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “higiezinaren aktibitateak eta enpresa zerbitzuen alokairua” izena zuen aktibitate adarra ez da gehiago bere horretan ageri. Aldiz, 2008-2017 urteen artean aktibitate berdintsuak barne hartzen dituen “higiezinaren aktibitateak” adarra dago. “Higiezinaren aktibitateak” adarrean 2008an emakumeak %50.9a izatetik 2017an

emakumeak %55.7 izatera igaro dira. Distribuzio indizeari jarraiki, 2008-2017 urteen artean aktibitatearen genero tipifikazioan ez da aldaerarik izan. Bi aktibitate adarren irakurketa elkartua eginez gero, joera aldaketarik izan ez duen aktibitate adarra da honakoa. 2017an 1990an bezain femeninoa izaten segitzen du.

“Auto, moto, eta etxeko erabilpenerako gailuen konponketaren komertzioan”, 1990an emakumeak %38a izatetik 2004an %46.5a izatera igaro dira. 2008-2017 urteen artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “auto, moto, eta etxeko erabilpenerako gailuen konponketaren komertzioan” izena zuen aktibitate adarra ez da gehiago bere horretan ageri. Aldiz, 2008-2017 urteen artean antzeko aktibitateak barne hartzen dituen “komertzioa, auto eta motoen konponketa” aktibitatea dago. 2008-2017 urteen bitartean “komertzioa, auto eta motoen konponketa aktibitate” adarrean emakumeak %50a inguruan mantendu dira hamarkada guzian. Distribuzio indizeari jarraiki, bi aktibitateen irakurketa bateratua eginez, okupazio adarraren genero tipifikazioan arintze argia eman da, femeninoa izatetik integratua izatearen mugan egotera igaroz.

“Ostalaritza” aktibitate adarrean 1990an okupatuen %37.6a ziren emakumeak, 2004an %49 a eta 2017an %53.5a . “Ostalaritza” 1990 eta 2017 urteen artean femenizatu den aktibitate adarra da.

- *Aktibitate adar integratuei dagokienez*

“Administrazio publikoa, defentsa eta gizarte-segurantza behartua” izena duen aktibitate adarrean 1990an emakumeak %30.6a izatetik 2004an %39.7 izatera heldu dira, 2017an %41.5 izatera iritsiz. 1990tik integratua izaten segitzen duen aktibitate adarra da.

- *1990tik 2004/2017 bitartean integratuak bilakatu diren aktibitateei dagokienez*

“Bitartekaritza finantzarioa” aktibitate adarrean emakumeen presentziaren igoera ageri da 1990tik 2004 bitarteko bilakaeran %24a izatetik %36.8a izatera iraganaz emakumeak. Beraz, maskulino izatetik integratua izatera igaro den aktibitate adarra da “bitartekaritza finantzarioa”. 2008-2017 urteen artean nomenklaturan aldaketak izan dira eta 1990-2004 bitartean “bitartekaritza finantzarioa” izena zuen aktibitate adarra ez da bere horretan existitzen. Aldiz, 2008-2017 urteen artean aktibitate berdintsuak barne hartzen dituen “aktibitate finantzario eta aseguruak” aktibitatea ageri da.

“Aktibitate finantzario eta aseguruak” aktibitate adarrean emakumeak 2008an okupatuaren %46,2a izatetik 2017an %48 izatera igaro dira. 2008-2017 artean ez da aktibitatearen genero tipifikazioan genero aldaerarik ageri. Bi aktibitate adarren irakurketa bateratua eginez gero 1990an aktibitate maskulinoa izatetik 1994an integratua izatera igaro den aktibitatea da. 2008-2017 urteen artean integratua izaten segitu arren, joera femenizatzearena da.

1990-2004 urteetan ageri ez diren eta 2008-2017 urteetan soilik erreferentzia egiten zaien aktibitate adarretan izandako bilakaera aurkeztuko da jarraian.

- *Maskulinizaturiko aktibitate adarrei dagokienez*

“Ura, saneamendu aktibitate, hondakinen gestioa eta deskontaminazioa” aktibitate adarrean, 2008an aktibitatean okupatuak ziren %16.2a emakumezkoak ziren, eta 2017an %17.8a. 2008-2017 urteen artean genero tipifikazioan aldaera gutxi izan duen aktibitate adarra da, maskulinoa izaten jarraituaz.

- *Femenizaturiko aktibitate adarrei dagokienez*

“Administrazio aktibitateak eta laguntza zerbitzuak” aktibitate adarrean emakumeak okupatuaren %58.9a izatetik 2008an %54.2a izatera igaro dira 2017an. Genero tipifikazioan indarra galdu duen aktibitate adarra da nahiz eta femeninoa izaten segitzen duen.

- *Aktibitate adar integratuei dagokionez*

“Aktibitate artistiko eta dibertimenduzkoen” aktibitate adarrean gora beherak ageri dira 2008-2017 urteen artean. 2008an %44.5a izatetik %41.5 izatera iragan dira emakumeak. Integratua izaten jarraitzen duen aktibitate adarra da beraz.

“Aktibitate profesional, zientifiko eta teknikoak” adarrean, %48 inguruan mantendu da 2008-2017 urteen artean emakume okupatuaren ehunekoa. Distribuzio indizeari jarraiki, genero tipifikazio femeninoa izatetik integratua izatera igaro da.

- Emaizten laburpena: Espainiar Estatuan aktibitate adarren genero tipifikazioaren bilakaera (1990-2017)

Espainiari estatuan 1990tik 2017 urtera bitartean aktibitate adarrek izan duten bilakaerak lan merkatuan genero bidezko segregazioa mantendu edota areagotu dela erakusten dute. Hakim-en (1993) indizeari jarraiki, 1990ean maskulinizatuen bezala ageri ziren aktibitate adarrek 2017an bere horretan diraute, genero tipifikazioan ahultzerik gertatu gabe. Aktibitate adar baten kasuan izan ezik (“bitartekaritza finantzarioa” aktibitate), 1990ean maskulinoak ziren aktibitate adar guzietan 2017an maskulinoak edo maskulinoagoak izaten jarraitzen dute. Halere, aktibitate adar maskulinoetan kualitatiboki emaniko aldaketak ageri dira. Izan ere, emakumeak lan merkatuan lekua irabazten joan direla aintzat harturik, aktibitate adar maskulinizatuetan emakumeen presentziaren igoerak ez du aktibitate adarren genero tipifikazioan eraldaketarik ekarri. Halere, kualitatiboki baloratzekoa da “industria estraktiboaren” aktibitate adarrean emakumeak 1990ean %1 izatetik 2017an %6 izatera igaro izana edota “ur, gas eta energia elektrikoaren banaketa” aktibitatean emakumeak 1990ean %8.3a izatetik 2017an %20 izatera igaro izana. Aktibitate femenizatuei dagokienez, genero tipifikazioaren arintzea ageri da hainbat aktibitateetan, eta aktibitate adar baten kasuan (“auto, moto, eta etxe erabilpenerako gailuen konponketaren komertzioan”) integratua izatearen muga egotera igaro da. Halere, 1990ean femenino bezala ezaugarritzen ziren aktibitate adar guzietan 2017an femeninoak izaten segitzen dute. Ondorioz, aktibitate adar femeninoen genero tipifikazioan mugimendu gutxi ageri da, oro har.

1990etik 2017 artean aktibitate bakar bat ageri da integratu bezala, hasieratik integratua izanik (“administrazio publikoa, defentsa eta “gizarte-segurantza behartua aktibitate”). 2008-2017 urteetako datuetan berriki ageri diren aktibitate adarretan aniztasun gehiago ageri da, nomenklatura berrian ageri diren 4 aktibitate adar berrietatik 2 integratuak baitira. Halere, 2008-2017ko denboraldiko datuetan fokua jarritz gero, 19 aktibitate adarretatik bakarrik 4 dira integratuak.

Ondorioz, lan adarren genero tipifikazioa azken 27 urtetan mantendu dela erakusten dute datuek, eta emakumeen lan merkaturatzea era oso segregatua burutu dela.

8. taula: Distribuzio indizerako erreferentziako datuak, Espainiar Estatua 1990-2004 urteak eta 2008-2017 urteak

	1990	1991	1992	1993	1994
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	31,1	31,7	32,6	33,1	33,7
%10 gora	34,3	34,9	35,8	36,4	37,1
%10 behera	28,0	28,6	29,3	29,8	30,3
	1995	1996	1997	1998	1999
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	33,9	34,6	35,1	35,2	35,6
%10 gora	37,3	38,0	38,6	38,7	39,1
%10 behera	30,5	31,1	31,6	31,7	32,0
	2000	2001	2002	2003	2004
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	36,5	37,1	37,4	38,0	38,9
%10 gora	40,2	40,9	41,1	41,8	42,8
%10 behera	32,9	33,4	33,6	34,2	35,0
	2008	2009	2010	2011	2012
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	42,3	43,8	44,3	44,9	45,5
%10 gora	46,6	48,2	48,8	49,4	50,1
%10 behera	38,1	39,4	39,9	40,4	41,0
	2013	2014	2015	2016	2017
Enplegu orokorrean emakume okupatuen %	45,6	45,6	45,4	45,5	45,5
%10 gora	50,2	50,1	49,9	50,0	50,0
%10 behera	41,1	41,0	40,8	40,9	40,9

Iturria: norberak egina, Ine, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

### 1.4.1.2 Segregazio bertikala

Jarraian, okupazioei era zuzenean erreferentzia egiten dieten datuak aztertuko dira. Datu hauek okupazioei buruzko genero distribuzioari buruzko irakurketa egitea ahalbidetzeaz gain, segregazio bertikalari buruzko hurbilpena egitea ahalbidetzen dute. Izan ere, okupazioak sailkatzeko erabiltzen den nomenklaturak okupazioen hierarkiari erreferentzia egiten dio. Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuko datuak aurkeztuko dira.

#### a. Egungo egoera

Aurreko ataletan eginen den logika berean, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatu mailan lanbideen genero tipifikazioari buruzko irakurketa Hakim-en (1993) distribuzio indizean oinarrituz burutu da. Okupazioen genero tipifikazioa ezaugarritzeko emakumeek enplegu orokorrean duten ehunekoa erreferentziaz hartuko da. 2018ko bigarren lauhileko okupazioen genero tipifikazioa jorratuko da. Ondorioz, sektore ekonomiko eta aktibitate profesionalen 2018. urteko lanketan erabilitako indize berdinak aintzat hartuko dira (1. taula). Horrela, hauek dira gizon eta emakumeen presentzian desorekarik handienak erakusten dituzten okupazioak (9.taula):

Euskal AERI dagokionez, okupazio feminizatuenen artean aurkitzen dira “oinarrizko okupazioak” eta “enplegatu kontableak, administratiboak eta bulegoko langileak”, %73.8a eta %71.6a emakumeak izanda, hurrenez hurren. Okupazio maskulinizatuen artean berriz, “artisansu, industria mailako langile kualifikatuak eta eraikuntzakoak” daude, okupatuena %7.1a emakumeak izanik. Hau da, 10 langiletik bat bera ere ez da emakumea izatera iristen. “Nekazaritza, abere-industria, oiha eta arrantza” sektoreko lanbide kualifikatuak ere bereziki maskulinizatutako eremu bezala ageri dira, okupatuena %16a emakumeak izanik.

Nafarroari dagokionez, okupazio feminizatuenen artean ageri dira “enplegatu kontableak, administratiboak eta bulegoko langileak” eta “ostalaritza eta salmenta jarduerari loturiko okupazioak”, okupatuena %70a eta %69.3 eta emakumeak direla, hurrenez hurren. Okupazio maskulinizatuenen artean daude “artisansu, industria mailako langile kualifikatuak eta eraikuntzakoak”, %10.6a emakumeak izanda. Ondotik dator “instalazio, makineria eta muntatzaileen” okupazioa, %15.3a emakumeak izanik.



Espainiar Estatuari dagokionez, okupazio femenizatuen artean ageri dira “enplegatu kontableak, administratiboak y bulegoko langileak”, okupatuena %66.8a emakumeak izanik. Ondotik datoz “ostalaritza zerbitzuetako langileak, pertsonalak, babesezkoak eta saltzaileak eta oinarrizko okupazioak”, okupatuena %59.9a emakumeak izaki. Okupazio maskulinizatuen artean ageri dira “artisansuak, industria mailako langile kualifikatuak eta eraikuntzakoak”, okupatuena %8.3a emakumeak izanik. “Instalazioen eta makinariaren antolatzaileak eta muntatzaileak” okupazioan ere oso emakume gutxi dago lanean, okupatuena %13.4a emakumeak izanik.

Muturretako femenizazio eta maskulinizazioetatik at, azpimarragarria da “zuzendaritza eta gerentziako” okupazioa, okupazio maskulinizatu bezala ezaugarritzen dela. Izan ere Euskal AEn okupatuena % 30.9a, Nafarroan % 25.5a eta Espainiar Estatuan % 32.3a dira emakumeak.

9. taula: Okupazioka emakumeen okupazio tasa, 2018 2. lauhilekoa, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatu

	Euskal AE	Nafarroa	Espainiar Estatu
Zuzendari eta gerenteak	30,9	25,5	32,3
Teknikoak eta profesional zientifiko eta intelektualak	61,0	66,2	55,6
Teknikoak; babeserako profesionalak	36,9	38,9	38,5
Enplegatu kontableak, administratiboak y bulegoko langileak	71,6	70,4	66,8
Ostalaritza zerbitzuetako langileak, pertsonalak, babesezkoak eta saltzaileak	64,3	69,3	59,9
Nekazaritza, abere industria, oihan eta arrantza sektoreko langile kualifikatuak	16,0	22,4	20,1
Artisansuak, industria mailako langile kualifikatuak eta eraikuntzakoak	7,1	10,6	8,3
Instalazioen eta makinariaren antolatzaileak eta muntatzaileak	17,3	15,3	13,4
Oinarrizko okupazioak	73,8	63,4	58,2

Iturria: norberak egina, Ine, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

- Emaizten laburpena: Euskal AE-n, Nafarroan eta Espainiar Estatuan okupazioen genero tipifikazioa

Okupazioen araberako analisiak agerian utzi du gizon eta emakumeek okupazio ezberdinetan, bata bestearengatik banandurik lan egiten dutela. Hain zuzen, Euskal AEn, Nafarroa zein Espainiar Estatuan emakumeak bereziki 4 okupaziotan erabat nagusi dira, hiru administrazioetan okupazio berdinak izanik. Zehazki, “enplegatu, kontableak, administratiboak eta bulegoko langileak”, “ostalaritza zerbitzuetako langileak, pertsonalak, babesezkoak eta saltzaileak”, “oinarrizko okupazioak eta teknikoak” eta “profesional zientifiko eta intelektualak” okupaziotan lan egiten dute emakumeek. Gizonak berriz gainontzeko bost okupaziotan gehiengo handia direla erakusten dute datuek. Zehazki, “zuzendari eta gerenteak”, “teknikoak; babeserako profesionalak”, “nekazaritza, abere industria, oihan eta arrantza sektoreko langile kualifikatuak”, “artisauek, industria mailako langile kualifikatuak eta eraikuntzakoak” eta “instalazioen eta makinariaren antolatzaileak eta muntatzaileak” okupazioetan nagusi dira gizonak. Distribuzio indizeari jarraiki, nabarmena da administrazio batean ere ez dela okupazio bat bera ere integratu bezala ezaugarritzen.

#### **b. Bilakaera**


Okupazioen genero tipifikazioan izan den bilakaerari dagokionez, bi motatako datuak daude eskuragarri. Batetik, Euskal AE eta Nafarroa mailan 2011tik 2017 urte arteko bilakaera erakusten duten datuak dauzkagu. Bestetik, Espainiar Estatuari erreferentzia egiten dieten datuak daude. Espainiar Estatuari dagokionez, datuak 1990-2004. urteen bitartekoak dira eta 2008tik 2017 bitartekoak. Euskal AE eta Nafarroa mailan eskuragarri dauden datuekin ezin da denboran zehar izan den bilakaera zabala agerian jarri. Halere, 2011-2017 artean okupazioka emakumeen presentziaren bilakaera aztertuko da jarraian.

- Euskal AE eta Nafarroan okupazioen genero tipifikazioaren bilakaera

2011-2017 artean emakume okupatuen bilakaera

2011-2017 urteen artean Euskal AEko emakume okupatuen kopuruaren bilakaera ez da positiboa izan (9. grafikoa). Izan ere, Euskal AEn 2011 urtetik 2014 urtea bitartean emakume okupatuen kopuru absolutua txikitzen joan dela erakusten dute datuek, 440700 izatetik 402500 izatera pasaz. Ondotik, 2015etik aurrera emakume okupatuen kopurua berreskuratzen hasten den arren 2017an 417 000 izatera helduz, ez da 2011ko mailara izatera iristen. Nafarroari dagokionez, emakume okupatuen bilakaera gora-beheratsuagoa da. Halere, 2017an 2011an baino emakume okupatu gehiago zeudela ageri da, 2011an 123800 izatetik 2017an 125200 mila okupatu izatera igaroz.

9.grafikoa



Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

Lan merkatuan emakumeek 2011-2017 urteen artean proportzionalki gizonen ondoan ez dute lekurik galdu. Euskal EAri dagokionez 2011an okupatuen %45,9a izatetik 2017an %46.8a izatera igaro dira emakumeak. Euskal AEn beraz, gizon okupatuen galera emakumeena baino handiagoa izan da 2011-2017 urteen artean, gizon okupatuak 518600 izatetik 477,400 izatera pasaz. Nafarroan berriz %45 inguruan mantendu dira emakumeak (7.taula).

Jarraian Euskal AE eta Nafarroan 2011-2017 urteen artean okupazioetan izan den genero tipifikazioaren bilakaeraren azterketa burutuko da. Okupazioen genero tipifikazioan izan den bilakaera Hakim-en (1993) distribuzio indizea oinarri izanda egingo da (7.taula). Hain zuzen, emakumeek lan merkatuan 2011-2017 urteen artean proportzionalki leku berdina mantendu dutela kontuan hartuko da.

### **Euskal AE-ko emaitzak (begiratu eranskinetan 10.grafikoa)**

- Okupazio maskulinizatuei dagokienez

“Artisauak, industria mailako langile kualifikatuak eta eraikuntzako” okupazioan ez da bilakaera handirik ageri, emakumeak 2011an %7a izatetik 2017an %6a izatera igaroz. “Instalazioen eta makinariaren antolatzaileen” okupazioetan ere ez da bilakaerarik ageri, eta emakumeen ehunekoa %13.5an mantendu da. Genero tipifikazio oso maskulinoa izaten jarraitzen duten okupazioak dira beraz, integratu zentzurako joerarik erakutsi gabe. “Nekazaritza, abere industria, oihan eta arrantza sektoreko lanbide kualifikatuari” dagokionez, emakumeen presentziaren apaltzea eman dela erakusten dute datuek, okupatuena 2011an %29a izatetik 2017an %25a izatera igaroz. Joera berdina ageri da “tekniko eta babesezko profesionalen” okupazioan zein “zuzendari eta gerenteen” okupazioan, emakumeak %40a izatetik %35a eta %34 izatetik %28 izatera iraganaz, hurrenez hurren. Distribuzio indizeari jarraiki 2011-2017 urteen artean genero tipifikazio maskulinoan sakondu duten okupazioak dira.

- Okupazio femenizatuei dagokienez

Femenizatuen bezala ageri den “oinarrizko okupazioan”, emakume enplegatuen presentzia %72 inguruan mantentzen dela erakusten dute datuek 2011-2017 urteen bitartean. “Ostalaritza zerbitzuetako langileak, pertsonalak, babesezkoak eta saltzaileen” okupazioan, zein “enplegatu kontableak, administratiboak eta bulegoko langileetako” okupazioetan ere ez da aldaketarik ageri, okupatuena %66a eta %65a emakumeak izanda, hurrenez hurren. Genero tipifikazio oso femeninoa izaten jarraitzen duten okupazioak dira beraz, integratuak izaterako joerarik erakutsi gabe. “Tekniko eta profesional zientifiko eta intelektualen” okupazioan 2011tik 2017 urteen arteko joera lanbidearen genero tipifikazioan sakontzearena izan da, emakumeak okupatuena %55a izatetik %60a izatera iraganaz.

## Nafarroako emaitzak (begiratu eranskinetan 11. grafikoa)

- Okupazio maskulinizatuei dagokienez

“Artisau, industria mailako langile kualifikatuak eta eraikuntzako” okupazioak 2011-2017 urteen artean maskulinizatuena izaten segitzen duen okupazioa den arren, emakumeek okupazioan lekua hartu izanaren joera ageri da, %9a izatetik %13a izatera igaroz. Gainerako okupazio maskulinizatueta azken 7 urteetan okupazioek aldakortasun handia izan dutela erakusten dute datuek. Hala, “instalazioen eta makinariaren antolatzaileak eta muntatzaileak” okupazioan, “nekazaritzan” zein “zuzendari eta gerenteen” okupazioetan ezin daiteke joera argi batez aritu. Datuei erreferentzia eginaz, “instalazioen eta makinariaren antolatzaileak eta muntatzaileen” okupazioan emakumeak %16a izatetik %14a izatera igaro dira; “nekazaritzan”, %26a izatetik %20a izatera, eta “zuzendari eta gerenteen” okupazioan %30a izatetik %28a izatera. 2017an 2011an baino genero tipifikazio maskulinoagoa duten okupazioak direla erakusten dute datuek. Alabaina, esan bezala, aldaera handia izan duten okupazioak dira. “Teknikoak, babesezko profesionalak” okupazioan genero tipifikazio maskulinoa berdin mantentzen da, emakumeak okupatuena %39.5 inguru izanda, nahiz eta hemen ere aldaera handiak izan 2011 eta 2017 urteen artean.

- Okupazio femenizatuei dagokienez

Genero tipifikazio handiena duen “oinarrizko okupazioan” emakumeak %74 izatetik %66 izatera igaro dira. Oso femenizatu izaten segitzen duen arren, genero tipifikazioan arintze bat eman dela erakusten dute datuek. Okupazio maskulinizatueta bezala, gainerako ia okupazio femenizatu guzietan, 2011tik 2017ra bitartean izandako bilakaeran emakumeen presentzia aldakortasun handia izan dela ageri da. Datuei erreferentzia eginaz, “enplegatu kontableak, administratiboak, eta bulegoko langileen” okupazioa 2011an baino femenizatuago ageri da 2017an, okupatuena %66a izatetik %69a izatera igaroz emakumeak. “Ostalaritza zerbitzuetako langileen” okupazioa ere 2011an baino femenizatuago bezala ageri da 2017an, okupatuena %67a izatetik %69 izatera igaroz emakumeak. Halere, esan bezala, okupazio hauetako datuen bilakaera aldakorra da, lanbidearen genero tipifikazioaren bilakaerari buruzko ondorioak ateratzea mugatuz. “Tekniko eta profesional zientifiko eta intelektualek” okupazioan

berriz, lanbidearen genero tipifikazioan ez da bilakaerarik ageri azken 2011-2017 urteen artean, okupatuena %57a emakumeak izanda.

- Emaizten laburpena: Euskal AE eta Nafarroan okupazioen genero tipifikazioaren bilakera (2011-2017)

Euskal AEn 2011tik 2017ra okupazioen genero tipifikazioaren mantentzea edo sakontzea eman dela erakusten dute datuek, lan merkatuaren segregazio horizontal zein bertikalean sakonduz. Nafarroaren kasuan datuak aldakorragoak dira. Halere, 2017an, okupazio maskulinoak maskulinoago eta femeninoak femeninoago bezala ageri dira 2011. urtean baino. Azken zazpi urteetako Hego Euskal Herriko okupazioen bilakaerak segregazioa okupazio batzuetan mantendu dela erakusten du, eta beste batzuetan indarra hartu dutela.


- **Espainiar Estatuan okupazioen genero tipifikazioaren bilakaera**

**1990-2017 artean emakume okupatuaren bilakaera**

1990tik 2017 bitartean emakumeen kopurua lan merkatuan progresiboki handitzen joan dela ikusi da (2. Grafikoa). Horrez gain, proportzionalki lan merkatuan 1990tik 2017 bitartera emakumeek gizonen ondoan lekua irabazi dute, 1990an okupatuaren %31.1 izatetik 2017an %45.5 izatera iritsiz.

**Espainiar Estatuko emaitzak**

**12.grafikoa**



Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

Distribuzio indizeari jarraikiz (1993) okupazioen genero distribuzioaren bilakaerari buruzko irakurketa eginen da. 1990tik 1994 bitartean eta 1994tik aurrera, datuek erakusten duten aldaera kontuan harturik datuak jasotzeko moduan ezberdintasunak izan direla pentsa daiteke. Beraz, interpretazio akatsik ez egiteko, datuen bilakaeraren irakurketa 1994 urtetik aurrera burutuko da (12.grafikoa).

1994an maskulinizatu bezala ageri ziren okupazioei dagokienez, maskulinizatuen bezala ageri zen “artisauak, industria mailako langile kualifikatuak” okupazioan, enpleguan okupatuak zeuden pertsonetatik emakumeak 1994an eta 2017

urteen artean %8 inguruan mantendu dira. “Instalazioen eta antolatzaileak eta muntzaileak” okupazioan emakumeak %13.5 inguruan mantendu dira 1994.urtetik 2017 urtea bitartean. “Nekazaritza, abere industria, oihan eta arrantza sektoreko” okupazioan emakume okupatuen bilakaera negatiboa izan da,%28 izatetik % 19 izatera iraganaz. “Zuzendariak eta gerenteen” okupazioan emakumeen okupazioa %30 inguruan mantendu da. Hamarkada hauetan enplegu orokorrean emakumeek hartu duten pisua aintzat hartuz okupazio batzuetan proportzionalki emakumeak mantendu arren, maskulinizatzeko handia eman dela ondoriozta daiteke.

1994an feminizatu bezala ageri ziren okupazioei dagokionez, “Enplegatu kontableak, administratiboak eta bulegoko langileen” okupazioan 1994an emakumeak okupatuen %52a izatetik 2017an %67a izatera igaro dira. Distribuzio indizeari jarraiki, enplegu orokorrean emakumeen bilakaera positiboa aintzat harturik, okupazioaren genero tipifikazioa piska bat sakondu den arren, berdintsu jarraitzen du. Halere kualitatiboki okupazioaren izaera femeninoan sakontzea eman dela esan daiteke, 2017an okupatuen ia %70 baitziren emakumeak, 1994an okupatuen erdiak ziren bitartean. “Ostalaritza, zerbitzuetako, pertsonalak, babesezkoak eta saltzaileen” okupazioan emakumeak 1994an %51 izatetik 2017an %59 izatera iragan dira, eta “tekniko profesional zientifikoek” okupazioari dagokionez, 1994an %49a izatetik 2017an %56a izatera. Emakumeek enplegu orokorrean izan duten handitzea kontuan hartuz femeninoa izaten segitzen duten okupazioak diren arren, genero tipifikazioan indarra galdu duten okupazioak dira. Izan ere, okupazioetan izan den emakume okupatuen handitze proportzionala, lan merkatuan emakume okupatuen bilakaera positiboa baino nabarmen txikiagoa izan da. “Oinarrizko lanbideen” okupazioan 1994tik 2004ra %46tik %50ra igaro da emakumeen presentzia. Proportzionalki okupazioan emakume gehiago egon arren, lan merkatuan emakumeen presentziaren bilakaera positiboa kontuan izanik, 1994-2004 artean lanbidearen genero tipifikazioan ahultzea eman da. Alabaina, 2011tik aurrera emakumeen lan merkaturatzearen joeran apaltzea ematen dela kontuan izanik, okupazioaren genero tipifikazioan sakontzea ageri da, feminizatzeraz joz eta 2017an emakumeak okupatuen %60a izatera iritsiz. “Tekniko eta babesezko profesional” okupazioari dagokionez, 1994an okupatuen %31.7a emakumeak ziren. 1994an, genero tipifikazio femeninoa izatetik, integratu izatera igaro da 2004an, emakumeak okupatuen %43.8a izatera helduz. Ondotik, 2011. urtetik



aurrera genero tipifikazio maskulinoa izatera igaro da okupazioa, emakumeak lanbidean okupatuena %37.7a izanez. Erabateko joera aldaketa izan duen okupazioa da honakoa, femeninoa izatetik maskulino izatera.

- Emaitzen laburpena: Espainiar Estatua okupazioen genero tipifikazioaren bilakaera (1993-2017)

Espainiar estatuan 1994 eta 2017 urteen artean okupazioek izan duten bilakaeran lan merkatuaren segregazioa mantendu edo areagotu dela erakusten duten datuek. Adierazgarria da 2017an ez dela okupazio bat bera ere genero tipifikazio aldetik integratu bezala ezaugarritzen. 1994an genero tipifikazio maskulinoa zeukaten lanbideek 2017an genero tipifikazio berdina izaten jarraitzen dute, eta kasu batzuetan maskulinoagoak bilakatu dira. 1994an femeninoak ziren okupazioei dagokienez, bat izan ezik, 2017. urtean femeninoak izaten jarraitzen dute. Okupazio femeninoen bilakaera alabaina, ez da maskulinoena bezain irmoa, eta genero tipifikazioan indarra galdu duten okupazioak aurkitu daitezke.

## 1.4.2 INGENIARITZAREN GENERO SEGREGAZIOAREN AZTERKETA

Orain arte aurkeztutako datuen bidez Hego Euskal Herrian eta Espainiar Estatu mailan lan merkatuan dagoen segregazio horizontala eta bertikala ezagutu dira. Jarraian, bigarren azpi-helburuari eutsiz, ingeniari-tza lanbidearen genero tipifikazioan eta bilakaeraren ezagutzan sakontzeko datuak aurkeztuko dira. Lehenik, gaur egun lan merkatuan emakumeek ingeniari-tza arloan duten presentzia aztertuko da biztanleria aktiboaren inkesta oinarri harturik (Instituto Nacional de Estadística, 2018). Ondotik, 1990etik 2018ra emakumeen presentziaren bilakaera aztertuko da (Instituto Nacional de Estadística, 1990-2018). Bukatzeko, ingeniari-tzako ikasketa eremuan ikasleen matrikulazioari buruzko datuak aurkeztuko dira, 2008-2018 arteko datuak aztertuz (Hezkuntza eta formazio profesionalaren ministeritza, 2008-2018).

### 1.4.2.1 Lan merkatuko datuak

#### a. Egungo egoera

Jarraian, lan merkatuan ingeniari-tza arloan emakumeen presentzia aztertzeko, lanbidearen genero tipifikazioaren azterketa burutuko da, Hakim-en (1993) distribuzio indizea oinarri hartuta. Hala, 2018an Espainiar Estatuan lan merkatuan okupatuak dauden pertsonetatik %45.6 emakumeak izanda, ingeniari-tzari erreferentzia egiten dion aktibitate adarra edo okupazioa integratu bezala ezaugarrituko da emakume okupatuaren presentzia %41 eta % 50.1an kokatzen baldin bada; %50.1etik gorakoa baldin bada femenino bezala ezaugarrituko da; %41etik beherakoa baldin bada maskulino bezala ezaugarrituko da (1.taula).

Ingeniari-tzako okupazioan emakumeen presentzia nolakoa den jakiteko eskuragarri dauden lan merkatuko datuek ez diete erreferentzia zehatzik egiten Euskal AE eta Nafarroako lurraldeetan ingeniari-tza arloko lanbideei. Izan ere, autonomi erkidegoka eskuragarri dauden datuetan ingeniari- en datuak lan esparru zabalei erreferentzia egiten dieten sailkapenetan kokatzen dira, lanbidean emakume eta gizonezkoen presentzia ezagutzetik urrun geldituz. Ondorioz, Espainiar Estatuari erreferentzia egiten dieten datuak aurkeztuko dira jarraian.

- **Aktibitate adarrei loturiko datuak**

Aktibitate adarren araberako sailkapenari dagokionez, bi aktibitate adarren baitan ageri dira ingeniarietza lanbideari erreferentzia egiten dieten datuak (“aktibitate profesional, zientifiko eta teknikoak” eta “eraikuntza”). 2018. urtean ingeniariak jasotzen dituzten “arkitektura eta ingeniarietza zerbitzu teknikoak, entsaio eta analisi teknikoen” azpi adarrean okupatuen %33,4a dira emakumeak eta “ingeniarietza zibila” azpi adarrean %10a. Distribuzio indizeari jarraiki ingeniariak barne hartzen dituen aktibitate adarrak genero tipifikazio maskulinoa daukate.

10. taula: Ingeniarietza erreferentzia egiten dieten aktibitate adarretan okupatuen % generoaren arabera

	Emakumeen okupazio tasa	Gizonen okupazio tasa
Aktibitate profesional, zientifiko eta teknikoak	%48,8	%51,2
<b>Arkitektura eta ingeniarietza zerbitzu teknikoak, entsaio eta analisi teknikoak</b>	<b>%33,4</b>	%66,6
Eraikuntza	%8,8	%91,2
<b>Ingeniarietza zibila</b>	<b>%10</b>	%90

Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

- **Okupazioei loturiko datuak**

Okupazioen araberako sailkapenari dagokionez, okupazio bakar baten baitan (*tekniko eta profesional zientifiko eta intelektualak*) aurkitzen dira ingeniarietza lanbideari buruzko datuak. Horrela, 2018an ingeniariak barne hartzen dituen “fisika, kimika, matematika eta ingeniaria zientzietako profesionalak” okupazioaren baitan %27.6a emakumeak dira. Distribuzio indizeari jarraiki, integratuak izatetik urrun gelditurik, 2018an okupazioaren genero tipifikazioa maskulinoa da.

11. taula: Ingeniarietza erreferentzia egiten dion okupazioan okupatuen % generoaren arabera

	Emakumeak	Gizonak
<b>Tekniko eta profesional zientifiko eta intelektualak</b>	%55,4	%44,6
Fisika, kimika, matematika eta ingeniaria zientzietako profesionalak	<b>%27,6</b>	%72,4

Iturria: norberak egina, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

## **b. Bilakaera**

Ingeniaritzaren lanbidearen genero tipifikazioan izan den bilakaerari dagokionez, aurreko datuentzat bezala, eskuragarri dauden lan merkatuko datuek ez diete erreferentzia zehatzik egiten Euskal AE eta Nafarroako lurraldeetan ingeniariaritzaren arloko lanbideei. Ondorioz, Espainiar Estatuko datuak aztertuko dira lanbidearen generoaren araberako bilakaera ezagutzeko.


### **- Aktibitate adarrei loturiko datuak**

Aktibitate adarren araberako bilakaerari dagokionez, 1990-2004 urteen aktibitate adarren datuetan ez zaio ingeniariaritzako aktibitate adarri erreferentziarik egiten. Hala, Espainiar Estatu mailan, ingeniariaritzaren mailan izan den bilakaerari erreferentzia egiten dieten datuak 2008-2018 urteen artekoak dira. Bi lan aktibitate adarretan azaltzen dira ingeniariaritzaren lanbideari buruzko datuak:

2008an “arkitektura eta ingeniariaritzako zerbitzu teknikoak, entsaio eta analisi teknikoak” aktibitate adarrean okupatuen %33.4 ziren emakumeak. 2008-2018 urteen artean bilakaera argirik ageri ez den arren, emakumeen presentzia 2018an 2008ko parekoa dela ageri da, emakumeak % 33.4 izanda. Halere, lan merkatuan emakumeek 2008-2018 urteen artean lekua irabazi dutela aintzat harturik (8.taula), maila txikian bada ere aktibitate adarrak urte tarte honetan maskulinizatzeko joera izan du.

“Ingeniariaritzaren zibila” aktibitate adarrean, gora beherak izan badira ere, oro har 2008-2018 artean emakumeak %10 inguruan mantentzen dira. Ondorioz, lan merkatuan emakumeek lekua irabazi dutela aintzat harturik, maila txikian bada ere aktibitatearen 2018an 2008an baino maskulinizatuago ageri da.

### 13. grafikoa



Iturria: norberak egina, Ine, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.


#### - Okupazioei loturiko datuak

Okupazioen araberako bilakaerari dagokionez, “Fisika, kimika, matematika eta ingeniartza zientzietako profesionalak” sailkapenaren barnean aurkitzen dira ingeniartza lanbideari buruzko datuak. Nomenklatura berdinarekin bi denbora tarteri erreferentzia egiten dioten datuak daude eskuragarri (1990-2004 eta 2011-2018). Hala, denboran izan den bilakaera zabalagoa ezagutzeko, ingeniartzari erreferentzia egiten dieten bi epealdiak jaso dira grafiko berdinean:

“Fisika, kimika, matematika eta ingeniartza zientzietako profesionalak” okupazioan 1990tik 2018 bitartean lanbidean okupaturiko emakumeen ehuneko handitu dela erakusten dute datuek, 1990.an %11.2a izatetik, 2018an %27.6a izatera igaroz. Lanbidearen genero tipifikazioan ahultzea izan da 1990-2018 urteen artean. Halere bilakaera ez da lineala izan. Zehazki, urte hauetan izan den bilakaera aztertuz, eta emakumeek enplegu orokorrean izan duten bilakaera positiboa aintzat hartuz, 1990.urtetik 2000 urtera genero tipifikazio maskulinoan sakontzen joan den okupazioa izan dela erakusten dute datuek, emakumeak %11.2ko minimo eta %12.8 maximoaren inguruan mantendu baitziren lanbidean. Aldiz, 2001. urtetik aurrera, emakumeen presentziaren igoera nabarmena atzematen da %21 izatera iritsiz, eta ondorioz

lanbidearen genero tipifikazioan ahultze nabarmena emanez. 2001-2004 urteen artean %20 inguruan mantentzen dira okupazioan emakumeak. 2004-2011 urteen arteko daturik ez dago. 2011tik aurrera eta 2017ra urtea arte, emakumeak okupazioan %27-28 inguruan mantentzen dira. Ondorioz, 1990tik 2017 bitartean lanbidearen genero tipifikazioan ahultze nabarmena eman dela erakusten dute datuek. Halere, 2011tik 2017ra bitarteko datuetan ez da bilakaera positiborik ageri genero tipifikazioaren arintze zentzuan, eta lanbidearen genero tipifikazioak maskulinoa izaten jarraitzen du.

14.grafikoa



Iturria: norberak egin, INE, Biztanleria aktiboaren inkestan oinarrituta.

#### 1.4.2.2 Ikasketetan generoaren araberako matrikulazioa

Unibertsitatean ikasketa adarka emakumeen matrikulazio tasari buruzko hurbilpena eginen da jarraian, egungo datuak eta bilakaera aurkeztuz. Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatu mailako datuen azterketa burutuko da. Horretarako 2008-2018 urteen arteko “Hezkuntza eta formazio profesionalaren ministeriotzat”-ko datuak landuko dira. Biztanleria aktiboaren inkestan (Instituto Nacional de Estadística) autonomi erkidego mailan ingeniari-tza arloko datu zehatzik ez dagoen heinean, ingeniari-tza arloko ikasketen matrikulazioaren lanketak Hego Euskal Herrian ingeniari-tza arloan emakumeen presentziari buruzko ezagutzan sakontzea ahalbidetuko du. Bestalde, azken urteetako bilakaeraren lanketaren bidez,

etorkizunean okupazioaren genero tipifikazioan aldaketa zantzurik aurreikusi daitekeen antzematea ahalbidetuko du.

**a. Egungo egoera**

2017-2018. Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatu mailako unibertsitate matrikulazio datuek emakumeen matrikulazioa gizona baino handiagoa dela erakusten dute, ikasleen %53.9, %54.7 eta %55.1a emakumeak izanik, hurrenez hurren. Honakoa ikasketa adar ia guzietan ageri den joera da, Nafarroan “arte eta humanitate” adarrean eta Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuan “ingeniaritza eta arkitektura” ikasketa adarrean izan ezik. Hain zuzen, ingeniaritza eta arkitekturako adarrean, Euskal AEn emakumeak matrikulatuen %26.5a dira, Nafarroan %30a eta Espainiar Estatuan %25a. Beste modu batean esanda, gizonak Euskal AE-n matrikulatuen %73.5a, Nafarroan %70a eta Espainiar Estatuan %75 dira. Ondorioz, hiru administrazioetan ingeniaritza barne hartzen duen “ingeniaritza eta arkitektura” ikasketa adarra maskulinizatua da.

12. taula: Ikasketa adarka emakumeen presentzia (matrikulazioa %), Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatu, 2017-2018ko ikasturtea

	Orotara ikasleen % emakumeak	Zientzia sozial eta juridikoak	Ingeniaritza eta arkitektura
Euskal AE	53,9	57,5	26,5
Nafarroa	54,7	61,3	30,0
Espainiar Estatu	55,1	59,8	25,0
	Arte eta humanitateak	Osasun zientziak	Zientziak
Euskal AE	65,5	77,3	54,2
Nafarroa	37,9	72,1	59,0
Espainiar Estatu	61,6	70,0	51,0

Iturria: norberak egina, Hezkuntza eta formazio profesionalaren ministeritzako datuetan oinarritua.

## b. Bilakaera


Jarraian, ikasketa adarka emakumeen matrikulazioaren bilakaerari erreferentzia egiten dieten datuak aurkeztuko dira. Zehazki, Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatuan 2008tik 2018 bitartean ikasketa adar guzietan eta “ingeniaritza eta arkitekturan” emakumeen matrikulazioaren bilakaeraren ehunekoak ezagutzea ahalbidetuko digute datuek.

13. taula: Ikasketa adarka emakumeen presentziaren bilakaera (matrikulazioa %), Euskal AE, Nafarroa eta Espainiar Estatua, 2008-2018

Ikasleen matrikulazioa	Euskal AE		Nafarroa		Espainiar Estatua	
	Adar guzietan	Ingeniaritza eta arkitektura	Adar guzietan	Ingeniaritza eta arkitektura	Adar guzietan	Ingeniaritza eta arkitektura
2008-2009	55,4	30,2	52,7	31,5	54,4	27,0
2009-2010	55,6	30,2	53,0	30,8	54,3	27,0
2010-2011	54,5	29,2	53,1	30,5	54,4	27,0
2011-2012	53,8	28,8	53,1	28,9	54,1	26,3
2012-2013	53,1	28,5	53,2	28,1	54,3	26
2013-2014	52,6	28,1	52,7	27,1	54,3	25,8
2014-2015	52,7	27,5	53,6	28,2	54,2	25,6
2015-2016	53,1	27,6	53,6	28,0	54,4	25,4
2016-2017	53,6	26,4	54,2	29	54,7	25,2
2017-2018	53,9	26,5	54,7	30	55,1	25

Iturria: norberak egina, Hezkuntza eta formazio profesionalaren ministeritzako datuetan oinarritua.

## 15. grafikoa



Iturria: norberak egina, Hezkuntza eta formazio profesionalaren ministeritzako datuetan oinarritua.



2008-2009. urtetik 2017-2018 bitarteko matrikulazio datuek “ingeniaritza eta arkitektura” ikasketa adarrean azken 10 ikasturteetan izandako bilakaera agerian jartzen dute. Denbora tarte harturik datuek bilakaera txikiaz aritzea soilik ahalbidetzen dute. 2008tik 2018 urteen artean gizonekin alderatuz proportzionalki ez da emakumeen matrikulazioan bilakaera positiborik izan. Euskal AE-n 2008-2009 ikasturtean “ingeniaritza eta arkitektura” adarrean emakumeak %30.2a izatetik 2017-2018an %26.5 izatera igaro dira; Nafarroan %31.5a izatetik %30a izatera; Espainiar Estatuan % 27 izatetik %25a izatera. 2008-2018 urteetan Euskal AEn ingeniaritza arloan emakumeen matrikulazioaren apaltzea unibertsitatean orokorrean emakumeen matrikulazioan izan den apaltzea baino handiagoa izan da, emakumeak adar guzietan 2008-2009an % 55.4 izatetik 2017-2018an % 53.9a izatera igaro baitira. Nafarroan, matrikulazio orokorrean emakumeen matrikulazioak gora egin du 2008-2009an matrikulatuen %52.7a izatetik 2017-2018an %54.7ra igaroz. Ondorioz, Nafarroan ingeniaritzako ikasketetan eta matrikulazio orokorrean izan den igoera maila berdinekoa da. Espainiar Estatuan 2008-2018 urteen artean emakumeen matrikulazioa %54-55 inguruan mantendu da. Ondorioz, azken hamarkadako datuak kontuan hartuz, hiru administrazioetan “ingeniaritza eta arkitektura” ikasketa alorrean ez da feminizatzeko joerarik ageri. Euskal AE eta Espainiar Estatuaren kasuan maskulinizatzeruntz jo duen ikasketa adarra izan da; Nafarroan berriz, ez da joera aldaketarik izan.

### 1.4.3 INGENIARITZAREN BARNE SEGREGAZIOAREN AZTERKETA

Hirugarren azpi-helburuari eutsiz, azterketa honen helburua ingeniartzan egun dagoen barne segregazioaren ezagutzan sakontzea da. Horretarako, lanbidearen barruko segregazio horizontala eta bertikala nola gauzatzen den aztertuko da. Aurkeztuko diren datuak bi ikerketen datuetan oinarritzen dira: Espainiar Estatuko ingeniari industrialen kontseilu orokorrak 2013. urtean eginiko ikerketan eta Hego Euskal Herriko lau lurraldetako ingeniari industrialen kolegioek elkarlanean 2014. urtean egindako ikerketan. Espainiar Estatuko ikerketan 5000 ingeniari parte hartu dute, eta hauek %16 emakumeak izan dira eta %84a gizonak. Hego Euskal Herrikoan 800 ingeniari parte hartu dute, ikerketa honetan ere %16a emakumezkoak eta %84a gizonzkoak izan dira.

#### 1.4.3.1 Segregazio horizontala

Lanbidearen baitako segregazio horizontala aztertzeko bi datu motari eginen zaie erreferentzia. Batetik, okupazioka ingeniarien presentzia zenbatekoa den begiratuko da, generoaren arabera bereizketarik egin gabe. Bestetik, okupazio berdinetan gizon eta emakumeek presentzia zenbatekoa den begiratuko da.

##### - Lanbidearen barne egituraketa: ingeniariak lan egiten duten okupazio mota

Ingeniari industrialek nagusiki *bulego teknikoa* okupazioan lan egiten dute Espainiar Estatuan zein Hego Euskal Herrian okupatuena %31ak eta %34ak bertan lan eginez (hurrenez hurren). Bigarren datuak *gerentzia* bi lurraldetan, okupatuena %22ak eta %15ak bertan lan eginez (hurrenez hurren), eta hirugarrenik *antolaketa*, okupatuena %17ak eta %12ak bertan lan eginez (hurrenez hurren). Hiru okupazio mota hauek Espainiar Estatuan ingeniari okupatuena %70 eta Hego Euskal Herrian %61a barne hartzen dira.

14. taula: Ikerketan parte hartu duten ingeniarien distribuzioa okupazioka (%)


Inkesta egin zenean okupazioa	Espainiar Estatuak (N=4296)	Hego Euskal Herria (N=800)
Bulego teknikoa	%31	%34
Gerentzia	%22	%15
Antolaketa	%17	%12
Produkzioa/ekoizpena	%8	%11
Kalitatea-Prebentzioa-Ingurugiroa	%6	%8
Ikerketa	%5	%8
Komertziala	%5	%9
Irakaskuntza	%3	%1
Erosketa	%1	%2
Beste	%1	
Totala	%100	%100

Iturria: norberak egin, 2013an Espainiar Estatuako ingeniari industrialen kontseilu orokorreko eta 2014an Hego Euskal Herriko lau lurraldetako ingeniari industrialen ikerketako datuak oinarri hartuta.

- **Ingeniarien banaketa okupazioka generoaren arabera: barne segregazioa**

Jarraian, lanbidearen barne segregazioa horizontala nolakoa den ezagutzeko okupazioka ingeniarien presentzia generoaren arabera bereizturik aurkeztuko da. Hego Euskal Herrikoak eskuragarri ez daudenez, datuek Espainiar Estatuari egiten diete erreferentzia (N=4296).

16.grafikoa



Iturria: norberak egin, 2013an Espainiar Estatuako ingeniari industrialen kontseilu orokorreko eta 2014an Hego Euskal Herriko lau lurraldetako ingeniari industrialen ikerketako datuak oinarri hartuta.

Proporzionaliki gizonekin alderatuz emakume gehiago biltzen dituen okupazio bezala ageri dira *bulego teknikoa*, *antolaketa*, *kalitatea-prebentzioa-ingurugiroa* eta *ikerketa* okupazioak. Proporzionaliki emakumeekin alderatuz gizon gehiago biltzen dituen okupazioak *gerentzia* eta *produkzioa-ekoizpena* dira.

*Bulego teknikoa* okupaziori dagokionez, gizon eta emakumeen kontzentrazio handiena biltzen duen okupazioa dela ikus daiteke. Halere, emakumeen presentzia proporzionaliki gizonezkoena baino handiagoa da, emakumeen %37ak eta gizonen %30ak okupazio horretan lan egiten baitu. Bestalde, gizon eta emakumeen presentzian ezberdintasun nagusia *gerentzia* okupazioan dago. Gizonentzako bigarren okupazio nagusia da, %24ak bertan lan eginik. Emakumeen kasuan %9ak soilik lan egiten du bertan, eta hirugarren okupazio eremu bezala ageri da. *Antolaketa* okupazioari dagokionez, gizon zein emakumeentzako pisuzko lan eremua da, emakumeen %20a eta gizonen %16a arituz bertan lanean, emakumeen bigarren eta gizonen hirugarren okupazioa izanik. Bukatzeko, pisu gutxiagoko lan eremuei dagokionez, proporzionaliki emakume gehiagok *kalitatea-prebentzioa* eta *ikerketa* okupazioetan lan egiten dutela ikusi daiteke. %8 ingurua bertan dabil, gizonen %5 inguru dabilen bitartean. Alderantziz, gizonen %9 *ekoizpena-produkzioa* okupazioan ari den bitartean, emakumeen %6a aurkitzen da bertan. Generoaren arabera proporzionaliki okupazioetan presentzia aldaera dagoela ondoriozta daiteke, honakoa nagusiki gerentziako okupazioan nabarmen geldituz.


#### 1.4.3.2 Segregazio bertikala

Lanbidearen baitako segregazio bertikala aztertzeko bi datu motari eginen zaie erreferentzia. Batetik, lan eremuka irabazten den soldatari eta eremu horietan gizon eta emakumeek duten presentzia ezberdinari. Horrela lanbidean (soldata aldetik) gehien baloraturiko eremuetan generoaren araberako alderik baden ikusi ahal izango da. Bestetik, esperientzia profesionalaren arabera lan eremuka gizon eta emakumeen presentziaren bilakaera aztertuko da. Era honetara, generoaren arabera esperientzia profesionala ezberdinki baloratzen den ala ez ezagutuko da.

### -Soldata, okupazioa eta generoa

Datuek erakusten dute proportzionalki gizonezkoen presentzia gehien ordainduriko okupazioetan emakumeena baino handiagoa dela. *Gerentzia* okupazioan gizonak duten gain ordezkartzaren bidez gertatzen da nagusiki honakoa, gizon ingeniari okupatuetatik lautik bat baitago bertan lanean eta emakumeetatik hamarretik bat. Tarte txikiagoarekin baina hirugarren gehien ordainduriko lan eremuan gizonen presentzia proportzionalki handiagoa—dela ere ikusi daiteke, *produkzioa-ekoizpena* okupazioan gizonen %9a eta emakumeen %6a baitago. Hala, soldata altuenak jasotzen diren lehen hiru okupazioetan gizonen % 38a kontzentratzen den bitartean emakumeen %20a besterik ez da. Soldata apaleneko okupazioei dagokienez, emakumeen presentzia proportzionalki handiagoa dela ikusi daiteke gizonenarekin alderatuz, *ikerketa* okupazioan emakumeen %8a eta gizonen %5a eta *kalitate-prebentzioa-ingurugiroan* emakumeen % 9a eta gizonen %6a aurkituz. Erdibideko soldata jasotzen den *bulego teknikoa* okupazioan oro har gizon zein emakumeen presentzia handia dela ikus daiteke, proportzionalki emakume gehiago izanez halere (emakumeen %37a eta gizonen %30a). Gizonen presentzia gehien ordainduriko okupazioetan gain ordezkaturia dagoela ondoriozta daiteke.

17. grafikoa



Iturria: norberak egina, 2013an Espainiar Estatuko ingeniari industrialen kontseilu orokorreko ikerketako datuetan oinarrituta.

- **Esperientzia profesionalaren azterketa generoaren arabera**


Atal honetan generoaren arabera esperientzia profesionala ezberdinki baloratzen den jorratuko da. Horretarako bi pauso emanen dira. Batetik, okupazio bakoitzean ingeniarien presentzia esperientzia profesionalaren arabera erakusten duten datuak aurkeztuko dira, populazioa generoaren arabera ezberdindu gabe. Horrela, okupazio mota eta esperientzia profesionalaren arteko lotura mahaigaineratuko da. Bestetik, esperientzia profesionalaren arabera ingeniarien presentzian aldaera dagoela erakutsi duten okupazioetan generoaren arabera ezberdintasunik baden jorratuko da.

a. **Lan esperientziaren arabera okupazioetan ingeniariaren distribuzioa**

Esperientzia profesionalaren arabera okupazioka ingeniariak duten presentzia aldatzen dela erakusten dute datuek. Ingeniari asko biltzen dituen okupazioei dagokienez, lan esperientziak *bulego tekniko* eta *gerentzia* okupazioan duten distribuzioan eragina daukala ikusten da. *Bulego teknikoan* lan esperientzia hartu ahala ingeniari gutxiagok lan egiten duten okupazioa dela ikusi daiteke, 10 urtetik beherako esperientzia dutenen %40 ingurua bertan ari baita lanean, eta 25 urtetik gorakoa dutenen %20 ingurua. *Gerentzian* bilakaera alderantzizkoa da: lan esperientzia hartu ahala ingeniari gehiagok lan egiten dute. Zehazki, 10 urtetik beherako esperientzia dutenen artean %12ko langa ez da gainditzen, eta 25 urtetik gorako lan esperientzia dutenen %40ak bertan lan egiten duela ikusi daiteke. *Antolaketa* okupazioan, ingeniari gehien biltzen dituen 3. okupazioan, eta *produzkitasun-ekoizpena*, ingeniari gehien biltzen dituen 4. okupazioan, ez da lan esperientziaren arabera aldaera handirik ageri.

Ingeniari asko biltzen ez dituen lan eremuei dagokienez, *ikerketa* lan eremuan lan esperientziaren arabera ingeniarien presentzian aldaera dago. Ingeniariak lanean hasteko aukerazko lan eremu bezala ageri da, urte batetik beherako lan esperientzia dutenen %16a eta 1-5 urte arteko esperientzia dutenen %11a egonez. Ondotik, pisua galtzen duen lan eremua da %3 eta %6 tartekoa izanez 6 urte baino gehiagoko lan esperientzia duten ingeniarien presentzia. Ondorioz, *bulego teknikoa*, *gerentzia* eta *ikerketako* okupazioetan azalartzen dira esperientzia profesionalaren arabera ingeniarien okupazioan aldaerak.

## 18.grafikoa



Iturria: norberak egin, 2013an Espainiar Estatuko ingeniari industrialen kontseilu orokorreko ikerketako datuetan oinarrituta.


### b. Esperientzia profesionalen generoaren eragina

Jarraian, esperientzia profesionalaren arabera ingeniarien presentzian aldaera dagoela erakutsi den okupazio nagusietan (*bulego teknikoa* eta *gerentzia*) generoaren arabera ezberdintasunik baden aztertuko da.

#### - Bulego teknikoa

Lan esperientzia handitu ahala, gizon eta emakumeek proportzionalki lanbidean duten presentzian ezberdintasunak agertzen dira. Izan ere, *bulego teknikoan* gizonezkoen presentzia esperientzia profesionala hartu ahala txikitzen doala erakusten dute datuek, eta emakumeetan ez da halako joera argirik ageri. Esperientzia profesional gutxi duten ingeniarien artean, gizon eta emakumeen presentziaren ehunekoa parekoa dela ikusi daiteke. Alabaina, esperientzia profesional handiko emakumeen presentzia lanbidean handia izaten jarraitzen du, gizonezkoekin alderatuz. Honakoa bereziki 21-25 urteko lan esperientziako kohortean ikusi daiteke, emakume ingeniarien % 36a eta gizonezkoen % 23a baitago.

## 19.grafikoa




Iturria: norberak egina, 2013an Espainiar Estatuko ingeniari industrialen kontseilu orokorreko ikerketako datuetan oinarrituta.

### - Gerentzia

Lan esperientzia handitu ahala, *gerentzia*, gizon zein emakumeen presentzia handitzen dela erakusten dute datuek. Halere, generoaren arabera ezberdintasunak ageri dira, proportzionalki gizon gehiago egonez esperientzia profesionala handitu ahala. Emakumeen kaltetan, generoaren arabera ezberdintasunak 6-10 urte lan esperientziatik indarra hartzen doaz, eta 11-15 eta 16-20 arteko esperientzia dutenen artean areagotzen dira. Hala, *gerentzia*, 11-15 urte arteko esperientzia duten gizonen %23a dagoen bitartean, emakumeen %11a dago, eta 25 urtetik goragoko esperientzia profesionala duten gizonen %40a dagoen bitartean, emakumeen %25a ari da bertan lanean.



## 20.grafikoa



Iturria: norberak egina, 2013an Espainiar Estatuako ingeniari industrialen kontseilu orokorreko ikerketako datuetan oinarrituta.

## 1.5 ONDORIOAK

### 1.5.1 LAN MERKATUAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK

Hego Euskal Herriari eta Espainiar Estatuari buruz eginiko lan merkatuaren genero tipifikazioaren azterketan sektore ekonomikoak, aktibitate adarrak eta okupazioak genero aldetik oso tipifikatutak daudela azaleratu du. Gainera, azken hamarkadetako bilakaeran ez da joera aldaketarik ageri, lan merkatuan segregazioa mantendu edo handitu baita. Hego Euskal Herriko emaitzek eta 2018 urtera arte eginiko analisiek ez dute joera aldaketarik erakusten eta Espainiar Estatuari buruz aldeztu aurretik eginiko analisien emaitzekin bat egiten dute; segregazioa 1990etik okertzerantz jo duenaren baieztapenarekin, hain zuzen (Cebrián & Moreno, 2008; Iglesias & Ilorente, 2008). 1990 urtetik eginiko datuen azterketaren bidez, emakumeen presentzia lan merkatuan progresiboki handitzen joan dela ikusi da. Alabaina, honakoa erabat modu segregatuan burutu den prozesua izan da (Torns, 2011). Hala, segregazioaren handitzea 1990. urtean jada maskulinizatuak ziren okupazio edota aktibitate adarretan gertatu da nagusiki. Okupazio edo aktibitate adar femeninoek berriz, oro har oso femeninoak izaten jarraitu dute, eta kasu batzuetan bilakaera genero tipifikazioan ahultzearena izan da. Sektore ekonomikoetako eta aktibitate

adarretako analisisiek lan merkatua maila horizontalean erabat segregaturik dagoela ondorioztatzera daramate. Okupazio mailan eginiko azterketak, segregazio horizontala agerian uztean gain, lan merkatua bertikalki ere segregaturik dagoela ondorioztatzera darama. Honakoa bereziki, lanbideen hierarkian behealdean kokatzen den “oinarrizko okupazioetan” emakumeek duten ehuneko altuan agerian gelditu da. Piramidearen goialdean berriz, “zuzendaritza eta gerentziako” okupazioetan alderantzizkoa gertatzen dela ikusi da. Lan segregazioaren eta lan merkatuan emakumeek bizi duten zeharkako diskriminazioaren artean dagoen lotura ikusi daiteke hemen (Sallé & Molpeceres, 2009).

Okupazioen bidezko azterketatik emakume eta gizonek banandurik lan egiten dutela ondorioztatzeaz gain, okupazio mota ezberdinetan lan egiten dutela agerian gelditu da. Izan ere, ezaugarri ezberdinak atxikitzen zaizkien okupazioetan lan egiten dutela ikusi daiteke. Ezaugarri hauek genero bakoitzari atxiki izan zaion rol sozialarekin harreman zuzenean daude gainera. Gizonak indar fisikoa, teknizitatea edota ikuskatzea ekartzen duten okupazioetan gain ordezkatuak dauden bitartean, emakumeak zaintza edota prestutasuna atxikitzen zaien okupazioetan gain ordezkatuak daudela ikusi da (Kanter, 1977; Cambriles, González, Cortés, Martínez, Navarro, Perea & Suárez, 2007).

### **1.5.2 INGENIARITZAREN GENERO SEGREGAZIOAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK**

Ingeniaritzan emakumeen presentzia eta bilakaera ezagutzeko lan merkatuan aktibitate adarretako datuak eta okupazioen datuak begiratu dira. Maila honetan, ez da azterketa zehatzik egitea lortu ingeniariak beste profesionalekin batera sailkaturik daudelako. Honakoa kontuan izanik, 2018an Espainiar Estatuan ingeniaritza barne hartzen duten okupazio eta aktibitate adarrek genero tipikazio maskulinoa daukatela ikusi da distribuzio indizeari jarraiki (Hakim, 1993).

Bilakaerari dagokionez, okupazioen bidezko azterketak 1990etik gaur egunerarte okupazioaren genero tipifikazioaren arintze nabarmena gertatu dela ikusi da, emakumeak %11a izatetik %27,6a izatera igaro baitira. Halere, azken hamar urteetan emakumeen presentziaren bilakaera positiboak ez du jarraitu. Izan ere,

2008tik aurrera aktibitate adar mailan zein okupazio mailako datuetan ez da bilakaera positiborik ageri, eta beraz distribuzio indizea oinarri hartuz maila apalean bada ere ingeniartzaren joera maskulinizatzearena dela ikusten da. Ikasketa mailako datuek ere joera berdina erakusten dute. Izan ere, 2008tik 2018ra gizonekin alderatuz proportzionalki ez da emakumeen matrikulazioan bilakaera positiborik izan. Euskal AE eta Espainiar Estatuan maskulinizatzerantz jo duen ikasketa adarra izan da ingeniartzarena; Nafarroan berriz, emakumeak maila berdinean mantendu dira. Ondorioz, lan merkatuko datuak kontuan izanik zein ikasketetako bilakaera, Hego Euskal Herrian etorkizun hurbilean ez da lanbidearen genero tipifikazioan arintzerik espero.

### 1.5.3 INGENIARITZAREN BARNE SEGREGAZIOARI LOTURIKO ONDORIOAK

Ingeniaritza industrialaren barne segregazioaren azterketari dagokionez, okupazioetan generoaren arabera gizon eta emakumeen presentzian aldaera dagoela ikusi da. Zehazki, generoaren arabera aldeak nagusiki *gerentziako* okupazioan nabarmendu dira, emakume ingeniarien %9a eta gizonen % 24a baitago bertan lanean. Gainera, lan esperientziaren arabera ingeniarien presentzia aldatzen doala ikusi da. Horietatik bi ingeniari profesional gehien biltzen dituzten *bulego teknikoa* eta *gerentzia* okupazioak dira. *Bulego teknikoan* lan esperientzia hartu ahala ingeniari gutxiagok lan egiten du; *gerentzian* alderantzizkoa gertatzen da, esperientzia profesional gehien duten ingeniariak lan eginik. Alabaina, lan esperientziak generoaren arabera ez du erabat logika berdina segitzen. Izan ere, *bulego teknikoan* esperientzia profesional handiko emakumeen presentziak handia izaten jarraitzen du gizonezkoekin alderatuz. *Gerentzian* aldiz, gizonekin alderatuz esperientzia profesional handiko emakumeen kopurua apala da. *Bulego teknikoa* ingeniaritza arloan erdibideko soldata jasotzen den okupazioa da, eta *gerentzia* soldata altuena jasotzen dena. Ondorioz, gizon ala emakumea izan, antzintasunari balio ezberdina ematen zaio. Lanbidearen barne segregazio bertikalaren aurrean gaudela pentsatzera ematen duten emaitzak dira.

Lanbidearen barne segregazioaren azterketa egiteko oinarri izandako datuen izaerarekin ezin daiteke lan ibilbideez aritu, kohorte ezberdinei buruzko informazioa

baita datuek eskaini dutena. Halere, generoaren arabera esperientzia profesionala izateak lan esparru ezberdinetara eramaten duela baieztatu daiteke. Ildo honetan *gerentzia* okupazioan, 6-10 urteko esperientzia izatetik aurrera generoaren arabera ezberdintasunak handitzen diren heinean, guraso izateak generoaren arabera ondorio ezberdinak dituela pentsatzera ematen du. Zentzu honetan Guillaume eta Pochic (2007) ikerlariak *lan erritmo ideal*a ez betetzeak dakartzan ondorioez mintzo dira. Hain zuzen, ingeniariaritzaren arloko enpresa batean eginiko erakunde kulturaren azterketan, 40 urte inguruan kudeaketa postu batean aritu ahal izateko ingeniariari lanaldiaren lehen 15 urteetan lan etenik gabeko eta inbertsio handiko lan erritmoa eskatzen zaiela erakutsi zuten. Ildo honetan emakumeek enplegurako gizonen baino (edo ama ez diren emakumeek baino) eskuragarritasun gutxiago izaten dutenez emakumeenganako *egiturazko handicap* bat dagoela azaltzen dute, ia automatikoki emakumeak joko kanpo geldituz. Aztergai izan diren datuetan generoa eta lan esperientziaren arabera aldaerak fenomeno honen aurrean gaudela pentsatzera ematen dute. Maila honetan, datuen azterketaren bidez ateratako ondorioek etorkizunean lanbidearen barne segregazioaren logikaren ulermenean sakontzeko beharra agerian jartzen dute.

Bukatzeko, ikerketa atal honetan egindako azterketa bikoitzak (lan merkatua eta lanbidearen baitakoa) genero bidezko segregazioa okupazio eta aktibitate adarretatik harago doala agertzera eman du. Maila honetan, lanbidearen baitan emakumeen presentziaren handitzea modu segregatuan burutu daitezkeela ikusi da (Marry, 2004).

**BIGARREN ATALA**

**LAN MERKATUAN GENERO BIDEZKO SEGREGAZIOA  
AZALTZEKO LITERATURAREN BERRIKUSPENA**



## **2 LANBIDEEN, ERAKUNDEEN ETA INGENIARITZAREN GENERO TIPIFIKAZIOA**

### **2.1 SARRERA**

Literatura zientifikoan lan mundua genero ikuspegitik aztertzerakoan lanbideen genero tipifikazioari (Britton, 2000; Hakim, 1993; Halford, 2007; Zolesio, 2009) edota erakundeen kultura generizatuari (Acker, 1990; Guillaume & Pochic, 2007; Hass & Hwang 2007; Kanter, 1977; Lee-Gosselin & Ann, 2011; Rutherford, 2001) egiten zaio erreferentzia; unitate analisia lanbidean edota erakundean kokatuz. Halere, azterketa unitate ezberdinak izanik ere, lanbidearen genero izaera eta erakunde kulturaren generizazioa bata bestearekin harremanean ulertzen diren elementuak dira, testuinguru berdinean elkar gurutzatzen baitira (Belle, 1990; Britton, 2000).

Jarraian, maila kontzeptualean lanbide eta erakunde generizatu batez aritzea zertan datzan azalduko da. Honekin batera, lanbide edo erakunde maskulinoetan emakumeek aurkitzen dituzten oztopoak azalduko dira.

### **2.2 LANBIDEEN GENERO TIPIFIKAZIOA EZAUGARRITZEKO IRIZPIDEAK: LANBIDE MASKULINOEN KASUA**

#### **2.2.1 ZENBAKIZKO IRIZPIDEA**

Lanbide bat maskulinizatua edota feminizatua ote den esateko irizpide eta definizio ezberdinak aurkitu daitezke. Batetik, zenbakizko irizpideetan oinarritzen diren definizioak daude. Maila honetan adierazle ezberdinak aurkitu daitezke: segregazio indizea (Duncan & Duncan, 1955) IK indizea (Karmel & MacLachlan, 1988) edota distribuzio indizea (Hakim, 1993). Bestetik, lanbidearen genero tipifikazioa ezaugarritzeko irizpide sinbolikoa dago (Britton, 2000). Ikuspegi honetan lanbide baten genero tipifikazioa soilik irizpide numerikoen bidez ezaugarritzea kritikatzeko da. Izan ere, lanbidearen sexu tipifikazioa aldatu daitekeela azaltzen da lanbidearen genero tipifikazioa aldatu izan gabe; hau da, kopuruz sexu tipifikazioa aldatu arren, baloreak eta funtzionatzeko erak aldatu ezean lanbidearen izaerak maskulinoa izaten jarraituko duela azaltzen da (Britton, 2000; Williams, 1995). Zentzu honetan, ikuspegi nominala ekarpen ezberdinekin jantzi ohi da.

## 2.2.2 IKUSPEGI SINBOLIKOA: KULTURA PROFESIONALEN GENERIZAZIOA ELEMENTU SINBOLIKOEI ERREPARATUZ

Ikuspegi sinbolikoaren baitan lanbide bat genero aldetik tipifikatua kontsideratuko da sozialki ezaugarri maskulino edo femeninoen inguruan eraikia bada (Zolesio, 2009). Sinboloen bidez genero bereizketak azaltzen, adierazten, indartzen edo aurrez aurre jartzen dira (Acker, 1990; Britton, 2000); esate baterako, gaitasun teknikoa maskulinitatearekin lotzera eramanez eta femeninotik deslotzera (Cockburn, 1983). Gainera, lanbide bat genero aldetik markatua izanen da ideologikoki edo sinbolikoki langileen baitatik, lan erakundean edo kultura orokorrean era horretan ulertzen delarik (Acker, 1990; Britton, 2000). Maila honetan, lanbideen genero tipifikazioan sakondu duten ikerketa lanek lanbidearen sexu tipifikazioa kontuan hartzeaz gain, lanbidean izaten den sarbide mota (sarearen bidezko sarbidea), nagusitzen den kultura profesionala (erabateko debozioaren balorea adibidez), esperotako eta baloratutako abilezia eta trebetasun motak (gaitasun teknikoaren nagusitasuna) edota lanbidea burutzen den erakundeko kultura lantzera bideratu dira (ordu luzeen kultura adibidez) (Menesson, 2005; Perrot, 1987; Zolesio, 2009). Era berean, lanbide maskulinotan aritzean emakumeek aurkitzen dituzten aurreiritziak, estereotipoak, jarrerak eta portaera sexistak aztertu eta identifikatu dira ikerlanetan (Beeman, 2011; Doutre, 2008; Lee-Gosselin, 2011; Zolesio, 2009). Estereotipoei helduz, sozialki partekaturiko sinesmenen ondorioz emakumeak zaintza eta prestutasun ezaugarriak dituzten lanbideekin harremandu dira; gizonak indar fisikoa, gaitasun intelektuala, arriskurako disposizioa, ikuskatzea edo erabakitzea dakarten lanbideekin lotu diren bitartean (Barbera, Ramos & Candela, 2011; Kanter, 1977). Horrela, lanbide maskulinoetan jarduteak tradizionalki emakumeei atxiki zaien rol sozialaren betetze eza dakarrela ebazten da, emakumeenganako aurreiritzien areagotzea ekarriz (Barbera et al., 2011). Hain zuzen, aurreiritzien ondorioz bi eratako sexismo motekin topo egiten dute emakumeek: sexismo areriotsuarekin eta borondate oneko sexismoarekin (Glick & Fiske, 2001; Glick & Fiske, 1996). Sexismo areriotzua aurreiritzi negatiboz jositako sexismoa da, esplizituki argitara ematen dena, eta jarrera diskriminatzaileetan oinarritzen da. Gizonekin alderatuz emakumeen balizko gutxiagotasunean oinarritzen da. Emakumeen obedientzia eta subordinazioa ditu helburu (Cardenas, Lay, González,



Calderón & Alegría, 2010). Borondate oneko sexismoa, aldiz, itxuraz aurreiritzirik ez duen jarrera da, afektiboki adierazten dena. Emakumea ahula dela, babestu beharra dagoela eta gizonaren babes behar duen pertsona dela kontsideratzen da. Emakumeari tradizionalki atxiki zaizkion rolen idealizazioan datza (Cardenas et al., 2010). Horrela, ikerketetan emakumeek kideengatik jasandako oharrak, estereotipoak, aurreiritziak, lan jarduera aurrera eramateko bazterrean emanak izatea edota ezagutza eta konpetentzien ezagutza eza nabarmentzen dira.

Ikuspegi sinbolikoan arreta jartzeak, lanbidearen kultura profesionalean arreta jartzera darama. Kultura profesionalaren bidez baloreei, ezagutza partekatuei, trebetasunei, eta lanbidearen eraikuntza historikoari egiten zaio erreferentzia (Champy, 2009). Formazio bera eta sozializazio bera jarraitu izanagatik, edota beren aktibitate profesionalak eskakizun berdinei erantzuteko galdetzen dienez, profesio edo lanbide komuna burutzen duten pertsonak balore sistema antzekoa partekatzen dute (Brangier, Lancry & Louche, 2004). Kultura profesionalaren definizio honek batasunaren kontzepzioari ematen dio indarra, profesio kideen artean partekatua den horri. Alabaina, profesio baten baitan izaten den aniztasuna ere aintzat hartzekoa da; identitate, balore, praktika eta interes aunitz biltzen baitira (Champy, 2009).

### 2.2.3 IKUSPEGI INTERAKZIONISTA

Lanbidearen genero izaera nolakoa den aztertzeko, lanbidean sortzen diren genero interakzio motak aintzat hartzen dituen korronte teorikoa garatzen joan dira berriki (Halford, 2007; Tokin, 2001). Ikuspegi interakzionistan, orain arte eginiko ekarpen teorikoak alde batera utzi gabe, lanbide maskulinizatu edo femenizatu batean lanean aritzeak dakartzan portaera eskakizun eta betekizun berezituak (generizatuak) zein diren azaltzetik harago joan behar dela azaltzen da. Gizabanakoari eskatzen zaizkion genero performantziak pertsonak nola erreproduzitzen dituen, aldatzen dituen edota kolokan jartzen dituen lantzean zentratzen da ikuspegi hau (Halford, 2007). Korronte interakzionistak norbanakoaren identitatearen eragiteko ahalmenari garrantzia ematen dio, beraz. Maila honetan, genero harremanen produkzioaren alderdi estatikoari uko egin gabe (*gendering practice*), generoaren produkzioaren alderdi dinamikoari egiten zaio erreferentzia (*practicing gender*). Horrela, pertsonen

artean garatzen diren interakzioen unean botere harremanen jarraikortasuna edo zalantzan jartzea gerta daitezkeela azaltzen da, genero harremanen kolokan jartzea edo jarraikortasuna ekarriz (Martin, 2006).

## **2.3 ERAKUNDE KULTUREN GENERO TIPIFIKAZIOA: GENERO TIPIFIKAZIO MASKULINOAREN KASUA**

Lan mundua genero ikuspegitik aztertzeko erakundeen kulturaren aztertzerak bideratu diren ikerlanak anitzak dira (Ferguson, 1984; Guillaume & Pochic, 2007; Hass & Hwang, 2007; Kanter, 1977; Lee-Gosselin & Ann, 2011; Rutherford, 2001). Jarraian, erakunde kulturaren kontzeptuak zertan datzan laburki azaldu ondotik, erakundeen kultura genero ikuspegitik aztergai izan duten ikerlanen nondik norakoak azalduko dira.

### **2.3.1 ERAKUNDE KULTURAREN DEFINIZIOA**

Erakunde kulturari ikuspegi teorikoaren arabera definizio ezberdinak eman izan zaizkio. Ikuspegi funtzionalistarekin bat eginik, erakunde kulturak erakunde baten kide direnen artean partekatzen diren balore, sinbolo, egiteko modu eta ohiturei egiten die erreferentzia, bertan gertatzen denari zentzua emanaz eta kide direnak kide ez direnengandik ezberdinduz (Lee-Gosselin & Ann, 2011). Bestalde, ikuspegi funtzionalistarekin kritiko agertuz, ikuspegi kritikoan Sainsaulieu-ek erakunde baten baitan eredu kultural ezberdinak aurkitu daitezkeela erakutsi zuen (1977/1990). Aniztasun hau talde sozial eta posizio hierarkikoaren arabera izaten da, baita talde sozial ezberdinen artean gertatzen diren interakzioen arabera ere (Crozier & Friedberg, 1977).

## 2.3.2 ERAKUNDE KULTURAREN AZTERKETA GENERO IKUSPEGITIK

### 2.3.2.1 Egiturako ikuspegia

Erakundeen kultura genero ikuspegitik lantzerakoan, abiapuntuko teoriak egiturako ikuspegi oinarritu ziren. Ikuspegi honen arabera, erakunde guziak genero aldetik markatuak daude, eta gaian aitzindari izan ziren ikerlariek erakunde kulturen ustezko genero neutraltasuna kolokan jarri zuten (Ferguson, 1984; Kanter, 1977). Modu honetan, emakumeek erakundeetan bizi duten desabantailazko egoera enpresen egituraren bidez azaltzen da. Lehen ekarpen hauen haritik, Acker autoreak (1990) "erakunde generizatuaren" ideia zabaldu zuen, genero neutralitate arrazionalpean kontrol egiturak ezkututzen direla defendatuz (Acker, 1990; Britton, 2000). Egiturako ikuspegi genero ezberdintasunak lan erakundeetan garatzen diren prozesu, lan praktika, irudi, ideologia eta boterearen banaketaren bidez gauzatzen direla azaltzen da (Acker, 1992). Horrela, genero ezberdintasunak behin eta berriz sortzen dira hainbat mekanismo formal eta informalen bitartez: lanbidearen ordutegi exigentziak, lanpostuak sailkatzeko erak, sare sozialen bidezko kontratazioa, lanpostuari atxikitzen zaion gorputzaren irudikapena, eta abar (Acker, 1990).

Ikuspegi estrukturalak lan munduaren generizazioa ulertzeko gako garrantzitsuak eskaini ditu, eta asko zabaldu den ikuspegia da. Halere, kritika ugari jaso ditu: batetik, erakunde guzietara zabaltzen den ikuspuntua izanik, aktore sozialen aldaketarako eta negoziatorako gaitasuna aintzat hartzen ez duen ikuspuntua izateagatik (Billing, 2011; Halford, 2007). Bestetik, erakundeen arabera emakumeek bizi dezaketen egoera aldakorra izan daitekeelako enpresa eta aktibitate sektorearen arabera (Belle, 1990; Britton, 2000). Hau da, ez baita berdina ezaugarri maskulinoen inguruan eraiki diren esparru batean jardutea, zeinetan emakumeekiko aurreiritziak handiagoak diren; edota ezaugarri femeninoen inguruan eraiki den esparru batean aritzea. Ez baita berdina ere berdintasun politikarik gabeko erakunde batean lan egitea edo berdintasun politikak bultzatzen dituen batean jardutea. Bide honetatik erakundeen kulturaren genero tipifikazioa lantzen duten baina erakunde batetik bestera izan daitekeen aldakortasuna kontuan hartzen duten ikerketa lanak garatu dira.

### 2.3.2.2 Erakundeen aldakortasuna aintzat hartzen duten ikuspegi teorikoak

Genero ikuspegitik erakunde guzien kulturak berdinak ez direnaren ideian oinarrituz, lan erakundeetan abian jartzen (edo ez) diren berdintasun politika moten eraginak neurtu dira (Hass & Hwang, 2007). Maila honetan, genero berdintasuna lortzeko erakundeetan garatzen diren neurrien garrantzia agerian jarri da. Zehazki, enpresetan esfera pribatu eta publikoaren bereizketa txikitzeak gizonetako esparru pribatuan duten inplikazioaren handitzea dakar, eta emakumeen inplikazioaren handitzea esfera publikoan. Ondorioz, erakundeen politikek genero berdintasunean eragin zuzena dute (Hass & Hwang, 2007). Bestalde, lan erakundeetan bizi esparru ezberdinen (enplegua–familia) arteko gatazka txikitzeko neurrien artean ordutegi malgutasuna, etxetik lan egiteko aukera edota lanaldi partziala hartzeko aukerak egon ohi izaten dira. Alabaina, zehazki handiarekin hartzeko neurriak dira. Izan ere, neurri batzuek duten ustezko kontziliazio eta ongizate helburua ez dute betetzen (Russell, O’Connell & Mc Ginnity, 2009), ondorio generizatuak ekarriz (O’Connell & Russell, 2005). Gainera, erakundeetan neurri hauek aplikatzeko moduen araberakoak izaten dira sorrarazten dituzten ondorioak. Egin dezagun geldialdi bat honetan: ordutegi malgua izateko aukerak bizi esparruen arteko gatazka (enplegua–familia) eta lan presioa argiki jausten duela erakutsi da; etxetik lan egiteko aukerak aldiz bizi esparruen arteko gatazka (Hyman, Baldry, Scholarios & Bunzel, 2003; O’Connell & Russell, 2005) eta lan presioa handiarazten ditu (O’Connell & Russell, 2005; Russell et al., 2009) lanaldi partzialak bizi esparruen arteko gatazka txikitzen du (Bonney, 2005; Gornick & Meyers, 2003), betiere norberaren aukera libre bezala harturiko neurria bada (O’Connell & Russell, 2005). Edozein modutan, lanaldi partzialean dauden gehiengo handia emakumeak dira, eta zaintza lanei begira gizonekin alderatuz emakumeen ardura desorekatuarekin loturan dagoen neurria da (Carrasquer, 2014), baita emakumeek jasotzen duten soldata apalaren adierazlea ere (Torns & Recio, 2012). Lanaldi partzialak lan presioan duen eraginari dagokionez, oinarrian lan presioa txikitzea dakarren neurria bada ere, aurkako efektua eragin dezake lan erakundeak lan zama proportzioan txikitzen ez duenean (Russell et al., 2009). Bukatzeko, kontziliazio politikei eusteko aukerak izan arren, hauen erabilerak erakunde aunitzetan promozio

aukerak mozten dituzte, eta soldata apalagoa edukitzea ekartzen dute (O'Connell & Russell, 2005). Ondorioz, erakunde baten kultura genero aldetik markatua dagoela aztertzean, neurri bakoitzaren atzean ezkututzen denarekiko adi egon behar da, neurri hauen ondorioak zein diren kontuan izanez.

### 2.3.2.3 Erakunde kulturen generizazioa segregazio bertikalaren ikuspuntutik

Metafora ugari plazaratu dira erakundeetan emakumeek lidergo posizioetara iristeko aurkitzen dituzten oztopoak irudikatzea ahalbidetuz. Huetan ezagunena *beirazko sabaia* (Davidson & Cooper, 1992; Powell, 2010) izenaren bidez ezagutzera eman dena da, eta emakumeek goi posizioetara iristeko ikusezinezkoak diren oztopoak aurkitzearen ideiarekin berri ematen da. Berriagoki, *beirazko sabaiaren* aroa igaro dela argudiatuz, eta egungo errealitatearen konplexutasuna irudikatzeko *laberintoaren* metafora plazaratu da (Eagly & Carli, 2007). Emakumeek promoziorako izaten dituzten oztopoen aniztasunari eta emakumei biziartzen zaien noraezaren ideiarekin egiten dio erreferentzia (Eagly & Carli, 2007).

Maila honetan, lan erakundeetan lan ibilbide generizatuak zein mekanismoren bidez eratzen diren aztertu dituzte hainbat ikerlarik (Guillaume & Pochic, 2007; Lee-Gosselin & Ann, 2011; Rutherford, 2001). Rutherford (2001) ikerlariak emakumei goiko posizioetako sarbidea nola ixten zaien ulertzea ahalbidetu zuen. Erakundeen kultura generizatua bere osotasunean eta era sistemizatuan aztertzea ahalbidetzen duen analisi erdua proposatu zuen bederatzi dimentsioei jarraiki. Jarraian, dimentsio garrantzitsuenen edukiak azalduko dira:

- Genero ezaugarrien eraginaren kontzientziario maila: erakundearen kulturaren adierazle garrantzitsutzat jotzen da. Zehazki, erakundeak berdintasunerako neurriak izatean islatzen da, gestioan dauden emakumeekiko dagoen ikuspegian, emakumeek beren lan ibilbidea garatu ahal dezaten buruen konpromezuan, eta abar.
- Erakundearen nagusitzen den gestio estiloa: erakundearen baloratzen edo aplikatzen den lidergo estiloari egiten zaio erreferentzia. Lidergo estilo maskulinoen nagusitasuna emakumeak postu horietan egoteko oztopo bezala identifikatzen da.
- Ordu luzeen kultura: maila handi batean zaintza eta etxeko ardurak emakumeen betetzen dituztenez, ordu luzeen kulturak emakumei denboraren kudeaketarako

zailtasun gehiago sorrarazten die, eta bizi esparru orotan presioaren handitzea dakar. (Lee-Gosselin & Ann, 2011; Rutherford, 2001). Erakunde kulturen ezaugarri eratzaila bat da.

- Nagusitzen den lan ideologia, publiko/pribatu bereizketa: Erakunde kulturen ideologiaren funtseko eta ikusezineko elementu da (Rutherford, 2001). Absentzia puntualen onarpena edota aurreikusitako gabeko familia eskaeren ondorioz izaten diren ezegoteen onarpen mailari egiten die erreferentzia (Lee-Gosselin & Ann, 2011; Rutherford, 2001).

- Portatzeko kodigo informalak eta sozializazioa: Sozializazio informalak emakumeen sarbidea eta jarduna mugatzen ditu, espazio hauekiko sarbide murrizta izanik. *Men's club* bezala ezagutua den fenomeno da. Eremu formaletatik at garatzen diren harremanen bidez aukera profesionalak handitzeari egiten dio erreferentzia. Lan orduen ondotik elkartzeari edota gizonen artean sarea egitean datza.

- Sexualitatea: Lan eremuaren sexualizazio eta jazarpen sexualari erreferentzia egiten dio dimentsio honek. Emakumeak bazterrean uzteko, kontrolatzeko edota dominaziorako elementu bezala ulertzen da.

Ildo berean, Guillaume eta Pochic ikerlariek (2007) emakumeek bizi duten *beirazko sabaia* erakundeetan bultzatzen diren prozesuen bidez garatzen dela erakutsi zuten. Horrela, erakundeek generoa birsortzeko erabiltzen dituzten barne prozesuak agerian jarri dituzte (Guillaume & Pochic, 2007). Rutherford-ek identifikaturiko edukiekin antzekotasuna izan arren, Guillaume eta Pochic-ek azterketak *beirazko sabaia* eragiten duten prozesuen sakoneko ulermenera iristea ahalbidetzen du. Zehazki, hauek *beirazko sabaia* eratzean eragiten duten prozesu nagusiak:

- Lanbidearekiko erabateko debozioaren kultura: Erabateko konpromezu profesionala edukitzea enpresek asko bultzatzen edo baloratzen duten lan eredua da. Horrela, kudeaketa postuetan dauden pertsonak haien bizi pertsonalak profesionalean eragiten ez duela erakutsi behar izaten dute (Palmer, 1996). Hemendik azaltzen da *fobia manageriala* deitu dutena: kudeaketa postuetan lanaldi partzialak ez dira onartzen, eta kudeaketa postuetan dauden amatasun batak ez dira ordezkatzeko edota ordezkapenak brikolaje modukoak izaten dira (Guillaume & Pochic, 2007). Lan eredu honek

formazio bereko bikoteetan emakumeak bikotearen lan ibilbidea babestera eramaten du.

-Lan erritmo idealaren eskakizunaren ondorio generizatuak: Ibilbide profesionalaren etapa bakoitza adin tarte bati loturik egoten da. 40 urte inguruan kudeaketa postu batera heldu ahal izateko lanaldiaren lehen hamabost urteetan lan ibilbide lineal eta metakorra izatea eskatzen da. Horrela, lan eredu honetatik kanpo gelditzen den oro, edota atzerapenak akumulatu dituen oro bazterrean gelditzen da (Laufer, 2005). Hain zuzen, hori gertatzen ama diren emakumeei, gizonak zein aitek baino eskuragarritasun gutxiago edukitzen dutelako (adibidez mugikortasun geografikorako oztopo gehiago izanik).

- Sare eta influentzia jokoaren eragina: Langileen promozioan arduradun hierarkikoen jokatzeko erabilten dituzten bide informalek *beirazko sabaiaren* mantentzera daramate. Formalki lan merkatuko arauak eredu liberalean oinarrituak egon arren (bete gabeko lanpostuen informazioa eta gardentasuna, pertsona guzietan lanpostu baterako hautagai izateko eskubidea, eta abar) (Courpasson & Dany, 1994), errealitatean printzipio hauek ez dira betetzen. *Mentorraren* figuraren bidez, nagusiek espazio babestuak sortuz lan ibilbide batzuen garapena bizkortzen duten maila berean, besteena oztopatzen dute (Fortino, 2002; Monchatre, 1996). Emakumeek ibilbide profesionalen dimentsio erlazional hau salatu ohi izaten dute, konpetentzia profesionalen ezagutza objektiboa izateko eskubidea aldarrikatuz.

## **2.4 INGENIARITZA LANBIDEAREN GENERO TIPIFIKAZIOA**

### **2.4.1 INGENIARITZA ETA MASKULINITATEAREN ARTEKO LOTURA: NOLA GAUZATU DA?**

Ingeniaritzaren izaera generizatua prozesu historiko jakin baten bidez garatzen joan da, eta eguneroko praktika, instituzioen antolaketa eta zabalduko irudikapen sozial jakin batzuen bidez mantentzen da (Berner, 2002). Emakumeak ingeniartzan duten presentzia apala ulertzeko egindako ikerketak ugariak dira (hala nola, Berner & Mellstrom, 1997; Connell, 1995; Cockburn, 1991; Du, 2006; Hacker, 1989; Hodgkinson, & Hamill, 2006; Kvande, 1999; Kvande & Rasmussen, 1994; Powell, Bagilhole & Dainty, 2009; Sulaiman & Almuftah, 2010), eta ezaugarri maskulinoen inguruan eratu izanaren bidez azaltzen da nagusiki emakumeen presentzia apala (Du, 2006). Zehazki, unibertsitatean bultzatzen diren baloreen bidez, erakusten diren edukien bidez, ikasketetatik lan mundura dagoen saltoaren bidez, eta elitismoa zein gizonen arteko arteko hartu-emanak lehenestearen bidez azaltzen da. Jarraian, edukietan sakonduko da.

#### **2.4.1.1 Ikasketa prozesuan bultzatzen diren balore eta edukiak**

Ingeniaritzaren eta maskulinoa denaren arteko harreman estua ikasketa prozesuan eratzen hasten da. Izan ere, ikasketa prozesuetan ikasleak modu jakin batean pentsatu eta jokatzera bideratzen dira. Hain zuzen, ikasketa teknikoetara bideraturiko mendebaldeko ikasketetan eraginkortasuna, arrazionaltasuna eta diziplinatuak izatearen baloreak bultzatu dira (Connell, 1995); eta balore hauek mendebaldeko jendarteetan maskulinitatearekin hertsiki loturik egon dira. Ildo beretik doazen ikerketetan, emakumeen presentzia apala ikasketa prozesuetan lehenesten diren edukien bidez eta genero sozializazio ezberdinuaren bidez azaldu da (Du, 2001; Kvande & Rasmussen 1999). Izan ere, ingeniartza ikaste prozesuan matematika edota fisika bezalako edukiak nagusitzen dira, eta teknologiarekin aditu izatea bilatzen da. Ikasketa prozesuan erakusten diren edukiak mendebaldeko jendarteetan gizonen bizi esperientziekin bat egiten duten jarduerak dira, eta sozializazio maskulinoarekin bat egiten duten edukiak izaten dira. Haurtzarotik guraso zein eskola orientatzaileek



mutilak zientzia mundura hurbiltzen dituzte. Neskek berriz, zientzia eta ingeniari-tza mutilentzako direnaren mezua dela jasotzen dute (Andre, Whigham, Hendrickson & Chambers, 1999; de Pillis & de Pillis, 2008). Modu honetan, gaur egun oraindik lehen mailatik bigarren mailara pasatzen direnerako (12-13 urte), neskek zientzia edukiekiko duten interes maila jausten dela erakusten dute ikerketek, apala bilakatuz (Lee, 2002; de Pillis & de Pillis, 2008). Horrela, ingeniari-tzako ikaste prozesuan sozializazio femenoarekin lotura duten edukiek leku gutxi izaten dutela azaltzen du Kvande-ek (1999); esate baterako, teknologiararen inplikazio sozialen irakaspenari leku gutxi utziz. Emakumeen sozializazio prozesuan lehenetsi diren edukietatik urrun gelditzen dira ingeniari-tzako edukiak.

#### 2.4.1.2 Eskolatik lan mundurako jauzia

Eskolatik lan mundura dagoen jauziaren bidez ere azaldu izan da emakumeen presentzia apala. Honen ondorioz, ingeniari-tzako ikasketetan baino emakume gutxiago aurkitzen da lan munduan jardunean. Honakoa, lantokietan norma kultural homogeneo maskulinoa indarra hartzen joaten denaren bidez azaltzen da (Kvande & Rasmussen, 1994). Ikasketa prozesuan emakumeek lorpen akademikoaren bidez kideen aitortza lortu dezaketen arren, lan munduan honakoa zailagoa bilakatzen da. Lan munduko eskakizunak unibertsitateko eskakizunekin alderatuta ezberdinak izaten dira, eta emakumeek eskakizun horiek erdiesteko zailtasun gehiago edukitzen dituzte Duren iritziz (2006). Hala nola, lan munduan murgiltzeak unibertsitatean erabiltzen ez den teknologiarari loturiko hizkeraren erabilera, eta hizkera eta interakzio patroia batzuen erabilpena dakar. Ondorioz, unibertsitatean nagusi den kulturatik lan mundura dagoen kulturara igarotzeak emakumeei zailtasun gehigarria ekartzen die.

#### 2.4.1.3 Gizonen arteko hartu emanen lehenestea eta elitismoa

Ingeniari-tzan historikoki gizonen arteko hartu-emanak bultzatu dira (Cockburn, 1991; Hacker, 1989; Hodgkinson & Hamill, 2006; Marry, 1995). Honakoa duela gutxi arte emakumeek ingeniari-tza ikasteko izan duten debekuaren bidez (Marry, 1995) gauzatu da, edota lehenetsi diren praktika sozial eta bereizketa sozialaren bidez

(Arango, 2006). Horrela, XX. mendea goi mailako ikasketak emakumeetara zabaltzeagatik ezaugarritu den aroa izan arren, ingeniariaritzaren arloko ikasketetan berandura arte aurreko mendeko logikan jarraitu da. XX. mende bukaeran oraindik Frantziako eskola politeknikoetan emakumeek ingeniariaritzaren ikasketak debekua indarrean zegoen, eta soilik 1972tik aurrera bertan behera gelditu zen debekua (Marry, 1995). Gizonen arteko hartu-emanen preferentzia gainera klase sozial baten baitan burutu da. Modu honetan, aurrera eramaten ziren praktiken bidez gizonen arteko elkartasuna bultzatu da, eta aldi berean gizonen arteko bereizketa; emakumeengandik zein beste kategoria sozialetako gizonengandik ezberdintzea ekarriz (Arango, 2006). Bazterketa bikoitz honek historikoki ingeniariaritzaren elitezko komunitate bilakatzea ekarri du (Du, 2001; Hacker, 1989; Powell et al., 2009).

#### **2.4.2 EGUNGO EGOERA**

Jarraian, ingeniariaritzako lan esparruan emakumeen egoeraren berri ematen duten ikerlanen ondorioak azalduko dira. Zehazki, ikasketa prozesuan eta lan munduan emakumeek aurkitzen dituzten oztopo eta zailtasunen berri ematen duten lanak dira.

##### **2.4.2.1 Ikasketa prozesua**

Ingeniariaritzaren eskoletan emakume ikasleen egoera normalizatzerara heldu ez dela erakusten dute hainbat ikerketek. Ikasketek numerikoki maskulinoak izaten segitzeaz gain (Arango, 2006), emakume ikasleek ikasketa ingurugiroa hotza eta ez atsegin bezala ezaugarritzen dute (Baker, 2013; Bell, Spencer, Iserman & Logel, 2003). Ildo honetan, Fisher eta Margolis (2002) ikerketako emaitzek emakume ikasleek ikasketa prozesuan sozialki isolatuak daudela erakusten dute. Ikasketa prozesua klasetik harago doan prozesua dela aintzat harturik, isolatua egoteak, emakumeek gizonengatik desabantaila egoeran egotera eramaten ditu. Izan ere, ikastea klaseetan erakusten diren edukietatik harago doa, eta talde lanetan parte hartzean, kideekin harremanetan eta lan sarea osatzean datza, besteak beste (Lave & Wenger, 1991). Arango ikerlariak (2006) eginiko ikerketan, ingeniariaritzaren eskoletako ikasle eta irakasleek garraiatzen dituzten diskurtsoetan, mutilek lanbidearekiko duten gaitasun handiagoaren ideia eta emakumeek lanbidea aurrera eramateko duten zailtasun

handiagoaren ideia nabarmentzen da. Diskurtso hauek gizonek beren posizio soziala mantentzeko eta esparru teknikoarekiko kontrola mantentzeko aurrera eramaten dituzten estrategia inkontziente bezala interpretatzen ditu. Bestalde, Frantziako ingeniarietza eskoletan eginiko ikerketa batean, Doutre autoreak (2012) ikasketa prozesuan murgilduak dauden ikasleek, gizon eta emakume ingeniarietza begira garatzen dituzten irudikapenak, norberaren identitate sozial positiboa babesteko logikan garatzen dituztela erakutsi du (Kunnen & Bosma, 2006; Tajfel, 1978; Turner, 1987). Horrela, gizonek gizon ingeniarietza oso irudikapen positiboa garatzen duten bitartean, emakume ingeniarietza irudikapenaren bidez emakumeak diskriminatzen dituzte. Emakumeek berriz, emakume ingeniarietza irudikapenaren bidez diskriminatua daudela adierazten dute. Gainera, ingeniarietza eskolen elitismoa handitu ahala emakume ingeniarietza diskriminazioa ere handitzen doala erakusten dute emaitzek, emakumeetza garatzen den sexismo erasokorra eta ingeniarietza eskoletan egon daitekeen elitismoaren arteko lotura erakutsiz.

#### 2.4.2.2 Lan jarduna

Lan munduari dagokionez, emakume ingeniarietza izaera ezberdinetako oztipoak aurkitzen dituztela erakutsi da hainbat ikerketan (Doutre, 2008; Glass, Sassler, Levitte & Michelmore, 2013; Hunt, 2010; Moss-Racusin, Dovidio, Brescoll, Graham & Handelsman, 2012). Jarraian, ikerketa hauetan identifikaturiko ondorio nagusiak azalduko dira.

Emakumeetza ingeniarietza arloa gainerako kalifikazio altuko eta kudeaketa postuetako lanbideak baino gehiago uzten dute. Hainbat ikerketan lanbidean emakumeen jarraipenean edo ihesean enpresaren kultura motak eta gurasotasunarekiko politikek eragin zuzena izaten duela erakutsi da (Glass et al., 2013); hau da, emakumeen ihesean enpresen kontzilio politikak ezak, ordu luzean kulturak edota mugikortasun geografikoak eragina izaten duela. Alabaina, ingeniarietza arloko erakundeen politikak ez dira bestelako zuzendaritza postu edota kalifikazio altuko esparruetan izaten diren erakundeen politiketatik asko ezberdintzen. Ondorioz, kontzilio politikak ezaren bidez ezin daiteke emakumeetza ingeniarietza arloan bereziki izaten duten ihesa azaldu (Glass et al., 2013). Ildo honetan, kudeaketa postu eta

gainontzeko kalifikazio altuko lanbideekin alderatuz, soldata eta promoziorako espektatiba ezak ageri dira ingeniarietza lanbideko ezaugarri bereizgarri bezala (Hunt, 2010). Bide honetatik *Stem* bezala ezagutzera ematen diren lan eremuek (zientzia eta teknologia arloko lanbideak) logika propioa dutela ondorioztatzen heldu da Hunt (2010). Horrela, familia muga edo ordutegiaren maldatasun ezaren kausak ukatu gabe, ingeniarietza emakumeen galera promozio aukera txikiagoaren bidez eta soldatarekiko desafektazioaren bidez azaltzen da. Ondorio berera iristen dira Fouad eta Singh's (2011) emakume ingeniarietza egindako ikerketan.

Emakumeek ingeniarietza uzteko joera azaltzeko unean lan erakundeetako klimari ere erreparatu zaio. Lantokietan emakumeek zientzia arloan emakumei begira dauden sinesmen tradizionalen topo egiten dute (Sassler, Levitte, Glass & Michelmore, 2012). Emakumeek lankide eta buruengandik beren kompetentziak dudak jasaten dituztela azaltzen da. Horrela, emakume eta gizonetako performantzia espektatibak ezberdinak izaten dira (Moss-Racusin et al., 2012): lan ibilbide hasieratik gizonetako gaitasun gehiago aitortzen zaizkie, *mentore*aren babes gehiago jasotzen dute, lansari altuagoak edukitzen dituzte eta ezaugarri bereko emakumeekin alderatuz promozio azkarragoa izaten dute. Modu honetan, sinesmen tradizionalen eragina azpimarratzen da; zientzia, gaitasun teknikoa eta emakumei begirako aurreiritziak azpimarran jarritik (Glass et al., 2013).

Ingeniarietza arloan jarraituz, Guillaume eta Pochic ikerlariek ere (2007) emakume ingeniarietza promozio profesionalerako gizonetako baino oztopo gehiago izaten dituztela erakutsi dute. Ingeniarietza arloko erakunde batean egindako azterketaren bidez, *beirazko sabaia* erakundearen nagusi den kulturaren bidez gauzatzen dela erakutsi dute; hau da, erakundeak bultzatzen dituen prozesuaren bidez. Zehazki *beirazko sabaia*, lanbidearekiko erabateko debozioaren kultura bultzatzearen bidez, lanaldiaren lehen hamabost urteetan etenik gabeko lan ibilbidearen exigentziaren bidez, eta sare eta influentzia jokoaren eraginaren bidez eratzen den prozesua da. Bukatzeko, emakume ingeniarietza profesio kideengatik sexismo erasokorra jasaten dutela ere agerian jarri dute ikerketek (Doutre, 2008). Egoera hauen aurrean emakumeek hiru eratako estrategiak abian jartzen dituzte: batetik, lankideei aurre egiten dieten emakumeak daude (Doutre, 2008); bestetik, ingeniarietza arloan jarraitu baina okupazio mota aldatzeko erabakia hartzen duten emakumeak daude, zuzentze

edo kudeaketa posttutatik lehen lerroan ez dauden postuetara igaroz. Azkenik, lan egiten duten erakundea utzi eta lanpostua uzteko erabakia hartzen duten emakumeak ageri dira.

### **3 LIDERGOA ETA GENEROA LANTZEN DEN LITERATURAREN BERRIKUSPENA**

#### **3.1 SARRERA**

Generoaren araberako lan segregazioak mundu zein mendebaldeko herrialdetako lan merkatuko ezaugarri nagusienetako bat izaten jarraitzen du egun (OIT, 2016). Ondorioz, gizon eta emakumeak lan eremu ezberdinetan lan egitera eramanez dira. Lan segregazioa ez da neutroa dakartzan ondorioetan, eta emakumeek lan merkatuan bizi duten zeharkako diskriminazioarekin lotura zuzena dauka (Sallé & Molpeceres, 2009). Segregazio bertikalari dagokionez, datuek mundu mailan emakumeen kopurua erabaki gune eta lidergo posizioetan handitzen ari dela erakusten duten arren, bilakaera geldoa izaten ari da. Ildo honetan, OIT-ek 2016an argitaratutako txostenean, 2000-2012 artean 22 estatutan egindako ikerketan emakumeen kopurua kudeaketa posizioetan %5 igo zela agerian jartzen da (OIT, 2016). INE-ren arabera (Instituto Nacional de Estadística, 2018) Hego Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko datuei dagokienez, 2018. urtean emakumeak zuzendarien % 30a dira. Halere, karguaren tamaina handitu ahala edota lan eremua pribatua ala publikoa izatearen arabera, emakumeen presentzia apaltzen dela erakusten dute datuek (Instituto de la mujer, 2016). Lidergo posizioetan emakumeen presentzia apala enpresa pribatuko errealitatek harago doa, eta gobernu kanpoko erakundetan, kargu politikoetan, sindikatuetan, eta mundu akademikoan emakumeek duten gutxiengoan islatzen da ere (ONU mujeres, 2017).

Lidergo posizioetan emakumeen presentzia apala azaltzea helburu duten ikerketak anitzak dira, eta diziplina ezberdinetatik heldu zaion gaia da.

Literatura sozio-ekonomikoan teoria esanguratsu bezala ageri dira *Giza kapitalaren teoria* (Brown & Corcoran, 1997), *Lan merkatu dualaren teoria* (Bulow &

Summers, 1986; Goldin, 1986) edota Becker (1957) ekonomilariaren *Diskriminazioarekiko preferentziaren* teoria.

Soziologian, lidergo edo kudeaketa posizioetan emakumeen urritasuna azaltzeko, nagusiki, emakumeek gizonekin alderatuz zaintza lanekiko duten arduraren desorekatua eta lan erakunde (Guillaume & Pochic, 2007) eta lanbideen kulturaren azterketara jo izan da (Zolesio, 2009). Maila honetan, *beirazko sabaia* bezala ezagutzera eman dena (Davidson & Cooper, 1992; Powell, 2000), lan erakundeetan nagusitzen diren ordu eskakizunak, lidergo estiloak, gizonek duten boterearen hegemoniaren onspena edota esfera publiko eta pribatuaren arteko bereizketaren bidez azaldu da (Guillaume & Pochic, 2007; Hass & Hwang, 2007; Rutherford, 2001; Lee-Gosselin & Ann, 2011). Lanbideen kulturaren azterketan, lanbidearen eskakizunak, nagusitzen diren baloreak eta esanahi generizatuaren azterketa burutu ohi izan da, besteak beste (Britton, 2000; Cockburn, 1983; Hacker, 1990; Wright, 1996; Zolesio, 2009).

Psikologiatik ere anitzak dira garatu diren teoriak, eta lau multzotan sailkatu daitezke (Sarrió, Barberá, Ramos & Candela, 2002): 1-gizon eta emakumeen alderaketa oinarri harturik, motibaziozko eta pertsonalitate ezberdintasunen bidezko azalpen teorikoak daude (Monaci, 1997), 2-kudeaketarako orduan gizonak eta emakumeak eginbehar ezberdinetan eraginkortasun maila ezberdina dutela azaltzen dutenak (Maher, 1997), 3-generoaren arabera balore sistema ezberdinak edukitzean oinarritzen diren azalpen teorikoak (Kovalainen, 1990; Powell, 2000) eta 4-genero estereotipoak oinarri hartzen dituzten teoriak (Eagly & Karau, 2002; Schein, 1973).

Gizarte psikologiari dagokionez zehazki, anitzak dira lidergo posizioetan emakumeen presentzia apala eta genero araberako posizio sozial ezberdinak azaltzea ahalbidetzen duten teoriak. Ildo honetan kokatzen dira *Dominantzia sozialaren teoria* (Chatard, Guimond, Lorenzi-Cioldi & Désert, 2005; Sidanius & Pratto, 1999), *Sistemaren justifikazioaren teoria* (Jost, 1997; Jost & Kay, 2005; Proestakis & Branagarza, 2016), *Sexismo anibalentearen teoria* (Connor, Glick, & Fiske, 2017; Glick & Fiske, 1996) zein *Irudikapen sozialen teoria* (Doutre, 2012; Lorenzi-Cioldi, 2002). Azken urteetan egin diren ikerketetan lidergo posizioetan emakumeen presentzia apala azaltze aldera, genero rolen bidezko azalpenek indarra hartu dute. Lidergoa eta emakumeen genero rol kongruentzia jorratzera bideratu dira ikerketak (Monroe et al.,

2015), eta lidergoan emakumeen gabezia nagusiki genero estereotipo edota rolen azalpenaren bidez burutu da. Jarraian, teoria hauen nondik norakoak eta izandako bilakaerak azalduko dira.

Zehazki, lidergo roletan emakumeen presentzia apala azaltzea helburu duten teoriak aurkeztu aurretik, gaian kokatzeko, lidergo kontzeptuarekiko berrikuspen teoriko bat egingen da. Lehenik lidergo kontzeptua definituko da, eta ondotik gizarte psikologia era erakundeen psikologian lidergoa ulertu eta ikertzeko moduak izandako bilakaera eta teoria nagusiak azalduko dira. Bigarrenik, generoa eta lidergoa aztergai den literaturan emakumeen lidergoa nola ulertzen eta ezaugarritzen den azalduko da. Horretarako, gizon eta emakumeek lidergoak jorratu eta alderatu dituzten ikerketen berrikuspena burutuko da. Atal honetan, bigarren pauso batean, testuingurua genero ezberdintasunak/berdintasunak azaltzeko bereziki kontuan hartu beharreko elementua dela ikusiko da. Hirugarrenik, genero eskemen bidez lidergora iristeko eta jarduteko emakumeek aurkitzen dituzten oztopoak azaltzea xede duten teoria klasikoak azalduko dira. Ondotik, genero roletan oinarritzen diren teoriak izandako bilakaerak azalduko dira, lidergo ereduak izandako bilakaerarekin bukatzeko.

## **3.2 LIDERGOAREN DEFINIZIOAK ETA IKUSPEGI TEORIKO NAGUSIAK**

### **3.2.1 LIDERGOAREN DEFINIZIOAK**

Askotarikoak dira lidergoa zer den azaltzeko dauden definizioak. Stogdill-en hitzetan “lidergoa definitzen saiatu diren pertsona bezainbeste definizio daude” (1974, 259.or). Halere, kontzeptuarekiko filosofia partekatu bat ageri da lidergoa jorratzen duten ikerlarien artean (Toor & Ofori, 2009). Definizio zaharretara jo ezkerro, lidergoa era honetan definiturik aurkitu daiteke “talde batek helburu bat erdietsi dezan aktibitate bat zuzentzerakoan norbanako baten portaeran datza lidergoa” (Hemphill & Coons, 1957, 7.or) edota “helburu bat erdiesteko komunikazio prozesu baten bidez egoera jakin batean burutzen den pertsonen arteko influentzia” (Tannenbaum, Weschel & Massarik, 1961, 24.or). Definizio berriagotan, gaian erreferenteak diren Bass eta Stogdill-ek, lidergoa helburuak erdiesteko bidean erakundea motibatu eta koordinatzen duen indar dinamiko nagusi bezala definitzen dute (Bass, 1990).

Berriagoki, House-ek (2004), lidergoaz inoiz eraman den ikerketa zabalaren ikerketaren buruak, lidergoa norbanakoaren eragin eta motibazio gaitasuna dela azaldu zuen, eta erakunde baten kide diren pertsonen erakundearen eraginkortasunean eta lorpenean ekarpena egitea ahalbidetzean norbanako baten gaitasun bezala definitu zuen.

### **3.2.2 LIDERGOARI BURUZKO IKUSPEGI TEORIKO NAGUSIAK: TEORIEN AZALPENA**

1930. urtetik gizarte eta erakunde psikologiaren baitan, lidergoa ikertu eta ulertzeko moduan bilakaera nabarmena izan da (Bryman, 1992; Yukl, 1994). Definizioen aniztasuna, maila batean, honen isla bezala ulertu daiteke. Zehazki, lau dira 1930etik gaur arte nagusitu diren ikerketa lerroak eta lidergoa ulertzeko moduak (Bryman, 1992; Cuadrado, Navas & Molero, 2006; Yukl, 1994):

Lidergoa ikertzen hasi zen lehen garaian (1930-1945 ingurua arte), *Ezaugarrien ikuspuntua* bezala ezagutzera eman zen ikerketa lerroa nagusitu zen. Hurbilpen teoriko honetan lidergoa norbanako baten berezko ezaugarri bezala azaltzen da. Liderra naturalki dituen ezaugarriak edukitzearen ondorioz izaten da lider (energia, intuizioa edota pertsuasiorako gaitasuna edukitzearen bidez, esaterako), eta ez lidergorako trebatu izanaren ondorioz (Yukl, 1994).

Ondotik, 1940 ingurutik 1960 hamarkada bukaera arte *Lidergo estiloen ikuspuntua* (Bryman, 1992) edota *Portaerazko ikuspuntua* (Yukl, 1994) deitzen dena ezagutzera eman zen. Ikuspuntu teoriko honetan liderraren jokamoldeen (estiloa, rola, funtzioak, ardura) nolakotasuna aztertu eta jokamolde hauen eraginkortasun maila eta jarraitzaileen gogobetetze maila ikertzera bideratu ziren ikerketak. Ildo teoriko honen baitan kokatzen dira klasikoki ezagutzera eman diren lidergo demokratiko eta autokratikoa (Lewin, 1939/1964; White & Lippitt, 1960) edota eginbeharretara eta harremanetara bideraturiko lidergo estiloak (Halpin, 1957; Stogdill, 1963). Lidergo autokratiko eta demokratikoak liderrak jarraitzaileei erabakietan parte hartzeko eskaintzen dien mailari egiten die erreferentzia. Zehazki, lidergo autokratikoak aldebakartasunez erabakiak hartzeari egiten dio erreferentzia, jarraitzaileei



erabakietan parte hartzea ukatuz (Cuadrado, Navas, Molero, Ferrer & Morales, 2012; De Cremer, 2007). Lidergo demokratikoa kontsulta egiten duen eta parte hartzailea den lidergoa da. Liderrak jarraitzaileei erabakietan parte hartzen uzten die eta horretara bultzatzen ditu (Bass, 1990; Cuadrado et al., 2012; Gastil, 1994). Eginbeharretara eta harremanetara bideraturiko lidergo ereduari dagokionez, eginbeharretara bideraturikoak taldearen helburuak lortzeari bideraturiko lidergo ereduari egiten dio erreferentzia. Harremanetara bideraturiko lidergoak berriz, taldekideen artean eta taldekideekin harreman ona izatea bilatzen duen lidergoa da, beren ongi izatea eta asebetetzea lortzera bideratua egonik (Cuadrado et al., 2012; Hersey & Blanchard, 1982; Likert, 1961). Ildo honetan, lidergo klasiko hauen eraginkortasuna aztertzerako bideratu izan dira ikerketak, beraien arteko alderaketa egitearen bidez. Oro har, nahiz eta faktore gehiago kontuan hartu behar diren, lidergo demokratikoa autokratikoa baino eraginkorragoa eta gogobetetze handiagoa dakarrela erakutsi izan dute ikerketek (Foels, Driskell, Mullen & Salas, 2000; Gastil, 1994). Eginbeharretara eta harremanetara bideraturiko lidergoari dagokionez, eta lidergoaren eraginkortasunari dagokionez, ikerketen ondorioak ezberdinak diren arren bien arteko konbinaketaren egokitasuna agerian jarri duten ikerketa ugari daude (Cuadrado et al., 2006).

1960 amaieratik 1980. hamarkada bitartean *Egoerazko ikuspuntua* bezala ezagutzea eman zen ikerketa lerroa nagusitu da (Yukl, 1994). Ikuspuntu honen berezitasuna testuinguruari garrantzia berezia esleitzean dago. Testuinguruak lidergoa aurrera eramateko moduan, aukeretan eta lidergoaren eraginkortasun mailan eragina daukala azaltzen da. Liderrak burutzen duen lanaren izaera, kanpo ezaugarrien eragina eta jarraitzaileen ezaugarriak aintzat hartu beharreko elementu bezala ageri dira. Ildo honetan bi ikerketa azpi-kategoria nagusitu dira. Bata, lidergoa burutzen den erakunde testuinguru edo hierarkian lidergoak daukan lekuaren eraginak aztertzerako bideratu dena. Bestea, *Kontingentzia eredu*a bezala ezagutzera eman dena da (Fiedler, 1978). Ikuspegi hau momentu eta egoera jakin baten arabera portaera moldeen eraginkortasuna aldakorra denaren suposizioan oinarritzen da. Lidergoa eta taldearen artean eragiten duten egoerazko ezaugarriak identifikatzera bideraturiko ikerketa lerroa da (Haslam, Reicher & Platow, 2011).

Bukatzeko, 1980. urtetik gaur arte *Botere eraginaren* ikuspuntua (Yukl, 1994) edota *Lidergo berrien* ikuspuntua (Bryman, 1992) bezala ezagutzera eman den ikerketa ildo nagusitu da. Lidergo klasikoek errealitatean ikusi zitezkeen lider batzuek (goi mailako liderrek) jarraitzaileengan sortzen zuten eragin harrigarria ulertzea ahalbidetzen ez zutenaren ondorioz azaldu da ildo berri hau. Adibidez Fidel Castro, Gandhi edota Martin Luther King-ek sortzen zuten eragina edo zirrarari erreferentzia egiten die Yukl autoreak (1994). Zentzu honetan, karismaren kontzeptuari berriz heldu dion ikuspuntu teorikoa da. Lidergoa jarraitzaile eta liderraren arteko prozesu bezala ulertzen da, eta lidergoaren boterea jarraitzaileek zilegi bilakarazten dute. (Bass 1990; Stogdill, 1963). Lidergo berrien ikuspuntuan, liderrak jarraitzaileak motibatzen duen gaitasuna aztertzen dira nagusiki ikerketak (Bryman, 1992). Ildo honetan kokatzen dira lidergo karismatikoa, transformazionala eta transakzionala bezala ezagutzera eman diren lidergoak. Lidergo karismatikoa eta transformazionala ikerlarien batzuk bereizi gabe eta besteek bereizirik aztertu izaten dituzte (Yukl, 1999). Lidergo karismatikoa jarraitzaileengan ez ohiko eragina eta eragin sakona izaten duen lidergoa da. Liderreko afekzioa garatzeaz gain, liderrak proposatzen duenarekiko zuzentasunaren sinesmena nagusitzen da, haren proposamenak zalantzan jarriak izan gabe (House, 1977). Burns-en lanetan oinarrituz (1978), Bass-ek lidergo transformazionala eta transakzionala bezala ezagutzera eman diren lidergoak lehen aldiz 1985ean plazaratu zituen. Lidergo transakzionala liderra eta jarraitzailearen arteko transakzio izaera duen hartu-emanen oinarritzen den lidergoa da. Liderra eta jarraitzaileen arteko hartu-eman inplizitu batean oinarritzen da, jarraitzaileek liderrak espero duena erdiestean onurak jasoz (ezagutza edota soldataren bidez adibidez) eta liderrak jarraitzaileen partetik bere autoritatearen onarpena jasoz, besteak beste (Bass, 1985). Lidergo transformazionalak berriz, jarraitzaileak liderrarekin identifikazio azkarra edukitzea dakar, etorkizunaren ikuspegi partekatu bat edukitzea edota norbanakoen interesen oinarritzen den saritze elkartruketik harago joatea. Lider transformazionalak emaitzak erdiesteko jarraitzaileen emozioetara iristea bilatzen du (Bass & Avolio, 1993). Lidergo transformazionala eta transakzionalaren izaera ezberdinak dira beraz, lidergoa aurrera eramaten den moduagatik eta lidergo estiloak sortzen dituen ondorioengatik (Cuadrado et al., 2006). Aurrerago azalduko den bezala,

bi lidergo eredu hauen erabilerak dakartzaten onurak anitzak dira (Birasnav, Rangnekar & Dalpati, 2011; Boerner, Eisenbeiss & Griesser, 2007; Prasad & Junni, 2016).

Lidergoa ikertu eta ulertzeko moduak bilakaera nabarmena izan du beraz, 1930etik gaur arte. Halere, garrantziko da azpimarratzea, azaldu berri diren ikerketa lerroak bateragarriak eta osagarriak izan daitezkeela eta ikerketa lerro berri baten agerpenak ez duela aurreko ekarpenak bertan behera uztea ekartzen (Cuadrado et al., 2006).

### **3.3 LIDERGOAN GENEROA ETA TESTUINGURUAREN ARABERAKO ALDAERAK**

#### **3.3.1 EMAKUMEEN LIDERGOAREN EZAUGARRITZEA: GENERO EZBERDINTASUNA VS BERDINTASUNA**

Orain arte lidergoari esleituriko definizio anitzak azaldu dira eta lidergoaren inguruan izan den bilakaera teorikoa agerian jarri da. Jarraian, lidergoa eta generoa aztergai izan duten ikerlanak azalduko dira, zehazki emakumeen lidergo eredu eta lidergoan genero ezberdintasunen gaia aztertu dutenak. Hain zuzen ere, anitzak dira emakumeen lidergoa gizonen lidergotik aztertzea xede izan duten ikerketak. Askotarikoak dira, eta emaitza kontrajarriak ageri dira, diziplina, urtea edota ikerketa moldearen arabera. Askotan lidergoan genero ezberdintasunaren ideia aldarrikatu eta babesten duten emaitzak plazaratu diren arren, ikerketa gehienek emaitzetan genero ezberdintasun ezaren ideia babesten da (Bartol & Martin, 1986; Bass, 1981; Billing & Alvesson, 2000; Cuadrado, 2003; Kanter, 1977). Jarraian, eztabaida honen baitan aritu diren ikerketen nondik-norakoak azalduko dira.

Emakumeek lidergo propioa dutela aldarrikatze zentzuan, autore ugari emakumeen lidergoa gizonen lidergotik ezberdintzen dela baieztatu izan dute; lidergo femeninoaren existentziaren aldarrikapena egiten duten lanak dira (Billing & Alvesson, 2000). Ildo honetan, emakumeen lidergoa sentimenduak lehenestean oinarritzen dela azaldu du Hines-ek (1992), sormenera bideraturiko eta irudimentsua den lidergo bezala definituz. Loden-ek (1985) lidergo maskulinoa lehiakortasuna, harreman hierarkikoa, kontrola eta arazoaren konponbidea bide analitikoetik burutzearen bidez

ezaugarritu zuen bitartean, lidergo femeninoari kooperazioa, elkarlana, kontrol maila apala, eta arazoan konponketarako empatia, intuizioa eta arrazionaltasunaren erabileraren atributuak esleitu zizkion. Grant-ek (1998) berriz, emakumeen balore edota printzipioak hazkuntza, empatia, errukia eta sentikortasunean oinarritzen direla aldarrikatzen zuen. Zentzu honetan, ikerlari ugari emakumeek boterearekiko duten harremana gizonek dutenetik ezberdintzen dela azaldu izan dute. Emakumeek boterea, dominaziorako edo kontrolerako tresna bezala ulertu baino, komunitate guzira heltzeko gaitasun edo ahalmen bezala ulertzen dutela babesten dute (French, 1986; Grant, 1988). Ildo beretik, Haslebo-k (1987) emakumeek boterean modu eraikitzaileagoan jarduten dutela azaltzen du, giza baliabideak mobilizatuz, sormena bultzatuz eta egitura hierarkikoak eraldatuz. Helgesenek berriz (1990) lidergoan *printzipio femeninoaren* ideia babesten du, emakumeek lehiakortasunaren balorearen aurrean kooperazioa lehenesten dutela eta jarraitzaile-liderraren hierarkiaren aurrean berdintasunaren printzipioa bultzatzen dutela argudiatuz. Ikuspegi teoriko hauetan jasotzen diren edukiak kontuan izanik generoaren naturalizazioa edota esentzializazioan kokatzen direla ondoriozta daiteke, emakume eta gizonezkoen atxikitzen zaizkien ezaugarrien ezberdintze argi bat emanez (Billing & Alvesson, 2000).

Gaian aitzindari izan ziren eta esparru soziologikoan kokatzen diren ikerketen filosofia eta emaitzak agerian utzi ondotik, izaera ezberdina duten ikerketak aurkeztuko dira jarraian; zehazki, lan eta erakunde psikologian egindako ikerketen emaitzak:

Generoaren naturalizazioaren ideia joan gabe, askotarikoak dira genero ezberdintasunak aurkitu dituzten ikerketak. Ildo honetan, gizonen lidergoa emakumeena baino agentikoagoa ezaugarritu ohi izaten da, emakumeena gizonezkoena baino komunalago ezaugarritzen den bitartean (ikus adibidez Chin, 2004; Cuadrado, García-Ael & Molero, 2015; Eagly & Johnson, 1990; Engen & Willemsen, 2004; Heesacker, Wester, Vogel, Wentzel, Mejia-Milan & Goodholm, 1999; Cuadrado et al., 2012). Agentizitatea, kontrola, indarra, independentea, norbere buruan konfiantza izatea eta kompetentea izatearen ezaugarrien bidez azaltzen den kontzeptua da. Komunalitatea berriz, ingurukoak laguntzea, afekzioa, zaintza edota sentikorra izatearen bidez azaltzen den kontzeptua da (Eagly & Johannesen-Schmit, 2001; Eagly, Wood & Diekmann, 2000). Ikerketen emaitzei erreferentzia eginaz,

jarraitzaileek emakume liderrak gizonekin alderatuz emozionalago edo pasiboago ikusten dituztenaren ondoriora iritsi dira hainbat lanetan, gizonak emakumeekin alderatuz kompetenteago eta indartsuago ikusten dituzten bitartean (Alfermann, 1996; Wolfram, Mohr & Schyns, 2007). Ari berean, berriki egindako Cuadrado eta kideen (2015) ikerketan jarraitzaileek gizon liderrari ezaugarri maskulino gehiago atxikitzen dizkietela erakutsi dute emakume liderrarekin alderatuz.

Lidergo estilo klasikoan azterketari dagokionez; hau da, lidergo autokratikoa, demokratikoa, eginbeharretara bideraturikoa eta harremanetara bideraturiko lidergoen azterketak, maskulino eta femeninotzat ezaugarritzen dena lantzeko bereziki proposak kontsideratzen diren lidergoak dira (Eagly & Johnson, 1990; Cuadrado, 2003); lidergo komunal-femenino eta agentiko-maskulinoaz aritzea ahalbidetzen duten lidergo estiloak izaki. Ildo honetan, Eagly & Johnson-en eginiko metanalisian (1990), gizon liderrak (erakunde testuinguruan zein maila esperimentalean eginiko ikerketetan) emakume liderrak baino autokratikoagoak ikusiak direla erakutsi zuten, emakumeak demokratikoago eta parte hartzaileago bezala ezaugarritzen ziren bitartean. Metanalisi bereko emaitzek, harremanetara eta eginbeharretara bideraturiko lidergo estiloetan, emakumeak maila batean harremanetara bideratuagoko estiloa zutela erakutsi zuten. Aldiz, eginbeharretara bideratuko lidergo estiloan generoaren araberako aldaerarik ez zen agertu. Ildo berean, ondotik egindako ikerketetan ere, jarraitzaileek emakumeen lidergoa gizonen baino demokratikoago eta harremanetara bideratuago bezala ezaugarritzen dutela agerian jarri da, gizonen lidergoa emakumeenarekin alderatuz autokratikoago eta eginbeharretara bideratuago bezala ezaugarritzen den bitartean (Cuadrado et al., 2012).

1987-2000 urteen arteko ikerketak jasotzen dituen Engen & Willemsen-en metanalisian (2004) emakumeek lidergo demokratikoagoa erabiltzen dutenaren ondoriora iritsi ziren. Aldiz, harremanetara bideraturiko lidergoan, eginbeharretara bideraturikoan eta lidergo autokratikoan generoaren araberako alderik ez zegoela ondorioztatu zen. Berriki, Cuadrado eta kideek (2012) jarraitzaileek liderraz egindako ebaluazioan oinarriturik, lidergo demokratikoan, harremanetara bideraturikoan eta eginbeharretara bideratukoan ez zen liderraren generoaren araberako aldaerarik mahaigaineratu, bai ordea lidergo estilo autokratikoan. Zehazki, aurreikuspenen

kontra, jarraitzaileek emakume liderra gizon liderra baino autokratikoago ebaluatu zutela agerian jarri zuten. Aldiz emaitza honetan generoa ebaluazioan eragiten duten ezaugarria zela ikusi zen, soilik gizonak ebaluatu baitzuten emakume liderra gizon liderra baino autokratikoago. Ikerketa berean (Cuadrado et al., 2012), gerentzia postuan dauden pertsonen autoebaluazioan oinarriturik, gizon eta emakumeek beraien burua modu berean ebaluatzen zutela erakutsi zuten. Lerro berean kokatzen diren emaitzak dira Engen, Leeden eta Willemsen-ek egindako ikerketarenak (2001). Izan ere, autoebaluazioen bidez lortutako emaitzetan oinarriturik, liderrek beraien buruaz ezaugarritzerakoan, eginbeharretara bideraturiko eta harremanetara bideraturiko lidergoetan ez zen generoaren araberako aldaerarik atzeman. Bestalde, hainbat ikerketetako emaitzek, emakumeen lidergoa gizonen lidergoa baino agentikoago bezala agerrarazi izan dute. Ildo honetan, Pfaff eta kideen ikerketan (2013), liderren autoebaluazioek zein jarraitzaileen ebaluazioek, emakume liderra gizon liderra baino eginbeharretara bideratuago bezala agerrarazi zuten. Bartol, Martin eta Kromkowski-ren ikerketan berriz (2003), jarraitzaileek emakume liderra gizon liderra baino eginbeharretara zein harremanetara bideratuago bezala ezaugarritu zuten.

Ondorioz, lidergo estilo klasikoen azterketan, lidergoan generoaren araberako ezberdintasun eza edota ezberdintasunak agerrarazi dituzten ikerketak daudela ikusi da. Ezberdintasunak nabarmendu diren kasuetan, agentizitateari begira, aurkako zentzuan doazen emaitzak ageri dira. Batzuetan gizonen lidergoa emakumeena baino agentikoago bezala ezaugarritzen den bitartean, beste batzuetan emakumeen lidergoa gizonena baino agentikoago bezala ageri da. Aldiz, komunalitateari begira, emakumeen lidergoa gizonena baino komunalago bezala ezaugarritzen duten emaitzak dauden bitartean, ez dago gizonen lidergoa emakumeena baino komunalago bezala agerrarazi duen ikerketarik.

Lidergo estilo berriagoei dagokienez, lidergo transformazionala, tradizionaliki femeninoak diren ezaugarriekin lotura gehiago duen lidergo bezala ezaugarritu da literaturan, eta emakumeei atxiki ohi izan zaie lidergo honen erabilera handiagoa (Bass & Avolio, 1994; Eagly & Carly, 2003a; Eagly & Johannesen-Schmidt, 2001; Eagly, Johannesen-Schmidt & van Engen, 2003; Engen et al., 2004). Hain zuzen, Eagly eta kideek (2003) egindako metanalisian, emakumeek lidergo transformazionala gizonak

baino gehiago erabiltzeko duten joera agerian jarri zuten, gizonak transakzionala gehiago erabiltzen dutela erakutsi zuten bitartean. Halere, ikerketen arabera emaitzak aldakorrak dira, eta ikerketa batzuetan gizon eta emakume liderren ebaluazioan ez da alderik atzeman (ikus adibidez Engen et al., 2001; Cuadrado et al., 2012; Komives, 1991a; López-Zafra & del Olmo, 1999).

### **3.3.2 LIDERGOAREN KONTZEPZIOAN GENERO PERTENENTZIAREN ERAGINA**

Generoak emakumeen liderraren ebaluazioan eragina izateaz gain, generoak lidergoa ikusi eta baloratzeko moduan ere eragina izan dezakela erakutsi da hainbat ikerketetan (Cuadrado et al., 2015; Koenig, Eagly, Mitchell & Ristikari, 2011). Halere, generoaren aldaeraren norabideari begira emaitza kontrajarriak ageri dira. Batetik, maila deskriptiboan kokatuz, berriki egindako metanalisi batean (Koenig et al., 2011), gizon zein emakumeek ezaugarri agentikoak gizonzkoei emakumei baino gehiago atxikitzen dizkietela erakutsi zuten. Alabaina, gizonzkoei emakumeekin alderatuz lidergoa maila agentikoagoan irudikatzen dutela azaleratu zuten emaitzek. Gizonzkoei beraz, lidergoari agentizitate gehiago esleitzearen bidez, lidergoa gizon izatearekin gehiago lotzen dutela ondorioztatzen da. Ildo beretik, Cuadrado eta kideen (2015) ikerketan, jarraitzaileek agentizitatea gizon liderrari emakume liderrari baino gehiago esleitzen diotela erakutsi zuten. Era berean, lider ona izateko jarraitzaileek ezaugarri agentikoak edukitzea komunalak edukitzea baino garrantzitsuagozat jotzen dutela argitu zuten. Alabaina, Koenig eta kideen (2011) ikerketan ez bezala, lider ona izateko ezaugarri agentikoei garrantzi handiagoa eman zieten emakumeek gizonak baino. Ondorioz, gizona eta lidergoaren loturaren ideiarekin emakumeek gehiago bat egiten dutela agerian gelditu zen.

### 3.3.3 TESTUINGURUA, LIDERGO EREDUEN AZALTZAILE NAGUSIA

Orain arte lidergoa eta generoa aztertu duten ikerketen emaitzak aurkeztu dira, eta ikerketa batetik bestera emaitzak aldakorrek edota kontrajarriak direla agerian gelditu da. Alabaina, lidergoan genero ezberdintasunik baden ala ez argitzeko bidean, kontuan hartu beharrezko aldagai gako bezala ageri dira testuinguruari loturiko faktoreak. Izan ere, ikerketaren diseinuak (eremu naturala ala esperimentalak izan), edota lidergoa aztertu den lan testuinguruak (testuinguru maskulinoan ala femeninoan egindako ikerketak) emaitzetan aldaera dakarrela erakutsi dute ikerketa ugariak. Ildo honetan genero rolei gaina harturik, liderrari ezaugarri jakin batzuk esleitzeko orduan testuinguruaz azaltzaile gakoak dela ikusi da ikerketa ugarietan (Derks, Van Laar & Ellemers, 2006; Eagly & Johannesen-Schmit, 2001; Eagly & Johnson, 1990; Moskowitz, Suh & Desaulniers, 1994; Vial, Napier & Brescoll, 2016).

#### 3.3.3.1 Ikerketa disenua: naturala vs esperimentalak

Ikerketaren diseinuak lidergoan genero ezberdintasunak atzemateak edo ez atzemateak eragina izaten du. Zehazki, genero ezberdintasunak ikerketa esperimentaletan lan testuinguruetan baino gehiago nabarmentzen direla agerian jarri zen Eagly eta Johnson-en metanalisian (1990). Lan testuinguru errealean eginiko ikerketetan, agerian jarri zuten harreman eta eginbeharrei loturiko lidergo eredu azterketan ez dagoela gizon eta emakume liderren arteko genero ezberdintasunik. Ildo honetan, norbanako batek erakunde batean jardutean erakundearen kulturari begirako egokitzea izaten denaren ideia babesten da. Izan ere, erakundeetan rol jakin batzuekiko espero diren portaerak alde aurretik definituak egoten dira, eta kudeatzaile berriei jarduteko gida argiak jartzen zaizkie. Eagly eta Johnson-en metanalisiko emaitzak azaltzean, liderrak erakunde kulturaren nagusi diren gakoetan sozializatzen direla azaltzen da, alde aurretik egon daitezkeen genero ezberdintasunak neutralizatuz (Eagly & Johnson, 1990). Ildo berean kokatzen dira Moskowitz eta kideen (1994) eta Eagly eta Johannesen-Schmit-en ikerketak (2001). Erakundeetan egindako ikerketetan, agentizitateari dagokionez, jarraitzaile eta buruen arteko hartu-emanen ez dute generoaren araberarik atzeman. Aldiz, hartu-emanak uneoro gako agentikoan burutzen direla erakusten dute emaitzek,



interakzioan parte hartzen dutenak emakumeak ala gizonak izan. Halaber, buruaren estatusak/botereak gora egin ahala hartu-emanen agentizitate maila handitzen dela ikusi daiteke. Maila komunalari dagokionez aldiz, hartu-emanetan jarraitzaile-buruaren arteko generoak eragina daukala ondorioztatzen da, emakumeen artean izaten diren hartu-emanak bereziki komunalak izanik gizonak gizonen artean dituztenekin alderatuz (Eagly & Johannesen-Schmit, 2001; Moskowitz et al., 1994). Maila agentikoetako emaitzek lidergoa maila agentikotan definitzen dela erakustez gain, rolari atxikiriko ezaugarriak generoari atxikitakoari gailentzen zaizkiola erakusten dute (Eagly & Karau, 2002), rol sozialaren teoriarekin bat eginik. Aldiz, komunalitatearen erabilera, generizatua egiten dela ageri da, komunalitatearen erabilpena hartu-emanen parte hartzen duten pertsonen generoaren arabera izanda (Moskowitz et al., 1994). Ondorioz, agentizitatearen erabilera rolari atxikitzen zaion bitartean, komunalitatearen erabilera generoari atxikirik agertzen zaio.

### 3.3.3.2 Testuinguru maskulinoaren eragina

Testuinguruak burutzen diren lidergo ereduetan duen eraginaren azterketarekin segituz, ezaugarri garrantzitsu bezala ageri da lidergo rolean edota erakundeetan emakumeak numerikoki gutxiengo izatea (Eagly & Johnson, 1990; Ellemers, 1993; Ellemers, Rink, Derks & Ryan, 2012; Cuadrado, 2003; Gardiner & Tiggeman, 1999; Vial et al., 2016). Eagly eta Johnson-en metanalisiak (1990), erakundearen jardura liderraren rolaekin kongruentea izateak, gizon zein emakumeak eginbeharretara bideraturiko lidergoa burutzera eramaten dituela agerian jarri zuen. Zehazki, emakumeak, tipikoki aktibitate femeninoa duen erakunde batean jarduteak, eta gizonak tipikoki jardura maskulinoa duen erakunde batean jarduteak, bata zein bestea eginbeharretara bideraturiko lidergoa burutzera eramaten ditu. Erakundeetan lidergoan dauden pertsonen genero konposizioak ere (emakume eta gizonen ehunekoa) emakumeen lidergo estiloan eragina daukala agerian jarri zuen metanalisiak. Hain zuzen, lidergo rolean gero eta emakume gutxiago izateak emakumeak lidergoan ezaugarri komunalak alde batera uztera eramaten dituela erakutsi zuten. Gizonezkoak gehiago handia diren testuinguruan, "bizirauten" duten emakumeek gizonentzako tipikoa den rola bere egin izanaren bidez azaltzen dituzten

emaitzak dira (Eagly & Johnson, 1990). Ildo honetan kokatzen dira Gardiner eta Tiggeman-en (1999) ikerketaren emaitzak. Hain zuzen Gardiner eta Tiggeman-ek, erakundeen genero tipifikazioa ezaugarritzeko, erakundean orokorrean dauden gizon eta emakumeen kopurua aintzat hartzeaz gain, erakundeetan lidergo posizioan dauden pertsonen genero osaera ere kontuan hartu zuten (Kanter, 1977). Zehazki, lidergo roletan zein erakundean pertsonen %15 baino gutxiago emakumeak edo gizonak badira, erakundea maskulino edo femenino bezala ezaugarrituko da, hurrenez hurren. Harremanetara bideraturiko lidergoari dagokionez, erakunde femeninoetan emakumeek gizonak baino harremanetara bideratuagoko lidergoa burutzen zutela erakutsi zuten. Aldiz, harremanetara bideraturiko lidergoan, erakunde maskulinoetan ez zen generoaren araberako aldaerarik agertu. Eginbeharretara bideraturiko lidergoari dagokionez, erakunde maskulinoetan, emakume liderrek beraien burua agentikoago ezaugarritu zutela erakutsi zuten, gizon liderrek haien burua ezaugarritu zutena baino. Numerikoki gizonak nagusi ez ziren erakundeetan berriz ez zen gizon eta emakumeen arteko autoebaluazioan aldaerarik atzeman. Ondorioz, ikerketa honetan, erakundearen eta lidergo rolaen genero tipifikazioak emakumeen lidergo estiloan eragina duen garrantzizko ezaugarri bezala ageri da (Gardiner & Tiggeman, 1999). Emaitza hauek beraz Eagly eta Johnson-en (1990) metanalisiko korrelaziozko emaitzekin bat egiten dute. Beraz, gizonak nagusi diren erakundeetan emakumeek estereotipikoki maskulinoa den lidergoa burutzen dutela ondorioztatzen da (Cuadrado, 2003). Kanter-ek (1977) emakumeak goi posiziotan egotean "token" ala sinbolo estatusean egotera eramaten dituela azaldu zuen, emakumeen lidergo estiloak testuinguru maskulinoari egokitu behar izatera eramanez (Cuadrado, 2003). Emakumeek gutxiengoa izanik, aldaketarako tarte gutxi izaten dute, eta indarrean dagoen norma maskulinoa helarazia izaten zaie. Honakoak lidergorako normatiboa den ezaugarri agentikoekin bat egitea eramaten ditu emakumeak (Derks et al., 2006; Vial et al., 2016), maskulinoa den eta gizonak baloratzen duten lidergoa burutuz (Gutiérrez, 2015). Ildo honetatik, lidergoarekiko zilegitasuna bilatze zentzuan, emakumeek abian jartzen duten estrategia bat bezala ulertzen da lidergo bereziki agentikoa aurrera eramatea. Lidergorako bidea erraztea bilaturik, gizonekin identifikazioa eta norberaren genero taldearekin identifikatua ez izatea bilatzen duen estrategia bezala ulertzen da (Derks, Van Laar, Ellemers & De Groot, 2011b; Ellemers,

1993; Ellemers et al., 2012; Vial et al., 2016). Era berean, jarraitzaileen zilegitasuna bilaturik, emakume bezala estereotipatuak izatea ekiditeko emakumeek komunikazio bide bereziki maskulinoa hartu dezaketela azaldu dute hainbat ikerlarik (Ellemers, 1993; Ellemers et al., 2012; Vial et al., 2016). Emakumeek bereziki testuinguru maskulinoetan aditzera ematen dute lidergoan zilegitasuna ez aitortua izatearen kezka (Chen & Moons, 2015).

### **3.4 ZERGATIK EMAKUME GUTXIAGO DAUDE LIDERGOAN? GENERO ROLEN BIDEZKO AZALPEN TEORIKOAK**

Lidergoa genero ikuspegitik jorratzerakoan, emakumeen eta gizonezkoen lidergo estiloari buruzko lanak eta testuinguruak lidergoan duen eragina aztertzen duten lanak mahaigaineratu dira orain arte. Jarraian, emakumeek lidergoan jarduteko edota iristeko edukitzen dituzten oztopoak azaltzea xede duten ikerketa klasikoak azalduko dira. Sarreran aurreratu den bezala, gizarte psikologian lidergo roletan emakumeen presentzia apala ulertzeko eta jardunean aurkitzen dituzten mugak azaltzeko, azken urteetan ikerketak lidergo estilo eta genero rolen eskemen lanketan zentratu dira nagusiki (Monroe et al., 2015).

#### **3.4.1 TEORIA KLASIKOAK**

Lidergoa eta genero estereotipoen maila deskriptiboaren edukien analisisan zentratuz, *Think manager Think male* (Schein, 1973) teoria proposatu zuen Schein-ek (1973), lidergo rolen eta genero rolen inguruko ekarpena egiten aitzindari izan zenak. Erakundeetan lidergo rolari atxikitzen zaizkien ezaugarriak gizonezkoek atxikitzen zaizkien ezaugarriekin lotzen direla erakutsi zuen, eta emakumeek atxikitzen zaizkien ezaugarrietatik ezberdintzen direla. Hala, gizonezkoek eta managerrek ezaugarri instrumentalak atxikitzen zaizkien bitartean, emakumeek ezaugarri komunalak atxikitzen zaizkiela ezagutarazi zuen.

Lerro beretik doaz *Bateragarritasun eskasaren teoria (lack of fit jatorrian)* (Heilman, 2001) eta *Rol kongruentziaren teoria* ere (Eagly & Karau, 2002). *Bateragarritasun eskasaren teorian*, lidergo rola eta emakumeen arteko bat ez

egitearen pertzepzioa dagoela azaltzen da. Honen ondorioz, erakundeetan emakumeek lidergo roletan huts egingo dutenaren espektatiba dagoela azaltzen da. Emakumeekiko itxaropen apalagoak edukitzeak emakumeekiko dagoen begiradan eta ebaluazio negatiboan eragin zuzena dauka (Heilman, 2001; Lyness & Heilman, 2006). *Rolaren kongruentziaren teoria* (Eagly & Karau, 2002), estereotipoen maila deskriptibo eta preskriptiboaren bidez, lidergo roletan emakumeen presentzia apala eta aurreiritzia azaltzea ahalbidetu duen erreferentziazko ekarpen teorikoa bilakatu da. Teoria honen abiapuntua *Rol sozialaren teorian* (sociale role theory jatorrian) (Eagly, 1987) oinarritzen da. *Rol sozialaren teorian*, gizon eta emakumeei historikoki atxiki izan zaizkien rol ezberdinen bidez, genero bakoitzarekiko ezaugarriei begirako sinesmen partekatuak daudela azaltzen da (Bakan, 1966; Eagly & Karau, 2002; Heilman, 2001). Era honetan, genero estereotipoen maila deskriptiboaren edukiaren jatorria azaltzen da. Gizonezkoak pertsona independente edota erabakitzaile bezalako ezaugarriekin lotzen dira, eta emakumeak zintzotasuna edota lagunkoi izatearekin, besteak beste. Gainera, genero estereotipoak deskriptiboak izateaz gain, preskriptiboak direla azaltzen dute (Eagly & Karau, 2002; Heilman, 2001). Genero estereotipoen maila preskriptiboak izan behar denari; hau da, betekizunari egiten dio erreferentzia. Beraz genero rolei begira zabalduak dauden sinesmenak portaera preskripzio bilakatzera heltzen dira. Emakumeek portaera komunalak eta gizonezkoek instrumentalak izatea positiboki baloratzen den bitartean, alderantzikoa gaizki ikusia dagoela azaltzen da.

Oinarri hauetatik abiatuz emakumeek lidergora iristeko zailtasunak eta bertan jardutean aurkitzen dituzten aurreiritziak azaltzen dituzte *Rol kongruentziaren teorian* (Eagly & Karau, 2002). Batetik, emakumeen ezaugarriekiko sinesmenak eta lidergo rolarenak ezberdinak izaki, emakume liderrengatik espero diren portaeren espektatibak ezberdinak izaten dira, rol inkongruentzia sortuz. Genero estereotipoen maila deskriptiboa lidergo rolekiko emakumeen sarbidea oztopatzen duen ezaugarri bezala ageri da. Bestetik, *Rol kongruentziaren teorian* pertsonak burutzen dituzten rol sozialek genero rolaerikiko nagusitasuna hartzen dutela azaltzen da. Hau da, lidergoan era agentikoan ari diren emakumeei, lidergo rolari atxikitzen zaizkion ezaugarri agentikoak esleituko zaizkiela azaltzen da, eta ez genero rol femeninoari loturiko ezaugarri komunalak. Alabaina, emakumeek era agentikoan jokatuz gero, eta honakoak lidergo rolaekin bat egitea ahalbidetu arren, genero estereotipoen maila

preskriptiboarekin topo egingo dute. Genero rola urratzea egotziko zaie, aurreiritzi negatiboa sortuz (Eagly & Karau, 2002). Ondorioz, gizon eta emakumeen lidergo estiloak era berdinean hautemanak izan daitezken arren, lidergo estiloen ebaluazioak genero soslaia izaten jarraituko du (Eagly & Karau, 2002; Ellemers et al., 2012).

Egungo ikerketen emaitzek, genero estereotipoen maila preskriptiboarekin bat egiten jarraitzen dute, emakumeen agentizitatearen onarpen eza izaten jarraitzen duela erakutsiz (Moss-Racusin & Rudman, 2010; Phelan, Moss-Racusin & Rudman, 2008; Rhee & Sigler, 2015). Era agentikoan jokatzeko duten emakumeek bazterketa, zigorra edota estimu eza pairatzen dute. Ildo beretik, berriki egindako metanalisi batean emakumeak esplizitoki nagusitasuna adierazterakoan gizona baino zigortuagoak izaten direla erakutsi da (Williams & Tiedens, 2016). Ondorioz, emakumeek gizonen maila bereko botere erakusketa egiterakoan emakumeengan soberazko botere erakusketa bezala ebaluatua edo hautemana izaten da. *Rol kongruentziaren teorian*, emakumeek agentikoak izateari begira jasaten duten aurreiritzia baretzeko, lidergoaren rolari atxikitzen zaizkion ezaugarri instrumentalak bere egiteaz gain, ezaugarri komunalak ere bere egiteak lagundu dezakeela azaltzen da (Eagly & Karau, 2002).

### **3.4.2 EMAKUME LIDERREN EBALUAZIOAN NEGATIBOKI ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK**

#### **3.4.2.1 Testuinguru maskulinoaren eragina**

Lidergo rolen estiloak lan eremuen arabera aldakorrak izaten dira, eta lan eremu maskulinotan lidergoak era maskulinoagoan definitzen dira. Lidergoa bereziki ezaugarri maskulinoen inguruan eratzen denean (era zuzentzailean edota autokratikoan esate baterako) emakume liderrekiko aurreiritzien areagotzea ekartzen duela erakutsi da ikerketa ugarian, gizon liderrak abantaila egoeran jarriaz (Eagly & Karau, 2002; Eagly, Karau & Makhijani, 1995; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006). Ildo honetan, gizonak nagusi diren lan eremuetan emakumeak baino efektiboagozat jotzen direla agerian utzi dute hainbat ikerketek (Eagly et al., 1995; Eagly & Johnson, 1990; Paustian-Underdahl, Walker & Woehr, 2014). Lan testuinguru maskulinoa

izateak eta lidergoa bereziki ezaugarri maskulinoen inguruan eratzeak, beraz, emakumeekiko aurreiritzien handitzea ekartzen du (Cuadrado & Navas, 2000).

Genero rola kongruentziaren teoriaren ildotik, lanbidea (Eagly & Karau, 2002; Koch, D'Mello & Sackett, 2015) edota lan erakundea (Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006; López-Zafra, Garcia-Retamero & Eagly, 2009) maskulino bezala ezaugarritzen delarik, lidergoa emakumeen genero rola-erakunde desegokiagotzat joko dela azaltzen da. Testuingurua edo lidergoa era maskulinoan definitzeak liderretik espero dena eta emakumeengatik espero denaren arteko bat ez etortzea edo kontrastea nabarmentzea ekartzen du. (Vial et al., 2016). Izan ere, testuinguru maskulinoan jarduteak emakumeen eta genero rola-erakunde inkongruentziaren pertzepzioa areagotzea ekarriko du, maila deskriptibo eta preskriptiboari loturiko aurreiritziak nabarmenagoak bilakaraziz (Eagly & Karau, 2002; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006). Era honetan azaltzen da emakumeek lanbide edota testuinguru maskulinoetan ebaluazio eta aurreiritzi negatiboagoak jasatea.

#### 3.4.2.2 Jarraitzaile/ebaluatzailearen generoaren eragina

Emakumeen (eta gizon liderren) inguruan dauden ebaluazioak, sinesmenak edota aurreiritzien azterketa egiterakoan aintzat hartzeko elementu garrantzitsu bezala ageri da ikerketetan parte hartzen duen pertsonen generoa. Izan ere, generoaren arabera emaitzak aldakorrak izan daitezkeela erakutsi dute ikerketek.

Hainbat ikerketetan emakumeek emakume liderra gizonen baino okerrago ebaluatzen dutela erakutsi arren (Parks-Stamm et al., 2008; Rudman, 1998), ikerketen emaitza gehienak bestelako zentzuan doaz (Ayman, Korabik, & Morris, 2009; Bosak & Sczesny, 2011; Cuadrado et al., 2015; Rojahn & Willemsen, 1994). Ikasleekin egindako ikerketa batean (Rojahn & Willemsen, 1994; Vial et al., 2016), gizonen genero rola-erakunde inkongruenteak diren liderrei (gizon komunala eta emakume agentikoa) kongruenteak diren liderrei (gizon agentikoa eta emakume komunala) baino ebaluazio negatiboagoa esleitzen zieten erakutsi zuten, emakumeek pareko ebaluatzen zituzten bitartean. Ildo berean, gizonen emakume liderra emakumeen baino autokratikoago irudikatzean agerian geratzen ebaluazioan generoaren eragina: gizonen emakume liderra autokratikoagotzat daukate gizon liderra baino,

emakumeek pareko ikusten duten bitartean (Cuadrado et al., 2012). Hari beretik, gizonezkoek gizon liderra era positiboagoan baloratzen dute (efektiboago esate baterako) edo lidergorako positiboak jotzen diren ezaugarri gehiago atxikitzen dizkiote (agentikoago adibidez) emakume liderrari baino (Cuadrado et al., 2015). Gizonezkoek gizon liderrari atxikitzen dioten ikuspegi edota balorazio bereziki positiboa endotalde logika batetik ulertu daiteke (Jackson, Engstrom & Emmers-Sommer, 2007). Emakumeei dagokionez, norberaren generoaren lidergoarekiko preferentzia edo balorazio positiboa egitea berriki agertu den joera da (Cuadrado et al., 2015; Kusterer, Lindholm & Montgomery, 2013; Powell, Butterfield & Bartol, 2008). Talde berdinekoa izatearen kontzientzia hartze edota “genero elkartasun” bezala ulertzen diren emaitzak dira (Kusterer et al., 2013; Power et al., 2008).

### **3.5 LIDERGOA, GENEROA ETA LIDERGO EREDUETAN IZANDAKO BILAKAERAK**

Literaturaren berrikuspenean gaur egun genero estereotipoak emakumeen lan ibilbiderako eta jardunerako oztopo izaten jarraitzen dutela erakutsi da (Cuadrado et al., 2015; Koenig et al., 2011). Ildo honetan, lan testuingurua (Eagly & Johnson, 1990; Eagly et al., 1995; Paustian-Underdahl et al., 2014), lidergo rol maskulinoa (Eagly & Karau, 2002; Eagly et al., 1995; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006) zein jarraitzailearen generoa (gizona izatea) ageri dira emakumeekiko aurreiritzi negatiboa areagotzen duten ezaugarri bezala (Cuadrado et al., 2015). Halere, kontuan hartzekoa da emakumeen presentzia lidergo posiziotan, poliki bada ere, azken hamarkadetan handitzen joan dela (OIT, 2016; ONU, 2017), eta aldi berean, gizarte psikologia arloko teoriak garatzen joan direla, errealitatearen konplexutasuna eta dinamismoa ulertzeko saiakeran sakonduz (Heredia, López & Agulló, 2011). Jarraian, lidergoa eta genero rolak oinarri izan dituzten ikerketetan aurkitu berri diren aldaketak edota gaiari begirako mugimenduak agerian jarriko dira (Berkery, Morley & Tiernan, 2013; Bongiorno, Bain & David, 2014; Johnson, Murphy, Zewdie & Reichard, 2008).

### 3.5.1 ESTEREOTIPOEN MAILA DESKRIPTIBO ETA PRESKRIPTIBOEN BILAKAERA

- Estereotipoen maila deskriptiboen bilakaera: agentizitatearen igoera

Estereotipoen maila deskriptiboari dagokionez, emakumeei atxikitzen zaien agentizitate mailaren handitzea eta gizonekin parekatzea gertatzen ari dela erakutsi dute berriki egindako ikerketek (Bongiorno et al., 2014; Diekman & Eagly, 2000; Duehr & Bono, 2006; Lueptow et al., 2001; Spence & Buckner, 2000). Emakumeek beren buruari agentizitate maila altuak ematen dizkietela (Spence & Buckner, 2000) eta gainontzekoengandik ere era horretan ikusiak direla erakutsi da hainbat ikerketetan (Diekman & Eagly, 2000; Duehr & Bono, 2006). Emakumeen agentizitate maila altuak tradizionalki bereziki maskulino bezala ezaugarritu diren lanbideetan jarduten duten emakumeetan aurkitu dira (Abele, 2003). Gauza bera gertatzen da ikasketa mota batzuetan, esate baterako ekonomian, zeinean gizon eta emakumeen ezaugarri instrumental eta komunaletan parekatzea gertatzen den (Abele, 2003; Abele, 2000). Ikerketa hauen emaitzak, rol sozialaren teoriaren baitan interpretatu daitezke. Izan ere, emakumeen rol soziala agentikoagoa bilakatzen den hein berean, esleitzen zaizkien ezaugarriak ere agentikoak bilakatzen direla ikusi daiteke (Eagly, 1987; Eagly & Karau, 2002).

- Estereotipoen maila preskriptiboan bilakaera: eskakizun bikoitzaren ideia

Estereotipoen maila preskriptiboari dagokionez, ikerketa lerro ezberdinak garatu dira emakume eta emakume liderrekiko daude aurreiritzien jatorria azaltzera bideratuak (Bongiorno et al., 2014; Heilman & Okimoto, 2007). Ikerketa lerro hauetan, emakume liderrekiko dagoen eskakizun bikotzean jartzen da enfasia: emakumeak positiboki baloratuak izan daitezen, agentizitatea zein komunalitatea mahaigaineratu behar izaten dutela ageri da (Bongiorno et al., 2014; Diekman, 2007). Diekman-ek (2007) buruturiko ikerketa esperimentalean gizon eta emakumeek jasotzen dituzten pertsonen arteko ebaluazioak berdinak izaten direla azaltzen da, betiere emakumearen komunalitatearekiko informazio gehigarria mahaigaineratzen bada. Bide beretik, emakume liderra positiboki baloratua izateko ezaugarri komunalak edukitzea garrantzitsuagotzat jotzen da gizon managerrentzat baino (Cuadrado et al.,



2015). Ildo berean, emakume liderrekiko dagoen eskakizun bikoitza agerian jarritz, emakume liderrek nahiko agentizitate erakutsi ezean, gizon liderrek baino balorazio apalagoa jasotzen dutela agerian jarri dute Bongiorno eta kideek (2014). Ikerketa berean, dimentsio komunalean genero estereotipoaren dimentsio preskriptiboa mantentzen dela ohartarazten dute, emakume liderrak positiboki eta efektiboki baloratuak izateko komunalitatea erakutsi behar izaten baitute ere (Bongiorno et al., 2014; Johnson et al., 2008).

Eskakizun bikoitzaren ideiak, maiz literaturan egin denaren aurka, dimentsio komunal eta agentikoak bata bestearekiko baztertzaila bezala ez kontzeptualizatzen eramaten du. Komunalitatearen eta agentizitatearen arteko harremanak positibo, negatibo ala neutroak izan daitezke beraz (Bongiorno et al., 2014; Judd, James-Hawkins, Yzerbyt & Kashima, 2005).

Ondorioz, badirudi emakumeek lidergoan era positiboan baloratuak izateko eskakizun bikoitzari erantzun behar izaten dietela (Cuadrado et al., 2015). Batetik, emakumeei ezaugarri komunalak dituen lidergo estiloa burutzea eskatzen zaie. Era honetan, genero femeninoari atxikiriko rolak betetzea ekarriko luke, genero rol preskripzioarekin bat eginez eta aurreiritzia arinduz. Bestetik, ezaugarri agentikoak dituen lidergoa burutzea eskatzen zaie. Lidergo rolari tradizionalki atxikiriko ezaugarriekin bat egitea ekartzen duen heinean, lidergo rolaren preskripzioa betetzea ekarriko luke (Koenig et al., 2011). *Rol kongruentziaren teorian* aurreratzen zen bezala, lidergo rol agentikoari ezaugarri komunalak uztartzeak, emakume liderrekiko dagoen aurreiritzi negatiboa lausotzean lagundu dezake (Eagly & Karau, 2002).

### 3.5.2 LIDERGO EREDUEN BILAKAERA ERAKUNDEEN BAITAN

Tradizionalki baloratuak izan diren lidergo ereduak nagusi izaten jarraitzen dute egun. Ezaugarri instrumentaletan oinarritzen diren lidergoak baloratuagoak izaten jarraitzen dute ezaugarri komunaletan oinarritzen diren lidergoak baino (Cuadrado et al., 2015; Koenig et al., 2011). Oraindik ere, maskulino bezala definitzen diren ezaugarriak jendarteko botere posizio eta lidergoarekin uztarturik egoten segitzen dute (Chatard et al., 2005; Eagly & Diekmann, 2002; Johannesen-Schmidt & Eagly, 2002). Halere, baloratzen diren lidergo erduei begirako bilakaera agerian jarri dute azken urteetako ikerlanek.

Ildo honetan, nahiz eta lidergo agentikoek nagusi izaten jarraitzen duten, erakunde ugarian lidergo komunalekiko interesa handitzen doa. Taldera bideraturikoa, parte hartzaileagoa, horizontalagoa eta flexibleagoak diren ereduaren agerpena eta onarpena indartzen ari da (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000). Lidergoaren desmaskulinizazio baten aurrean gaude Billing-en iritziz (2011). Zentzu honetan, egungo lidergo ereduak ezaugarri maskulino eta femeninoak jasotzen dituela aditzera ematen da berriki egindako ikerketetan (Berkery, Tiernan & Morley, 2014; Koenig et al., 2011).

Bestalde, gaur egun era argi batean lidergo eredu autokratikoarekiko balorazio negatiboa egiten dela erakutsi dute hainbat ikerketek (Barberá et al., 2000; De Cremer, 2006; Driskell & Salas, 2005; Gastil, 1994; Van Vugt, Jepson, Hart & De Cremer, 2004). Jarraitzaileek izaera hauekin lotzen dute lidergo autokratikoa burutzen duen managerra: ez maitatua izatea, konpetentzia apalekoa, mehatxagarria eta agresiboa (Driskell & Salas, 2005). Gainera, erakundearen beharrei eta testuinguru sozial berrien aurrean sortzen diren eskakizunei erantzuteko lidergo desegokia dela ebazten da (Barberá et al., 2000).

Erakundeetan lidergo komunalekiko interesaren handitzea bide anitzetatik azaldu daiteke. Lawler-en (2009) iritziz, bilakaera honen oinarrian dago lidergo komunala eta produktibitatearen handitzearen arteko loturaren ideia. Honez ondorioz, erakunde ugari taldera eta harremanetara bideraturiko lidergoak garatzera eramaten dituela azaltzen da (Lawler, 2009). Ildo honetan, lidergo klasikoetatik harago, egun nagusitasuna hartu duen lidergo transformazionalaren eta langileen

performantzia mailaren handitzearen arteko lotura dagoela erakutsi dute hainbat ikerketek (Birasnav et al., 2011; Boerner et al., 2007)

Irakurketa produktibistatik harago joanda, lidergo berriek erakundeei bestelako onurak ekartzen dizkietela jorratu da hainbat ikerketan. Hala nola, lidergo parte hartzaile edota kontsultatzaileek, berrikuntza prozesuetan onurak dakartzatela erakutsi dute (Krause, Gebert & Kearney, 2007). Era berean, lidergo transformazional edo transakzionalak erakundeen berrikuntza (Prasad & Junni, 2016) dakartela erakutsi da. Ahalduz bideraturiko lidergoari dagokionez, jarraitzaileen sormena estimulatzeko duen lidergoa dela ezagutarazi da (ikusitako Zhang, Ke, Frank Wang & Liu, 2018). Lidergo mota honek jarraitzailearen auto-manerian eta lidergorako auto-gaitasunen garapenean jartzen du enfasia (Manz & Sims, 2001; Pearce et al., 2003). Bestalde, erakundeen interesekin bat egiteaz gain, langileen interes eta ongizatearekin lotu dira: lidergo berriak langileei autonomia eta erabakitze gaitasun edota ahalmenarekin (Conger & Kanungo, 1988), elkarren arteko komunikazio hoberekin (Birasnav et al., 2011), kontsiderazio zein ezagutza indibidualarekin (Rafferty & Griffin, 2004) edota optimismo gehiago sortzearekin harremandu dira (Yukl, 2006). Era berean, literaturan hain ohikoa ez den babestera bideraturiko lidergoa lan gogobetetasuna (gizonengan) (Maurya & Agarwal, 2015) eta lan testuinguruan jarraitzaileen aitorpena, zuzentasuna eta zintzotasunarekin positiboki harremanetzen dela erakutsi da (Shirazi et al., 2014). Babestera bideraturiko lidergoak liderrak eginbeharrak aurrera eramateko psikologikoki babesezko giroa sortzean, elkarren arteko sinesmena sustatzean, elkarlaguntzan eta adeitasuna bultzatzean datza (Daft, 1988; Mehta, Dubinsky & Anderson, 2003).

Aurkeztu berri diren lanetan, lidergorako komunalitatearen balorazio hobea egiten da. Era berean, agentizitate eta komunalitate klasikotik harago, lidergo berriagoetan bestelako jarduteko moduek ere indarra hartu dutela ezagutarazi da. Denboran izan duen bilakaeraren bidez lidergo ereduaren izaera dinamikoa agerian gelditu da (Billing, 2011).



**HIRUGARREN ATALA**

**MARKO TEORIKOA:  
IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIA,  
INGENIARITZA ETA LIDERGOA GENERO  
IKUSPEGITIK LANTZEKO ERABILITAKO  
HURBILPENA**



## 4 IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIA

### 4.1 SARRERA

Ingeniaritza eta lidergoa genero ikuspegitik aztertzeke irudikapen sozialen teorian oinarritu gara. Jarraian, irudikapen sozialen teoriaren nondik norakoak azalduko dira. Hasteko, kontzeptualki irudikapen sozialak zer diren azalduko dira abiapuntu teorikoa, definizioak, sorrerarako behar diren baldintzak eta funtzioak azalduz. Bigarrenik, ikerlan honetako azterketa objektura hurbilduz, lan mundua eta lanbideen irudikapenak aztergai izan dituzten ikerlanak azalduko dira. Ondotik, ikasleen eta profesionalen irudikapen sozialak aztertzeke oinarritzat hartu diren irudikapen sozio-profesionalak eta profesionalak zer diren azalduko dira. Jarraian, posizio soziala eta irudikapen sozialen artean dagoen lotura ulertzea ahalbidetzen duen irudikapen sozialen ikuspegi soziodinamikoa aurkeztuko da. Bertan, talde arteko irudikapenak eta norberaren (*self*-aren) irudikapenak zer diren azalduko da, irudikapen sozialetan identitate sozialek jokatzten duten papera agerraraziz. Segidan, irudikapen polemikoaren kontzeptuaren bidez irudikapen sozialen baitan gatazka eta borroka ideologikoa nola gauzatzen diren erakutsiko da. Azkenik, irudikapen sozialen teoria eta ikerketa feministen arteko lotura teorikoak azalduko dira. Horrela, irudikapen sozialak ikerketak ikuspuntu feministatik egiteko marko egokia eskaintzen dutela ikusiko da.

### 4.2 IRUDIKAPEN SOZIALEN HURBILPEN TEORIKOA

#### 4.2.1 IRUDIKAPEN SOZIALEN ABIAPUNTU TEORIKOA: IRUDIKAPEN KOLEKTIBOAK

Irudikapen sozialen abiapuntu teorikoa Durkheim-en irudikapen kolektiboan kontzeptu soziologikoan kokatzen da. «Représentations individuelles et représentations collectives» liburuan (1898) Durkheimen-ek bi motatako irudikapenei egin zien erreferentzia: irudikapen kolektiboak eta irudikapen indibidualei. Irudikapen kolektiboak jendartean norbanakoen eraginetik kanpo kokatzen diren irudikapenak dira, jendarte osoak partekatzen dituenak eta belaunaldi batetik bestera aldatzen ez

direnak; esate baterako, sinesmen, ezagutza mota, mito edota tradizioak. Irudikapen kolektiboan bidez norbanakoei pentsatzeko moduak inposatzen zaizkie, eta hauen mantentzea instituzio sozial ezberdinen bidez gauzatzen da. Irudikapen indibidualei dagokienez, norbanakoak jendarteari buruz dituen irudikapenei egiten zaie erreferentzia. Norbanakoetara egokituriko irudikapen kolektiboan adierazpenak dira. Bi irudikapen mota hauek bata bestearen aurrean jartzen zituen Durkheim-ek, elkarren arteko zubirik edo loturarik agerian jarri gabe.

Irudikapen sozialen teoriak irudikapen kolektiboak abiapuntuan izan arren, bi teoriak funtsezko elementuetan bereizten dira. Izan ere, irudikapen sozialak talde sozial batetik bestera aldakortasuna izaten dute, ez dira irudikapen estatikoak eta irudikapen sozialen sorreran norbanakoak garrantziko lekua dauka. Irudikapen kolektiboek ez bezala, irudikapen sozialek errealitatearen eraikuntza ikuspegi dinamikotik ulertzea eta aztertzea ahalbidetzen dute (Moscovici, 1989).

#### 4.2.2 IRUDIKAPEN SOZIALEN DEFINIZIOA

Eguneroko errealitatea interpretatu eta ulertu ahal izateko norbanako eta talde sozialek pentsaera naturala edo zentzu komuna garatzen dute. Honakoa, irudikatze prozesuari esker gertatzen da. Izan ere, irudikapen sozialek inguratzen gaituena ulertzea ahalbidetzen digute, eta berria denari zentzua ematea (Jodelet, 1984). Talde eta norbanakoek egoera ezezagun, ez ohiko, berri edo berritzaileei erantzuteko garatzen duten prozesu kognitiboaren emaitza dira irudikapen sozialak; baita eztabaida, komunikazio interpersonal edota mediakoaren emaitza ere (Rateau & Lo Monaco, 2013). Horrez gain, irudikapen sozialen teoria zentzu komunaren teoria bezala ezagutzera eman da. Moscovicik 1961an *“La psychanalyse, son image, son public”* liburuan, irudikapen sozialen kontzeptua lehen aldiz aditzera eman zuenetik garapen mardula izan du ikuspegi teorikoak, eta eman zaizkion definizioak askotarikoak izan dira. Moscovicik emandako askotariko definizioen artean irudikapen sozialak *“kultura, klase sozial edota talde jakin bateri atxikiriko eta ingurune sozialari erreferentzia egiten dioten objektuei begirako iritzien unibertso”* bezala definitu zituen (1961, 66.or). Aurrerago irudikapen sozialek betetzen duten funtzioari erreferentzia eginaz, Moscovicik irudikapen sozialak *“elkar trukerako kode sozialak eskainiz*



komunitateko kideen artean komunikatzea ahalbidetzen duten” eta “fenomeno baten inguruan kontsentsua ezarriz garatzen diren balore sistema, ideia eta praktika” bezala definitu zituen (Moscovici, 1990, 91.or).

Irudikapen sozialen sorreraren oinarrian irudikatze prozesuaren bidez aktore sozialek “errealitatea” bere egiten dutela dago (Roussiau & Bonardi, 2001). Erdaraz teoriaren izenak aditzea ematen duen bezala norbanako eta talde sozialek “errealitatea” berriz irudikatzen dute (“re”représentation sociale), beraien sistema kognitiboan birsortuz, eta haien balore sistemetan integratuz. Hau horrela izanik, irudikapen sozialen teorian errealitate oro halabeharrez irudikatua da (Abric, 1994, 12.or). Irudikapen sozialen postulatu nagusia zientzian eman den baieztapen nagusiarekin hausturan aurkitzen da beraz. Moscovicik azaltzen zuen ez dagoela hausturarik pertsona edota taldetik at dagoen munduaren artean eta pertsona edota taldearen baitako munduaren artean, bereiztu ezinak baitira biak (1969). Maila honetan, Moscovicik talde eta norbanakoek errealitatea bereganatzeko edota irudikatzeke egiten duten prozesuaren ulermenean sakonduz, irudikapen sozialak sortzeko baldintzak eta sortze prozesua ulertzea ahalbidetzen duten kontzeptuak plazaratu zituen.

### **4.2.3 SORRERARAKO BALDINTZAK ETA PROZESUA**

#### **4.2.3.1 Sorrerarako baldintzak**

Irudikapen sozialak sortu ahal izateko hiru baldintzak bete behar direla azaldu zuen Moscovicik (1961/1976): informazioaren dispertsioa, fokalizazioa eta inferentziarako presioa:

- Informazioaren dispertsioaren bidez informazioa zabaltzen den uneari egiten zaio erreferentzia. Alabaina, fase honetan irudikapen objektuari buruzko informazioa nahasgarria eta konplexua da.
- Fokalizazioan barreiatua dagoen informazioan talde sozialak haienezako garrantzitsuak diren edukietan enfokatzen dira. Modu honetan, eduki batzuekiko interesa garatzen da, eta beste batzuk baztertu egiten dira.

- Inferentziarako presioan, jendarte mailan irudikapen objektuari begira presioa egiten den uneari egiten zaio erreferentzia. Horrela, momentu horretaraino ulertzea zaila den objektuaren inguruan komunikatuko da; iritzi, jarrera eta portaera ezberdinei bide emanaz.

#### 4.2.3.2 Irudikatzearen oinarrian dauden prozesuak: objektibazioa eta ainguraketa

Irudikapen sozialak progresiboki sortzeko bete beharreko baldintzak hiru direla azaldu berri dugu (informazioaren dispersioa, fokalizazioa eta inferentziarako presioa). Hiru baldintza hauen betetzea objektibazio eta ainguraketa prozesuen bidez gauzatzen da (Rateau & Lo Monaco, 2013). Objektibazioa eta ainguraketaren bidez, ezezaguna ezagun bilakatzen da, eta testuinguru jakin batean aurretiko jakintzei (irudikapenei) ideia eta kontzeptu berriak asimilatzen zaizkie (Moscovici, 1984).

##### -Objektibazioa

Objektibazioa familiarra ez dena, zerbait konkretuan bilakaraztean datza (Serrano, 2013). Objektibazioaren prozesuaren baitan hiru prozesu bereizten dira hurrenez hurren garatzen direnak:

Lehen pausuan, irudikagai den objektuaren selekzioa gertatzen da, eta testuingururik at ezartzen da (Roussiau & Bonardi, 2001). Irudikagai den objektua, sinplifikatua, eskematizatua eta irudien bidez azaltzen da. Objektua testuingurutik eratortzen da, eta taldeari atxikiriko ezaugarri kulturalen eta kriterio normatiboen arabera objektuaren elementu batzuk hautatuak izaten dira. Talde sozialen ezaugarriek objektuarekiko selekzioa burutzeko prozesuan eragina daukate. Izan ere, objektu jakin batekiko informazio sarbide ezberdina izaten dute talde sozialek. Gainera, objektuaren hautaketan talde sozial bakoitzaren balore sistemak eragin zuzena izaten du, soilik taldearen baloreekin bat egiten duten elementuak aintzat hartzen direlarik (Rateau & Lo Monaco, 2013).

Bigarren pausuan, lehen fasearen jarraipena eta emaitza izanik, nukleo figuratiboa eratzen da. Hautaturiko objektuan elementu batzuk garrantzia gehiago hartuko dute besteek baino; objektuaren egokitzea gertatuz (Roussiau & Bonardi, 2001). Horrela,

irudikagai den objektuak forma zehatz eta selektibo bat hartzen joango da, irudi jakin baten forma hartuz (Rateau & Lo Monaco, 2013).

Hirugarren pausuan, naturalizazioaren etapan, nukleo figuratiboa naturalizatzerara helduko da. Zehazki, objektuaren inguruan burutuko diren komunikazioen bidez nukleo figuratiboa naturalizatzerara iritsiko da, aldez aurretik “errealitatean” zegoena ordezkatzera iritsiz (Rateau & Lo Monaco, 2013).

#### -Ainguraketa

Ainguraketa prozesuaren bidez, irudikaturiko objektua familiarra bilakatzen da, eta objektuak aurretik presente zeuden kategorizazio eta esanahi sistemekin bat egiten du. Modu honetan, irudikapena esparru sozialean murgiltzen da (Viaud, 2000). Ainguraketa prozesuaren bidez esanahien etengabeko aktualizazio bat ematen da, ezezaguna denari aurre egitea ahalbidetuz: esfera sozialean berriki barreiatuak izan diren esanahien eta jada presente daudenen arteko lotura gertatzen da (Kalampalikis & Haas, 2008). Ainguraketa prozesua norbanakoek eta talde sozialek partekatzen dituzten irudi, kontzeptu, eta hizkuntzek determinatzen dute; modu honetan egiten diete talde sozialek ezezaguna denari aurre (Moscovici, 1981). Horrela, ainguraketa prozesuaren bidez nukleo figuratiboa taldea edo norbanakoaren balore sisteman integratzea ahalbidetzen da, ezezaguna zena ezaguna bilakatuz (Roussiau & Bonardi, 2001, 20.or).

#### **4.2.4 IRUDIKAPEN SOZIALAK, ALTER-EGO-OBJEKTU INTERAKZIOAREN EMAITZA**

Irudikapen sozial oro objektuaz (irudikatua dena), ego-az (irudikatzen duen subjektua) eta alter-az (bestea) eraturik dago. Irudikapen soziala sortzen duten elementuak dira irudikapenaren oinarria osatuaz (Wagner et al., 1999). Ego-alter-objektu triada hiruki bezala ilustratua eta ezagutzera eman da honakoa (Andersén & Andersén, 2014; Marcová, 2000). Objektuak irudikagai den objektuari egiten dio erreferentzia. Irudikapen sozialen teoriaren nukleoa eratzen du. Komunikatzeko eta jokabideak gidatzeko erabiltzen da (Moscovici, 1963). Alter-a irudikapena eraikitzen duen entitate soziala da, eta irudikapena nola sortzen den ulertzeko berebiziko

elementua da. Entitate mota ugari egin dakieke erreferentzia; hala nola, nazioari, komunitateari, beste pertsona bati edota talde sozial bati (Marcová, 2000). Ego-ak, irudikapena eraikitzen duen norbanakoari egiten dio erreferentzia. Ego-ari dagokionez, garrantzitsua da aintzat hartzea norbanakoa entitate sozial anitzen parte den pertsona dela, eta beraz objektu berdinen irudikapen ugari eduki ditzakeela. Horrela, interakzioa aurrera eramanez den eremu sozialaren arabera objektu berarekiko irudikapena aldatzen izan da. Honakoak polifasia kognitiboaren kontzeptuari egiten dio erreferentzia (Andersén & Andersén, 2014)

Ego-a, alter-a eta objektua bata besteari eraginpean dauden elementuak dira, eta ezin dira bata bestetik isolatu. Hau horrela izanik, irudikapen sozial oro objektu-alter-ego triadaren harremanaren emaitza bezala ulertzen da (Giménez, 2005). Ondorioz, irudikapen sozialaren teorian errealtatea uneoro maila erlazionalean ulertzen da, errealtatea bata besteari harremanean dauden elementuen interakzioaren emaitza izanik (Serrano, 2013). Errealtatea elementuen arteko interakzioaren fruitu bezala ulertzeak errealtatea ulertzeko modu berri baten aurrean jartzen gaitu (Marcová, 2008). Izan ere, fenomeno sozial ororen oinarrian interakzioa dagoela ulertzeak, elementuak bata besteari harremanean ulertzea darama. Esate baterako, instituzioak ingurunearen arabera, talde bat beste talde baten arabera, norbanako bat beste baten arabera, eta abar. Horrela, interakzioaren ondorioz, Ego-a eta Alter-a bata besteari arabera definitzen dira, bata besteari emaitza bezala. Ego-a eta Alter-aren arteko elkar definitzeak determinatuko du irudikapen objektuarekiko harremana. Objektu-alter-ego harreman honen fruitua dira irudikapen sozialak. (Marková, 2003; Marková, 2008; Moscovici, 1972a/1984).

#### 4.2.4.1.1 Testuinguruaren eragina triadaren interakzioan

Triangularitatearen auresuposizioak ezagutza sozialaren sortze prozesuan testuinguruaren eragina aintzat hartzea eramaten du. Horrela, triangulazioa garatzen den garaia, tokia edota kultura (besteak beste) aintzat hartzea ezinbestekoa da irudikapen sozialaren ulermenera iristeko (Marcová, 2008). Izan ere, ezinezkoa da irudikapen isotulatuak aurkitzea, garatzen diren testuinguruari loturik baitaude. Abri-

ek bi mailatan ezberdindu zituen irudikapenen sorreran eragina duten testuinguru motak (1994): testuinguru diskurtsiboa eta testuinguru soziala.

- Testuinguru soziala: Irudikapenak pertsona edo taldearen balore sisteman integratzen dira, eta honakoak aktore sozialak bizi diren testuinguru ideologiko eta sozialagatik baldintzatuak daude (Abric, 2004), baita pertsona eta taldeek jendartean okupatzen duten posizio sozialagatik ere (Abric, 1994; Doise, 1992). Era berean, kontuan hartzekoa da testuinguruaren arabera objektu berarekiko aktibatuko den irudikapena ere aldakorra izaten dela.
- Testuinguru diskurtsiboa: elkarrizketa testuinguruan hartzen duen formaren arabera izaten da irudikapena. Ondorioz, irudikapenaren esanahia, maila batean behintzat, interakzio une batean garatzen den harremanaren arabera da (Mugny & Carugati, 1985).

#### 4.2.5 IRUDIKAPEN SOZIALEN FUNTZIOAK

Lau dira irudikapen sozialek betetzen dituzten funtzioak. Jarraian, atxikitzen zaizkien funtzioen nondik norakoak azalduko dira.

Lehenik, ezagutzaren funtzioa betetzen dute. Ezagutza funtzioaren bidez aktore sozialek errealitatea ulertu eta azaldu dezakete (Abric, 1994). Beraien sistema kognitibo eta baloreekin koherentzia egonik, ezagutzak jaso, integratu eta asimilatzea ahalbidetzen diete (Walmsley, 2004). Gainera, komunikazio soziala errazten dute. Ezagutza « *naif* » aren difusioa eta hartu-emana ahalbidetuz erreferentziako marko komuna definitzen dute irudikapen sozialek (Abric, 1994).

Bigarrenik, funtzio identitarioa betetzen dute irudikapen sozialek. Gizabanako zein taldeak eremu sozialean kokatzearen bidez pertsonak garatzen duten identitate soziala jendarteko norma eta baloreekin bateragarri izatea ahalbidetzen dute (Walmsley, 2004). Gainera, taldearen bereizgarritasunaren mantentzea ahalbidetzen dute. Funtzio identitarioa betetzeak konparazio sozialaren prozesuan berebiziko lekua izatera eramaten ditu irudikapen sozialak. Honen adierazlea da talde arteko harremanei buruz Doise-ek garaturiko ikerketa lerroa (Doise, 1973).

Hirugarrenik, irudikapen sozialek funtzio orientatzailea betetzen dute. Hala, praktikak eta portaerak gidatzen dituzte (Walmsley, 2004). Ondorioz, ekintzarako gida dira irudikapen sozialak (Abric, 1994).

Azkenik, justifikazioaren funtzioa betetzen dute; hau da, norbanakoek eta talde sozialek aurrera eramaten dituzten ekintzak azaltzearena eta justifikatzearena. Doise-ek (1973) aurrera eramandako ikerketa lerroan, talde arteko harremanetan justifikazio funtzio honen papera zer nolakoa den erakutsi da; esate baterako, portaera diskriminatzaileak justifikatzeko erabiliak izan daitezke irudikapen sozialak. Modu honetan, ezberdintasun sozialean oinarritzen diren posizio sozialak denboran iraunaraztea ahalbidetzen da (Palmonari & Doise, 1986). Funtzio justifikatzailearen bitartez, irudikapen sozialek izan dezaketen beste funtzio bat agertzen da: ezberdintasun sozialen mantendua eta hauen justifikazioaren funtzioa (Abric, 1994).

### **4.3 LANA ETA LANBIDEEN HURBILPENA IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIAREN BAITAN**

#### **4.3.1 LANA ETA LANBIDEEN IRUDIKAPEN SOZIALAK**

##### **4.3.1.1 Lanaren irudikapen soziala**

Lanaren irudikapenari buruzko ikerketak anitzak eta aspaldikoak dira. Irudikapen sozialen teorian lanak jendarte modernoetan betetzen duen lekua eta funtzio soziala aztertzeraz bideratu da nagusiki, eta irudikapenaren aldaera bilakaera sozio-historikoari hertsiki loturik ageri da (Flament, 1996; Flament, 1996; Marquez & Friemel, 2005; Milland, 2002; Oliveira, Fischer, Teixeira, Sá & Gomes, 2010; Roussiau & Le Blanc, 2001; Salmaso & Pombeni, 1986).

Ikuspuntu batzuen arabera lana balore bezala desagertzeaz dagoen bitartean (Méda, 1995) beste batzuen arabera betetzen zuen funtzioaren eraldaketa gertatu da. Horrela, lana zentraltasun handiko balore soziala izatetik; hau da, integrazio sozialerako elementua izatetik, lanarekiko ikuspegi indibidualizatuago bat izatera igaro da; norbanakoaren garapen pertsonalera bideraturikoa, hain zuzen (Marquez & Friemel, 2005). Maila honetan Flament-ek (1994) belaunaldi ezberdinen artean lana

irudikatzeko moduan ezberdintasunak atzeman zituen, lanaren balorea desagertzeko bidean dagoela ondorioztatzera iritsiz. Bere ikerketan adineko pertsonen lanari konnotazio positiboak esleitu zizkieten integrazio sozialeko elementu bezala ulerturik; gazteek aldiz lanaren irudikapena hertsapenekin lotu zuten. Lanaren irudikapenari buruz egindako lan berriagotan lana jendartean integratzeko tresna nagusi bezala azaltzen da, eta maila pertsonalean garatzea ahalbidetzen duen tresna bezala ulertzen da (Bréchon, 2003). Ondorioz, lanak funtzio sozial handia betetzen duela ikusi daiteke, eta Flament-ek aurreikusitako lanaren balore galtzea ez da erabat betetzen.

Lanaren irudikapenaren edukiei helduz, nagusiki eduki ekonomikoen inguruan egituratzen den irudikapena da. Bigarren maila batean aurkitzen da norbanakoaren garapena. Zentzu honetan, lanaren irudikapenaren azterketan Flament-ek (1994) lanaren irudikapena nagusiki bi elementuren inguruan egituratzen zela erakutsi zuen: ordainsaria eta plazerra. Halere, lanaren irudikapenean plazerra (izatea) ez da ordainsarien maila berean kokatzen, beharrezkoa ez den elementu bezala azaltzen baita. Bestalde, lanaren irudikapenari esleitzen zaizkion edukiak talde sozialen arabera ezberdinak izaten dira. Horrela, berriki egindako Marquez eta Leonen lanean (2012) lanaren irudikapenean posizio sozialaren eragina aztertzean jarri da fokua. Maila honetan, lan munduan norbanakoaren posizio hierarkikoa aldaera eragiten duen garrantzizko elementua dela erakutsi da. Izan ere, enplegatutako eta kudeaketa postuetan dauden pertsonen irudikapenak alderatzerakoan, enplegatuek lanak haietzako betetzen duen aspektu sozial eta ekonomikoan enfasia jartzen dute, eta lanari konnotazio negatiboak esleitzen dizkiete. Kudeaketa postuetan dauden pertsonen aldiz, beraien lanaren irudikapena beraien funtzio profesionalarekin lotzen dute, balorazio positiboa emanez. Ondorioz, lanaren irudikapenean posizio sozialari loturiko asimetriak agerian gelditzen dira, eta posizio sozialak lanaren irudikapena baldintzatzen duela ondorioztatzen da (Marquez & Leon, 2012).

#### 4.3.1.2 Lanbideen irudikapen generizatua

Posizio hierarkikoak lanaren irudikapenean eragina duela aztertu den bezala, ez dago ikergaitik generoak lanaren irudikapenean duen eragina azaltzera bideraturik. Maila honetan, irudikapen sozialen teorian oinarrituriko ikerlanak lanbideen irudikapen generizatua aztertzea bideratu dira nagusiki. Lan hauek gazteen eta helduen lanbideen aukeraketa generizatuaren ulermenean sakontzea helburu izan dute (Avenel, 2011; Bosse & Guégnard, 2007; Cassini, 2015; Daune-Richard, 1998). Azken urteetan mugimendu gutxi ageri da gazteek dituzten lanbideen irudikapen generizatueta (Mosconi & Stevanovic, 2007).

Horrela 15-18 urte bitarteko gazteek lanbide femenino eta maskulino bezala irudikatzen dituzten lanbideak hiru mailatan ezberdintzen direla erakutsi da (Bosse & Guégnard, 2007): Batetik, lanbide femenino eta maskulinoak maila deskriptiboan ezberdintzen dira, atxikitzen zaizkien ezaugarriak ezberdinak izanik. Horrela, lanbide femeninoak goxotasuna, ulerkorra izatearekin edota amatasunarekin lotzen dira. Era berean, lanbide femeninoak familia ardurak aurrera eraman ahal izatearekin harremantzen dira, bizi esparruen arteko oreka handiagoa izatea ahalbidetuz. Lanbide maskulinoei dagokienez indarra, erresistentzia eta adoreaekin lotzen dira, eta teknizitate maila altuarekin harremantzen dira. Bigarrenik, lanbide femenino eta maskulinoei maila preskriptiboa esleitzen zaie. Horrela, lanbide femeninoak emakumeek burutzearen onespina ematen da eta maskulinoak gizonen burutzearena. Era honetan, emakumeek "emakumeen" lanbideak hobeto egiten dituztela azaltzen da, eta gizonen "gizonenak". Adibidez, emakumeek gizonekin alderatuz harremanetarako gaitasun handiagoa dutela azpimarratzen da; gizonen berriz, gaitasun tekniko handiagoa dutela. Azkenik, lanbide femenino eta maskulinoei esleitzen zaien balorazioa ezberdina da. Horrela, lanbide maskulinoak femeninoak baino zailagoak izatearen ideari egiten zaio erreferentzia, eta sozialki balore gehiago esleitzen zaie. Bukatzeko, emakumeek oro har genero estereotipoekin bat egiten duten arren, mutilek baino ikuspegi berdintzaileagoa erakusten dute lanbideen genero irudikapenean; era berean, haien burua lanbide atipiko batean ikusten duten emakumeek ikuspegi berdintzaileagoa dute (Bosse & Guégnard, 2007).



Neska eta mutilen ikasketan hartzen duten orientazio ezberdindua kontuan izanda Mosconi eta Stevanovic-ek (2007) azaltzen dute genero estereotipo eta rolen bidez definitzen direla kompetentzia maskulino eta femeninoak. Horrela, emakumeek eduki beharreko kompetentziak eta gizonak eduki beharrekoak azken hauen araberakoak izaten dira. Modu honetan azaltzen da gizonak arlo zientifikoko ikasketak egitera bideratzea eta emakumeak arlo sozialera bideratzea.

Ilido berean, noberarentzako lanbide idealaren irudikapena aztergai izatean Cassini-k (2015) genero rol tradizionalen indarra azpimarratzen du. Unibertsitateko ikasleekin eginiko lanean emakumeek beraien lanbide idealaren irudikapenean ikuspegi erlazionalari garrantzia handia esleitzen diote, harreman interpersonalei gizonak baino garrantzia gehiago emanaz. Gizonak berriz, ikuspegi instrumentalari emakumeek baino garrantzia gehiago ematen diote. Era berean, gizonak lanbidearen estatusari emakumeek baino garrantzia handiagoa ematen diotela erakusten dute emaitzek. Beraz, genero rol eta estereotipoekin bat egiten du norberaren lanbide idealaren irudikapenek, eta generoa norbere lanbidea irudikatzeko garrantzia handiko azaltzailea dela ondorioztatzen da (Cassini, 2015).

#### **4.3.2 LANBIDEEN IRUDIKAPEN SOZIALETATIK IRUDIKAPEN PROFESIONALETARA**

##### **4.3.2.1 Irudikapen profesionalak, irudikapen sozial berezitu bezala**

Irudikapen profesionalak irudikapen sozialen kategoria berezituak dira (Moscovici, 1976; Piaser, 1999), eta profesio bera burutzeagatik talde profesional bereko diren pertsonak partekatzen dituzten ezagutzak dira (Labbé, Ratinaud & Lac, 2007; Piaser, 2000). Testuinguru profesional jakin batean, ekintza eta interakzio profesionalean eratzen diren irudikapenak dira (Dernat & Siméone, 2014). Irudikapen profesionalak irudikapen sozial berezituak direla kontsideratzen da bi ezaugarri hauengatik: irudikapena osatzen duen taldeagatik (profesioko kideak) eta irudikatutako objektuagatik (profesioa) (Piaser & Bataille, 2011; Piaser & Ratinaud, 2010). Irudikapen profesionalak lanbide baten irudikapen sozialetik ezberdintzen dira, beraz. Izan ere, lanbide baten irudikapena kolektibo profesionalaren parte ez diren pertsonak lanbide

batetiko partekatzen dituzten ezagutzak dira, edozein norbanakok sorturikoak izan daitezke eta edozein lanbideri buruzkoak (Blin, 1997; Michel-Guillou, 2010). Zentzu honetan, irudikapen sozialak ezagutza *naif* edo zentzu komune bezala ulertzen diren bitartean (Jodelet, 1999), irudikapen profesionalak ez dira ezagutza *naif* bezala definitzen, baina ezta ezagutza zientifiko bezala ere (Bataille, Blin, Mias & Piasser, 1997). Gaur gaur egun arte egindako ikerlanetan erizaintzaren irudikapen profesionala (Lheureux, 2010), irakaskuntzaren irudikapen profesionala (Blin, 1997) edota nekazaritzari buruzko irudikapen profesionala (Michel-Guillou, 2010) aztertu dira, besteak beste.

#### 4.3.2.2 Irudikatua den objektua: zerk bilakarazten du irudikapen profesional?

Talde profesionalak beraien jardun profesionala aurrera eramateko garrantzitsuak zaizkien objektuei begira garatzen dute soilik ezagutza partekatua, beraien artean jardutea eta komunikatzea ahalbidetuz. Zentzu honetan, objektu guziak ez dira irudikagai eta beraz, objektu guziarik ez da ezagutza partekaturik garatzen (Blin, 1997). Irudikapen profesionalan profesioarekiko eta profesio kideentzako garrantzizkoak diren objektuak barne hartzen dira (Blin, 1997). Gai sakonduz, Moliner-ek (1993) objektu bat irudikapen profesional izan ahal izateko hainbat baldintza bete behar dituela azaltzen du. Horrela, irudikapen profesionalaren barneko edukiek talde profesionalaren identitatearekiko inplikazioak dauzkaten elementuak aintzat hartzen ditu, taldearen kohesioan eraginez eta kanpotik etorri daitezkeen "mehatxuen aurrean" taldearen identitatea mantentzea ahalbidetuz. Ondorioz, irudikaturiko objektuak talde profesionalarentzako kontsentsuzko izaera izaten du. Era berean, irudikaturiko objektuaren izaera poliformikoa izaten da. Horrela, forma ezberdinak hartuko ditu, eta kontraesanak bere gain hartzeko gai izanen da. Zentzu honetan, irudikaturiko objektuaren izaera ez da ortodoxoa izaten (Bataille, 2000; Blin, 1997; Moliner, 1993).

#### 4.3.2.3 Irudikapen profesionalaren funtzioak

Irudikapen profesionalak irudikapen sozialen kategoria espezifiko diren heinean, irudikapen sozialen funtzio berak betetzen dituzte (Piasser & Ratinaud, 2010; Blin, 1997). Horrela deklinatzen dira irudikapen profesionalen baitan:

- Ezagutzaren funtzioa: Ezagutza profesionalaren eraikuntzan parte hartzen dute irudikapen profesionalak, eta profesio kideei kognitiboki indarrak aurrezte ahalbidetzen die, ingurua ulertu eta bertan jardutea ahalbidetuz (Blin, 1997). Zentzu honetan, beren jarduera aurrera eramaten duten unean norbanakoek erabiliko dituzten beharrezko ezagutzak dira irudikapen profesionalak (Piasser, 1999).
- Funtzio identitarioa: identitate profesionalak definitu eta erregulatzearen funtzioa betetzen dute, baita talde sozialei hierarkia sozialean kokatzen ahalbidetzearena ere (Piasser & Ratinaud, 2010). Identitate profesionalak definitzen dituzten heinean, taldearen berezitasun intra eta inter profesionala babesten dute. Berezitasun inter profesionala sozializazio profesionalaren prozesuaren bidez eraikitako identitate profesionalaren memoria gisara aritzen da, eta beste talde profesionalak eragin dezaketen presioaren aurrean talde profesionalaren berezitasuna eta abantailak babestea ahalbidetzen du. Berezitasun intra profesionalak taldearen baitan nagusitzen diren ideologiak eta identitateak markatzen ditu, talde profesionalarekiko garrantzitsua dena eta jokoan dagoena definituz (Blin, 1997).
- Funtzio orientatzailea: aurrera eramaten diren praktikekiko orientazioa eskaintzen dute. Irudikapen profesionalak irudikapen sozialak diren heinean, ekintza eta praktiketarako gida dira, ohikoak eta ez hain ohikoak diren egoeren aurrean ekitea ahalbidetuz (Abric, 2004).
- Funtzio justifikatzailea: burutu edo burutzen diren praktika profesionalak eta hauen aurrean harturiko posizioak justifikatzearen funtzioa betetzen dute (Piasser & Ratinaud, 2010). Zehazki, egoera jakin batzuen aurrean norbanakoak burutzen dituen ohiko zereginak eta jarduteko erak azaltzea eta zilegi bilakaraztea ahalbidetzen dute, baita norbanakoak harturiko posizioak

justifikatzea ere. Justifikazioaren bidez, taldekidetasuna indartu eta beste talde profesionalakiko distantzia mantendu edota markatzen da (Blin, 1997).

#### 4.3.2.4 Irudikapen profesionalen edukien izaera

Irudikapen profesionalak, irudikapen sozialak diren bezala, objektu bateri begirako kognizioak dira, eta kognizio hauek mota askotakoak izan daitezke. Irudikapen sozialei atxikitzen zaizkien elementu kognitibo berek osatzen dituzte irudikapen profesionalak (Blin, 1997). Jodelet-ek azaltzen duen bezala elementu anitzak aurkitu daitezke: elementu informatiboak, ideologikoak, sinesmenak, baloreak, jarrerak, iritziak, eta abar. (Jodelet, 1989). Irudikapen profesionalen eduki kognitiboek, irudikapen sozialenek bezala, hiru eduki motei egin dakieke erreferentzia (Blin, 1997; Flament, 1994). Jarraian, irudikapen profesionaletan nola deklinatzen diren azalduko da:

-Maila deskriptiboari loturiko edukiak: eduki kognitibo zabalena da, gehien erabiltzen dena (Blin, 1997). Irudikapenaren elementu deskriptiboek profesionalei beren inguru profesionalarekiko informazioa ematen diete, taldearen baitan komunikatzea ahalbidetuz eta taldeko kide direnen posizioak orientatzea ahalbidetuz (Piaser, 1999).

-Maila preskriptiboari loturiko edukiak: espero diren portaera eta praktikekin loturiko kognizio mota da (Blin, 1997). Talde profesionalaren baitan partekatua denari eta partekatua izan behar duen edukiari egiten dio erreferentzia (Piaser, 1999).

- Maila ebaluatiboa: praktika eta portaeren ebaluazioari erreferentzia egiten dion kognizioa da (Blin, 1997). Esanguratsuak diren praktikak ebaluatzean oinarritzen den kognizio mota da. Jokamolde profesionalen egokitasuna jada aitzinetik ezarriak dauden irudikapenen arabera izaten dira (Piaser, 1999).

#### 4.3.2.5 Irudikapen profesionalen edukien antolaketa proposamena

Irudikapen profesionalen edukia testuinguru jakin bakoitzean argitara ematen denaren arabera izaten denez, eratuko duen edukia irekirik gelditzen da une eta leku jakin batean garatuko den irudikapenari (Blin, 1997). Halere, irudikapen profesionalen edukia antolatzea ahalbidetuz, hiru dimentsioren arabera egituraketa proposatzen da (Blin, 1997; Michel-Guillou, 2010):

- Dimentsio funtzionala: funtzioak aurrera eramateko burutzen den praktika profesionalari egiten dio erreferentzia.

- Testuinguruaren dimentsioa: aktibitate profesionala aurrera eramaten den testuinguruari egiten dio erreferentzia, lan erakundeari, edota testuinguru sozial zabalari.

- Dimentsio identitarioa: taldearen inplikazio identitariorako objektu izan daitezkeen elementuak barne hartzen ditu, eta talde profesionalarentzako garrantzizkoak diren baloreek osatzen dute.

#### 4.3.2.6 Irudikapen profesionalen aldaera eragiten duten edukiak

Talde profesional batek partekatzen duen irudikapen profesionala norbanakoak izandako intsertzio espezifikoei atxikirik dago. Honakoa norbanakoaren posizio sozialarekin harremanean dago eta interakzio egoera profesional jakin batean kokatzen da (Blin, 1997). Gainera, irudikagai den objektuaren izaera profesio kideekin garatzen diren harreman moten arabera da, eta harreman horiek arautzen dituzten normen eraginpean daude. Zentzu honetan, irudikapen profesionalak garatzen diren testuinguruaren berezitasunari atxikirik daude, eta testuinguru horretan norbanakoak okupatzen duen posizio sozialari (Bataille, 2000). Gainera, norbanakoaren inplikazio mailaren arabera aldaera izango dute irudikapen profesionalak.

Testuinguruari loturiko aldaerak:

- Lan jarduera garatzen den testuinguruaren eragina: norbanakoak lan egiten duen erakunde motak baldintzatuko du irudikapen profesionalak hartuko duen forma.
- Sozializazio profesionalaren eragina: Lan jarduna hasi aurreko izandako sozializazio profesionalak eragina dauka garatzen den irudikapen profesionalen. Izan ere, sozializazio profesionalaren bidez ikusteko, pentsatzeko eta ekiteko erei forma ematen zaie.
- Norbanakoek bizi dituzten lan egoeren eragina: Interakzioan garatzen diren leku eta momentuaren arabera aldakortasuna izango dute irudikapen profesionalak. Ondorioz, irudikapen profesionalak pertsona batetik bestera aldakorrak izateaz gain, pertsona baten baitan ere aldakorrak izaten dira.

- Testuinguru sozial zabalaren eragina: lan erakundearen testuingurutik harago, irudikapen profesionalak norbanakoa eta talde profesionala bizi den testuinguru sozialaren eraginpean daude.

Posizio sozialari loturiko aldaerak:

- Irudikapen profesionalak profesio kideen artean partekatuak izan arren, norbanakoak okupatzen duen posizio sozialarekin harremanean garatzen dira. Horrela, lanbide berekoak diren pertsonak partekatzen duten irudikapen profesionala norbanakoaren posizio sozialaren arabera era ezberdinetan integratuak izaten dira (Bataille, 2000). Ondorioz, lan erakundeetan norbanakoak hierarkikoki okupatzen duen posizioaren arabera aldakortasuna izaten dute (Blin, 1997; Michel-Guillou, 2010).

### 4.3.3 IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAK


#### 4.3.3.1 Zer dira?

Irudikapen sozio-profesionalen kontzeptuak etorkizuneko profesionalek beren etorkizuneko lanbideaz duten irudikapenari egiten dio erreferentzia (Frayse, 1998a). Irudikapen sozio-profesionalak irudikapen sozialen eta irudikapen profesionalen erdibidean dauden irudikapenak dira (Piasser & Bataille, 2011). Irudikapen *naïf*-ak ez diren heinean; hau da, ikasleek etorkizuneko lanbideari buruzko ezaugarriak (teknikoak adibidez) bere eginak dituzten heinean, ikasleen irudikapena ezin daiteke lanbidearen irudikapen sozialtzat ezaugarritu. Era berean, ikasleek lanbideari buruz duten irudikapena ezin daiteke irudikapen profesional bezala ezaugarritu. Izan ere, esperientzia profesionalik gabeko irudikapenak dira, eta beraz talde profesional baten identitate eta kolektibo profesionalak partekaturiko memoriarik gabeko irudikapenak dira (Dernat & Siméone, 2014; Piasser & Bataille, 2011). Zentzu honetan, profesioa ikaste bidean daudenen irudikapenak eta profesionalen irudikapenak alderatzean, ikasleek lan erakundeari loturiko elementuei; hau da, lan testuinguruari loturiko elementuei, erreferentzia gutxiago egiten diete (Netto, 2011; Piasser & Ratinaud, 2010).

Irudikapen sozialetatik irudikapen profesionaletarako bidea prozesu bezala ulertzen da. Objektuarekiko dagoen teknizitate mailaren arabera eta pertsonen profesionaltasun mailaren arabera (ikasketa prozesua ala esperientzia maila adibidez),

norbanakoa lanbidearen irudikapena profesionaleruntz hurbiltzen joaten da (Piaser & Ratinaud, 2010). Profesionalizazio prozesuaren erakuslea da irudikapen sozio-profesionala (Lac & Ratinaud, 2005); lanbidearen eredu idealizatu bat izatetik esperientzia praktikoan eta esperientzia errealean oinarritzen den irudikapena izatera igaroz (Dernat & Siméone, 2014).

Irudikapen sozialetatik irudikapen profesionaletarako igarobidea



Iturria: Piaser & Bataille, 2010.

#### 4.3.3.2 Implikazio prozesua

Irudikapen sozio-profesionalaren kontzeptua ulertzeko, Bataille-ek irudikapen sozio-profesionalen eta implikazio prozesuaren arteko lotura estua kontuan hartu beharra mahaigaineratu zuen (Bataille, 1997). Izan ere, implikazio prozesuaren bidez norbanakoak bere egiten eta eraldatzen ditu irudikapen sozio-profesionalak. Honakoa komunikazio prozesu baten bidez burutzen da. Horrela, iritzi, gaizki-ulertze edota argi ez dagoena komunean jartzearen bidez, eta indibiduala den implikaziotik abiatuz, irudikapena osatzen duen implikazio kolektibo batera iristen da (Bataille, 1997; Fraysse; 1998a).

#### 4.3.3.3 Ikasketa testuinguruaren eragina

Irudikapen sozio-profesionalen eta formazio testuinguruaren arteko lotura hertsia da. Izan ere, irudikapen sozio-profesionalak formazio prozesuan jasotzen diren edukien arabera izaten dira, eta beraz lehenesten diren eduki motek baldintzatuko dute irudikapen sozio-profesionalaren izaera. Ikasleen profesionalizazio prozesua ikasketa planen arabera izaten da, eta ikasketa planak izaera ezberdineko edukien inguruan eratzen dira, testuinguruaren arabera (Frayse, 1998a). Ingeniaritzaren irudikapen sozio-profesionalari dagokionez, formazio prozesuetan lehenesten diren edukien eragina nabarmena da. Horrela, eskolen arabera lehenesten diren ezagutzak ezagutza teorikoak izan daitezke edota lan praktikari loturikoak. Maila apalago batean, aktibitate komertzial edo kudeaketakoei loturiko edukiak lehenesten dituzten egiturak ere badaude: maila erlazionalari erreferentzia egiten dieten edukiak dira. Ondorioz, eskolen arabera ikaslearen balorizazioa eta ikaslearen inplikazio prozesua ezberdina izaten da; batzuetan ezagutza teorikoen arabera izanik, besteetan garatzen dituen kompetentzia tekniko/praktikoen arabera izanik, edota ikuspegi enpresarial eta utilitaristago baten arabera izanik (Bataille, 2000; Fraysse, 1998a). Eskolen arabera garatzen den lanbidearen irudikapen sozio-profesionalak lan testuinguruarekiko lotura handiagoa ala txikiagoa izaten du beraz (Frayse, 1998).



## 4.4 IRUDIKAPEN SOZIALEN IKUSPEGI SOZIODINAMIKOA

Irudikapen sozialen teoriaren baitan ikuspegi teoriko ezberdinak garatu dira. Zehazki, irudikapen sozialen teorian Moscovi-ren ikuspegi soziogenetikoa, Abric-en egiturako ikuspegia, Marcová-ren ikuspegi dialogikoa eta Doise-en ikuspegi soziiodinamikoa daude. Jarraian Doise-en ikuspegi soziodinamikoaren oinarri teorikoak azalduko dira.

### 4.4.1 IKUSPEGI SOZIODINAMIKOAREN OINARRI TEORIKOAK

#### 4.4.1.1 Aurrekari teorikoak: Bourdieu-ren eremu sozialen teoria

Ikuspegi soziodinamikoa Bourdieu-ren eremu sozialen teorian oinarritzen da (Bourdieu, 1977). Eremu sozialaren teorian espazio soziala posizio espezifikoen sistema antolatu bezala ulertzen da; eta posizio espezifikoak bata bestearen bidez definitzen dira; norbanakoen eta taldeen posizio sozialak ekoizpen harremanean okupatzen duten lekuaren (posizioaren) arabera izaten dira. Hain zuzen, posizio sozialak bi dimentsioen gurutzaketek determinatzen ditu: gizabanakoek duten kapital ekonomikoak eta gizabanakoen kapital kulturalak. Posizio sozialen espazioan bi dimentsio hauen gurutzaketak homologia estrukturalaren printzipioari jarraiki, kapital sinbolikoa definitzera darama (Bourdieu, 1977). Aurrerago, bi dimentsio hauen maila berean jarri da generoa. Horrela, generoari homologia estrukturalaren printzipioa aplikatzen zaio, produkzio harremanetan oinarritzko elementu bezala ulerturik (Bourdieu, 1998). Hain zuzen ere, ikuspegi soziodinamikoan dinamika errepresentazionala homologia estrukturalaren printzipioak erregulatzearen duela azaltzen da (Tafari, Bellon & Apostolodis, 2002b). Horrela, egitura kognitiboen eta talde sozialen arteko korrespondentzia ematen dela azaltzen da. Halaber, ikuspegi soziodinamikoa homologia estrukturalaren kontzeptuan oinarritzen bada ere, garrantziko ezaugarri batean ezberdintzen da. Izan ere, eremu sozialen teorian ez bezala, irudikapen sozialen baitan talde sozialentzako garrantzizkoak diren ezagutza objektuekiko posizio hartzeak komunikazio harremanetan eratzen dira (Doise, 1986; Doise, 1985).

#### 4.4.1.2 Ikuspegi soziodinamikoa: zertan datza?

Ikuspegi soziodinamikoetik, irudikapen sozialak “Taldea eta pertsonen arteko harreman sinbolikoen printzipio antolatzaile bezala definitzen dira” (Doise, Spini & Clémence, 1999, 2.or) edota Doisek emandako definizio klasikoari erreferentzia eginaz “Irudikapen sozialak harreman sozial multzo baten baitan gizarteratze espezifikoei atxikiriko posizio hartzeen printzipio sortzaileak dira eta harreman horietan eragiten duten prozesu sinbolikoak antolatzen dituzte” (Doise, 1986, 85 or.). Irudikapen sozialek pertsonen eta taldeen komunikatzeko eta harremantzeko marko komunak eskaintzen dituzte. Alabaina, pertsonen ezagutza partekatuari zuzentzean posizio ezberdinetatik egiten diete erreferentzia (Doise, 1993; Doise, 1992; Doise et al., 1999). Hain zuzen, posizio hartze hauen azterketan oinarritzen da irudikapen sozialen ikuspegi soziodinamikoa.

Irudikapenek norbanakoen arabera aldaketak izan ditzakete edota talde sozialen arabera aldaketak izan daitezke. Norbanakoen arabera aldaketari dagokionez, ikerketetan posizio hartze indibidualen eragiten duten elementuak zein diren aztertzen dira. Halere, aldaera indibidualen sakoneko ulermenera iristeko eta beraz posizio hartze indibidualen benetako ulermenera iristeko, sistema sozialetan dauden harreman sinbolikoak jorratzea ezinbestekoa da (Clemence, Doise & Lorenzi-Cioldi, 1994; Doise et al., 1999). Horrela, ikuspegi soziodinamikoaren bidez posizio sozial eta kideak sozialak, eta irudikapen sozialen arteko modulazioak jorratzen dira; bi hauen arteko harremantze moduak lantzeko era pribilegiatuena izanik (Clemence et al., 1994). Ondorioz, taldeen arteko dinamikak eta irudikapenen arteko dinamikak estuki nola elkar lotzen diren erakustean datza ikuspegi soziodinamikoaren interes nagusia; bata besteak nola azaltzen, eta bata besteak nola moldatzen dituen ulertzeko helburua izanik (Doise, 1986; Doise, 1985). Horrela, « Irudikapen sozialen lanketak irudikapenen ezaugarriak talde sozialen arteko eta taldeen baitako harreman sinbolikoen ezaugarriekin harremanean jartzera eramaten du une oro » (Palmonari & Doise, 1986, 17 or.)

#### 4.4.2 DINAMIKA ERREPRESENTAZIONALEAN BOTERE DINAMIKEN ERAGINA: GENEROAREN ERAGINA

Ikuspegi soziodinamikoa, homologia estrukturalaren printzipioak erregulatzen duela azaldu da orain arte. Honakoak irudikapenak eta botere harremanen arteko loturak mahaigainean jartzera eramaten du. Irudikapen sozialek talde arteko harremanak, botere eta ezberdintasun sozialek markaturiko testuinguruan kokatzea ahalbidetzen dute (Lorenzi-Cioldi & Clémence, 2001) eta posizio sozialari loturiko asimetriak dinamika errepresentazionalak ulertzeko ezaugarri erabakigarriak dira (Tafani, Audin & Apostolidis, 2002a). Izan ere, norbanakoek garatzen duten irudikapenen sistema produkzio harremanen eremuan okupatzen duten posizio sozialak (gutxiengo posizioa edo meneratzaile posizioa) modulatzeko duela baieztatzen da (Tafani et al., 2002a). Zentzu honetan posizio soziala eta irudikapen sozialen dinamiken arteko modulazioa erakusten duten ikerketa enpiriko ugari egin dira egun arte (Comby, Devos & Deschamps, 1993; Flament, 1996; Tafani et al., 2002a; Tafani et al., 2002b), talde sozialaren posizioaren arabera irudikapen mota ezberdinak zabaltzen direla erakutsiz: Doutre (2012) eta Lorenzi-Cioldi (2002) eginiko lanetan botere posizioan dauden taldeek beren posizioa baieztatzeko irudikapenak zabaltzen dituztela erakusten da. Gutxiengo posizioan dauden talde sozialei dagokionez, batetik ikerketa batzuk talde minorizatuak talde meneratzaileen irudikapenak bere egiten dituztela azaldu izan dute, sistemak garraiatzen dituen irudikapen dominanteekin bat eginik (Chatard et al., 2005; Doutre, 2008; Lorenzi-Cioldi, 2002); esate baterako, neurri positiboegi begira emakumeek maila apaltzearen diskurtsoa bere egitean ikusi da honakoa (Lorenzi-Cioldi, 2002). Horrela, genero botere harremanei dagokionez, Lorenzi-Cioldi ikerlariak (2002, 2006) genero irudikapenei atxikiriko edukiak meneratu-meneratzaile harremanen erreflexua direla azaltzen du.

Bestelako emaitzak plazaratuz, gutxiengo posizioan dauden talde ugari hierarkia sozialean taldeak okupatzen duen egoerarekiko kontzientzia izaten dutela erakutsi dute, beren posizio sozialaren jabe izanaz (Lorenzi-Cioldi, 2002; Tafani et al., 2002a; Tafani & Bellon, 2001). Zentzu honetan, talde minorizatuak garatzen dituzten irudikapenek ez dute beren gutxiengo egoera birstortzen garaturiko irudikapenaren bidez, baizik eta menderatu-meneratzaile egoeraren gainditzea bilatzen dutela erakutsi da (Tafani et al., 2002a; Tafani & Bellon, 2001; Tafani et al., 2002b). Horrela,

irudikapen sozialek harreman asimetrikoen mantentze edo kolokan jartzean (kontestazioan) duten papera erabakikora izaten da. Alabaina, honakoa gertatzen delarik, norbanako bezala diskriminatua sentitzearen saltoa ez da hain erraz ematen. Izan ere, talde bezala diskriminatua sentitzea errazagoa izaten da norbanako bezala horren jabe egitea baino. Honen erakusle da lan munduan emakumeei begira dagoen diskriminazioa. Izan ere maila indibidualean emakumeak maiz baztertuak sentitzen ez direla adierazten dute, talde sozial bezala horren kontzientzia izan arren. Honakoa lan munduan izan ohi den diskriminazio sotilaren bidez, hau da, lehen bistan antzemateko zaila den diskriminazio motaren bidez azaltzen da (Lorenzi-Cioldi, 2002). Bestalde, mugikortasun sozialaren logikan kokatzen diren gizabanakoek garatzen dituzten irudikapenei dagokienez, posizio sozial altuago batera iristen diren klase sozial apaleko kideen kasuan gertatzen den bezala, pixkanaka abiapuntuan zuten irudikapena alde batera uzten dutela azaltzen da. Beraien posizio sozial berriarekin bat doan irudikapenez jabe egiten dira, eta beraz, klase meneratzailearen irudikapenekin bat egitera iristen dira (Doutre, 2012; Ellemers, 2001). Hain zuzen, hainbat autoreren arabera hierarkia sozialean gorantz egin duten emakumeek emakume talde sozialarekiko duten urruntzea azalduko luke honakoak.

Azaldu berri diren ikerketetan, irudikapen sozialen garapenean homologia estrukturalaren printzipioaren eragina azaldu da. Talde meneratzaileek garatzen dituzten irudikapenak beren posizio sozial altua mantentzeko zabalduriko irudikapenak izatearen inguruan adostasuna dago literaturan (Doutre, 2008; Lorenzi-Cioldi, 2006; Lorenzi-Cioldi, 2002). Alabaina, gutxiengo egoeran dauden taldeek garatzen dituzten irudikapenen izaerari begirako ondorio ezberdinak ageri dira (Lorenzi-Cioldi, 2006; Lorenzi-Cioldi, 2002; Tafani et al., 2002a ; Tafani & Bellon, 2001; Tafani et al., 2002b). Honakoak, gutxiengo taldeek beren posizio minorizatua zalantzan jartzean, norbanakoak irudikapen sozialaren garapenean duen papera zein den galdetzera eramaten du. Bide honetan, irudikapen sozialak identitate sozialarekin duen harremana sakontzeko beharra azaleratzen da (Cohen-Scali & Moliner, 2008).

#### 4.4.3 IRUDIKAPEN SOZIALAK ETA IDENTITATE SOZIALAREN ARTEKO LOTURAK

Dinamika errepresentazionalaren ulermenean sakonduz, homologia estrukturalean oinarritzen diren azalpenetik pauso bat harago emanaz, irudikapen sozialak eta identitate sozialaren arteko loturak jorratzen dituzten ikerketa lerroak garatu dira (ikus adi bidez Cohen-Scali & Moliner, 2008; Tafani & Bellon, 2001; Breakwell, 1993). Teoria hauek irudikapen sozialek hartzen duten formaren eta dinamikaren ulermenean sakontzea ahalbidetzen dute, eta norbanakoen identitate sozialak irudikapenen dinamikan duen lekua agerian jartzea. Jarraian, identitate soziala eta irudikapen sozialak elkarlotzen dituen proposamen teorikoak azalduko dira.

##### 4.4.3.1 Irudikapen sozialak talde arteko irudikapen bezala

Irudikapen sozialen marko teorikoaren baitan, talde arteko irudikapenak deitzen diren (*représentation intergroupe* jatorrian) irudikapen berezituak daude (Doise, 1979). Marko teoriko honetan identitate soziala talde arteko irudikapenen emaitza bezala ulertzen da (Cohen-Scali & Moliner, 2008). Talde arteko irudikapenek talde arteko harremanen dinamikak ikertzeko helburua dute. Izan ere taldeen arteko harremanek irudikapen sozialen ulermena ahalbidetzen dutenaren ideian oinarritzen da ikuspegi teoriko hau (Doise, 1979). Talde arteko irudikapenek endotaldeari eta exotaldeari erreferentzia egiten diote eta (irudikapenak) talde arteko interakzioen emaitza bezala ulertzen dira (Cohen-Scali & Moliner, 2008; Doise, 1973). Talde arteko irudikapenek funtzio hauek betetzen dituzte: aurre hartzearen funtzioa, funtzio azaltzailea eta funtzio justifikatzailea. Hau da, gainontzeko eta norberaren taldeari atxikiriko ezaugarrien bidez, talde sozialek dituzten jokabide eta portaerei zilegitasuna emateko, jokabideak azaltzeko eta jokabideei aurre hartzeko balio izaten dute (Deschamps & Moliner, 2008). Talde arteko irudikapenak irudikapen kolektiboak direnez, pertsona kopuru handi bati zuzentzen zaizkie, exotaldea estereotipatzera eramanez. Estereotipazioa talde arteko irudikapenen elementua dela kontsideratu daiteke beraz.

Abric-ek (1994) alderaketa sozialen prozesuak ulertzeko talde arteko irudikapenak funtsezko elementu bezala ulertzen zituen. Alderaketa sozialaren prozesuan norbanakoek endotaldearen gain ebaluazioa burutzen dute (Abric, 1994, 16.or) eta

talde arteko alderaketaren bidez norbanakoei identitate positiboa mantentzea ahalbidetzen die. Zentzu honetan, talde arteko irudikapenak identitate sozialaren teorian azaltzen diren kategoria kognitiboekiko hurbiltasuna daukate (Cohen-Scali & Moliner, 2008), identitate sozialaren proposamen teorikotik hurbilduz. Finean irudikapen sozialek talde arteko alderaketak burutzearen bidez identitate positiboa mantentzea ahalbidetzen dutela ulertzera ematen da (Cohen-Scali & Moliner, 2008).

#### 4.4.3.2 Irudikapen sozialak, identitate soziala eta ikuspegi erreflexiboa

Irudikapen sozialen eta identitate sozialaren arteko loturak jorratzen diren ikuspegi teoriko honetan norbanakoek egoera sozialen aurrean duten portaera erreflexiboan jartzen da fokua (Cohen-Scali & Moliner, 2008). Batetik, norbanakoak egitura sozialean okupatzen duten talde sozial eta egitura kognitiboaren arteko korrespondentzia dagoela kontuan hartzen da. Bestetik, eremu sozialean endotaldeen eta exotaldeen artean ematen diren harremanen arabera, norbanakoek inplikazio identitarioak dauzkatela aintzat harturik aktualizaturiko irudikapenak garatzen dituztela azaltzen dute (Tafari et al., 2002a; Tafari & Bellon, 2001; Tafari et al., 2002b). Horrela, identitate sozialen eta irudikapen sozialen arteko harremana norbanakoek bizi edota pertzibitzen duten egoera eta testuinguruaren araberakoa izaten da. Honakoak dinamika errepresentazionalak ulertzeko aintzat hartu beharreko bi zutabe jartzen ditu agerian; elkar artikulatzen diren bi prozesu jarriz agerian. Batetik, luze azaldu den bezala, egitura sozialaren baitan norbanakoen posizioaren eragina. Bestetik, norbanakoa aktore aktibo bezala ulertu behar izana; maila honetan, eremu sozialean inplikazio identitarioen ondorioz etengabe ber aktualizatzen diren harreman sinbolikoetan norbanakoek burutzen duen jarduna kontuan hartzen da (Tafari et al., 2002a).

#### 4.4.3.3 Irudikapen sozialen eta identitate sozialaren arteko bi norabidetako harremana

Irudikapen sozialen eta identitate sozialaren teorien (Tajfel, 1978) arteko loturen hausnarketan jarraiki, bi teorien arteko loturak marko azaltzaile aberatsago bat edukitzea ahalbidetzen duenaren ideia babesten da (Breakweel, 1993). Batetik, identitate sozialaren teoriak irudikapen sozial batek momentu jakin batean duen forma edota esanahiaren zergatia hobeto ulertzea ahalbidetzen duelako. Horrela, irudikapen sozial baten forma eta esanahia zein prozesuren bidez egituratu den ulertzea iritsi daiteke. Hau da, identitate sozial positibo baten bila egotearen eraginaren menpe dagoen prozesua da (Breakwell, 1993; Huici, 1996). Bestalde, prozesua alderantzizkoa izan daiteke eta talde batek identitate sozial positiboa mantentzen jarrai dezan, irudikapen sozial bati egokitu behar izatea ekarri dezake. Izan ere, talde sozialek identitate positiboa mantentzeko helburuarekin irudikapen jakin baten aurrean zilegitasuna edo ezberdintzea bilatzea ekar dezake. Finean norbanakoa edo taldea irudikapen sozialaren aurrean birkokatu behar izatera eramanez (Breakwell, 1993).

#### 4.4.3.4 Norberaren irudikapena irudikapen sozial bezala

Taldeen arteko irudikapenen lanketatik harago joanez, norberaren irudikapena irudikapen sozial bezala lantzea proposatu zuen Doise-ek (1999). Talde arteko irudikapenetan bezala, norbanakoaren irudikapena aktore sozialen arteko harreman sinbolikoen erreflexua da (Devos, Deschamps & Combi, 1994). Era honetan *Self*-aren ikerketa aktore sozialen arteko harreman sinbolikoen printzipio antolatzaile nagusitzat kontsideratu daiteke (Doise, 1999). Gainera, norberaren irudikapena irudikapen sozial bezala jorratzeak, talde arteko irudikapenetan “haiek” eta “gu”-aren ikerketa markotik harago doan pauso bat ematea ahalbidetzen du; “ni”-aren posizioa azaleratzearen bidez. Izan ere, talde baten kidetzak konnotazio negatibo edo positiboak sor ditzakeen heinean, testuinguruan norbanakoaren kokapen indibidualizatuago batek, norbanakoari talde ezberdinen ezaugarriak bere egitea ekar dezake, edota norberaren burua era indibidualagoan identifikatzera eramatea (Cohen-Scali & Moliner, 2008; Doise, 1999; Doise & Lorenzi-Cioldi, 1991; Zavalloni & Louis-Guérin, 1984).

## 4.5 GATAZKA IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIAREN BAITAN

### 4.5.1 IRUDIKAPEN HEGEMONIKOAK, POLEMIKOAK ETA EMANTZIPATUAK

Irudikapen sozialen oinarrian ezagutza partekatuaren ideia dago; talde eta pertsonen objektu baten irudikapen partekatua edukitzean oinarritzen den hurbilpen teorikoa da (Salazar, 2003). Halere, irudikapen sozialak ez dira beti erabat partekatuak izaten eta talde sozialen arteko harremanek baldintzatzen dituzte (Pop, 2012). Maila honetan, irudikapen sozialetan aurkitu daitekeen partekatze maila, aniztasuna, eta kontraesanak identifikatzen laguntze aldera Moscovici (1988) hiru irudikapen motaren kategorizazioa burutu zuen.

#### -Irudikapen hegemonikoak

Irudikapen hegemonikoak, egitura zabal bateko kideek partekatzen duten irudikapenari egiten dio erreferentzia (jendartea, nazioa edota talde soziala). Irudikapen hegemonikoek Durkheim-en irudikapen kolektiboaren kontzeptuarekin antza dute. Izan ere, irudikapen kolektiboen izaera uniforme eta egonkorraren ideiaz hurbiltzen dira. Horrela, homogeneitatea eta egonkortasuna islatzen dute irudikapen hegemonikoek, eta ez dira zertan taldeak berak sortuak izan behar. Praktika sinboliko eta afektibo mota batzuk lehenetsarazten eta inposarazten dituzte, eta izaera hertsatzailea eta uniformeak daukate (Moscovici, 1988).

#### - Irudikapen emantzipatuak

Irudikapen emantzipatuek, irudikapen hegemonikoarekiko autonomia maila bat daukate. Interpretazio eta sinboloen elkar-trukaketaren emaitza dira, eta partekatuak diren irudikapenen emaitza dira. Ondorioz, irudikapen hegemonikoarekiko funtzio osagarria daukate (Moscovici, 1988). Irudikapen emantzipatuak beraz irudikapen hegemonikoaren bateragarriak diren irudikapenak dira. Adibidez, irudikapen hegemonikoari informazio berria erantsen zaionean eta jendarteko taldeek era ezberdinean informazio hura asimilatzerakoan sortu daiteke irudikapen emantzipatu bat (Ben-Asher, 2003).



-Irudikapen polemikoak

Irudikapen polemikoak talde sozial ezberdinen arteko borroka edo gatazkaren emaitza eta testuinguruan ulertu behar dira. Irudikapen polemikoak “gatazka soziala, eztabaida soziala eta jendarte osoak irudikapena partekatzen ez duelarik sortzen dira” (Moscovici, 1988, 221.or). Talde bakoitzak irudikapen jakin bateri aurkako ezaugarriak atxikitzean garatzen dira irudikapen polemikoak, eta bata bestearekiko baztertzailak izaten dira (Moscovici, 1988). “Irudikapen ezberdinen arteko lehia edota inkongruentzia adierazten dute” (Ben-Asher, 2003, 6.4.or). Gainera, irudikapen polemikoak aldaketa soziala eta berrikuntzarekin lotura daukate (Ben-Asher, 2003). Talde sozial batek objektu jakin batekiko praktika ezberdinak edota epai antagonikoak plazaratzen dituelarik ikusgarri bilakatzen dira (Lo Monaco & Guimelli, 2011). Irudikapen polemikoak garapenean ez da talde sozialen arteko hartu-eman zuzenik izaten eta beraz “maiz solaskide imajinario batekin izaten den imajinaturiko elkarrizketa baten markoan adieraziak izaten dira” (Moscovici, 1988, 221-222. or).

#### **4.5.2 HIRU IRUDIKAPEN MOTA IZATETIK IRUDIKAPEN BATEN BAITAKO ELEMENTUAK IZATERA**

Irudikapen hegemonikoak, emantzipatuak eta polemikoak jorratzen dituzten ikerketa gutxi egon arren, kontzeptu teorikoa aurrera eramandako lanetan garatzen joan da (ikus adibidez Ben-Asher, 2003; Lius, 2004; Lo Monaco & Guimelli, 2011). Zentzu honetan, Lius (2004) eta Lo Monaco eta Gumelli-k (2011) Moscovicik jatorrizko teorian egiten duen hiru irudikapen sozialetaz aritu baino, irudikapen berdin baten baitan egon daitezkeen elementu hegemoniko, polemiko eta emantzipatuez ari dira. Izan ere, irudikapen sozial berdinen baitan elkarrekin bizi daitezkeen irudikapen hegemoniko eta polemikoak daudela ulertzen da (Lius, 2004). Maila honetan, irudikapen batean era hegemonikoan denengatik partekatzen diren elementuak aurkitu daitezke, eta baita partekatzen ez diren eta gatazka eragiten duten elementu polemikoak ere (Lo Monaco & Guimelli, 2011). Ondorioz, irudikapen polemikoak egon arren, talde sozialek une oro elementuak partekatzen dituzte, irudikapen hegemonikoa eratuz.

### 4.5.3 IRUDIKAPEN POLEMIKOAK ETA TALDE ARTEKO HARREMANAK

Pauso bat harago emanaz, irudikapen sozialen lanketan, irudikapenaren elementu polemikoaren azalratzea eta talde sozial ezberdinen kidetasunaren eragina jorratu da (Breakwell, 2001; Lo Monaco & Guimelli, 2011; Muchi-Faina, 2004), bien arteko loturak agerian utziz. Maila honetan, irudikapen polemikoek pertsonak talde arteko dinamiken markoan kokatzera eramaten dituela azaltzen da. Lo Monaco eta Guimelli-k (2011) ardoaren irudikapen sozialari buruz egindako lanean ardoaren irudikapenean polemikoak diren edukiak pertsonen identitate sozial ezberdinen kidezatik azaldu daitezkeela azaltzen dute (Lo Monaco & Guimelli, 2011). Ildo berean, Breakwell-ek (2001) herri batean erraustegi baten ezartzearen alde edo kontra agertzea auzokideek arriskuaren irudikapenari esleitzen dizkieten esanahi kontrajarriekin harremanean aztertzen ditu. Horrela arriskuaren irudikapen polemikoari esleitzen zaizkion eduki kontrajarriak identitate sozialen bidez erregulaturik agertzen dira. Ondorioz irudikapen polemikoetan identitate prozesuek bitarteko papera betetzen dutela azaltzen da. Lerro berean, Muchi-Faina-k (2004), irudikapen hegemoniko eta polemikoak genero talde arteko harremanen markoan lantzen ditu. Era honetan, emakumenganako genero estereotipoari buruz eginiko ikerlanean genero estereotipoaren eduki batzuk gizon eta emakumeen artean partekatua diren bitartean, beste eduki batzuetan ez da adostasunik ageri. Genero estereotipoaren adostasunezko edukiek irudikapenaren maila hegemonikoa agerrarazten dute. Aldiz, partekatua ez den estereotipoaren atalak irudikapenaren alderdi polemikoa agerian jartzen du. Eduki polemikoen agerpena talde arteko irudikapenen markoan interpretatzen da.

#### 4.5.4 IRUDIKAPENAK, BORROKA IDEOLOGIKOA ETA TALDE ARTEKO HARREMANAK

##### 4.5.4.1 Irudikapenak eta borroka ideologikoa

Irudikapen sozialen bidez objektu jakin baten edukiarekiko informazioa edota azalpena ematea baino askoz ere gehiago egiten da; irudikapen sozialak ez dira soilik errealitatearen berri emateko baliagarriak. Izan ere irudikapenak errealitatearen eraikuntza jakin bat defendatzeko erabiliak izaten dira (Howarth, 2006). Zentzu honetan azaltzen dute Elcheroth, Doise eta Reicher-ek (2011) irudikapen sozialei forma ematearen bidez norbanako eta talde sozialek errealitate soziala sortzea bilatzen dutela, beraien ikuspegia edo interesak defendatze aldera. Pertsona orok parte hartzen du errealitateak nolakoa izan behar duen aldarrikapenean (Howarth, 2006). Maila honetan Moscovicik irudikapen sozialen bidez borroka ideologiko mota bat gertatzen dela azaldu zuen (1998).

Irudikapen sozialen eratze prozesuan beti daude gatazka eta kooperazioa (Moscovici & Marcová, 1998). Kooperazioak giza agenteei hitz egiteko, partekatze edo eztabaidatzeko kode komun bat eskaintzen dien bitartean (Moscovici, 1976; Wagner, Duveen, Verma & Themel, 2000), gatazkak eztabaidei bide ematen die, botere harremanak eta interes ezberdinak lehiatuz. Objektu berarekiko irudikapen ezberdinak izatera eraman dezake honek. Hain zuzen, objektu beraren irudikapen ezberdinak izatearen oinarrian interes edota helburu ezberdin edo kontrajarriak egon daitezke. Honenbestez, helburu batzuetara iritsi ahal izateko objektu batekiko dagoen irudikapena manipulatu izan daiteke (Howarth, 2006). Maila honetan, errealitatea definitzearen borrokan irudikapen ezberdinen arteko lehia izaten da, eta nagusiki talde boteretsuenek dute beren irudikapenen hegemonia jartzea bilatzen (Agoustitos, 2001). Modu honetan, irudikapen batzuk nagusitzen diren bitartean, beste batzuk bazterrean emanak dira, edo haien zabalpena mugatua izaten da. Irudikapenek errealitatearen eraikuntzan paper eratzailerik bat jokatzeko duten heinean, lehia honetan irabazten duenak errealitatearen definizioan irabazi izanen duela esan daiteke (Howarth, 2006).

Errealitatearen ko-eraikuntza honetan eta honen baitan izaten den borroka ideologikoan, pertsona eta talde sozial guzietan eragin ahala ezberdina da. Izan

ere, talde sozialek esparru publikoarekiko sarbide gehiago ala gutxiago izaten dute (Jovchelovitch, 1997), eta beraz ezagutza sistemak eratzeko orduan gaitasun gutxiago daukate (Howarth, 2001). Horrela, espazio publikoan talde sozialek duten sarbide mailaren arabera “erreala” dena ezartzeko edo hura kolokan jartzeko ahalmena ezberdina izanen da. Maila honetan, Elcheroth eta kideek (2011) irudikapen sozialen teoria boterearen teoria bezala ulertu behar izatea iradokitzen dute, botere harremanen ulermenerako aparteko teoria izanik.

#### 4.5.4.2 Agentizitatea irudikapen sozialen teoriaren baitan

Irudikapen sozialek gizabanako edota talde ezberdinen interes arabera forma jakin bat hartzen dutela azaldu berri dugu (Elcheroth et al., 2011). Hau horrela izanik, norbanako eta talde sozialek alde aurretik zetorren ezagutza beraien balore eta bizi diren testuinguru sozialaren arabera bere egiten dute. Ondorioz, irudikapen jakin baten aitzinean ezagutza berriz interpretatzen da eta, norberaren balioen arabera berriz ebaluatzeko eta eztabaidarako aukera egoten da (Moloney & Walker, 2002). Horrela, errealitatearen eratze prozesuan talde eta pertsonak sarbide ezberdina izan arren, irudikapen sozialen teorian jendea ez da ideia dominanteen “biktima” soil bezala kontsideratzen (Howarth, 2006). Horren orde, pertsonak aktore sozial gisara ulertzen dira; erresistentziarako aukera eta errealitatea eraldatu eta zalantzan jartzeko gaitasuna duten pertsonak izanik (Serrano, 2013). Maila honetan, irudikapen hegemonikoen aurrean talde edota norbanakoak mehatxatuak sentitzen direlarik garatzen dituzten irudikapenak ahalduntze zentzuan garatu ditzakete (Joffe, 2003; Murray, 2002; Philogène, 2001), Ondorioz, irudikapen sozial baten aurrean pertsonak agente bezala ulertzen dira (Joffe, 1998).

## **4.6 IRUDIKAPEN SOZIALAK ETA IKERKETA FEMINISTAREN ARTEKO ZUBIAK**

Anitzak dira irudikapen sozialen eta ikerketa feminista paradigmaten arteko zubiak. Psikologian nagusi den positibismo grinetik aldenduz, irudikapen sozialen teoriak teoria kritikoen ekarpenetatik hurbiltzeko emaniko pausoak handiak izan dira (Serrano, 2013). Trantsizio paradigmaticotzat deitu den garai beretsuan kokatzen dira bi paradigma teoriko hauen garapenak (Santos, 1989). Jarraian, era laburrean ikerketa feministak zertan datzan azaldu ondotik, irudikapen sozialen teoria eta ikerketa feministaren arteko zubiak azalduko dira.

### **4.6.1 ZERTAZ ARI GARA IKERKETA FEMINISTAZ ARITZEAN?**

Ugariak dira ikerketa feminista ezaugarritzeko definizioak, eta ikerlarien arabera enfasia leku batzuetan besteetan baino gehiago jartzen dela ikusi daiteke. Harding filosofo feministak hiru ezaugarri atxikitzen dizkio ikerketa feministari: bat, ikerketa feministek emakumeen esperientziatik abiatutako problematikei erantzuten diete; bi, emakumeen behar eta nahietatik abiatutako ikerketak dira; eta hiru, ikertzaileak ikerketan parte hartzen duten pertsonen maila kritiko berdinean kokatzen dira (1987). Hesse-Biber soziologoak ikerketa feministaren ikerketa praktikaren erdigunean botereak, autoritateak, etikak eta erreflexibitateak egon behar duela azaltzen du. Era berean, ikerketa feministak ikerketa lerro dominanteetan gaur egun arte garatu diren genero soslaiak zuzentzerako bideraturik egon behar duela azaltzen du (Hesse-Biber, 2012). Ondorioz, ikerketa feministak ikerketa objektuari heltzeko moduaren bidez ezberdintzen dira (Harnois, 2013). Hau horrela izanik, ikerketa feminista ez da (zertan) ikerlariaren sexua, generoa, afiliazio politikoa edota ikerketa gaiaren bidez ezberdintzen. Bide honetan, objektuari heltzeko moduan aurkitu daitezke irudikapen sozialen teoriaren paradigma eta ikerketa feministaren paradigmaten arteko kidesunak.

## **4.6.2 IRUDIKAPEN SOZIALEN TEORIAREN ETA IKERKETA FEMINISTAREN ARTEKO KIDETASUNAK**

### **4.6.2.1 Ikuspegi erlazionala**

Ikerketa objektuarekiko hurbilpen erlazionala edukitzean bat egiten dute irudikapen sozialen teoriak eta ikerketa feministek. Irudikapen sozialen teorian fenomeno sozial ororen baitan interakzioa dagoela aurreuposatzen da (Marcová, 2008), eta errealitatea maila erlazional batean ulertzen da. Izan ere, irudikapen sozialen teoriaren oinarrian dagoen (alter-ego-objektu) triadan elementu bakoitza bata bestearikiko eraginpean azaltzen da, isolatu ezinezko elementuak izanik (Andersen & Andersen, 2014) . Ondorioz, irudikapen objektua ez da bere baitatik existitzen den objektu bezala ulertzen, irudikapen sozialen izaera uneoro erlaziozkoa izanik (Serrano, 2013). Baieztapen honek ikerketa feministetan zientzia positibistan defendatzen den objektua kontzeptualizatzeko kritikarekin bat egiten du. Izan ere, epistemologia feministan objektuaren ezagupena eta azterketa ikuspegi erlazional batean ulertzen da (Arruda, 2010). Esate baterako, genero kontzeptua, botere harremanak barne hartzen dituen kategoria erlazional bat bezala ulertzen da, eta ez kategoria estatiko bezala. Horrela, bi ikerketa esparruetan objektuaren hurbilpen dinamikoa egiten da.

### **4.6.2.2 Interpretazio markoekiko kritika: testuinguruan kokatzea**

Irudikapen sozialen baitan zein ikerketa feministetan ikerketa testuinguruan kokatu beharraren garrantzia azpimarratzen da. Irudikapen sozialen teoriaren baitan irudikapen sozialak testuinguru sozial jakin baten baitan garatzen diren irudikapenak dira. Horrela, ezinezkoa da irudikapen baten ulermenera heltzea irudikapena garatzen den testuingurua kontuan hartu eta ezagutu gabe. Izan ere, irudikapen sozialak (testuinguru sozial eta ideologikoak baldintzatzen dituen) pertsona eta taldeen balore sistemen arabera dira (Abric, 2004). Testuinguru sozialaz harago, momentu zehatzari atxikitako testuinguruaren eragina ere aintzat hartzekoa da, irudikapen sozial baten aktibazioa ezberdina izaten baita testuinguru sozialaren eskakizunen arabera (Abric, 2001). Ikerketa feministetan norbanakoa bere pertsona arteko testuinguruan, testuinguru historikoan edo fisikoaren baitan ulertu beharra azpimarratzen da. Zentzu honetan, ikerketa positibistan aldarrikatzen den unibertsaltasunari eta abstrakzio

indibiduala kritika egiten zaio. Horrela, norbanakoa sistema oso baten baitan ulertu beharra aldarrikatzen da (Blazquez, 2010) eta beraz, kategoriak (generoa, klase soziala, arraza, eta abar.) elkar gurutzatzen diren ezaugarri bezala landu beharra.

#### 4.6.2.3 Agentizitatea

Irudikapen sozialen teorian eta ikerketa feministetan norbanakoei agentizitatea aitortzen zaie. Irudikapen sozialei dagokienez, errealitatea edo objektu bat bere baitatik existitzen ez den baieztapenetik abiatuz, norbanakoei “errealitatea” nola bere egiten duten ulertzen da (Roussiau & Bonardi, 2001). Errealitatearen irudikapen prozesu honetan norbanakoak agente bezala ulertzen dira. Gainera, irudikapenak berak interes edota ideologia batzuk defenditzeko borroka esparru kontsideratzen dira (Howarth, 2006), eta hegemonikoak diren irudikapenen aurrean norbanako eta talde sozialei erresistentzia eta zalantza jartzeko gaitasuna aitortzen zaie (Joffe, 1998). Ikerketa feministetan, ikerketan parte hartzen duen norbanakoen subjektibitatearen aitortza ematen da. Horrez gain, norberaren egoeraren inguruko hausnarketa egiteko gaitasuna aitortzen da, eta horretan agente bezala joka dezaketela azaleratzen da. Ikerketa feministetatik ikerketa esparru hegemonikoan pertsonak gizagabetzen direnaren kritika burutzen da (Blazquez, 2010).

#### 4.6.2.4 Ikerlariaren eragina

Ikerlariaren eraginari begira ikerketa feministak eta irudikapen sozialen teoria kritikotasun maila ezberdinean kokatzen diren arren, bi esparruetan ikerketa prozesuan ikerlariak duen eraginari erreferentzia egiten zaio. Ikerketa prozesuan ikerlariak duen eraginari helduz, irudikapen sozialetan irudikapena ikerlari eta parte hartzailearen artean izaten den interakzio une batean garatzen dela azaltzen da (Abric, 1994; Mugny & Carugati, 1985). Testuinguru diskurtsibo jakin bati atxikiriko irudikapena den heinean irudikapenaren sorreran ikerlariak eragin zuzena daukala onartzen da. Ikerketa feministetan metodo zientifikoaren erabilpenak ikerlariaren eragina deuseztatzearen baieztapenari aurka egiten zaio. Horrela, ikerketa prozesuan ikerlariaren eragina nabarmena dela azpimarratzen da (Blazquez, 2010; Longino,

1988). Ondorioz, ikerlariaren aurreiritzi eta interes sozial eta politikoez ezagutzaren sorreran eragin zuzena daukatela mahaigaineratzen da; ikerketa lehentasunetan, marko teorikoan, erabilitako metodoetan zein datuen interpretazioan ikerlariak eragina izanik.

#### 4.6.2.5 Baztertu diren gai eta subjektuekiko interesa

Irudikapen sozialen teorian zein ikerketa feministetan ikerketa lerro hegemonikoan aintzat hartu ez diren ikerketa gaiak mahaigaineratu dira. Hain zuzen, bi esparru hauen garapenak bazterrean emanak izan diren ikerketa eremuak jorratzea ahalbidetu dute (Arruda, 2010). Irudikapen sozialen bidez ezagutza komunari loturiko edukiak azaleratu dira, eguneroko pentsaerei atxikiriko edukiak agerian jarri (Arruda, 2010; Moscovici, 1988). Ikerketa feministak emakumeen bizi esperientzietatik abiatzen diren ikerketa galderak jorratzea ahalbidetu du, eta emakumeen errealitatea ikusaraziz (Harding, 1987).

#### 4.6.2.6 Metodo aniztasuna

Irudikapen sozialen teorian eta epistemologia feministan oinarritzen diren ikerketan erabiltzen diren metodoak anitzak dira (Arruda, 2010). Izan ere, ikerketa lerro klasikoekin alderatuz, bi esparru hauetan ikerketa objektuarekiko egiten den hurbilpen dinamikoak eta malguagoak metodo ezberdinen erabilerara eta sorrera eraman du, baita bestelako ikerketa diziplinetako tekniken erabilpena ere. Irudikapen sozialetan metodo ezberdinak erabiltzen dira emaitzen balidazioa lortzeko, eta honakoa triangulazioaren printzipioaren izenarekin ezagutzera ematen da (Apostolidis, 2006).



**LAUGARREN ATALA**

**LEHEN LAN ENPIRIKOA:  
TEORIAN OINARRITUTAKO IRUDIKAPEN  
SOZIO-PROFESIONALA,  
INGENIARITZA IKASLEEN IKUSPEGIA**



## **5 INGENIARITZAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALA GENERO IKUSPEGITIK**

### **5.1 SARRERA**

Jarraian, ikasleekin aurrera eramandako lanbidearen irudikapen sozio-profesionala genero ikuspegitik aztertzea helburu duen ikerketa atala aurkeztuko da. Lehen urrats batean, gaian kokatzeko helburuarekin aurrekari teorikoak gogoraraziko dira. Horretarako, gaian kokapena egitetik ingeniaritza eta maskulinitatearen arteko lotura nola gauzatu den azaltzera igaroko gara, irudikapen sozio-profesionalei buruzko hurbilpen teorikoak zertan datzan azaltzen bukatzeko. Ondotik, ikerketa atal honen helburuari aipamena egingen zaio eta erabilitako metodologiaren nondik norakoa azalduko da. Jarraian, lortutako emaitzak azalduko dira, eta azkenik ikerketa atalari loturiko ondorioak.

### **5.2 AURREKARI TEORIKOAK**

#### **5.2.1 EGUNGO TESTUINGURUA**

Gaur egun, Hego Euskal Herriko unibertsitate ikasleen %50a baino gehiago emakumeak diren arren, ingeniartzako matrikulazioan ez dira %30eko langa gainditzera iristen. Gainera azken urteetan ez da emakumeen matrikulazioan joera aldaketarik ageri (Hezkuntza eta formazio profesionalaren ministerioa, 2008-2018).

#### **5.2.2 INGENIARITZA ETA MASKULINITATEAREN ARTEKO LOTURA**

Ingeniaritza lanbidearen izaera generizatua prozesu historiko baten bidez garatu da; eguneroko praktika, instituzioen antolaketa eta zabalduriko irudikapen sozial jakin batzuen bidez (Berner, 2002). Ingeniaritzan emakumeen presentzia apala ulertu eta azaltzeko egindako ikerketak ugariak dira (Cockburn, 1991; Du, 2006; Powell et al., 2009; Powell et al., 2008; Sulaiman & Almuftah, 2010). Ikerketa guzti hauetan emakumeen presentzia apala ingeniaritza tradizionalki ezaugarri maskulinoen inguruan eratu izanaren bidez azaltzen da (Du, 2001). Ikasketa eremuari dagokionez,

emakumeen kopuru txikia unibertsitatean bultzatzen diren baloreak, erakusten diren edukiak, gizonen arteko homosozialitatea eta ikasketetatik lan mundura dagoen saltoaren bidez azaldu izan da (Du, 2006; Powell et al., 2009; Powell et al., 2008; Sulaiman & Almuftah, 2010). Lan munduari dagokionez, lanbide maskulinizatueta emakumeen presentzia apala kultura profesionaletan nagusitzen diren balore eta ideologia generizatuen bidez azaltzen da. Esate baterako, gaitasun teknikoa eskusiboki gizonetzoei atxikitzearen bidez (Cockburn, 1983) edota dedikazioa bezalako baloreak lanbidearen berezko ezaugarri bezala ulertzearen bidez (Zolesio, 2009).

### 5.2.3 IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAK

Jarraian garatuko den ikerketa atala irudikapen sozio-profesionalen marko teorikoaren baitan kokatzen da. Izan ere, ikasle ingeniariak ingeniartzako lanbidez duten irudikapena aztergai izanen da. Irudikapen sozio-profesionalen kontzeptuak etorkizuneko profesionalek beren etorkizuneko lanbidez duten irudikapenari egiten die erreferentzia (Frayse, 1998a). Irudikapen sozio-profesionalak irudikapen sozial eta irudikapen profesionalen erdi bidean dauden irudikapenak dira (Piasser & Bataille, 2011). Zentzu honetan, formazio prozesuan dauden pertsonak beren etorkizuneko lanbideari buruz duten irudikapena ezin daiteke lanbidearen irudikapen sozialtzat jo (irudikapen naif-a), lanbideari buruzko ezaugarriak jada (teknikoak adibidez) bere egin baitituzte. Era berean, esperientzia profesionalik gabeko irudikapenak diren heinean, ikasleek lanbideari buruz duten irudikapena ezin daiteke irudikapen profesional bezala ezaugarritu (Dernat & Siméone, 2014; Piasser & Bataille, 2011).

Irudikapen sozio-profesionalen eta formazio testuinguruen arteko lotura hertsia da. Izan ere, irudikapen sozio-profesionalak formazio prozesuan jasotzen diren edukien araberakoak izaten dira eta beraz, formazioan lehenesten diren eduki motek baldintzatuko dute irudikapen sozio-profesionalaren izaera (Frayse, 1998a). Ingeniaritzaren irudikapen sozio-profesionalari dagokionez, formazio prozesuetan lehenesten diren edukiek eragina daukatela erakutsi du Fraysse-ek (1998a). Izan ere, eskolen arabera ezagutza teorikoak edo tekniko-praktikoari loturiko jakitateak lehenesten dira. Maila txikiago batean, aktibitate komertziala edo kudeaketari loturiko edukiak lehenesten dituzten ingeniartzako eskolak ere badaude. Ondorioz, eskolen

arabera garatzen den lanbidearen irudikapen sozio-profesionalak lan testuinguruarekiko lotura handiagoa ala txikiagoa izaten du.

#### **5.2.4 HELBURUAK**

Ikerketa atal honen helburu orokorra ingeniari-tza lanbidearen irudikapen sozio-profesionala aztertzea da genero ikuspegitik. Helburu honen baitan azpi-helburu bat garatuko da:

1. Lanbidearen irudikapena zein eduki eta esanahien inguruan eratzen den aztertuko da eta irudikapenaren edukian generoaren arabera desberdintasunik dagoen begiratuko da.

### **5.3 METODOLOGIA**

#### **5.3.1 LAGINA**

Euskal Herriko Unibertsitateko ingeniari-tzako ikasleei banatu zaie galde-sorta. 250 galde-sorta jaso dira eta haietatik analisiak burutzeko balizkoak 192 izan dira (n=65 emakume eta n=127 gizon), ikasle guzietan ez dutelako lanbidearen galderari erantzun. Bigarren maila eta laugarren maila arteko ikasleek parte hartu dute ikerketan, 19 eta 29 urte arteko ikasleak izanik. Batez besteko adina 20.09 urtekoa izan da eta adinaren desbideratze tipikoa 2.15koa.

#### **5.3.2 TRESNA ETA PROZEDURA**

- Prozedura

Unibertsitate zentroen baimena lortu ondoren, galde-sortak klase bukaeratan banatu eta bete ziren, ikertzailea presente izanik. Ahoz zein idatziz baimen informatuaren bidez, ikasleei galde-sortari buruzko azalpenak eman zitzaizkien, parte-hartzea borondatezkoa zela azaldu zitzaien eta anonimotasuna babestu zen.

- Tresna

Ikasleei banatu zaien galde-sortan lanbidearen irudikapena jasotzeko asoziazio askeko teknika erabili da. Asoziazio askeko teknikaren bidez ikasleek ingeniartzaren estimuluari erantzun diote. Zehazki, “Zer datorkizu gogora ingeniari lanbidean pentsatzean?” gogora ekartze galderari erantzun diote. Estimuluaren aurrean bururatu zaizkien lehen 4-6 hitz edo esaldi idazteko eskatu zaie.

### 5.3.3 DATU AZTERKETA

#### 5.3.3.1 Analisi prototipikoa

Ingeniaritza estimuluaren aurrean jasotako edukien azterketa analisi prototipikoaren bidez egin da (Bonnec, Roussiau & Vergès, 2002; Vergès, 1992; Vergès, 1994), Vergès-en EVOC2003 programa informatikoaren bidez (Vergès, 2003c).

Analisian, hitzen maiztasuna eta batez besteko heina kontuan hartzen da, bi irizpideak gurutzatuz. Bi irizpide hauen gurutzaketatik lau laukitako taula batean banatzen dira emaitzak. Lehen eremuan (taularen ezker gainekaldean) maiztasun gehieneko eta hein apalenerako hitzak (lehenik esandakoak) kokatzen dira. Bigarren eremuan (taularen gain eskuinaldean) maiztasun handieneko eta hein altueneko hitzak kokatzen dira. Hirugarren eremuan (taularen behe ezker aldean), maiztasun txikienerako eta hein apalenerako hitzak kokatzen dira. Laugarren eremuan (taularen behe eskuinaldean), maiztasun apalenerako eta hein altueneko hitzak kokatzen dira. Kontuan hartzen diren hitzak gutxienez 5 aldiz agertu behar dira hitz corpus guzian.

15. taula: Analisi prototipikoaren emaitzen antolaketa

	Batez besteko heina baino $\leq$	Batez besteko heina baino $\geq$
Batez besteko maiztasuna baino $\geq$	1. eremua Gune zentrala	2. eremua
Batez besteko maiztasuna baino $\leq$	3. eremua	4. eremua Periferia

Iturria: Doutre, 2012.

Analisi prototipikoaren bidez lanbidearen irudikapena eratzen duten edukiak jasotzeaz gain, ikerketa objektuaren egitura aztertzea ahalbidetzen da. Zehazki, irudikapenaren elementu zentralak eta azalaldekoak identifikatzea ahalbidetzen duen

metodoa da. Elementu zentralen inguruan eratzen da nagusiki irudikapenaren esanahia eta zentzua (1. eremua). Azalaldeko edukiek elementu zentralak eratzen dituzten esanahiak osatzen dituzte (2.eta 3.eremuak). Bestalde, irudikapenaren egituraren etorkizuneko aldaketa azalaldean aurkitu daiteke (Vergès, 1994).

### 5.3.3.2 Complex-aren bidezko analisia: emakume eta gizonen erantzunen alderaketa

Ingeniari lanbidez eginiko gogora ekartze galderan emakume eta gizonezkoek erabili dituzten hitzen alderaketa egin da Complex programaren bidez. Batetik, gizonek soilik edo emakumeek soilik esandako hitzak begiratzera jo da, generoaren arabera lanbidearen estimuluaren aurrean hitz ezberdinei erreferentziarik egin zaien aztertzeko. Bestetik, gizon eta emakumeen artean partekatuak diren hitzak aztertu dira. Zehazki, 5 alditik gorako aipamena jaso duten hitzak hitz partekatu bezala jorratu dira eta, gizonek edo emakumeek hitzaren erabilera handiagoa duten ikusteko t Student froga egin da.

## 5.4 EMAITZAK

### 5.4.1 ANALISI PROTOTIPIKOAREN EMAITZAK

Ingeniaritza lanbidearen estimuluaren aurrean 1535 hitz aipatu dira eta horietatik 503 hitz desberdinak dira. Analisisian 5etik gorako aipamena jaso duten hitzak kontuan hartu dira, 670 hitz. Mozketa puntuak 16ko erdi-bideko maiztasunean (hitz aukeratuenak isolatzeko) eta 2,4ko heinaren batez bestekoa ezarri dira (lehenik esandako hitzak isolatzeko). Erdibideko maiztasuna eta heinaren batez bestekoa gurutzatuz jarraian agertzen den taula lortzen da (16.taula). Hitzen esanahia hobeto ulertu eta azaldu ahal izateko, hitza azaldu den esaldira jo da bere testuinguruan kokatzea ahalbidetuz.

16. taula: Ingeniaritza lanbidearen estimuluaren analisi prototipikoaren emaitzak

<b>Maiztasuna <math>\geq 16</math></b>	<b>Batez besteko heina <math>\leq 2.4</math></b>		<b>Maiztasuna <math>\geq 16</math></b>	<b>Batez besteko heina <math>\geq 2.4</math></b>	
ardura	18	2,222	asko	16	2,750
berrikuntza	29	2,379	dirua	20	2,900
diseinatzea	33	1,636	etorkizuna	16	3,000
egitea	35	2,229	garapena	19	2,789
enpresa	21	2,048	ona	20	2,850
ikerketa	24	2,292	soldata	19	2,895
lana-lanbidea	124	2,161	talde-lana	20	2,450
makinak	31	2,258	teknologia	22	2,545
proiektuak	31	2,194			
<b>Maiztasuna <math>\leq 16</math></b>	<b>Batez besteko heina <math>\geq 2.4</math></b>		<b>Maiztasuna <math>\leq 16</math></b>	<b>Batez besteko heina <math>\geq 2.4</math></b>	
arazoak	12	2,250	abilezia	12	2,500
eraikinak	5	2,200	atzerrira	8	3,000
fabrika	5	1,600	aukerak	13	2,462
gauzak	10	2,200	aurrerapena	11	2,727
gogorra	15	2,267	beharra	15	2,467
industria	11	2,091	berriak	13	2,615
jakintza	12	1,917	bidaiatu	10	3,700
konponbidea	13	2,385	bizitza	5	2,800
obrak	8	2,125	egokia	5	3,000
piezak	5	2,200	eraginkortasuna	7	3,286
sortzea	14	1,857	ezagutza	9	3,111
zientzia-zientzialari	6	2,333	gizartea	6	3,000
			gizona	5	2,600
			gustuko	5	2,400
			handia	15	2,867
			hobekuntza	15	2,933
			ideiak	11	2,727
			ikastea	12	3,167
			ingeniaria	7	2,714
			interesgarria	9	3,111
			irakaskuntza	10	3,200
			izan	7	2,429
			izatea	9	2,667
			kalkuluak	6	2,500
			laguntzea	10	2,400
			lehia	6	2,833
			matematikak	5	3,000
			mundua	9	3,222
			planoak	5	2,400
			programatzea	5	3,400
			sormena	11	2,909
			teknikoa	11	2,818
			zailtasuna	15	3,000

Iturria: norberak egina.



## Erdigunea

Gune zentralekoak izan daitezkeen hitzak ezker gaineko laukian kokatzen dira. Bertan hein baxua duten maiztasun handiko hitzak aurkitzen dira. Ingeniaritza lanbidearen kasuan 16 alditik gora esandako hitzak eta 2,4 baino hein baxuagoa duten hitzak daude. Bederatzi hitzek betetzen dituzte bi irizpide hauek: ardura, berrikuntza, diseinatzea, egitea, enpresa, ikerketa, lana-lanbidea, makinak eta proiektuak. Jarraian, hitz hauen esanahiari zentzua emanen zaie, ingeniartzako lanbidearen testuinguruaren baitan interpretatuz eta dimentsioak sortuz.

- Lanbidea-lana: ingeniartza lanbide bat izatearen bidez eta lan egitearen bidez azaltzen da nagusiki. "Lana-lanbidea" ideiarekin ingeniari lanbidearen ezaugarri deskriptibo zein preskriptiboak aipatzen dira: lan zama handia, lan ordu asko egitea, lan gogorra izatea, lana gustuko izan beharra, disfrutatzea, interesgarria izatea, atzerrian lan egitea, eta abar.
- Lanbidearen misioa: lanbidearen misiorekin harremanetan ageri da "berrikuntza" hitza. Ingeniaritza berrikuntza bultzatzea helburu duen profesio bezala ulertzen da.
- Funtzioa-zereginarekin harremanean: lanbidearen funtzioarekin harremanean ageri dira "diseinatzea", "egitea" eta "ikerketa" hitzak. Hitzak testuinguruan jarritz, berrikuntza lortzeko burutu beharreko zereginak direla ageri dira "ikertu", "egin" eta "diseinatzea" hitzak.
- Zailtasuna, funtzioak dakarren ardura: Lanbidearen izaerarekin harremanean ageri da "ardura" hitza. Lanbideak dakarren ardura handiari egiten zaio aipamena eta ardura horrek dakarren zailtasunari.
- Lantzen denarekin harremanean: Lanbidean sortzen, diseinatzen edo hobetzen diren objektuekin harremanetan ageri dira "proiektuak" eta "makinak" hitzak.
- Testuingurua: lanbidea burutzen den testuinguruarekin harremanean ageri da "enpresa" hitza. Lana aurrera eramaten den lekuari egiten dio erreferentzia.

## Azalaldea

Azalaldeko edukiak ezker beheko eta eskuin gaineko edukietan ageri dira eta gune zentralean identifikaturiko dimentsioei jarraiki azalduko dira.

- Lanbidearen misioa: Lanbidearen misioarekin harremanean ageri diren hitzak “konponbidea”, “arazoak”, “sortzea”, “garapena” eta “etorkizuna” dira.
- Lantzen denarekin harremanean: Lanbidean sortzen, diseinatzen edo hobetzen den objektuarekin harremanetan ageri dira “piezak”, “planoak”, “gauzak” eta “teknologia” hitzak.
- Testuingurua: Lana burutzen den testuinguruarekin harremanean ageri dira “industria”, “fabrika”, “obrak” eta “eraikinak” hitzak.
- Zientzia-zientzialaria: Ingeniaritza zientzia esparruan kokatzen den lanbidea da, eta zientzialari izatearekin lotzen da.
- Zailtasuna eta eskakizunak: Lanbidearen zailtasunarekin harremanean ageri da “gogorra” hitza. Zehazki, lan gogorra eta ikasketa gogorrak egin behar diren testuinguruan ageri den hitza da. Era berean “gogorra” hitza gogortasunaren balorean deklinatzen da. Bestalde, lanbidearen zailtasuna eskakizun maila altuarekin lotzen da. Eskakizunekin harreman daude “asko” eta “jakintza” hitzak. Lan ordu asko, jakintza asko, ikasketa asko burutu edo eduki behar izatearen testuinguruan azaltzen da zailtasuna.
- Lan egiteko modua: Lan egiteko moduarekin harremanean ageri da “talde-lana” hitza. Lanbideko zereginak (ikertu, diseinatu) taldean egiten direla azaltzen da.
- Alderdi ekonomikoa: lanbidearen maila ekonomikoarekin harremanean ageri dira “soldata”, “ona” eta “dirua” hitzak. Hitz hauen bidez ingeniariak ekonomikoki maila ona edukitzearekin lotzen da.

#### 5.4.2 COMPLEX-AREN EMAITZAK: EMAKUME ETA GIZONEK EMANDAKO ERANTZUNEN ALDERAKETA

Jarraian, Complex programaren bidez emakume eta gizonek erabili dituzten hitzen alderaketaren emaitzak aurkeztuko dira. Lehenik, gizonek soilik edo emakumeek soilik esandako hitzak begiratuko dira. Ondotik, gizon eta emakumeek esandako hitzen erabileran generoaren arabera alde adierazgarriak dagoen begiratuko dira.

- Generoaren arabera berezitasunak hitzen aipamenean

Gizonezkoek soilik esandako hitzen artean aurkitzen dira “burua” hitza lau aipamenekin, “erronka” hitza lau aipamenekin, “ordu” hitza hiru aipamenekin eta “kudeaketa” hitza hiru aipamenekin. Emakumeei dagokienez, ez da gutxienean aipamen batekin emakumeek soilik esandako hitzik ageri.

- Gizon eta emakumeen artean partekatutako diren hitzak eta adierazgarritasunak

Soldata ( $t(1516)=1.71$ ;  $p<.10$ ), dirua ( $t(1515)=1.96$ ;  $p<.10$ ) eta talde-lana ( $t(1515)=1.96$ ;  $p<.10$ ) hitzen erabileran generoaren arabera desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira, emakumeek gehiago erabiliz. “Soldata” hitza emakumeek 10 aldiz erabili dute, gizonek 9 aldiz. “Dirua” hitza emakumeek 11 aldiz erabili dute, gizonek 9 aldiz. “Talde-lana” emakumeek 11 aldiz erabili dute, gizonek 9 aldiz.

### 5.5 ONDORIOAK

Ikasleek ingeniartzaz duten irudikapena, irudikapen sozio-profesionalen markoaren baitan kokatzen da. Etorkizuneko lanbideari buruzko ezaugarri ugari barneratu dituztela erakusten dute irudikapenaren baitan jasotako edukiek. Formazio prozesuan egonik, lanbidearekiko duten irudikapena *naif*-a izatetik urrun dela erakusten dute emaitzek (Piaser & Bataille, 2011). Izan ere, ikasleek ingeniartzaz duten irudikapen sozio-profesionala, teorikoki irudikapen profesionala osatzen duten hiru atalei lotuta ageri da; testuinguruko dimentsioan, dimentsio identitarioan eta dimentsio funtzionalean (Blin, 1997) egituratzen dela erakusten dute emaitzek.

Maila identitarioari erreferentzia egiten dioten hiru dimentsio aipatu dituzte ikasleek. Batetik, ingeniariak zer den definituz, irudikapenaren erdigunean ingeniariak “lan-lanbidea” izatearekin eta azalaldean, “zientzia-zientzialaria” hitzekin lotzen dutela ageri da. Bestetik, lanbidearen misioari erreferentzia egiten zaio. Erdigunean “berrikuntza” hitzaren inguruan egituratzen da misioaren esanahia, eta azalaldean agertzen diren hitzen bidez lanbideari atxikitzen zaion misioa edukiz osatzen da (hala nola, “konponbidea”, “arazoak”, “garapena” eta “etorkizuna” hitzen bidez). Azkenik, ingeniari ikasleek, ingeniariak zailtasunaren ideiarekin lotzen dutela ikusten da. Zailtasuna, erdigunean lanbideak dakarren arduraren handia eta ardurak dakarren zailtasunarekin azaltzen da. Azalaldean, zailtasunaren ideia lanbidearen eta ikasketen gogortasunari erreferentzia eginez azaltzen da. Gogortasunaren ideia ikasketetan lan ordu asko sartu beharra eta profesional bezala dakarren arduraren eta dedikazioaren edukien bidez azaltzen da. Hitzen aipamenean generoaren araberako berezitasunei dagokienez, “ordu” hitza soilik gizonezkoek erabiltzen dute. Badirudi, emakumeek ez bezala, gizonezko batzuk ordu asko ematea lanaren berezko elementutzat daukatela. Alabaina, azaldu berri den bezala, dedikazioaren balorea ez da soilik ordu asko esanahiaren bidez eratzen eta beraz, ez da esklusiboki gizonezkoek mahaigaineratzen duten ideia.

Dimentsio praktikoa, bi eginbehar moten inguruan egituratzen da. Batetik, ikasleek eguneroko jardunean aurrera eramaten diren zereginak irudikatzen dituztela ikusi daiteke. Ingeniariari atxikitzen zaizkion zereginak “ikertzea” eta “diseinatzea” hitzen bidez esanahia hartzen dute irudikapenaren erdigunean. Maila honetan, lanbideko zereginak modu tekniko-praktikoan irudikatzen dituztela ikusten da. Irudikapen sozio-profesionalak ikasketen prozesuan lehenesten diren edukiek baldintzaturiko irudikapenak diren heinean (Frayse, 1998b), EHU-ko ikasleetan lanbidearekiko inplikazio prozesua nagusiki eduki tekniko-praktikoak lehenestearen bidez egiten dela pentsa daiteke. Lanbideari atxikitzen dioten funtzioarekin jarraiki, generoaren araberako berezitasunak aztertzean, gizonezko batzuk ingeniariak “buru” izatearekin eta “kudeaketarekin” lotzen dutela ikusi da, eta emakumeek ez. Zentzu honetan gizonezko batzuk lanbidearen barne funtzioetatik daukate kudeatzaile-buru izatearen funtzioa. Halere, aipamen gutxi edukitako hitzak izanik, ezin daiteke emaitza hauetatik irakurketa orokorrik egin.

Testuinguruaren dimentsioari atxikiriko edukiei dagokienez, ikasleek lan egiten den lekuari erreferentzia egiten diote irudikapenaren erdigunean ingeniari-tza enpresa munduan kokatuz, eta azalaldean fabrika, obrak eta eraikinetan. Lanbidean lantzen den objektuaren inguruko edukiak aipatzen dira ere, "proiektuak" eta "makinak" hitzen bidez. Lan egiteko moduak ere jasotzen direla erakusten dute emaitzek, talde-lana nabarmenduz irudikapenaren azalaldean. Generoaren arabera berezitasunak aztertzean "talde-lana" hitzari emakumeek aipamen gehiago egin dietela ikusi da. Emaitzei jarriki, emakumeek talde-lanean jarduteari garrantzia gehiago ematen dietela ulertu daiteke gizonekin alderatuz, nahiz eta gizonentzako garrantzizko elementua den ere. Bukatzeko, dimentsio ekonomikoari erreferentzia egiten zaio, ingeniari-tza ekonomikoki maila ekonomiko ona edukitzearekin lotuz irudikapenaren azalaldean. Generoaren arabera berezitasunak aztertzean, emakumeek gehiago aipatzen duten dimentsioa dela ikusi da. Zehazki emakumeek "soldata" eta "dirua" hitzei aipamen gehiago egin diete. Zentzu honetan, aldea txikia izan arren, badirudi emakumeek lanbidearen alderdi ekonomikoa gehiago azpimarratzen dutela, nahiz eta gizonentzako garrantzizko elementu dela ageri den ere.

Ikasleek ingeniari-tzaren lanbidez duten irudikapen sozio-profesionalan lan munduari dei egiten dieten edukiak jaso dira. Profesionalki oraindik jardunean aritu ez arren, lanbidearen misioa, zereginak, lan egiteko modua edota lanbidearen exigentzia mailari erreferentzia egiten dieten edukiekin osatu dute irudikapena. Halere, irudikapen sozio-profesionala dela erakutsiz eta ez irudikapen profesionala, lan erakundeei loturiko elementu gutxi azaldu da (Netto, 2011; Piasser & Ratinaud, 2010). Bestalde, gizon eta emakumeek emaniko erantzun batzuetan ezberdintasun batzuk agertu diren arren, alde gutxi erakutsi duten emaitzak dira. Ondorioz, generoak aldaera gutxi eragiten duenez, ikasleen artean lanbidearen irudikapen sozio-profesionala partekatua dela ondorioztatzen da.

**Irudikapen sozio-profesionalaren genero tipifikazioari dagokionez**, dimentsio identitarioan eta testuinguruak genero soslaia duten edukiak azaldu dira. Ingeniari-tza kokatzen den testuinguruari dagokionez, ingeniari-tza enpresa munduan kokatzeaz gain, azalaldean fabrika, obrak eta eraikinetan aurrera eramaten den jardura bezala azaldu da. Guzti hauek, lan eremu maskulino bezala ezaugarritu daitezkeen testuinguruak dira. Batetik, obrak zein fabriketan burutzen diren

jarduerak tradizionaloki maskulinotzat jo diren ezaugarriekin lotzen direlako eta bestetik, gaur egun, lan eremu horietan emakumeen kopurua oso apala delako (Emakunde, 2017).

Bestalde, irudikapen sozio-profesionalaren genero tipifikazioarekin jarraiki, elementu eta balio maskulinoekin bat egiten duten edukiak jaso dira. Batetik, ikasleek ingeniari-tza dedikazio handiko lanbidetzat dutela ikusi da (lan zama handia edota lan ordu asko egin behar izana). Zehazki, dedikazioari begira nagusitzen diren balore hauek genero ikuspuntutik ez dira neutroak. Izan ere, generoaren arabera zaintza eta etxe-ko lanen banaketa desorekatua dagoenez, dedikazioaren balorea gailentzeak emakumeei denboraren kudeaketarako zailtasun gehiago sorrarazten die, lan jarduna eta ibilbide profesionala oztopatuz, eta bizi-esparru orotan presioaren handitzea ekarriz (Lee-Gosselin & Ann, 2011; Rutherford, 2001). Ondorioz, badirudi lanbidearen genero tipifikazioa ikasketa prozesuan hasten den sozializaziotatik eratzten doala (Brangier et al., 2004) profesio-ko balore eta praktikak partekatze bidean.

Bestetik, irudikapen sozio-profesionala eratzten duten balio eta elementu maskulinoekin jarraiki, zailtasun tekniko handia edota gogorra-gogortasuna edukiak aditzera eman dira. Esfortzua eta zailtasunaren ideia oso presente dauden baloreak dira bai ikasketa prozesuari dei egiterakoan, bai lan munduko jardunari erreferentzia egiterakoan ere. Literaturan ingeniari-tzan emakume gutxi jardutea, besteak beste, ikasketa prozesuan helarazten diren eduki zein baloreen bidez azaltzen da (Connell, 1995; Du, 2001). Izan ere, ikasleen lanbidearekiko sozializazioan lehenesten diren eduki eta baloreek, gizonen bizi-esperezienekin bat egiten dute (Du, 2001). Ildo honetan, ikasketa prozesuetan gaur egun emakumeen sozializazio prozesuetan lehenesten diren edukietatik urrun gelditzen diren eduki zein baloreak helarazten dira (Kvande, 1999). Horrela, teknologien interes sozialaren inguruko hausnarketak leku gutxi duela ikusi daiteke ikasleek ingeniari-tzaz duten irudikapenean. Ondorioz, lehen pauso bezala, egun generoaren arabera sozializazio ezberdinak nagusitzen direla aintzat harturik (Du, 2001), emakumeen presentzia ingeniari-tza arloan handitzeko bide bat ireki lezake ingeniari-tzaren interes edota inplikazio sozialak agerian uzteak.

## **6 LIDERGOAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALA GENERO IKUSPEGITIK**

### **6.1 SARRERA**

Jarraian, ikasleekin aurrera eramandako lidergoaren irudikapen sozio-profesionala genero ikuspegitik aztertzea helburu duen ikerketa atala aurkeztuko da. Lehen urrats batean, gaian kokatzeko helburuarekin aurrekari teorikoak gogoraraziko dira. Horretarako, lidergoan emakumeen presentzia apala azaltzeko lidergo rolen hurbilpen teorikoari erreferentzia egingen zaio. Ondotik, lidergoaren irudikapen sozio-profesionala aztertzeko oinarritzat harturiko irudikapen sozialen teoria azalduko da. Zehazki, ikuspegi soziodinamikoaren eta norberaren lidergoaren irudikapenaren (*self-a*) oinarri teorikoak azalduko dira. Jarraian, ikerketa atal honetako helburu orokorra eta azpi-helburuak azalduko dira. Ondoren, erabilitako metodologia, emaitzak eta ondorioak aurkeztuko dira. Ondorioak ezarritako hiru azpi-helburuei jarraiki, hiru ataletan azalduko dira.

### **6.2 AURREKARI TEORIKOAK**

#### **6.2.1 EGUNGO TESTUINGURUA**

Azken hamarkadetan emakumeen presentzia lidergo posizioetan handitu den arren, bilakaera geldoa izaten ari da (OIT, 2016). Lidergo roletan emakumeek gutxiengoa izaten segitzen dute enpresa pribatuan, gobernuz kanpoko erakundetan, kargu politikotan, sindikalgintzan zein mundu akademikoan (ONU mujeres, 2017).

#### **6.2.2 GENEROAK LIDERGOAN DUEN ERAGINA GENERO ROLEN IKUSPEGITIK**

Gizarte psikologiatik azken urteetan lidergoan emakumeen presentzia apala azaltze aldera ikerketen fokua genero eskemetan jarri da. Ildo honetan, ikerketak lidergoa eta emakumeen genero rol kongruentzia lantzerantz zuzendu dira (Monroe et al., 2015). Teoria klasikoetan, emakumeen presentzia apala, liderraren ezaugarrien eta

emakumeen arteko disoziazioaren bidez azaltzen da (Eagly & Karau, 2002; Heilman, 2001; Schein, 2001; Schein, 1973), liderrari ezaugarri agentikoak atxikiaz eta emakumeari komunalak. Gainera, emakumeek lidergorako preskriptiboak diren ezaugarriekin bat eginez gero, emakumeen rolaekin bat ez egitea egotziko zaiela azaltzen da (estereotipoen maila preskriptiboa), aurreiritzi eta ebaluazio negatiboak sortuz (Rhee & Sigler, 2015; Eagly & Karau, 2002). Egungo ikerketen emaitzek, lidergoan dauden emakumeen ezaugarri agentikoen aurrean estereotipoen maila preskriptiboak indarrean dirauela erakusten dute (Ellemers et al., 2012; Moss-Racusin & Rudman, 2010; Phelan et al., 2008). Berriagoak diren ikerketa lerrotan, emakume liderrekiko dagoen eskakizun bikoitzean jartzen da enfasia (Bongiorno et al., 2014; Heilman & Okimoto, 2007; Johnson et al., 2008). Emakumeak lidergoan positiboki baloratuak izateko agentizitatea zein komunalitatea agerian jarri behar dutela azaltzen dute. Honakoak lidergorako preskriptiboa den agentizitatearekin eta emakumeen rol tradizionalarekiko preskriptiboa den komunalitatearekin bat egitea ekarriko luke.

Bestalde, testuinguru maskulinoa izatea emakume liderrekiko aurreiritziaren handitzea dakarren elementu bezala ageri da. Izan ere, lidergoa bereziki era agentikoan ulertzeak lidergoan dauden emakumeekiko aurreiritzien areagotzea ekartzen du (Cuadrado & Navas, 2000; Eagly & Karau, 2002; Eagly et al., 1995; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006). Bukatzeko, nahiz eta lidergo agentikoak nagusitasuna izaten jarraitzen duen egun, lidergo komunalekiko interesa handitzen doala kontuan hartu behar da (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000), eta lidergo autokratikoekiko egiten den balorazioa negatiboa dela (Barberá et al., 2000; De Cremer, 2006; Driskell & Salas, 2005; Gastil, 1994; Van et al., 2004).

### **6.2.3 GENERO ROLETATIK IRUDIKAPEN SOZIALETARA: IKUSPEGI SOZIODINAMIKOA ETA *SELF-A* LIDERGOAREN AZTERKETAN**

Taldeen arteko dinamikak eta irudikapen sozialen baitan dauden dinamikak estuki nola elkar lotzen diren erakustean datza ikuspegi soziodinamikoaren interes nagusia (Doise, 1985; Doise, 1986). Talde arteko harremanak, botere eta ezberdintasun sozialek markaturiko testuinguruan kokatzen diren heinean (Lorenzi-Cioldi & Clémence, 2001), posizio sozialari loturiko asimetriak dinamika errepresentazionalak



ulertzeko ezaugarri erabakigarriak dira (Tafari & Apostolidis, 2002). Zehazki, talde arteko irudikapen berezietan kokatuko da jarraian burutuko den ikerketa. Talde arteko irudikapenek endotaldeari eta exotaldeari erreferentzia egiten diete, eta talde arteko interakzioen emaitza bezala ulertzen dira (Cohen-Scali & Moliner, 2008; Doise, 1973). Talde arteko irudikapenek aurre hartzearen funtzioa, funtzio azaltzailea eta justifikatzailea betetzen dute. Hau da, gainontzeko eta norberaren taldeari atxikiriko ezaugarrien bidez, talde sozialek dituzten jokabideei/portaerei zilegitasuna emateko eta jokabideak azaltzeko eta aurreratzeko balio izaten dute (Deschamps & Moliner, 2008).

Bestalde, taldeen arteko irudikapenetatik harago joatea ahalbidetzen duen norbanakoaren irudikapenari (*self-ari*) helduko zaio (Doise, 1999). Norbanakoaren irudikapenak aktore sozialen artean izaten diren harreman sinbolikoen erreflexua izateaz gain, “gu” eta “haiek” ikerketa markotik pauso bat harago ematea ahalbidetzen du. Talde sozialek konnotazio negatibo edo positiboak sor ditzaketen heinean, norbanakoari testuinguruan kokapen indibidualizatuago bat burutzea laguntzen du *Self*-aren irudikapenak (Doise, 1999; Doise, 1991; Zavalloni & Louis-Guérin, 1984). Zehazki, testuinguru sozial baten baitan kokatuz, *Self*-a endotaldearekin edota exotaldearekin alderatzeak, endotaldearekiko asebetetzea ekar lezake (norberaren taldearekin bat egitea eta exotaldeaz urruntzea ekarriz) edota endotaldearekiko asebetetze eza, mugikortasun indibiduala ekarriz (norberaren taldearekiko urruntzea eta exotaldearekiko bat egitea) (Deschamps & Moliner, 2011).

## 6.2.4 HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

### 6.2.4.1 Helburuak

Lidergoaren irudikapen soziala genero ikuspegitik aztertzea da ikerketa atal honen helburu orokorra. Helburu orokor honen baitan hiru azpi-helburu bereizten dira.

1. Lidergoaren irudikapen soziala zein eduki eta esanahien inguruan eratzen den ezagutzea, eta irudikapenaren edukian generoaren araberako desberdintasunik dagoen aztertzea.

2. Lidergoaren irudikapenean *Think manager Think male* teoriaren gaurkotasuna aztertzea. Hau da, batetik lidergoaren irudikapena gizon liderrarekin lotzen den aztertzea, eta bestetik lidergoa estilo agentikoekin komunalekin baino gehiago lotzen den aztertzea.
3. Lidergoaren irudikapenean generoaren (posizio sozialaren) eragina aztertzea. Zehazki, norbanakoaren lidergoaren irudikapena (*self-a*) talde arteko genero dinamiken baitan nola kokatzen den aztertuko da.

#### 6.2.4.2 Hipotesiak

Bi dira helburu hauek erdiesteko erabili diren metodoak: asoziazio askeko galdera eta lidergo eskalen bidezko galde-sorta. Lehen azpi-helburuari dagokionez, asoziazio askeko metodoarekin modu esploratzailean lidergoa zein edukiekin lotzen den ezagutu nahi da eta beraz ez da hipotesi zehatzik garatu. Jarraian, bigarren eta hirugarren azpi-helburuari loturiko hipotesiak azalduko dira.

##### - **Bigarren azpi-helburuari loturiko hipotesiak**

Tradizionalki eta egun, lidergoa eta gizonezkoen artean dagoen asoziazioa oinarri izanik:

- lidergo generikoaren eta gizon liderraren irudikapenek bat egitea aurreikusten da (1. hipotesia).
- lidergo generikoaren irudikapena emakume liderraren irudikapenetik ezberdintzea aurreikusten da (2. hipotesia).

Tradizionalki lidergoa ezaugarri agentikoen inguruan definitu dela eta egun horrela definitzen dela oinarri izanik:

- lidergo generikoaren eta gizon liderraren irudikapenek dimentsio agentikoetan puntuazio altuagoa jasotzea aurreikusten da dimentsio komunaletan baino (3 eta 4. hipotesiak hurrenez hurren).

Emakume liderrei ezaugarri agentiko zein komunalak edukitzeko eskakizuna egiten zaienez (eskakizun bikoitzaren ideia):

- emakume liderraren irudikapenak dimentsio agentiko eta komunaletan puntuazio parekoa jasotzea aurreikusten da (5. hipotesia).

- **Hirugarren azpi-helburuari loturiko hipotesiak**

*Self*-aren irudikapenak endotaldearen edo exotaldearen irudikapenarekin bat egitea edo aldentzea aurreikusten da, talde horien konnotazio positibo ala negatiboen arabera.

➤ Endotaldeari dagokionez

- Gizonezkoen erantzunak

Tradizionalki gizonei atxiki izan zaien komunalitate txikia eta berriki lidergo komunalekiko egiten den balorazio positiboagoa aintzat harturik:

- norberaren lidergoaren irudikapenari (*self-a*) dimentsio demokratikoan (6-a hipotesia) eta harremanetara bideraturiko dimentsioan (6-b hipotesia) puntuazio altuagoa atxikitzea aurreikusten da gizon liderraren irudikapenari baino.

Dimentsio agentikoei dagokienez, lidergoa eta ezaugarri agentikoen arteko lotura aintzat harturik, eta zehazkiago gizon liderra eta ezaugarri agentikoen arteko lotura:

- eginbeharretara bideraturiko dimentsioan norbanakoaren lidergoari (*self-a*) eta gizon liderraren irudikapenari puntuazio parekoa ematea aurreikusten da (7-a hipotesia).

Lidergo autokratikoarekiko egiten den balorazio eskasagoa aintzat harturik:

- norberaren lidergoaren irudikapenari (*self-a*) dimentsio autokratikoan puntuazio apalagoa atxikitzea aurreikusten da gizon liderraren irudikapenari baino (7-b hipotesia).

- Emakumeen erantzunak

Komunalitatea eta emakumeen arteko lotura aintzat harturik eta berriki lidergorako komunalitatearekiko egiten den balorazio positiboagoa:

- norberaren lidergoaren (*self-a*) eta emakume liderraren irudikapenari pareko puntuazioa ematea aurreikusten da dimentsio demokratikoan (8-a hipotesia) eta harremanetara bideraturiko dimentsioan (8-b hipotesia).

Emakume liderrak agentikoak izateari begira dagoen aurreiritzia aintzat harturik eta testuinguru maskulinoetan aurreiritzia areagotzen dela kontuan izanik:

- eginbeharrei bideraturiko dimentsioan, norberaren lidergoari (*self-a*) emakume liderrari baino puntuazio apalagoa ematea aurreikusten da (9-a hipotesia).

Lid ergo autokratikoarekiko egiten den balorazio eskasa aintzat harturik, eta emakume liderrak bereziki testuinguru maskulinoetan agentikoak izateari begira dagoen aurreiritzia kontuan izanik:

- dimentsio autokratikoan norberaren lid ergoari (*self-a*) emakume liderrari baino puntuazio apalagoa ematea aurreikusten da (9-b hipotesia).

➤ Exotaldeari dagokionez

- Gizonezkoen erantzunak

Emakume liderrari atxikitzen zaion komunalitatea eta berriki lid ergo komunalekiko egiten den balorazio positiboa aintzat harturik:

- dimentsio demokratikoan (10-a hipotesia) eta harremanetara bideraturikoan (10-b hipotesia) norberaren lid ergoaren irudikapenari (*self-a*) eta emakume liderraren irudikapenari pareko puntuazioa ematea aurreikusten da.

Emakume liderrak agentikoak izateari begira dagoen aurreiritzia aintzat harturik eta testuinguru maskulinoetan aurreiritzia areagotzen dela kontuan izanik:

- eginbeharretara bideraturiko dimentsioan norberaren lid ergoari emakume liderrari baino puntuazio apalagoa ematea aurreikusten da (11-a hipotesia).

Emakumeak agentikoak izateari begira dagoen aurreiritzia aintzat harturik zein lid ergo autokratikoarekiko egiten den balorazio eskasa:

- dimentsio autokratikoan norberaren lid ergoari (*self-a*) emakume liderrari baino puntuazio apalagoa ematea aurreikusten da (11-b hipotesia).

- Emakumeen erantzunak

Lid ergorako dagoen agentizitatearen eskakizuna zein lid ergoa eta gizonezkoen arteko asoziazioa kontuan harturik:

- eginbeharretara bideraturiko dimentsioan norbanakoaren lid ergoari (*self-a*) eta gizon liderraren irudikapenari puntuazio parekoa ematea aurreikusten da (12-a hipotesia).

Lid ergo autokratikoarekiko egiten den balorazio eskasa aintzat harturik:

- norberaren lid ergoaren irudikapenari (*self-a*) puntuazio apalagoa atxikitzea aurreikusten da gizon liderraren irudikapenari baino dimentsio autokratikoan (12-b hipotesia).

Dimentsio komunalei dagokienez, berriki lidergo komunalekiko egiten den balorazio positiboa aintzat harturik, eta lider gizonari atxikitzen zaio komunalitate txikia:

- dimentsio demokratikoan (13-a hipotesia) eta harremanetara bideraturiko dimentsioan (13-b hipotesia) norberaren lidergoaren irudikapenari (*self-a*) puntuazio altuagoa atxikitzea aurreikusten da gizon liderraren irudikapenari baino.

## 6.3 METODOLOGIA

### 6.3.1 LAGINA ETA PROZEDURA

Euskal Herriko Unibertsitateko ingeniartzako ikasleei banatu zaie galde-sorta eta 250 galde-sorta jaso dira. Asoziazio askeko teknikan oinarrituz analisirako balizko erantzunak 192 izan dira (n= 65 emakume eta n = 127 gizon); lidergo estiloen eskalen galde-sortan oinarrituz analisirako 224 parte-hartzaileen erantzunak izan dira balizkoak (n= 74 emakume eta n = 150 gizon). Galderei ez erantzun izanagatik edo modu osatuan erantzun ez izanagatik ez dira balizkotzat kontsideratu gogora ekartze galderari edo lidergo eskalei emandako erantzun guziak.

Bigarren eta laugarren maila arteko ikasleek parte hartu dute ikerketan, 18 eta 29 urte arteko ikasleak izanik. Batez besteko adina 20.18 urtekoa izan da, eta adinaren desbideratze tipikoa 2.19koa.

Unibertsitate zentroen baimena lortu ondotik, galde-sortak klase bukaeratan banatu eta bete ziren, ikertzailea presente zela. Ahoz zein idatzizko baimen informatuaren bidez, ikasleei galde-sortari buruzko azalpenak eman zitzaizkien, parte-hartzea borondatezkoa zela azaldu zitzairen eta anonimotasuna babestu zen.

## 6.3.2 TRESNA

### 6.3.2.1 Gogora ekartze galdera

Lidergoaren irudikapen soziala zein eduki eta esanahien inguruan eratzten den ezagutzeko eta irudikapenaren edukian generoaren arabera desberdintasunik dagoen aztertzeko (1. azpi-helburua) gogora ekartze teknika erabili da. Ikasleek lidergoaren estimulari erantzun diote, “zer datorkizu gogora ingeniaria arloko lidergoan pentsatzean?” galderari erantzunez. Estimuluaren aurrean bururatu zaizkien lehen 4-6 hitz edo esaldi idazteko galdetu zaie.

### 6.3.2.2 Lidergo estiloak neurtzeko eskalak

Lidergoaren irudikapen sozialean *Think manager Think male* teoriaren gaurkotasuna egiaztatzeko (2.azpi-helburua), eta lidergoaren irudikapenaren inguruan sortzen diren genero dinamikak aztertzeko (3.azpi-helburua) lidergo estiloak neurtzeko eskalak erabili dira. Aztertu diren lidergoen irudikapenak honakoak izan dira: lidergo generikoaren irudikapena, gizon liderraren irudikapena, emakume liderraren irudikapena eta ustezko egoera batean norberaren lidergoaren irudikapena (*self-a*). Laginaren erdiak lidergo generikoa, gizon liderra eta ustezko egoera batean norberaren lidergoaren irudikapenari (*self-a*) loturiko eskalak bete ditu (n=111). Beste laginaren erdiak lidergo generikoa, emakume liderra eta ustezko egoera batean norberaren lidergoaren irudikapenari (*self-a*) loturiko eskalak bete ditu (n=113). Horrela, parte-hartzaile guzietan lidergo generikoaren eta ustezko egoera batean norberaren lidergoaren irudikapenari loturiko eskalak bete dituzte, eta laginaren erdiak gizon liderraren irudikapena eta beste erdiak, emakume liderraren irudikapenari loturiko eskala bete ditu.

Lidergoaren irudikapenak neurtzeko lidergo estilo ezberdinak neurtzea ahalbidetzen duten bi eskala erabili dira: lidergo demokratiko eta autokratikoa neurtzen dituen eskala, eta eginbeharretara eta harremanetara bideraturiko lidergoak neurtzen dituen eskala. Hainbat ikerketan fidagarritasuna dutela erakutsi duten

eskalak dira (Cuadrado et al., 2012; Molero, Cuadrado, Navas & Morales, 2007). Eskala bakoitza 10 item dituen bi dimentsioz osaturik dago.

Lidergo estilo autokratikoak eta eginbeharretara bideraturikoak genero estereotipoen maila agentikoarekin duten lotura estuagatik lidergo maskulino bezala ezaugarritzen dira. Lidergo estilo demokratikoak eta harremanetara bideraturikoak genero estereotipoen maila komunalarekin duten harremanagatik lidergo estilo femenino bezala ezaugarritzen dira (Cuadrado et al., 2012; Eagly & Johannesen-Schmidt, 2001).

- Euskaratze prozesua

Galde-sortan erabili diren eskalak eskalaren ingelesezko bertsioan oinarritu dira (Cuadrado et al., 2012). Eskalak ingelesetik euskara itzuli dira, eta horretarako "itzulpen bikoitza" deitzen den metodoa erabili da. Bi pertsonak, beren baitatik, eskalak euskaratu dituzte. Ondotik, eginiko itzulpenak alderatu dira, eta ezberdintasunak zeuden lekuetan bertsio bakar bat adostera heldu dira, egokitzapen linguistiko zenbait eginez. Bukatzeko, adosturiko eskalen euskarazko bertsioa hirugarren pertsona batek ingelesera itzuli du. Ingelesera itzultako bertsioa, eskalen bertsio originalarekin alderatu da, eta bateragarriak direla egiaztatu da.

### **6.3.3 DATU AZTERKETA**

#### **6.3.3.1 Gogora ekartze galdera aztertzeko: analisi prototipikoa eta Complex-a**

- **Analisi prototipikoa**

Ingeniaritza estimuluaren aurrean jasotako edukien azterketa analisi prototipikoaren bidez egin da (Vergès, 1992; Vergès, 1994; Bonnac et al., 2002), Vergès-en EVOC2003 programa informatikoaren bidez (Vergès, 2003c).

Analisian, hitzen maiztasuna eta batez besteko heina kontuan hartzen da, bi irizpideak gurutzatuz. Bi irizpide hauen gurutzaketatik lau laukitako taula batean banatzen dira emaitzak. Lehen eremuan (taularen ezker gainekaldean) maiztasun gehieneko eta hein apaleneko hitzak (lehenik esandakoak) kokatzen dira. Bigarren eremuan (taularen gain eskuinaldean) maiztasun handieneko eta hein altueneko hitzak kokatzen dira.

Hirugarren eremuan (taularen behe ezker aldean), maiztasun txikieneko eta hein apaleneko hitzak kokatzen dira. Laugarren eremuan (taularen behe eskuinaldean), maiztasun apaleneko eta hein altueneko hitzak kokatzen dira. Kontuan hartzen diren hitzak gutxienez 5 aldiz agertu behar dira hitz corpus guzian.

17. taula: Analisi prototipikoaren emaitzen antolaketa

	Batez besteko heina baino $\leq$	Batez besteko heina baino $\geq$
Batez besteko maiztasuna baino $\geq$	1. eremua Gune zentrala	2. eremua
Batez besteko maiztasuna baino $\leq$	3. eremua	4. eremua Periferia

Iturria: Doutre, 2012.

Analisi prototipikoaren bidez lanbidearen irudikapena eratzen duten edukiak jasotzeaz gain, ikerketa objektuaren egitura aztertzea ahalbidetzen da. Zehazki, irudikapenaren elementu nagusiak eta azalaldekoak identifikatzea ahalbidetzen duen metodoa da. Elementu nagusien inguruan eratzen da nagusiki irudikapenaren esanahia eta zentzua (1. eremua). Azalaldeko edukiak irudikapenaren elementu nagusiak eratzen dituzten esanahiak osatzen dituzte (2. eta 3. eremuak). Bestalde, irudikapenaren egituraren etorkizuneko aldaketa azalaldean aurkitu daiteke (Vergès, 1994).

- **Complex-a: emakume eta gizonen emandako erantzunen alderaketa**

Lanbidez eginiko gogora ekartze galderan emakume eta gizonen erabili dituzten hitzen alderaketa egin da Complex programaren bidez. Batetik, gizonen soilik edo emakumeen soilik esandako hitzak begiratzera jo da, generoaren arabera lidergoaren estimuluaren aurrean hitz ezberdinei erreferentziarik egin zaien aztertzeko. Bestetik, gizon eta emakumeen artean partekatutako diren hitzak aztertu dira. Zehazki, 5 alditik gorako aipamena jaso duten hitzak hitz partekatu bezala jorratu dira, eta gizonen edo emakumeen hitzaren erabilera handiagoa duten ikusteko t Student froga egin da.



### 6.3.3.2 Lidergo estilo eskalen bidezko azterketa

Lidergoaren irudikapena lau estimuluekin landu da: lidergo generikoa, norbere lidergoa, gizon liderra/emakume liderra. Estimulu bakoitzarekin Varimax errotazioa izan duten bi faktore analisi egin dira. Bata, autokratiko-demokratikoaren lidergoaren eskalarekin; eta bestea, eginbehar-harremanei bideraturiko lidergoaren eskalarekin. Eskalaren fidagarritasuna handitzeko helburuarekin, eta eskala hauek erabil izan diren gainerako ikerketan egin den moduan, dimentsio autokratikoko 5. itema kentzea hautatu da.

Lidergo generikoaren irudikapenaren azterketan autokratiko-demokratiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach-en  $\alpha = .803$ koa izan da, eta eginbehar-harremanei bideraturiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach-en  $\alpha = .855$ koa. Ustezko egoera batean norberaren lidergoaren irudikapenaren azterketan autokratiko-demokratiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach-en  $\alpha = .568$ koa izan da, eta eginbehar-harremanei bideraturiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach-en  $\alpha = .753$ koa. Gizon liderraren irudikapenaren azterketan autokratiko-demokratiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach-en  $\alpha = .762$ koa izan da eta eginbehar-harremanei bideraturiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach  $\alpha = .849$ koa. Emakume liderraren irudikapenaren azterketan autokratiko-demokratiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach-en  $\alpha = .0.707$ koa izan da eta eginbehar-harremanei bideraturiko eskalaren fidagarritasuna Cronbach-en  $\alpha = .793$ koa.

Hipotesiak frogan jartzeko eginiko analisisiei dagokienez, burutuko diren frogak parametrikokoak ala ez parametrikokoak izanzen diren erabakitzeko, datuek normaltasuna eta homozedastizitatearen baldintza betetzen duten egiaztatu da. Normaltasunaren baldintza egiaztatzeke normaltasun frogak egin dira eta homozedastizitatearen baldintza betetzen den egiaztatzeke Levene-en bidezko frogak egin dira. Taldeen arteko bariantzaren homogeneotasuna bete da baina normaltasunaren baldintza ez da bete. Ondorioz, analisisiak froga ez parametrikokoak eginez burutu dira. Bigarren pauso batean froga parametrikoen bidezko datuen analisia egin da. Bi analisi moduetan emaitza berdinak lortu diren heinean, jarraian froga parametrikoen datuak aurkeztuko dira, datuek eskaintzen duten argitasun maila handiagoagatik. Zehazki, 1-5 hipotesiak

egiazatzeko Anova neurri errepikatuak eta T test-ak egin dira. 6-13 bitarteko hipotesiak egiazatzeko, Anova neurri errepikatuak egin dira.

## 6.4 EMAITZAK

### 6.4.1 GOGORA EKARTZE GALDERAREN EMAITZAK

#### 6.4.1.1 Analisi prototipikoaren emaitzak

Lidergoaren estimuluaren aurrean 1489 hitz aipatu dira, eta horietatik 553 hitz desberdinak dira. Analisisian 5 aldiz edo gehiagotan aipatu diren hitzak kontuan hartu dira. Horiek 754 hitz izan dira. Mozketa puntua 15eko erdi-bideko maiztasunean (hitz aukeratuenak isolatzeko) eta 2ko heinaren batez bestekoan ezarri dira. Erdibideko maiztasuna eta heinaren batez bestekoa gurutzatuz jarraian agertzen den taula lortzen da.

18. taula: Lidergoa estimuluaren analisi prototipikoaren emaitzak

Maiztasuna $\geq 15$	Batez besteko heina $\leq 2$		Maiztasuna $\geq 15$	Batez besteko heina $\geq 2$	
burua	23	1,783	asko	17	2,471
egitea	19	1,842	behar	46	2,152
enpresa	19	1,789	gaitasuna	18	2,056
erabakiak	17	1,941	hartu	26	2,115
erantzukizuna	50	1,940	jakitea-jakintza	21	2,524
handia	39	1,692	lana	48	2,042
izatea	38	1,947	pertsona	18	2,167
lidergoa	27	1,593	proiektuak	21	2,048
			talde-lana	54	2,222
			taldea	23	2,043
Maiztasuna $\leq 15$	Batez besteko heina $\leq 2$		Maiztasuna $\leq 15$	Batez besteko heina $\geq 2$	
esperientzia	5	1,800	antolatzea	11	2,636
gizona	13	1,615	arazoak	6	2,167
ingeniaria	10	1,400	arloan	7	2,286
ingeniaritza	7	1,857	aurrera	5	2,400
ona	5	1,600	dena	6	2,167
prestakuntza	7	1,857	denbora	5	2,600
zorrotza-zorroztasuna	6	1,667	dirua	11	2,182
			diseinatzea	5	2,600
			eramatea	6	2,333
			estresa	6	2,333
			garrantzia	12	2,417
			gauzak	6	2,333
			gehiago	6	2,500
			gidatzea	6	3,000
			ideiak	8	2,375
			kontrola	5	2,000
			lagundu	5	2,400
			langilea	7	2,714
			langileak	12	2,417
			lehia	12	2,667
			ona	14	2,143
			seriostasuna	5	3,400
			soldata	14	2,643
			teknikoa	6	2,000
			zaila	12	2,083

Iturria: norberak egina.

## Erdigunea

Gune zentraletako hitzak ezker gaineko laukian kokatzen dira. Maiztasun handiko hitzak aldi berean hein baxua dutenekin aurkitzen dira. Ikerlan honen kasuan 15 alditik gora esandako hitzak eta bi baino hein baxuagoa duten hitzak daude.

Zortzi hitzek betetzen dituzte bi irizpide hauek: burua, egitea, enpresa, erabakiak, erantzunkizuna, handia, izatea eta liderra-lidergoa. Jarraian dimentsioak sortuz hitz hauen esanahiari zentzua emanen zaie.

- Buruzagitzaren rola: Lidergoaren rolaekin harremanetan ageri dira “buru” hitza. “Buru” hitza taldearen buru izatearekin harremanean ageri da, taldearen buruzagitza hartzearekin eta maila apalago batean taldea gidatzearekin.
- Funtzioarekin harremanean: Lidergoaren funtzioarekin harremanean ageri dira “erabakiak” eta “egitea” hitzak. “Erabakiak” hitza, erabakiak hartzearekin lotzen da, eta buru izatearekin rolaekin lotzen da. “Egitea” hitza bere testuinguruan ezarriz nagusiki lana egitearen ondoan ageri da. Maila apalago batean, proiektu bat egin edota taldean lan egitearen ondoan ageri da.
- Funtzioak dakarren ardura: Liderraren figura arduraren ideiarekin harremanean ageri da “erantzunkizuna”, “handia” eta “izatea” hitzen bidez. “Erantzunkizuna” hitza, handia hitzaren ondoan ageri da uneoro. “Erantzunkizuna” hitza azaldu den testuinguruan jarriz, liderrari atxikitzen zaizkion funtzioari loturik ageri da, erabakiak hartzeak dakartzan arduren bidez azalduz.
- Testuinguruarekin harremanean: Liderrak lan egiten duen testuinguruarekin harremanean “enpresa” hitzari egiten zaio erreferentzia; hau da, liderra enpresa kokatzen dute.
- Lidergoa: “Lidergoa” hitza lidergoa eramatearen ideiarekin harremanean ageri da. Lana eta taldeen lidergoa eramatearen testuinguruan ageri da.

## Azalaldea

Azalaldeko edukiak ezker beheko eta eskuin gaineko edukietan ageri dira. Gune zentralean identifikaturiko dimentsioei jarraiki azalduko dira.

- Buruzagitzaren rolaekin harremanean: lidergoaren rolaekin harremanean ageri dira “taldea” eta “proiektua” hitzak. Hitzak testuinguruan jarriz, “taldea” hitza pertsonen arduraduna izatearekin, talde bat zuzentzearekin, taldea gidatzearekin eta taldearen burua izatearekin lotzen da. “Proiektuak” hitza proiektuen lidergoa eramatearekin, eta proiektuen arduraduna eta burua izatearekin lotzen da.
- Funtzioarekin harremanean: Lidergoaren funtzioarekin harremanean ageri da “lana” hitza. “Lana” hitzak lan egiteari egiten dio erreferentzia. Era berean, “lana” hitza lan zama handia izatearekin harremanean ageri da, lan asko egitearekin eta lan ordu asko egitearekin. Bestetik, maila apalago batean “lana” hitza ingurukoei lana erraztu edota azaltzearekin lotzen da.
- Liderrei egiten zaien eskakizunarekin harremanean: Liderrak eduki beharreko ezaugarriekin harremanean ageri dira “jakitea-jakintza”, “prestakuntza”, “esperientzia”, “gaitasuna”, “behar”, “ona” eta “asko” hitzak. “Jakitea-jakintza” hitza, jakintza asko edukitzearekin harremantzen da. “Prestakuntza” prestakuntza teknikoarekin loturan ageri da, eta prestakuntza asko edukitzearekin. “Ona” hitzak langile ona, tekniko ona eta prestakuntza ona izatearen bidez esanahia hartzen du. “Esperientzia” esperientzia duen pertsonarekin lotzen da. “Behar” hitza eduki beharreko ezaugarriekin harremanean ageri den hitza da, prestakuntza beharra edo gaitasuna eduki behar izanarekin lotzen da.
- Lan egiteko moduekin harremanean: Lan egiteko moduei dagokienez “talde-lana” eta “zorrotza-zorroztasuna” hitzak ageri dira. “Talde-lana” hitza taldean lan egin beharra eta liderrak talde-lana bultzatzearen testuinguruan ageri da. “Zorrotza-zorroztasuna” hitza modu zorrotzean lan egitearekin lotzen da, eta zorrotza izatearekin da.
- Liderra ezaugarritzen duen subjektuarekin harremanean: Liderra ezaugarritzen duen subjektuarekin lotzen dira “ingeniaria”, “pertsona” eta “gizona” hitzak.

“Gizon” hitza testuinguruan jarritz bi modutan aipatu dela ikusi daiteke. Batetik, lidergoa modu espontaneoan gizon izatearekin lotzen da. Bestetik, lidergoa eta gizon izatearen arteko lotura kritikatzeko da, emakumeek lidergo roletara iristeko zailtasun gehiago dituztela azalduz.

- Testuinguruarekin harremanean: Lidergoa burutzen den lan arloarekin harremanean ageri da “ingeniaritza” hitza.

#### 6.4.1.2 Complex-aren emaitzak: emakume eta gizonek emandako erantzunen alderaketa

Jarraian, Complex programaren bidez emakume eta gizonek erabili dituzten hitzen alderaketaren emaitzak aurkeztuko dira. Lehenik, gizonek soilik edo emakumeek soilik esandako hitzak begiratuko dira. Ondotik, gizon eta emakumeek esandako hitzen erabileran generoaren arabera alde adierazgarriak dagoen begiratuko dira.

- Generoaren arabera berezitasunak hitzen aipamenean

Gizonezkoek soilik esandako hitzen artean aurkitzen dira “arriskuak” hitza 4 aipamenekin, “denbora” hitza 5 aipamenekin eta “lagundu” hitza 5 aipamenekin. Emakumeek soilik esandako hitzen artean ageri da “menpe” hitza 4 aipamenekin.

- Gizon eta emakumeen artean partekatutako diren hitzak eta adierazgarritasunak

Ez da gizon eta emakumeek esandako hitzen aipamenean alde adierazgarriak atzeman.

#### 6.4.2 LIDERGO ESTILOEN ESKALEN ANALISIAREN EMAITZAK

Lider generikoaren irudikapenak gizon liderraren irudikapenarekin bat egiten duen egiaztatzeko (1. hipotesia) eta emakume liderraren irudikapenetik aldentzen den egiaztatzeko (2.hipotesia), azterturiko lau dimentsiotan, lider generikoaren irudikapena gizon liderraren eta emakume liderraren irudikapenarekin alderatu da.

Lehen hipotesiaren azterketari dagokionez, lider generikoaren irudikapenak gizon liderraren irudikapenarekin bat egiten du dimentsio autokratikoan ( $F(1,102)=0.12$ ,  $p=.727$ ,  $\eta^2=.001$ ), eginbeharretara bideraturikoan ( $F(1,101)=1.69$ ,  $p=.196$ ,  $\eta^2=.016$ ) eta harremanetara bideraturikoan ( $F(1,99)=1.63$ ,  $p=.205$ ,  $\eta^2=.016$ ). Dimentsio demokratikoan aldiz, lider generikoaren eta gizon liderraren irudikapenak ezberdintzen dira ( $F(1,100)=9.14$ ,  $p=.003$ ,  $\eta^2=.084$ ) (19.taula). Dimentsio demokratikoaren azterketan generoa oinarri duen interakzioa dagoela ikusten da ( $F(1,100)=5.06$ ,  $p=.027$ ,  $\eta^2=.048$ ). Generoaren araberako azterketa egitean, alde adierazgarria soilik gizonekoek emaitzan ageri da ( $t(65)=4.59$ ,  $p < .05$ ;  $d=0,798$ ). Hala, gizonekoek gizon liderraren irudikapenari ( $M=3.5$ ;  $DT=.828$ ) lider generikoaren irudikapenari ( $M=3.04$ ;  $DT=0.90$ ) baino puntuazio altuagoa ematen diote, emakumeek lider generikoari ( $M=3.17$ ;  $DT=.914$ ) eta gizon liderrari ( $M=3.24$ ;  $DT=0.79$ ) puntuazio parekoa esleitzen dioten bitartean ( $t(35)=0.45$ ,  $p < .05$ ,  $d=-0,107$ ).

Bigarren hipotesiaren azterketari dagokionez, emakume liderraren irudikapena lider generikoaren irudikapenetik ezberdintzen dela erakusten dute emaitzek azterturiko lau dimentsiotan. Dimentsio autokratikoan ( $F(1,102)=19.44$ ,  $p < .05$ ,  $\eta^2=.16$ ), demokratikoan ( $F(1,103)=40.06$ ,  $p < .05$ ,  $\eta^2=.280$ ), harremanei bideraturikoan ( $F(1,100)=70.46$ ,  $p < .05$ ,  $\eta^2=.413$ ) eta eginbeharrei bideraturiko dimentsioan ( $F(1,102)=18.50$ ,  $p < .05$ ,  $\eta^2=.154$ ) emakume liderrari puntuazio altuagoa esleitzen zaiola ageri da (20.taula). Dimentsio autokratikoan ( $F(1,102)=8,67$ ,  $p < .05$ ,  $\eta^2=.078$ ), eginbeharretara bideraturikoan ( $F(1,102)=7.86$ ,  $p < .05$ ,  $\eta^2=.072$ ) eta harremanei bideraturikoan ( $F(1,100)=8.51$ ,  $p < .05$ ,  $\eta^2=.078$ ) generoaren araberako interakzioa dagoela ikusten da. Dimentsio agentikoei dagokienez (dimentsio autokratikoa eta eginbeharrei bideraturikoa), genero bidezko interakzio hau emakumeek, dimentsio autokratikoan emakume liderrari ( $M=4.02$ ;  $DT=0.52$ ) lider generikoari ( $M=3.54$ ;  $DT=0.53$ ) baino puntuazio altuagoa esleitzen diotenean islatzen da ( $t(31)=4.17$ ,  $p < .05$ ,

d= -1,044), gizonezkoek bi irudikapenei puntuazio parekoa esleitzen dieten bitartean ( $t(71)=-1.36$ ,  $p=.177$ ,  $d=-0,2275$ ). Eginbeharrei loturiko dimentsioan, emakumeek emakume liderrari ( $M=4.18$ ;  $DT=0.52$ ) lider generikoari ( $M=3.7$ ;  $DT= 0.59$ ) baino puntuazio altuagoa esleitzen diotenean islatzen da interakzioa ( $t(31)=-4.02$ ,  $p<.05$ ,  $d=-1,001$ ), gizonezkoek bi irudikapenei puntuazio parekoa esleitzen dieten bitartean ( $t(71)=-1.39$ ,  $p=.169$ ,  $d=-0,2315$ ). Harremanei bideraturiko dimentsioari dagokionez, gizonezko zein emakumezkoek emakume liderrari lider generikoari baino puntuazio altuagoa esleitzen dioten heinean, generoaren bidezko interakzioa gizonezkoek ( $M=3.44$ ;  $DT=0.81$ ) emakumeekin alderatuz ( $M=3.058$ ;  $DT=0.80$ ) lider generikoari harremanezko dimentsioan puntuazio altuagoa esleitzearen bidez azaltzen da ( $t(106)=-2.24$ ;  $p<.05$ ,  $d=-0,475$ ).

Hirugarren hipotesiaren azterketari dagokionez, lidergo generikoaren irudikapenean, dimentsio autokratiko eta demokratikoaren arteko aldea adierazgarria da ( $F(1,215)=69.52$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.244$ ), dimentsio autokratikoak ( $M=3.72$ ;  $DT=0.58$ ) demokratikoak ( $M=3.18$ ;  $DT=0.92$ ) baino puntuazio altuagoa izanik. Lidergo generikoarekin jarraiki, eginbeharretara bideraturiko dimentsioa eta harremanetara bideraturiko dimentsioaren arteko aldea adierazgarria da ( $F(1,210)=111.516$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.347$ ), eginbeharretara bideraturiko dimentsioak ( $M=3.85$ ;  $DT=0.65$ ) harremanetara bideraturiko dimentsioak ( $M=3.31$ ;  $DT=0.83$ ) baino puntuazio altuagoa izanik.

Laugarren hipotesiaren azterketari dagokionez, gizon liderraren irudikapenean dimentsio autokratiko eta demokratikoaren arteko aldea adierazgarria da ( $F(1,101)=14.556$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.126$ ), dimentsio autokratikoak ( $M=3.74$ ;  $DT=0.55$ ) demokratikoak ( $M=3.4$ ;  $DT=0.82$ ) baino puntuazio altuagoa izanik. Gizon liderrarekin jarraikiz, eginbeharretara bideraturiko dimentsioa eta harremanetara bideraturiko dimentsioaren arteko aldea adierazgarria da ( $F(1,101)=22.109$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.180$ ), eginbeharretara bideraturiko dimentsioak ( $M=3.82$ ;  $DT=0.56$ ) harremanetara bideraturiko dimentsioak ( $M=3.46$ ;  $DT=0.81$ ) baino puntuazio altuagoa izanik.

Bosgarren hipotesiaren azterketari dagokionez, emakume liderraren irudikapenean aldea ez da adierazgarria ( $F(1,103)=1.555$ ,  $p=.215$ ,  $\eta^2=.015$ ) dimentsio autokratikoa ( $M=3.95$ ;  $DT=0.52$ ), eta demokratikoa ( $M=3.87$ ;  $DT=0.59$ ) alderatzerakoan. Ildo beretik, eginbeharrei bideraturiko dimentsioa ( $M=4.04$ ;  $DT=0.52$ )

eta harremani bideraturiko dimentsioen ( $M=3.95$ ;  $DT=0.59$ ) arteko aldea ez da adierazgarria  $F(1,102)=3.381$ ,  $p=.069$ ,  $\eta^2=.032$ ).

19.taula: Lider generikoa eta gizon liderraren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen baztez bestekoak eta desbideratze tipikoak

	Denak			
	Lider generikoa		Gizon liderra	
	B	DT	B	DT
Dimentsio autokratikoa	3,76	0,56	3,75 <sup>g</sup>	0,55
Dimentsio demokratikoa	3,09 <sup>a</sup>	0,9	3,41 <sup>a,g</sup>	0,82
Eginbeharretara bideraturiko dimentsio	3,9	0,64	3,81 <sup>j</sup>	0,56
Harremanetara bideraturiko dimentsioa	3,32	0,86	3,46 <sup>j</sup>	0,82

a,g, j: hizki berdina daramaten zenbakien aldeak elkarren artean adierazgarriak dira  $p < .01$

20.taula: Lider generikoa eta emakume liderraren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen batez bestekoak eta desbideratze tipikoak

	Denak			
	Lider generikoa		Emakume liderra	
	B	DT	B	DT
Dimentsio autokratikoa	3,73 <sup>a</sup>	0,58	3,95 <sup>a</sup>	0,52
Dimentsio demokratikoa	3,28 <sup>b</sup>	0,91	3,88 <sup>b</sup>	0,6
Eginbeharretara bideraturiko dimentsio	3,82 <sup>c</sup>	0,62	4,04 <sup>c</sup>	0,52
Harremanetara bideraturiko dimentsioa	3,33 <sup>d</sup>	0,8	3,94 <sup>d</sup>	0,6

a,b,c,d: hizki berdina daramaten zenbakien aldeak elkarren artean adierazgarriak dira  $p < .01$

Lidergoaren irudikapenaren baitan talde arteko genero harremanen dinamikak aztertzeko, norbanako lidergoaren irudikapena, endotaldearen eta exotaldearen irudikapenarekin alderatu da.

Batetik, lidergoan emakumeek beren buruarekiko duten irudikapena emakume liderraren eta gizon liderraren irudikapenekin alderatu da. Bestetik, lidergoan gizonek



beren buruarekiko dute irudikapena emakume liderraren eta gizon liderraren irudikapenekin alderatu da.

➤ Norberaren lidergoaren irudikapena eta endotaldearen arteko alderaketei dagokienez

- Gizonen emaitzei dagokienez:

6-a-b hipotesien emaitzei dagokienez, dimentsio komunaletan, norberaren lidergoaren irudikapena gizon liderraren irudikapenarekin alderatzekoan dimentsio demokratikoan ( $F(1,65)=18.333$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.220$ ) (6-a hipotesia) zein harremani bideraturiko dimentsioan ( $F(1,64)=22.561$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.6.380$ ) (6-b hipotesia) aldeak adierazgarriak dira. Norberaren lidergoari dimentsio komunaletan puntuazio altuagoak esleitzen dizkiete gizon liderraren irudikapenari baino (ikusi 21. taula).

7-a-b hipotesien emaitzei dagokienez, dimentsio agentikoetan norberaren lidergoaren irudikapena gizon liderraren irudikapenarekin alderatzerakoan eginbarrei bideraturiko dimentsioan aldea ez da adierazgarria ( $F(1,65)=.373$ ,  $p=.543$ ,  $\eta^2=.006$ ) (7-a hipotesia). Dimentsio autokratikoari dagokionez aldiz, aldea adierazgarria da norberaren lidergoaren irudikapena gizon liderraren irudikapenarekin alderatzerakoan ( $F(1,66)=8.860$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.118$ ), gizon liderrari puntuazio altuagoa esleituz (7-b hipotesia) (ikusi 21. taula).

- Emakumeen emaitzei dagokienez:

8-a-b hipotesiei dagokienez, dimentsio komunaletan, norberaren lidergoaren irudikapena emakume liderraren irudikapenarekin alderatzerakoan aldeak ez dira adierazgarriak, ez dimentsio demokratikoan ( $F(1,31)=.105$ ,  $p=.748$ ,  $\eta^2=.003$ ) (8-a hipotesia) ezta harremani bideraturiko dimentsioan ere ( $F(1,30)=.752$ ,  $p=.393$ ,  $\eta^2=.024$ ) (8-b hipotesia). Dimentsio komunaletan emakume liderrari eta norberaren lidergoaren irudikapenari pareko puntuazioak esleitzen dizkiete (ikusi 22. taula).

9 a-b hipotesiei dagokienez, dimentsio agentikoetan norberaren lidergoaren irudikapena emakume liderraren irudikapenarekin alderatzerakoan, aldeak adierazgarriak dira eginbarretara bideraturiko dimentsioan ( $F(1,31)=7,970$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=,205$ ) (9-a hipotesia) zein dimentsio autokratikoan ( $F(1,31)=11,263$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=,266$ ) (9-b hipotesia). Emakume liderrari bi dimentsiotan puntuazio altuagoak esleitzen

dizkiote dimentsio agentikoetan norberaren lidergoaren irudikapenari baino (ikusi 22. taula).

➤ Norberaren lidergoaren irudikapena eta exotaldearen arteko alderaketei dagokienez

- Gizonezkoen emaitzei dagokienez:

10-a-b hipotesiei dagokienez, dimentsio komunaletan, norberaren lidergoaren irudikapena emakume liderraren irudikapenarekin alderatzean, aldeak ez dira adierazgarriak, ez dimentsio demokratikoan ( $F(1,72)=2.063$ ,  $p=.155$ ,  $\eta^2=.028$ ) (10-a hipotesia) ezta harremani bideraturiko dimentsioan ere ( $F(1,70)=.746$ ,  $p=.391$ ,  $\eta^2=.011$ ) (10-b hipotesia). Dimentsio komunaletan emakume liderrari eta norberaren lidergoaren irudikapenari pareko puntuazioak esleitzen dizkiete (ikusi 22. taula).

11-a-b hipotesiei dagokienez, dimentsio agentikoetan, norberaren lidergoaren irudikapena emakume liderraren irudikapenarekin alderatzean, eginbeharrei bideraturiko dimentsioan aldea ez da adierazgarria ( $F(1,71)=2.065$ ,  $p=.155$ ,  $\eta^2=.028$ ) (11-a hipotesia). Dimentsio autokratikoan berriz, aldea adierazgarria da ( $F(1,71)=17.156$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.195$ ), emakume liderrari puntuazio altuagoa esleituz (11-b hipotesia)(ikusi 22.taula).

- Emakumeen emaitzei dagokienez:

12a-b hipotesiei dagokienez, dimentsio agentikoetan, norberaren lidergoaren irudikapena gizon liderrarekin alderatzean, aldeak ez dira adierazgarriak ez eginbeharrei bideraturiko dimentsioan ( $F(1,35)=1.382$   $p=.248$ ,  $\eta^2=.038$ ) (12-a hipotesia) ezta dimentsio autokratikoan ere ( $F(1,36)=.329$   $p=.570$ ,  $\eta^2=.009$ ) (12-b hipotesia). Dimentsio agentikoetan gizon liderrari eta norberaren lidergoaren irudikapenari pareko puntuazioak esleitzen dizkiete (ikusi 21. taula).

13a-b hipotesiei dagokienez, dimentsio komunaletan, norberaren lidergoaren irudikapena gizon liderraren irudikapenarekin alderatzerakoan, aldeak adierazgarriak dira dimentsio demokratikoan ( $F(1,36)=32.311$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.473$ ) (13-a hipotesia) zein harremani bideraturiko dimentsioan ( $F(1,35)=16.472$ ,  $p<.05$ ,  $\eta^2=.320$ ) (13-b hipotesia). Norberaren lidergoaren irudikapenari dimentsio komunaletan puntuazio altuagoak esleitzen dizkiete gizon liderraren irudikapenari baino (ikusi 21.taula).

21. taula: Gizon liderra eta norberaren lidergoaren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen batez bestekoak eta desbideratze tipikoak

	Emakumeen emaitzak				Gizonen emaitzak			
	Self		Gizon liderra		Self		Gizon liderra	
	B	DT	B	DT	B	DT	B	DT
Dimentsio autokratikoa	3,54	0,47	3,61	0,67	3,6 <sup>c</sup>	0,55	3,82 <sup>c</sup>	0,46
Dimentsio demokratikoa	3,95 <sup>a</sup>	0,43	3,23 <sup>a</sup>	0,79	3,9 <sup>d</sup>	0,54	3,5 <sup>d</sup>	0,83
Harremanetara bideraturiko dimentsioa	3,92 <sup>b</sup>	0,54	3,28 <sup>b</sup>	0,88	4,01 <sup>e</sup>	0,46	3,57 <sup>e</sup>	0,77
Eginbeharretara bideraturiko dimentsioa	3,78	0,58	3,61	0,69	3,97	0,49	3,93	0,44

a,b,c,d,e: hizki berdina daramaten zenbakien aldeak elkarren artean adierazgarriak dira  $p < .01$

22. taula: Emakume liderra eta norberaren lidergoaren alderaketako datuak: aztergai izan diren dimentsioen batez bestekoak eta desbideratze tipikoak

	Emakumeen emaitzak				Gizonen emaitzak			
	Self		Emakume liderra		Self		Emakume liderra	
	B	DT	B	DT	B	DT	B	DT
Dimentsio autokratikoa	3,62 <sup>a</sup>	0,53	4,02 <sup>a</sup>	0,52	3,68 <sup>c</sup>	0,6	3,91 <sup>c</sup>	0,52
Dimentsio demokratikoa	3,86	0,59	3,91	0,69	3,98	0,62	3,86	0,57
Harremanetara bideraturiko dimentsioa	3,88	0,55	4	0,68	3,97	0,6	3,91	0,57
D'autre part, concernant les caractéristiques agentiques, les résultats montrent que l'agentivité des femmes a été évoquée de deux façons différentes. L'une par le biais de la nature masculine de la femme leader, qui a déjà été mise en évidence (dans les sous-thèmes « le stéréotype négatif » et « le style masculin»). L'autre, par le fait de caractériser le leadership des femmes comme plus orienté vers les tâches à accomplir et comme un style plus efficace (sous-thème intitulé « davantage tourné vers les tâches à accomplir et un style plus efficace »). On constate que dans cette dernière idée, on attribue à la femme leader l'agentivité qui est prescriptive pour le leadership

(Eagly & Karau, 2002). Cependant, les résultats donnent à voir que l'agentivité attribuée aux femmes a sa propre logique : le fait d'exécuter un leadership orienté vers les tâches à accomplir et plus efficace s'explique par le biais d'un type de pratique propre qui découle et se développe depuis la position sociale spécifique vécue par les femmes dans les entretiens. Concrètement, il a été donné à voir qu'à cause des conditionnements sociaux vécus par les femmes (principalement la charge des responsabilités familiales), les femmes qui sont dans le leadership développent une agentivité propre ce centrant dans la gestion du temps. Dans ce sens, dans le sous-thème intitulé « difficultés dans la gestion du temps » également, on évoque les tensions engendrées par l'association de la surcharge familiale des femmes et de l'exigence des rôles de leadership. On comprend ces résultats dans le cadre du caractère non-neutre et genré des cultures organisationnelles modernes actuelles. Dans les institutions professionnelles s'imposent les très grandes exigences horaires (Acker, 1990; Rutherford, 2001), et les distinctions rigoureuses entre sphère publique et sphère privée (Hass & Hwang 2007; Rutherford, 2001). En outre, ce sont des idéologies qui prennent force au sein des cultures professionnelles masculines (Zolesio, 2009). Par conséquent, les leaderships particulièrement efficaces que les femmes développent sont des stratégies individuelles mises en place par les femmes pour faire face au contexte genré. Outre le fait de pouvoir apporter des changements dans les pratiques professionnelles, ce sont des pratiques qui se développent suite à l'individualisation des responsabilités. Dans ce sens, bien que les stratégies individuelles puissent donner ponctuellement une solution, c'est un résultat qui a montré le besoin de changements importants. Ainsi, est mis en évidence le besoin de rompre avec la distinction rigide entre sphère privée et publique, et le besoin d'un partage équilibré des tâches domestiques entre hommes et femmes (Daly & Lewis, 2000; Torns, 2011).

D'autre part, au sein du thème qui fait référence aux difficultés dans la représentation de la femme leader, on a constaté que les sujets liés au sexisme avaient une place importante. Pour avancer dans la carrière ou l'exercice professionnel, des acceptations faisant référence à des situations sexistes ont été mentionnées : les préjugés, les commentaires, les regards, la non-crédibilité ou la non-reconnaissance de la légitimité (Beeman, 2011).

Il est également à souligner que la représentation de la femme leader ne se constitue pas uniquement au sein des termes de difficulté, discrimination ou stéréotype. Sans leur ôter de l'importance, la représentation de la femme leader s'est également construite autour des acceptions de progrès et de normalité. Dans les styles de leadership également, on a fait référence aux éléments de connotations positives comme l'humanité ou l'efficacité. On les entend comme des changements qui sont en train de s'opérer ou des changements qui ont déjà été apportés. Cependant, dans les contenus ayant constitué la représentation de la femme leader (dans les préjugés, les comportements sexistes et la culture organisationnelle genrée), il est notoire que les différences de genre sont encore bien ancrées.

**Quant à l'analyse de la position sociale**, et concernant les personnes ayant participé à la présente recherche, on a pu constater que le genre comme position sociale a un effet sur la représentation de la femme leader. D'une part, on a vu que les contenus faisant référence aux difficultés dans la représentation de la femme leader sont des éléments que les femmes évoquent davantage. Concrètement, les femmes font plus référence aux variables « difficultés de temps » et « difficultés d'exercice ». Concernant les hommes, on a constaté que le contenu « difficultés pour la carrière professionnelle » a été évoqué plus que les femmes. On comprend le fait que les femmes ont davantage mentionné le thème « difficultés temporelles » à travers le fait que les femmes ayant participé à l'enquête soient dans des rôles de leaders ; et elles évoquent la tension engendrée par l'association de la surcharge des responsabilités familiales et l'exigence des rôles de leadership. D'autre part, lorsque les femmes évoquent les difficultés, elles font référence aux problèmes qu'elles rencontrent dans leurs activités quotidiennes (à travers « les difficultés de l'exercice »). Etant des femmes, cela s'explique par le fait qu'elles ont un véritable vécu des obstacles. Les hommes, quant à eux, ont une perspective plus éloignée du sujet, ils évoquent, de façon générale, davantage les problèmes rencontrés par les femmes dans leur parcours professionnel, en plaçant les problèmes rencontrés par les femmes dans une logique plus verticale. D'autre part, concernant le style de leadership de la femme leader, on a constaté que les hommes et les femmes évoquent des éléments différents. Ainsi, dans la représentation de la femme leader, il est apparu que les femmes évoquent les caractéristiques communaux davantage que les hommes. Il semble que les femmes

constituent la représentation de la femme leader principalement autour des caractéristiques communales. Ainsi, en se basant sur les critères communales considérés aujourd'hui de manière positive pour le leadership (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000), la représentation de la femme leader que les femmes construisent est une représentation en accord avec le rôle du genre féminin (Eagly & Karau, 2002).

De même, les résultats ont montré que les femmes ont davantage évoqué le contenu du style de leadership efficace et sont plus tournées vers les tâches. Ce résultat s'entend comme le reflet de la différence qu'il existe entre les femmes et les hommes dans la manière de vivre et d'utiliser le temps ; étant en surcharge des responsabilités familiales (Legarreta & García Sainz, 2015; Sagastizabal & Legarreta, 2016) elles sont amenées à gérer le temps du travail professionnel différemment. En outre, par le biais des connotations positives attribuées au leadership orienté vers les tâches et le leadership de style efficace, les femmes positivent ce qui était à l'origine un conditionnement social. C'est-à-dire qu'elles ont transformé ce qui était un conditionnement social en don ou caractéristique du groupe des femmes.

Enfin, les hommes ont évoqué plus que les femmes le contenu du « stéréotype négatif » envers les femmes leaders. Dans l'échantillon de la présente recherche, les résultats semblent montrer que les hommes, en comparaison des femmes, ont des a priori négatifs des femmes leaders. Ils sont interprétés comme étant le reflet de la non-acceptation de l'agentivité de la femme leader (Cuadrado et al., 2012).

Par conséquent, concernant l'échantillon de la présente recherche, en se représentant la femme leader, on conclut que le genre fonctionne comme groupe social. Dans ce cas le genre s'est conduit comme une variable pour le positionnement dans le processus de représentation. Par conséquent, les variables données en fonction du genre se sont développées dans une logique d'endogroupe et d'exogroupe (Cohen-Scali & Moliner, 2008; Doise, 1973). Les femmes se sont situées dans la logique d'endogroupe, en faisant devenir la femme leader légitime pour le leadership. Les hommes se sont situés dans l'exogroupe en convoquant davantage les préjugés négatifs. On peut interpréter les résultats des hommes comme des représentations que les groupes sociaux se trouvant dans des positions privilégiées développent pour maintenir leur situation sociale (Doutre, 2012; Lorenzi-Cioldi, 2002). Les résultats des femmes, en revanche, montrent qu'étant en position minorisée par rapport au

leadership, elles se situent dans une voie plus récente (Tafani et al., 2002a; Tafani et al., 2002b); c'est-à-dire qu'en partant d'une situation désavantageuse par rapport au leadership, elles se sont approprié les caractéristiques qui sont positives pour le leadership en mettant en porte-à-faux la position de minorité.

#### 8.5.1.3 Conclusion concernant l'objet de représentation du leadership de soi

La représentation du leadership de soi se constitue autour de six thèmes, et se fonde principalement autour des styles de leadership. En ce qui concerne les styles de leadership constituant le leadership de soi, on a pu constater que la représentation se constitue notamment autour des leaderships définis comme leadership classique; particulièrement le leadership démocratique, le leadership orienté vers les relations et celui orienté vers les tâches. Par conséquent, selon les prévisions, on peut voir que la représentation du leadership de soi se base sur les caractéristiques agentiques et communaux. Ces résultats s'entendent au sein de la prescription des comportements agentiques de leadership (Chatard et al., 2005; Eagly & Diekmann, 2002) et de l'évaluation récente des caractéristiques communaux (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000). De plus, en caractérisant le leadership de soi comme leadership agentique et communal, on constate que la dichotomie entre les deux modèles de leadership perd de son importance (Judd et al., 2005). D'autre part, en caractérisant le leadership de soi on peut voir que le modèle de leadership autocratique n'est pas très puissant, et qu'on lui a attribué des appréciations négatives. Ce sont des résultats qui s'entendent à partir de la faible appréciation du leadership autocratique et à partir de l'inadéquation attribuée à la réponse faite au contexte et aux défis des organisations (Barberá et al., 2000; De Cremer, 2006; Van Vugt et al., 2004; Gastil, 1994). Enfin, on a constaté que le contexte est un élément qui a un impact sur le style de leadership de soi. Ce résultat met en évidence la nécessité de situer le leadership dans le contexte dans lequel il se développe pour pouvoir le comprendre dans sa totalité.

**En ce qui concerne l'analyse de la position sociale dans la représentation du leadership de soi**, les résultats ont montré que, excepté dans la variable du contexte, le genre, en tant que position social, influence la façon de représenter le leadership de soi.

Concrètement, on constate que dans la représentation du leadership de soi les femmes évoquent davantage de caractéristiques communales que les hommes, en composant la représentation qu'elles ont du leadership notamment autour du leadership démocratique puis du leadership de soutien. C'est une représentation considérée aujourd'hui de manière positive (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000) et en accord avec le rôle de genre (Eagly & Karau, 2002) que les femmes se forgent du leadership de soi. Dans le même sens, on constate que les femmes ont davantage évoqué que les hommes le contenu concernant l'évitement du conflit. Bien que dans la littérature l'évitement du conflit soit un style plutôt attribué aux hommes (Greeff & de Bruyne, 2000; Haferkamp, 1991), il y a des études qui montrent la non-différence du genre dans l'usage de ce style (Korabik, Baril & Watson, 1993) ou bien des études qui montrent le contraire (Brewer et al., 2002). Dans la présente recherche, on comprend les contenus rassemblés au sein de l'acceptation de l'évitement du conflit (par exemple, la peur d'être caractérisé comme quelqu'un de désagréable), comme le style de leadership que les femmes se sont approprié pour éviter d'avoir des préjugés négatifs suite aux prescriptions de genre (Eagly & Karau, 2002; Koch et al., 2015). C'est aussi, quelque part, un discours qui est tenu par le fait d'être critique envers le leadership masculin.

Concernant le leadership orienté vers les tâches, bien qu'il soient un peu plus proche des hommes dans l'analyse factorielle, c'est un style de leadership à mi-chemin entre les hommes et les femmes car c'est un leadership que les femmes évoquent également. Par conséquent, et selon les prévisions, les femmes se représentent leur leadership en convoquant les caractéristiques communales et agenticues, en mentionnant les contenus qui sont normatifs pour le rôle de femmes et du leadership. Cela s'entend comme la représentation constituée sous la condition de la double exigence faite aux femmes pour le leadership (Bongiorno et al., 2014; Diekmann, 2007).

Quant aux hommes, il apparaît qu'en se représentant le leadership de soi, ils constituent leur leadership autour du leadership orienté vers les tâches. Ainsi, les hommes se représentent le leadership de soi principalement autour du leadership agenticue qui est prescriptif par rapport à leur rôle de genre. À un autre niveau, et dans le même sens, on peut voir que les hommes évoquent le modèle de leadership autocratique. Bien qu'il s'agisse d'un leadership ayant socialement été déclassé (De

Cremer, 2006; Driskell & Salas, 2005; Gastil, 1994), quelque part, il s'agit toujours d'un style de leadership qui sert à caractériser leur leadership. Par conséquent, le leadership des hommes se constitue autour de l'agentivité qui est considérée comme centrale par rapport à leur rôle de genre et de leadership (Johnson et al., 2008). À ce niveau, la prévision de l'opportunité pour les hommes d'aller au-delà des caractéristiques du groupe social dans le leadership de soi ne s'est pas révélée exacte (Heilman & Chen, 2005; Okimoto & Brescoll, 2010).

En se basant sur les possibilités libératrices qu'offrent la représentation de soi au sein des relations intergroupes, Doise explique que la représentation du « *Self* », permet aux individus d'aller au-delà du cadre de recherche du « eux/elles » et du « nous », en permettant ainsi une caractérisation plus individualisée en dehors du groupe de référence de l'individu (Cohen-Scali & Moliner, 2008; Doise, 1999; Doise & Lorenci-Cioldi, 1991; Zavalloni & Louis-Guérin, 1984). Cependant, les résultats montrent qu'en analysant la représentation du leadership de soi en fonction du genre, c'est la tendance contraire qui ressort. En effet, la charge occasionnée à l'individu par les prescriptions de genre dans la représentation du leadership de soi a été mise en évidence. Dans ce sens, les résultats ont montré la représentation de l'individu comme étant le reflet des relations symboliques entre les groupes sociaux (Doise, 1999); en mettant en avant la puissance des rapports de pouvoirs de genre qu'un individu ne peut pas dépasser à partir d'une position individuelle.

## 8.5.2 CONCLUSIONS GÉNÉRALES: LA COMPLÉMENTARITÉ DES OBJETS DE REPRÉSENTATIONS

Pour analyser la représentation du leadership à travers le prisme du genre, nous avons étudié le leadership générique, la femme leader et le leadership de soi. L'approche par le biais de trois objets de représentation a permis une analyse complète des relations de pouvoirs de genre qui se constituent autour du leadership.

À travers l'analyse des contenus et des acceptations (1<sup>er</sup> objectif), on a mis en évidence les implications de genre de chaque objet de représentation: ont été soulignés la prédominance des leaderships agentiques et l'acceptation de la communalité pour le leadership dans le leadership générique, l'idée de changement dans les styles de leadership et le fait que le leadership dépend du contexte. Concernant la représentation de la femme leader, les contenus sur la discrimination et les obstacles rencontrés par les femmes dans la représentation de la femme leader l'ont emporté. On constate que la discrimination se produit à travers la double exigence faite aux femmes et de la stéréotypisation des caractéristiques agentiques; et dans les contenus sur les obstacles il a été fait mention des difficultés rencontrées par les femmes dans leur exercice quotidien et dans leur parcours professionnel. Concernant la représentation du leadership de soi, on a constaté que le leadership de soi se forme principalement autour des styles agentiques et communaux ainsi que sous l'influence des leaderships plus récents.

Par le biais de l'analyse de la position sociale (objectif 2), on a pu approfondir les connaissances de l'impact du genre dans le processus de représentation: on a constaté que le genre crée peu de changements dans la représentation du leader générique, et on en a donc conclu que celle-ci se développe en dehors de la logique intergroupe dirigée par le genre. Bien que tous les contenus ayant constitué la femme leader ne se soient pas développés dans la logique intergroupe, on a conclu que c'est une représentation qui a été caractérisée à partir de la position d'endogroupe par les femmes et de la position d'exogroupe par les hommes. Enfin, on a constaté que les prescriptions des rôles de genre et de leadership conditionnent la représentation du leadership de soi.



Dans toutes les représentations qui ont fait l'objet d'études, il a été évoqué l'influence du contexte sur le leadership, l'acceptation des leaderships communaux et l'allègement de l'opposition entre agentique et communal. Par conséquent, bien qu'on évoque différents objets de représentation de leadership, ce sont des contenus présents de façon permanente lorsqu'on évoque le leadership. Concernant la position sociale, grâce à l'approche de différents objets de représentation, on a constaté que l'influence du genre dans le processus de représentation change en fonction de l'objet de représentation. En effet, alors que les femmes ont caractérisé la représentation de la femme leader dans la logique de l'endogroupe, il n'en a pas été ainsi dans la représentation de soi. Précisément, on constate qu'en se représentant le leadership de soi, les prescriptions de genres et la peur des préjugés vis-à-vis des caractéristiques agentiques ont conditionné le processus de représentation, et que la puissance libératrice que pouvait offrir la représentation de l'endogroupe dans la représentation de la femme leader a disparu. Par conséquent, des résultats se distancient de l'idée que la représentation de soi (Doise, 1999; Doise & Lorenzi-Cioldi, 1991; Zavalloni & Louis-Guérin, 1984) suscite la position individualisée de l'individu.

L'analyse des trois objets de représentation et des positions sociales souligne l'idée de l'interaction qui existe au cœur de la représentation sociale. Il a été mis en évidence que la représentation du leadership est le résultat de la personne qu'il représente (l'ego), de ce qui est représenté (l'objet de représentation), et de la relation que la personne qui le représente a avec son environnement (l'alter) (Andersen & Andersen, 2014). Ainsi, face à chaque objet de représentation, on a pu analyser les différentes positions que prennent les individus en étant conditionnés par le genre. De la sorte, l'analyse des trois objets de représentation et le positionnement face à ces derniers ont permis une analyse complète des contenus et des dynamiques qui se développent au sein de la représentation du leadership.



**SEIGARREN ATALA**

**ONDORIO OROKORRAK ETA EZTABAIDA**



## 9 ONDORIO OROKORRAK ETA EZTABAIDA

### 9.1 SARRERA

Tesi honen helburu orokorra genero bidezko segregazio horizontal eta bertikalaren ulermenean sakontzea izan da. Helburu orokor honen hiru azpi-helburu garatu dira. Tesiaren lehen atalean, lan merkatuan eta ingeniartzan generoan oinarritzen den segregazioaren datuen ezagutzan sakondu nahi izan da. Ondotik, tradizionalki maskulinoa kontsideratu izan den ingeniartzaren lanbidearen eta lidergoaren irudikapen sozialak aztertuz irudikapen sozialen edukiek genero soslaiaren duten ezagutu nahi izan da. Hemen, ingeniartzaren eta lidergoaren irudikapenen edukietan genero botere-harremanak nola islatzen eta zalantzan jartzen diren ikusi da. Azkenik, irudikapen sozialen ikuspegi soziodinamikoa ardatz harturik (Doise et al., 1999; Doise, 1986), lanbidea eta lidergoa irudikatzerakoan posizio sozialaren eragina aztertu da, genero dinamikak nabarmenduz. Honakoak, edukien azterketatik harago joatea ahalbidetu du, eta lanbidea eta lidergoa irudikatzerakoan garatzen diren genero dinamikak ezagutu dira.

Azterketa bi populazio ezberdinekin eraman da aurrera: ingeniartzako ikasleekin eta ingeniari profesionalekin. Ikasleekin ingeniartzaren eta lidergoaren irudikapen sozio-profesionalaren azterketa markoan kokatu gara, eta langileekin ingeniartzaren eta lidergoaren irudikapen profesionalen markoan. Honen bidez, batetik, populazio bakoitzak aditzera eman dituen genero inplikazioko edukiak eta garatzen dituen genero dinamikak ezagutu dira; eta bestetik, ingeniartzaren lanbidearekiko sozializazio fase ezberdinean dauden (Piasser & Ratinaud, 2010) kolektibo bakoitzaren irudikapen berezituak ezagutu dira, ikasle izatetik profesional izaterako profesionalizazio prozesua agerian jarritz.

Jarraian, tesi honetako ondorio nagusiak azalduko dira. Horretarako, tesiaren lehen azpi-helburuari helduz, lehen urrats batean lan merkatuaren eta ingeniartzaren genero bidezko segregazioaren azterketatik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira. Ondotik, tesi honetan aurrera eramandako ikerketa enpirikoei helduko diegu. Maila honetan, lehenik ingeniartzako irudikapen sozio-profesional eta profesionalen artean dauden aldeak azalduko dira. Jarraian, tesiaren bigarren azpi-helburuari helduz, hau

da, genero inplikaziozko edukien azterketari, lanbidearen eta lidergoaren irudikapenetan atzeman diren eduki generizatu nagusiak azalduko dira batetik, eta genero berdintasunaren zentzuan doazen edukiak bestetik. Bide honetan, ikasle ingeniariekin eta langileekin jasotako edukiak alderatuko dira. Horrela, eduki generizatueta ingeniartzaren irudikapen sozio-profesionalaren eta profesionalaren antzekotasunak eta ezberdintasunak ikusaraziko dira. Ondotik, tesi honen hirugarren azpi-helburuari helduz, posizio sozialak ingeniari lanbidea eta lidergoa irudikatzerakoan eragindako aldaerak azalduko dira. Maila honetan, irudikapenen aurrean hartu diren posizio hartzeen bidez, lidergoa eta lanbidearen irudikapenak ezberdintasun sozialek eraturiko atze-oihalean garatzen direla ikusaraziko da. Azterketa maila honetan ere, ikasle eta langileen emaitzen alderaketa egiten bukatuko da. Ondoren, tesi honetako ekarpen teoriko-metodologikoak eta ekarpen aplikatuak aurkeztuko dira. Bukatzeko, ikerlan honetatik sortu diren etorkizuneko iradokizunak ezagutaraziko dira.

## **9.2 LAN MERKATUAREN ETA INGENIARITZAREN GENERO BIDEZKO SEGREGAZIOAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK**

Lan merkatuaren eta ingeniartzaren genero bidezko segregazioaren ezagutzan sakontzea xede duen lehen azpi-helburutik hiru dira ateratako ondorio nagusiak. Batetik, Hego Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko sektore ekonomikoak, aktibitate adarrak eta okupazioak genero aldetik oso tipifikatutak daudela ondorioztatu da, bai horizontalki zein bertikalki. Gainera, azken hamarkadetako bilakaeran ez da segregazioaren arintzerantz joera aldaketarik ageri. Horrela, 1990etik izan den emakumeen lan merkaturatzea modu segregatuan gauzatu dela ikusi ahal izan da (Torns, 2011). Bestetik, ingeniartzaren genero tipifikazioaren azterketari dagokionez, 1990etik gaur egunera arte lanbidean emakume okupatuen presentziaren gorakada nabarmena gertatu dela agerian gelditu da. Halere, azken hamarkadan emakumeen presentziaren bilakaerak ez du positiboa izaten segitu. Honakoa, ingeniartzan lanean ari diren emakume okupatuen datuek eta unibertsitateko matrikulazio datuek erakutsi digute. Krisi ekonomikoa hasi zen garaiarekin bat egiten du atzeraldi honek, eta beraz, krisi ekonomikoak ordura arte gertatzen ari ziren aurrera pausoak bertan behera

gelditzea ekarri duela pentsatzera ematen duen bilakaera da. Azkenik, ingeniartzaren barne segregazioaren azterketari helduz, lanbidea barnetik ere segregaturik dagoela atzeman da. Segregazioa bereziki maila bertikalean gauzatzen dela aditzera eman dute datuek. Izan ere, esperientzia profesionala oinarri harturik egindako azterketak, generoaren arabera esperientzia profesionalak lan esparru ezberdinetara eramaten duela agerrarazi du, gizonak emakumeen ondoan desproporzionalki lanbideen hierarkiaren goiakaldean kokatuz. Horrela, gizon ala emakumea izan, aitzintasanari balio ezberdina ematen zaiola ondorioztatu da, generoaren arabera guraso izateak ondorio ezberdinak sorrarazten dituenaren zantzuak atzeman direlarik.

### **9.3 IKASLE ETA PROFESIONALEN IRUDIKAPENEN ALDERAKETA**

#### **9.3.1 INGENIARITZAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAREN ETA IRUDIKAPEN PROFESIONALAREN ARTEKO ALDERAKETA**

Ingeniariekin eginiko azterketan, irudikapen profesionala hiru dimentsioetan egituratu dela ikusi da (Blin, 1997; Michel-Guillou, 2010); testuinguruan, maila identitarioan eta praktiken inguruan eratuz. Ikasleen lanbidearen irudikapen sozio-profesionala ere irudikapen profesionala eratzen duten hiru dimentsio teorikotan antolatu da. Halere, egitura bera jarraitu arren, profesionalen irudikapena ikasleen irudikapena baino osatuagoa dela ikusi da. Maila honetan, jakina da ikasle eta profesionalek irudikapen objektuarekiko duten inplikazio maila ezberdinak eragina duela irudikapenaren osaketan (Bataille, 1997). Hain zuzen ere, ikasleen lanbidearen irudikapenak profesionalenak baino sendotasun gutxiago edukiko zuela aurreikusituz, ikasleekin profesionalekin baino metodo itxiagoa erabili da (ikasleekin evoc-a eta eskalak, langileekin elkarrizketak).

Ikasleen irudikapenari helduz, ingeniartzaz duten irudikapena irudikapen ez *naif*-a dela agerian da. Izan ere, lanbidearen misioari, eginkizunei eta lan egiteko moduari erreferentzia egiten dieten edukiak aipatu dituzte. Aldi berean, ikasleen irudikapena ingeniarien irudikapen profesionaletik ezberdintzen dela ikusi da. Honakoa testuinguru sozialari loturiko elementuei erreferentziarik ez egin izanean atzeman da, maila identitarioan kolektibo profesionalaren erronkak, ahultasunak edo kezkek aipatu ez

izanean, edota lan testuinguruari loturiko edukien aipamen ahulean. Hain zuzen, irudikapen profesionalak eta sozio-profesionalak aztergai izan dituzten ikerlanetan, irudikapen sozio-profesionalak lan testuinguruari eginiko aipamen ahulagatik bereizten direla azaltzen da (Netto, 2011; Piaser & Ratinaud, 2010). Ondorioz, ikasleek ingeniartzaz duten irudikapena profesionalizazio prozesuan dauden pertsonen irudikapenaren erakuslea da, lanbidearekiko sozializazio prozesuan dauden etorkizuneko ingeniarien irudikapena izanik (Piaser & Bataille, 2011). Aldiz, ingeniarien irudikapenaren bidez jardunean dabiltzan profesionalek beraien profesioaz duten irudikapena agerrarazi da, profesio kideentzako pertinenteak diren edukiei erreferentzia eginaz (Blin, 1997).

### **9.3.2 LIDERGOAREN IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALAREN ETA IRUDIKAPEN PROFESIONALAREN ARTEKO ALDERAKETA**

Lidergoaren irudikapenari dagokionez, ingeniartzaren irudikapen profesionalen eta sozio-profesionalaren logika beretsua atzeman da. Horrela, lidergoa ingeniari profesionalentzako jardunaren barneko elementua dela ikusi da, eta lidergoaren irudikapena irudikapen profesional bezala azaldu da. Maila honetan, profesionalek lidergoaren irudikapenean lidergoa ulertzeko duten modua agerrarazi dute, ingeniartzan nagusitzen den lidergo estiloa agentikoa dela azalduz, komunalitateak lekua irabazi duela agerraraziz, lidergo estiloa testuinguruak baldintzatzen duela aipatuz, eta lidergo egokiak garatu ahal izateko aurretik dituzten erronkei aipamena eginez. Ikasleei dagokienez, lidergoaren irudikapen sozio-profesionala nagusiki buru izatearen rolaekin lotu dutela ikusi da, ardura handiaren ideiarekin eta eduki beharrezko prestakuntza handiarekin. Horrela, lidergoaren irudikapenean ikasle eta profesionalen arteko aldea handia dela ondorioztatu daiteke. Zentzu honetan, ikasleetan lidergoa testuinguruan kokatu gabeko irudikapena dela ikusi da, eta lidergoarekiko esperientzia errealik gabeko irudikapena dela agerrarazi.



## **9.4 IRUDIKAPENEN GENERO INPLIKAZIOKO EDUKIEI LOTURIKO ONDORIOAK**

Jarraian, tesiko bigarren azpi-helburuari helduko zaio, irudikapenen genero inplikazioko edukiei loturiko ondorioak azalduz. Lehen urrats batean, lanbidearen eta lidergoaren irudikapenen genero soslaia agerian jarriko da. Bigarren pauso batean, ingeniaritza eta lidergoaren irudikapenetan genero berdintasunari dei egiten dieten edukiak azalduko dira.

### **9.4.1 IRUDIKAPENEN GENERO SOSLAIARI LOTURIKO ONDORIOAK**

Irudikapen profesionalaren eta sozio-profesionalen izaera generizatua argitara emateko, jasotako edukiak lan mundua eta lidergoa genero ikuspegitik jorratzen duten literaturarekin batera irakurriko dira (Bongiomo et al., 2014; Cockburn, 1983; Cuadrado & Navas, 2000; Diekman, 2007; Doutre, 2008; Eagly & Karau, 2002; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006; Glass et al., 2013; Guillaume & Pochic, 2007; Haas & Hwang, 2007; Hacker, 1990; Hunt, 2010; Johnson et al., 2008; Moss-Racusin & Rudman, 2010; Rutherford, 2001; Wright, 1996; Zolesio, 2009). Lehenik, ikasleen lanbidearen eta lidergoaren irudikapen sozio-profesionaletan genero soslaia duten edukiei buruzko ondorio nagusiak azalduko dira; eta ondotik ingeniariaren lanbidearen eta lidergoaren irudikapen profesionalei loturiko ondorioak.

#### **9.4.1.1 Irudikapen sozio-profesionalen genero soslaia**

Ikasleekin jasotako irudikapenen edukietan lanbidearen eta lidergoaren irudikapen sozio-profesionaletan genero soslaia duten edukiak azalduko dira jarraian.

##### **a. Ingeniaritzaren irudikapen sozio-profesionala**

Ikasleen ingeniartzaren irudikapen sozio-profesionalean, genero inplikazioak dituzten hiru motatako eduki identifikatu dira: sozializazio maskulinoarekin lotura duten edukiak eta baloreak, denbora eskakizun handiari erreferentzia egiten dioten edukiak eta testuinguru maskulinoaren berri ematen dutenak.

- Sozializazio maskulinoarekin lotura duten edukiak eta baloreak

Lanbidearen irudikapen sozio-profesionalean sozializazio maskulinoarekin lotura hertsia duten edukiak eta baloreak jaso dira. Izan ere, ingeniartzaren ikasketa prozesuari zein lan munduari dei egiterakoan esfortzua eta zailtasunaren edukiek presentzia handia dutela ikusi da; “gogortasuna” edota “zailtasun tekniko handia” edukien aipamenean atzeman da honakoa, besteak beste. Horrela, lanbidearen irudikapenean gaur egun emakumeen sozializazioarekin lotura duten edukiak bigarren mailan gelditu dira. Ondorioz, irudikapen sozio-profesionalean gizonen sozializazioarekin bat egiten duten edukien pisua nabarmen agerian gelditu da (Du, 2001). Hain zuzen, literaturan eduki eta balore maskulinoen bidez azaltzen da ingeniartzako ikasketetan emakumeen presentzia apala (Connel, 1995; Du, 2001).

- Denbora eskakizun handiari erreferentzia egiten dioten edukiak

Lanbidearen irudikapenen sozio-profesionalean denbora eskakizun handiari erreferentzia egiten dioten edukiak jaso dira. “Lana” hitza deklinatzeko moduan agertu dira eduki hauek, lan zama handia eta lan ordu asko bete behar izatearen edukiei aipamena eginez. Ondorioz, denbora eskakizun handiaren exigentzia ikasketa prozesutik barneraturiko elementua dela ageri da. Jakina den bezala, dedikazioari begira nagusitzen diren balore hauek genero ikuspuntutik ez dira neutroak. Generoaren arabera zaintza eta etxeko lanen banaketa desorekatua izanik, emakumeei denboraren kudeaketarako zailtasun gehiago sorrarazten dien elementua da, jarduna eta ibilbide profesionala oztopatuz, eta bizi esparru orotan presioaren handitzea ekarriz (Rutherford, 2001; Lee-Gosselin & Ann, 2011).

- Testuinguru maskulinoari erreferentzia egiten dioten edukiak

Ingeniaritza kokatu den testuingurua lan eremu maskulino bezala ezaugarritu daitekeen esparruetan kokatu da. Enpresa munduan kokatzeaz gain, ingeniartzat fabrika, obretan eta eraikinetan aurrera eramaten den jarduerak bezala azaldu da. Obretan zein fabriketan burutzen diren jarduerak tradizionalki maskulinoetat jo diren ezaugarriekin lotzen dira, eta gaur egun lan eremu horietan emakumeen kopurua oso apala da (Emakunde, 2017).

b. **Lidergoaren irudikapen sozio-profesionala**

Lidergoaren irudikapen sozio-profesionalari dagokionez, genero inplikazioak dituzten lau esanahi edo eduki mota identifikatu dira: denbora eskakizun handiari loturiko eduki eta esanahiak, lidergo agentikoaren nagusitasuna, lidergoa eta gizon izatearen arteko lotura eta emakume liderrarekiko eskakizun bikoitzaren ideia.

- Denbora eskakizun handiaren ideia

Lidergoan jarduteko behar den denbora eskakizun handiari erreparatzen diote ikasleek. Lanbidearen irudikapen sozio-profesionalean bezala, lidergoaren irudikapenean “lana” hitza denbora eskakizun handiko lan bezala azaldu da. Zehazki, lan zama handiari, lan asko egiteari eta lan ordu asko egiteari egin zaio erreferentzia.

- Lidergo agentikoaren nagusitasuna

Lidergoa ezaugarritzeko ikuspuntu tradizionalarekin erabat bat egiten duten edukiak jaso dira, lidergo agentiko bezala ezagutzera ematen den lidergo estiloarekin bat eginik (Schein, 1973; Eagly & Karau, 2002). Hori egindako bi azterketa mailatan atzeman da: lidergo eskalen azterketan lider generikoaren irudikapenean ezaugarri agentikoak gailendu dira; gogora ekartze galderan lidergoa zorrotasuna, erabakiak hartzea edota buru izatearen edukien inguruan egituratu da. Rol sozialaren teoriarekin bat eginik, ikasketa eta lan eremu maskulinoetan lanean dabiltzan emakumeei esleitzen zaien agentizitate altua izaten da (Abele, 2003). Maila honetan, lidergoaren kontzepzio agentikoak estereotipoen maila deskriptiboari erreparatzean ez luke lidergoa eta emakumearen arteko deslotzerik ekarri behar. Alabaina, estereotipoen maila preskriptiboak bereziki testuinguru maskulinoetan indarra hartzen duela kontuan izanik (Cuadrado & Navas, 2000; Eagly & Karau, 2002; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006), lidergoa irudikatzearekoan agentizitatearen gailentasuna genero ezberdintasunen iturri izan daitekela pentsatzen da.

-Lidergoa eta gizon izatearen arteko lotura

Lidergoaren azterketan ikasleek lidergoa gizon izatearekin lotu dutela ikusi da, honakoa egindako bi azterketa mailatan agertuz. Lidergo eskalen bidezko azterketan lider generikoa gizon izatearekin lotu da, eta emakume izatetik deslotu; gogora ekartze galderan “gizon” hitzari egin zaio aipamena. Ondorioz, ikasleen artean *Think manager*

*Think male* teoriak balizkoa izaten jarraitzen duela ikusi daiteke (Schein, 2001; Schein, 1973).

-Emakume liderrarekiko eskakizun bikoitza

Ikasleek, lider generikoarekin eta gizon liderrarekin egin ez duten bezala, emakume liderrari komunalitate eta agentizitate maila altua esleitu diote. Ikasleek emakume liderrarekiko dagoen eskakizun bikoitzarekin bat egiten dutela erakusten duen emaitza da (Bongiorno et al., 2014; Diekman, 2007; Johnson et al., 2008).

#### 9.4.1.2 Irudikapen profesionalen genero soslai

Profesionalekin jasotako edukiei dagokienez, lanbidearen eta lidergoaren irudikapen profesionaletan genero soslai duten edukiak azalduko dira jarraian.

##### a. Ingeniaritzaren irudikapen profesionala

Ingeniaritzaren irudikapen profesionalean hiru multzotan sailkatu dira genero soslai duten eduki eta esanahiak: denbora eskakizun handiari loturiko eduki eta esanahiak, emakumeek jasaten duten diskriminazioari loturikoak eta estatus altua galtzearen esanahiari erreferentzia egiten diotenak.

- Denbora eskakizun handiaren ideia

Denbora eskakizun handiaren ideia genero ikuspegitik irudikapen profesionalean garrantzia handiko elementu bezala azaldu da, irudikapena egituratzen duen esanahi nagusietako bat bezala gainera. Irudikapen profesionalaren testuinguruaren dimentsioan bereziki nabarmendu den esanhi da. Halere, dimentsio identitarioan eta praktikoan ere islatu da denbora eskakizun handiaren ideia. Testuinguruaren dimentsioan ingeniari lan jardunerako exigitzen zaien denbora eskakizun handia lan erakundeetan lana antolatzeko nagusitzen diren moduetan eta erakundeek babesten dituzten baloreetan islatu da. Adibidez, instituzioen aldetik lanaldia murrizteaz edota amatasun baja hartzeaz balorazio negatiboa egitean nabarmendu den ideia da; langileen eskuragarritasunari begira presentziazko kultura, dedikazioaren balorea eta enpresari egokitu behar izatea onestean, eta mugikortasun geografikoa lanbideko barne elementutzat ulertzean. Gainera, lan erakundeetan

goranzko lan ibilbideak bultzatzen direla ikusi da. Goranzko lan ibilbidea norbanakoaren erabateko autonomian oinarritzen den lan eredua da, metakorra eta mozturarik gabea izan behar duena (Guillaume & Pochic, 2007; Laufer, 2005). Ondorioz, bizi esparruen arteko bereizketa zurrunean oinarritzen den lan eredua da, klasikoki gizonei zuzendu zaiena. Generoaren araberako zaintza eta etxeko lanen ardua desorekatua oraindik ere egungo gaia dela kontuan izanik (Legarreta & García Sainz, 2015), goranzko lan ibilbidearen ereduak lan ibilbide generizatuak birsortzera darama (Guillaume & Pochic, 2007). Dimentsio identitarioari helduz, maila apalago batean bada ere, denbora eskakizun handiaren ideiak irudikapenaren dimentsio identitarioan ere babesa aurkitu duela ikusi da. Zehazki, enpresaren beharrei egokitu behar izatea edota lan asko egiteko gaitasuna kolektibo profesionalarentzako beharrezko konpetentzia bezala azaltzean agerian jarri den ideia da. Bukatzeko, dimentsio praktikoan ere atzeman dira denbora dedikazio handiari erreferentzia egin dieten edukiak. Honakoa, eguneroko jardunean lan ordu asko egitearen bidez, lanaren ondotik sare informalak garatzen segitzearen bidez edota geografikoki mugitzearen bidez islatu da. Ondorioz, denbora eskakizun handiaren ideia profesionalek aurrera eramaten dituzten denbora praktiken bidez ere birsortzen den lan eredua dela ikusi da.

- Emakumeek jasaten duten diskriminazioari loturiko edukiak

Irudikapen profesionalean emakumeek bizi duten diskriminazioari loturiko edukiak jaso dira. Hain zuzen, lanbide maskulinoetan tipikoki emakumeek jasaten dituzten harreman oztopoak agerrarazi dira (Beeman, 2011; Lee-Gosselin, 2011). Honakoa, emakumeek jardunerako zilegitasun gutxiago izatearen sentazioan islatu da, ezagutza teknikoen aitortza ezan, emakumeekiko egiten den eskakizun maila altuagoan, bazterketa egoera zuzenetan eta ohar sexistetan. Elkarrizketatuek aipatu dituzten edukiak teoriarekin lotuz, emakumeek jardunerako zilegitasun gutxiago edukitzeak eta ezagutza teknikoen aitorten ezak ezagutzen genero bereizketa dauka bere jatorrian, eta lanbidearen izaera maskulinoa mantentzera daraman sinesmena da (Acker, 1990; Britton, 2000). Honakoak, gaur egun sinesmen tradizionalak indarra izaten jarraitzen dutela agerian jartzen duen emaitza da. Bestalde, puntualki gertatzen diren egoera bezala agertu arren, bazterketa egoerek eta ohar sexistek lanbidean

sexismo erasokorraren existentzia agerian jarri dute (Doutre, 2012), emakumeak bilera edota erabaki guneetatik baztertzearan, esate baterako. *Beirazko sabaia*ri dagokionez, erakundeen kultura generizatuek birsortzen duten prozesua dela ikusi da (Guillaume & Pochic, 2007), eta zientzia eta teknologia arloko lanbideetan bereziki emakumeek promoziorako edukitzen dituzten oztopoen markoan interpretatzen da (Hunt, 2010).

- Estatus altuaren galera

Azkenik, irudikapen profesionalaren eduki generizatuen hirugarren mailari erreparatuz, kolektibo profesionalak historikoki eduki duen estatus altuari loturiko edukiak jaso dira. Maila honetan, estatus altuaren mantenua eta defentsa islatu da irudikapenean. Horrela, ikasketen demokratizazioak lanbidearen galbidea edota maila apaltzea dakarrela azaldu da. Honekin batera, profesio kide batzuen artean ingeniari izateak ekartzen duen ezagutza soziala mantendu nahia adierazi da. Historikoki lanbidean gizonen arteko hartu-emanak lehenetsi direla kontuan izanik eta gainontzeko kategoria sozialengatik bereiztea bilatu dela kontuan harturik (Arango, 2006), estatus altua mantendu nahiak genero inplikazio handia duela ondorioztatzen da.

#### **b. Lidergoaren irudikapen profesionala**

Lidergoaren irudikapen profesionala lidergo generikoa, emakume liderra eta norberaren lidergoaren irudikapenaren azterketaren bidez gauzatu da. Genero soslaiak duten eduki eta esanahiak hiru irudikapen objektuen azterketatik eratorri dira. Zehazki, genero inplikazioak dituzten eduki eta esanahiak hiru multzotan sailkatu dira: denbora kudeaketarako zailtasunak, emakumeenganako diskriminazio egoera zuzenak, eta generoa eta lidergo rolaen bat ez egiteari erreferentzia egiten dieten edukiak.

- Denbora kudeaketarako zailtasunak

Emakume liderraren irudikapenean, lidergoan jarduteko emakumeek bereziki bizi dituzten denbora kudeaketa arazoei egin zaie aipamena. Batetik, emakumeek zaintzarekiko duten ardura eta lidergo rolen exijentziaren bateratzeak ekartzen dituen tentsioei aipamen zuzena egin zaie; eta bestetik, emakumeek gizonen baino denbora gutxiago izanagatik lidergo bereziki efizientea eta eginbeharretara bideraturiko lidergo estiloa garatzen dutela azaldu da. Emakume liderraz aritzean aditzera eman diren

eduki hauek lan erakundeen kultura generizatua agerian jartzen dute (Acker, 1990; Rutherford, 2001), baita gizon eta emakumeek denbora erabilera ezberdina dutela.

- Lidergoan emakumeenganako diskriminazio egoera zuzenak

Lidergoaren irudikapen profesionalean emakumeenganako dagoen diskriminazioa modu anitzetan azaleratu da, eta ingeniartzaren irudikapen profesionalean jaso diren edukiekin zerikusia duten edukiak jaso dira. Zehazki, emakume liderraren irudikapenez jardutean *beirazko sabaiari*, sinesgarritasun ezari, begiradei edota jasaten dituzten oharrei egin zaie aipamena.

- Genero eta lidergo rolararen bat ez egiteari erreferentzia egiten dieten edukiak

Generoa eta lidergo rolararen bat ez egiteari erreferentzia egiten dieten edukiak jaso dira lidergoaren irudikapen profesionalean. Maila honetan, emakume liderraren irudikapenean lidergoan emakumeenganako egiten den eskakizun bikoitza agerian jarri da, dimentsio agentikoetan emakume liderrarenganako aurreiritziak azaleratu dira, eta emakume liderra gizon liderra erreferentziazat hartuz eraikitzen dela ikusi da. Edukiak literaturarekin lotuz, lidergoan emakumeenganako egiten den eskakizun bikoitzak gizonei exigitzen ez zaien eta emakumeak lidergoan jarduteko komunalak zein agentikoak izan beharraren eskakizunari erreparatzen dio (Bongiomo et al., 2014; Diekman, 2007; Johnson et al., 2008). Dimentsio agentikoetan emakume liderrarenganako aurreiritziek genero estereotipoen maila preskriptiboaren gaurkotasuna agerian jarri dute, emakumeen autoritatearen erabilpenaren onarpen eza erakutsiz (Eagly & Karau, 2002; Moss-Racusin & Rudman, 2010; Phelan et al., 2008; Rhee & Sigler, 2015). Gainera, lan testuinguru maskulinoetan eginiko ikerketa izateak aurreiritziaren nabarmentzea ekarri duela pentsatzen da (Eagly & Karau, 2002; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006). Bukatzeko, emakume liderraren irudikapena gizon liderrarekin alderatuz eraiki izanak lidergorako erreferentziako figura gizonak izaten jarraitzen duela erakusten du (Schein, 2001; Schein, 1973). Maila honetan, emakume liderraren irudikapena gizon liderra oinarri harturik irudikatu izanak gizon eta emakumeen arteko asimetria sinbolikoaren adierazlea da (Amancio, 2003).

Lidergo generikoaren irudikapenean ere azalerazi dira lidergoa eta genero rolararen bat ez egiteari erreferentzia egiten dieten edukiak. Honakoa, lider generikoa nagusiki

lidergo estilo agentikoaren inguruan eratu izanean atzeman da. Lidergorako agentizitatearen gailentasunak genero estereotipoen maila deskriptibo eta preskriptiboan eduki ditzake genero inplikazioak (Eagly & Karau, 2002; Moss-Racusin & Rudman, 2010; Phelan et al., 2008). Halere, ingeniari-tza lan testuinguru maskulinoa izanik, estereotipoen maila deskriptiboa baino, agentizitatearen erabilpenaren onarpen eza (estereotipoen maila preskriptiboa) ageri da emakumeenganako mehatxu nagusi bezala (Cuadrado & Navas, 2000; Eagly & Karau, 2002; Garcia-Retamero & López-Zafra, 2006).

#### **9.4.1.3 Irudikapen sozio-profesional eta profesionalaren genero inplikaziozko edukien alderaketa**

Azaldu berri den bezala irudikapen profesionalean zein irudikapen sozio-profesionalean genero inplikazioak dituzten esanahi eta edukiak anitzak direla ikusi da. Bi populazioen emaitzak alderatuz, ikasle eta ingeniari-ek antzekotasunak dituzten edukiak eta eduki propioak aipatu dituztela ikusi daiteke. Irudikapenetan antzekotasuna duten edukiak zein diren identifikatzeak, kolektibo profesionalean errotuak dauden edota etorkizuna duten genero inplikazioko edukiak zein diren ezagutzea ahalbidetuko digu; genero inplikazioko eduki propioak zein diren ezagutzeak aldiz, profesional izateak edo ikasle izateak errealitatearekiko dakarren hurbilpen propioa ezagutzea ahalbidetuko digu, baita belaunaldien arteko ezberdintasunak ezagutzea ere.

##### **a. Lanbidearen irudikapenean genero inplikazioko edukietan antzekotasunak eta berezitasunak**

Antzekotasunei helduz, ikasle zein profesionalen ingeniari-tzaren irudikapenean denbora eskakizun handiaren betebeharrak partekaturiko ideia dela ikusi da. Irudikapen profesionalean sozio-profesionalean baino leku gehiago duen esanahia izan arren, ikasleek lan munduan murgildu aurretik jada barneratu duten eskakizuna dela ikusi da. Maila honetan, denbora eskakizunaren ideia lanbidearen elementu eratzaile garrantzitsu bat dela aditzera ematen da. Hain zuzen, ikasketa prozesuan hasten den sozializaziotik helarazten den balorea eta lan egiteko modua da (Brangier et al., 2004).



Formazio eta sozializazio pauso antzekoak partekatzeak, lanbidearen alderdi generizatuak ere partekatzera eramaten duela ikus daiteke.

Bestalde, ikasle eta profesionalek eduki generizatu propioak plazaratu dituzte. Honakoa hiru ideia nagusitan islatu da. Batetik, ikasleek plazaratu dituzten genero inplikazioko edukiei helduz, ikasleen ingeniartzaren irudikapenean lanbidea bereziki modu teknikoan irudikatu dutela ikusi da, esfortzua eta zailtasun teknikoaren edukiak presentzia nabarmena izanik. Profesionalen irudikapenean aldiz, konpetentzia sozial eta teknikoak maila berean kokatu dira, eta lanbidearen helburu soziala ere nabarmendu da. Maila honetan, badirudi, lanbidearen izaera sozialaren kontzientzia profesional gisara jardutean sortzen doala; hots, lan praktikaren bidez sortzen dela. Bestetik, irudikapen sozio-profesionalean ikasleek ingeniartza lanbidea garatzen den testuingurua bereziki eremu maskulinoan kokatu duten bitartean (obra, fabrika, eraikinak), profesionalen irudikapenean ez da horrelakorik atzeman. Izan ere, profesionalek lan esparru anitza islatu dute beraien lanbidearen irudikapenean. Maila honetan, ingeniartza testuinguru anitzago eta femeninoagotan (adibidez, *star up*-etan) praktikan jartzearen ideia praktika profesionalarekin garatzen dela pentsatzera ematen duen emaitza da.

Azkenik, profesionalek bereziki plazaraturiko genero inplikazioko edukiei erreparatuz, estatus altua galtzeari begirako kezka profesionalek bakarrik aipatu duten gaia dela ikusi da. Ikasleen artean; hau da, etorkizuneko profesionaletan, estatus altuarekiko atxikimendua desagertzen ari dela aditzera ematen duen emaitza da. Ingeniarien kolektibo profesionala demokratizatu edo demokratizatzen ari dela pentsatzera ematen du honakoak. Halere, ikerketa honetan parte hartu duten ikasleak unibertsitate publiko bateko ikasleak izateak zentzu honetan eragin duela pentsa daiteke, eta eskola pribatuetako ingeniari ikasleekin kontrastatzea interesgarria izan daiteke.

**b. Lidergoaren irudikapenean genero inplikazioko edukietan antzekotasunak eta berezitasunak**

Ikasle eta ingeniariaren lidergoaren irudikapenean genero inplikazioko eduki propioek leku gutxi izan dute, eta plazaratu diren genero inplikazioko eduki nagusiak partekatuak direla azaleratu da. Hain zuzen, partekaturiko edukiak hiru izan dira: Batetik, ikasle zein langileek denbora eskakizunei loturiko edukiei erreferentzia egiten diete; bestetik, *Think manager Think male* teoriaren gaurkotasuna bi laginetan baieztatu dela ikusi da, ikasle zein profesionalak lidergoa agentizitatearekin eta gizon izatearekin lotu baitute; eta azkenik, emakume liderrekiko dagoen eskakizun bikoitza ikasle zein profesionalen artean partekatua dela agerian jarri da.

Azaleratutako genero soslaiak duten eduki propioei helduz, profesionalen lidergoaren irudikapenean emakumeenganako diskriminazioaren ideiak leku zabala duela ikusi den bitartean, ikasleen artean oso modu lausoan aditzera eman den ideia da. Honakoak, emakumeenganako diskriminazioa lan munduan nabarmenagoa dela aditzera ematen du.

**9.4.2 IRUDIKAPENEN EDUKIETAN ALDAKETAK BERDINTASUNERANTZ**

Lidergoa eta lanbidearen irudikapenen generizazioa nola gauzatzen den azaldu berri da, genero ezberdintasuna eragiten duten edukien eta esanahien pisua nabarmenduz. Irudikapen profesional eta sozio-profesionalen genero ikuspegitik berdintzaileak ez diren edukiek nagusitasuna izan arren, genero berdintasunaren zentzuan doazen elementuak ere atzeman dira. Jarraian, ikasle eta langileen irudikapenetan berdintasunari dei egiten dieten eduki eta esanahi hauen nondik norakoak azalduko dira.

**9.4.2.1 Irudikapen sozio-profesionalean berdintasun zantzuak**

Ikasleen irudikapen sozio-profesionalen azterketatik lidergoaren irudikapenean atzeman dira berdintasunaren ildoan joan daitezkeen edukiak, eta bi mailatan azaldu dira. Batetik, lidergoaren irudikapena ikasleen modu agentikoan irudikatu duten arren, lidergoan komunalitateari dei egiten dieten edukiak ere atzeman dira. Maila honetan,

lidergoaren genero tipifikazio maskulinoaren arintzearen zantzuak ageri dira (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000). Bestetik, ikasleek lidergoaren irudikapena gizon izatearekin lotu dutela ikusi den arren (Schein, 2001; Schein, 1973), lidergoa eta gizonezkoaren arteko asoziazioa maila batean ikuspegi kritiko batetik egin dela ikusi da. Izan ere, lidergoan gizonen nagusitasuna kritikatu dute hainbat ikaslek. Ondorioz, diskurtso minoritarioa bada ere, ikasle batzuen artean lidergoarekiko genero berdintasunaren aldarria presente dagoela esan daiteke.

#### 9.4.2.2 Irudikapen profesionalen berdintasun zantzuak

##### a. Lanbidearen irudikapen profesionala: eduki polemikoak

Irudikapen profesionalaren azterketari dagokionez, lanbidearen irudikapena eratzen duten hiru dimentsio teorikotan (testuingurua, identitatea eta praktikoa) atzeman dira berdintasunaren zentzuan doazen elementuak. Maila honetan, genero inplikazioak dituzten hainbat tema bata bestearekiko baztertzailak diren edukiz osaturik daudela ikusi da, eta tema hauek irudikapenaren alderdi polemikoa eratu dute (Ben-Asher, 2003; Lius, 2004; Lo Monaco & Guimelli, 2011; Moscovici, 1988). Irudikapen polemikoak eztabaida eta aldaketaren adierazle dira (Ben-Asher, 2003). Horrela, lanbidean genero soslaia duten edukiak nagusi izan arren, genero gaiekiko eztabaida egoteak genero berdintasunerantz aurrera pausoak emateko aukerak badaudela erakutsi du.

Edukiei helduz, testuinguru dimentsioan lan erakundeetan nagusitzen diren lan egiteko modu eta baloreei erreparatzean elkarren aurka doazen bi lan eredu marraztu dira. Batetik, lanaldi ordutegi luzea edota zabala edukitzea, mugikortasun geografikoa, presentziazko kulturaren onespina, eta kontziliazio politikak eta amatasun bajak modu negatiboan baloratzen direla aipatu da. Bestetik, ordutegi mugatua edukitzea, mugikortasun geografiko mugatua, pertsonen beharren bateragarritasuna bilatzen duen lan eredu, eta kontziliazio politikak eta amatasun bajak begi onez ikustearen edukiak aipatu dira.

Dimentsio identitarioan, kolektibo profesionalak dituen baloreak argitara ematea ahalbidetu duen dimentsioan, bi mailatan azaleratu dira genero inplikazioko esanahi kontrajarriak. Berdintasun neurriei begirako profesio kideen baloretan

berdintasun neurrien aldeko eta kontrako edukiak atzeman dira, elkarren kontra doazen posizionamendu ideologikoak agerian jarritz. Estatus galtzea teman, batetik, estatus altuaren defentsaren aldeko edukiak jaso dira; eta bestetik, estatus galtzeari positiboki erreparatu dioten edukiak, elitismoaren amaiera eta ezagutzen partekatzeari erreferentzia eginaz.

Dimentsio praktikoan eginkizunak aurrera eramateko garatzen diren denbora praktiketan azaldu dira eduki kontraesankorrak. Horrela, enpresan denbora asko igarotzeari erreferentzia egiten dieten jardunak azaldu dira batetik, eta enpresan denbora mugatuagoa edukitzea ekartzen duten denbora antolaketak bestetik. Azken honetan, enpresan denbora gutxiago igarotzera bideraturiko estrategiak aipatu dira, eta denbora eskakizun handia behartzen duen lan ereduari kritika egin zaio.

#### **b. Lidergoaren irudikapen profesionala**

Profesionalen lidergoaren irudikapenean eduki berdintzaileei dei egiten dieten edukiak bi mailatan atzeman dira. Batetik, lidergo generikoaren irudikapenean lidergo estilo agentikoek nagusitasuna eduki arren, lidergo komunalago eta berriagoen onarpena eta eragina atzeman da (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000). Horrela, femenino bezala definitzen diren portaera eta jarrera estiloak jada lidergo rolaekin lotzen direla ondorioztatu da. Maila honetan, agentikoak izatean emakumeek jasaten duten aurreiritzia kontuan izanik (Eagly & Karau, 2002; Rhee & Sigler, 2015), lidergo estilo komunalagoen onarpenak emakumeek jasaten duten aurreiritzien lausotzea ekarri dezakeela pentsa daiteke, lidergoan emakumeen onarpenerako bideak irekiz. Bestetik, emakume liderraren irudikapenean emakume liderrarekiko aurreiritziak eta diskriminazioari loturiko edukiak atzeman diren arren, konnotazio positiboa duten edukiz eraturiko irudikapena dela ikusi da ere. Izan ere, gizon liderrarekin alderatzean emakume liderraren efizientzia eta humanitatea azpimarran jarri dira. Emakume liderraren efizientziaren sorburuan baldintzapen sozialak egon arren; hau da, zaintza lanekiko emakumeek duten gain karga egon arren, eta humanitatearen atzean emakumeak komunalak izan behar diren preskripzioa egon arren, genero ezberdintasunek sorturiko edukien positibitatea eman dela ikusi daiteke. Finean, gizonen lidergoaren aurrean emakumeen bereizgarritasunaren nabarmentzea egiten da.

## 9.5 POSIZIO SOZIALAREN AZTERKETARI LOTURIKO ONDORIOAK

Tesi honetako hirugarren azpi-helburuari helduz, irudikapen sozialen ikuspegi soziodinamikoan oinarrituz irudikatze prozesuan posizio sozialak duen eragina aztertu da. Ikuspegi teoriko honen arabera posizio sozialari loturiko asimetriak; hala nola, generoari loturiko asimetriak, dinamika errepresentazionala ulertzeko elementu gakoak dira (Tafari & Apostolidis, 2002). Jarraian, ikasle eta ingeniarien irudikapenetan posizio sozialaren azterketetako ondorio nagusiak azalduko dira.

### 9.5.1 IRUDIKAPEN SOZIO-PROFESIONALA

#### a. Lanbidearen irudikapen sozio-profesionala

Lanbidearen irudikapen sozio-profesionalari dagokionez generoaren araberrako aldaerak txikiak izan dira (asoziazio askeko edukiaren alderaketa *Complex*-aren bidez). Ondorioz lanbidearen irudikapena ikasleen artean partekaturiko irudikapena dela ikusi da.

#### b. Lidergoaren irudikapen sozio-profesionala

Lidergoaren irudikapenari helduz, lidergoaren inguruan garatzen diren genero dinamikak bi foku ezberdinetatik aztertu dira. Lehenengoan, lider generikoaren irudikapenaren generoak eragiten dituen aldaerak begiratu dira (asoziazio askeko edukiaren alderaketa *Complex*-aren bidez); bigarreanean, norberaren lidergoa irudikatzerakoan genero pertenezkiak sortzen dituen dinamikak aztertu dira. Zehazki, norberaren lidergoaren irudikapena zein neurritan urrundu edota berdindu egiten den beste lidergoetatik (emakume vs gizon liderrekin) aztertu da (eskalen bidez).

Lider generikoari dagokionez, ikasleen artean partekaturiko irudikapen objektua dela ikusi da. Halere, edukien alderaketaren bidez genero inplikazioko edukien aipamenean generoak aldaera eragin dezakeela pentsatzera ematen duten zantzuak aurkitu dira. Izan ere, emakumeek gizonen ez bezala, lidergoa eta gizonaren arteko lotura kritikatu dute, eta gizonen lidergo rolerako denbora eskakizun handiaren ideia presentetago dutela ikusi da.

Generoak norberaren lidergoa irudikatzerakoan eragin duen aldaerari helduz, erantzulearen genero pertenezkiak jokatu duen papera zentrala dela ikusi da. Izan ere, norbanakoaren lidergoaren irudikapenak gizon liderra eta emakume liderraren irudikapenarekin bat egitea edo bat ez egitea, sozialki baloraturiko lidergo estiloekin batera, genero pertenezkiak baldintzatu duela ikusi da. Maila honetan, genero pertenezkiari loturiko baldintzapen sozialak elementu gako bezala agertu dira norberaren lidergoaren irudikapenaren kokapena edo posizio hartzea ulertzeko. Horrela, norberaren lidergoaren irudikapenaren irudi positiboa mantentzeko emakume liderraren eta gizon liderraren aurrean kokatzerakoan garatu diren estrategiak bi motatakoak izan dira. Batetik, norberaren taldearen (emakume ala gizon liderra) irudikapena positiboki baloratzera eramane duten estrategia kolektiboak atzeman dira (Doise, 1973; Moliner et al., 2009). Bestetik, estrategia indibidualago batean, norbanakoek endotaldeaz urruntzeko joera dutela ikusi ahal izan da, tradizionalki beste talde sozialei atxiki izan zaizkien ezaugarriak bere eginez (Deschamps & Moliner, 2011; Doise, 1991; Zavalloni & Louis-Guérin, 1984). Edukiei helduz, emakumeak endotalde logikan lidergo estilo komunaletan emakume liderraren ondoan kokatu dira, eta gizon liderraz urrundu. Alderantziz, emakumeak logika indibidualago batean ezaugarri agentikoetan gizon liderraren ondoan kokatu dira, eta emakume liderraz urrundu. Ondorioz, emakumeek kolektiboki garaturiko strategiaren bidez, tradizionalki emakumei atxiki izan zaien komunalitatea bere egiten dutela ikusten da, eta lidergoarekiko egoera minorizatuaren gainditzearen markoan kokarazi ditu emakumeak (Tafari et al., 2002a; Tafari & Bellon, 2001; Tafari et al., 2002b). Aldiz, maila indibidualean garaturiko mugimenduaren bidez, agentizitatean emakume liderrekiko dagoen aurreiritzi negatibotik aldendu dira. Ondorioz, emakumeek maila indibidualean garaturiko mugimenduak egungo orden sozialaren mantenua eta birsortzearen logikan ulertzen diren emaitzak dira (Lorenzi-Cioldi, 2002; Lorenzi-Cioldi, 2006; Doutre, 2008). Gizonezkoek berriz, beren posizio soziala mantentzeko estrategiak garatzen dituzte, maila indibidual zein kolektiboan. Logika kolektiboan eginbeharretara bideraturiko lidergoan gizon liderraren ondoan kokaturik, lidergo roletako preskriptiboa den agentizitatean gizon liderrarekin bat egin dute. Maila indibidualean garaturiko mugimenduei dagokienez, dimentsio komunaletan emakume liderraren ondoan kokatu dira eta gizon liderraz aldendu. Honakoa, berriki lidergo

komunalekiko egiten den balorazio positiboaren eta tradizionalki gizonezkoei esleitu izan zaien komunalitate apalaren testuinguruan ulertzen den mugimendua da. Hain zuzen, gizonezkoei tradizionalki atxiki izan zaien komunalitate eskasaren ondorioz, lidergo berriekiko zilegi izateko egokitze estrategia indibidualak burutzera eraman ditu (Breakwell, 1993).

## 9.5.2 IRUDIKAPEN PROFESIONALA

### a. Ingeniaritzaren irudikapen profesionala

Ingeniaritzaren irudikapen profesionala ingeniarien artean partekaturiko irudikapena dela ondorioztatu da. Izan ere, profesioa eratzen duten oinarrizko elementuak adostuak direla ikusi da. Horrela, ingeniariak lanbidearen misioa, eduki beharreko konpetentziak edota egunerokoan aurrera eraman beharreko eginkizunak partekatuak dira, eduki hauek irudikapenaren alderdi hegemonikoa eratuz (Lo Monaco & Guimelli, 2011; Moscovici, 1988). Halere, genero inplikazioak dituzten hainbat tema esanahi kontrajarriz osaturik daudela atzeman da, irudikapenaren alderdi polemikoa agerraraziz. Hain zuzen, polemiko bezala agertu diren temetan posizio sozialak irudikatze prozesuan aldaera eragiten duela ikusi da. Maila honetan, irudikapenaren elementu polemikoen eta talde sozial eta kideza sozial batzuen arteko loturak agerian jarri dira (Breakwell, 2001; Lo Monaco & Guimelli, 2011; Muchi-Faina, 2004). Azterketa hiru mailatan eraman da aurrera: generoa, amatasuna eta lan egiten den enpresa mota.

Ingeniaritzaren irudikapen profesionalaren testuinguruaren dimentsioan, generoak eta amatasunak genero inplikazioko eduki polemikoen aipamenean aldaera eragiten duela atzeman da. Zehazki, emakumeek eta bereziki amek, kontziliazio eta berdintasun gaietara erreferentzia egiten dieten eduki gehiago aipatu dituzte, eta baita ingeniartzan emakumeen egoerari erreferentzia egiten dieten eduki gehiago ere. Ondorioz, inplikazio pertsonal handiagoaren bidez azaldu daitezkeela dirudi emakumeek eta bereziki amek testuinguruaren dimentsioan genero inplikazioak dituzten gaiak gehiago aipatzea (Flament & Rouquette, 2003; Rouquette, 1980); hau da, genero gaiekiko identifikazio pertsonal handiagoa edukitzearen bidez eta eduki

hauei garrantzia handiagoa esleitzearen bidez (Rouquette, 1980). Dimentsio identitarioan, talde profesionalaren baloreak eta inplikazio identitarioko edukiak jaso dira. Maila honetan, generoa genero inplikazioko eduki polemikoen aurrean profesio kideek hartzen duten posizionamendu ideologikoa ulertzeko elementu gakoa dela ikusi da. Zehazki, berdintasun gaien aurrean generoak posizio hartze ideologikoaren irimotasun mailan eragina sortzen duela ondorioztatu da. Izan ere, emakumeek eta bereziki amek berdintasun neurrien alde kokatzean lan ereduarekin hautsi beharra aipatu dute, eta kontra kokatzean, gizonen diskriminazioa dakarten neurriak direla, jada berdintasuna dagoela eta meritokraziaren balorea. Gizonek beraien aldetik, berdintasun neurrien alde kokatzean berdintasunaren baloreari dei egin diote, eta kontra kokatzean berdintasuna hezkuntza eta belaunaldi aldaketaren bidez etorriko dela argudiatu dute. Izan ere, berdintasun neurrien alde edo kontra kokatzerakoan, gaiarekiko identifikazio handiagoak (kasu honetan emakumea eta ama izateak) eduki irmoagoak aipatzera eramaten duela erakusten dute emaitzek, gizon izateak baloreak edo politikoki zuzenak diren edukiak aipatzera eramaten duen bitartean. Hemen, emakumeen posizio hartze irmoak, emakumeen artean elkarren kontra doazen bi logika agerrarazi ditu. Batetik, berdintasun neurrien alde kokatzean, emakumeak endotalde logikan kokatu dira, talde sozial bezala jokatzuz eta egoera minorizatu gaitzen bilatzen duten posizionamendua hartuz (Tafari et al., 2002a; Tafari et al., 2002b). Bestetik, berdintasun neurrien kontra agertzean, emakumeek eta bereziki amek, emakumeek bizi duten desberdintasuna ukatu eta lan eredu justua dela baieztatu dute. Eduki hauek plazaratu izana *Queen bee* deituriko fenomenoaren bidez azaltzen da (Derks et al., 2011). Honakoa gizonak nagusi diren lan eremutan posizio altu batean aurkitzen diren emakumeek ezberdintasunak ukatzen dituztelarik gertatzen den fenomeno da, gizonek baino jarrera diskriminatzaileagoak adieraziz (Derks et al., 2011). Bukatzeko, dimentsio praktikoko eduki polemikoen aipamenean generoa eta amatasunaren araberako aldaerak atzeman dira. Zehazki, generoak denboraren erabilera praktikak aipatzeko moduan eragina daukala ikusi da. Horrela, emakumeek eta bereziki amek, erakundean denbora gutxiago igarotzera eramaten duten praktikak garatzen dituztela ikusi da, gizonek presentzia handiagoa dakarten praktikak garatzen dituzten bitartean. Gainera, emakumeek eta bereziki amek denbora hertsapenei aurre egiteko estrategiak garatzen dituztela ikusi da. Denboraren erabilera



generizatua agerian jartzen duten emaitzak dira, zaintza eta etxeko lanen banaketa desorekatua agerian jarritz (Legarreta & García Sainz, 2015), eta esparru publiko eta pribatuaren arteko dikotomiarekin hausteko urgentzia erakutsiz (Daly & Lewis, 2000; Torns, 2011). Era berean, emakumeen denboraren erabilera ezberdinak bestelako denboraren erabilera batean oinarritu daitekeen lan eredu bat agerrarazi du, emakumeek lan erakundeen kulturetan ekarri dezaketen aldaketa kultura agerian jarritz (Lorti-Lussier & Rinfret, 2007). Ildo honetan, testuinguru generizatuen aurrean emakumeek hartzen duten portaera agentikoa ikusararazi da, honakoa bereziki garaturiko estrategien bidez narbarmenduz (Martin, 2006). Azkenik, gurasotasunaren analisiak, amatasuna emakume izatearen genero pertenezkiarekin lotzen dela ikusarazi du, emakume izateak dakarren posizio soziala indartuz.

Bukatzeko, lan egiten den enpresa motak genero inplikazioko eduki polemikoen aipamenean eragina duela ikusi da. Izan ere, norberaren enpresaren, administrazio publikoaren eta enpresa pribatu konbentzionalaren arteko alderaketatik enpresa pribatu konbentzionala agertu da lan esparru generizatuen bezala. Maila honetan, lan erakundeetan (kasu honetan enpresa pribatu konbentzionalen) nagusitzen den lan antolaketa, balore eta praktiken bidez alde aurretik jada ezarriak dauden genero ezberdintasunak birsortzen direla ondorioztatu da (Guillaume & Pochic, 2007). Gainera, enpresa pribatu konbentzionalak kapitalismoaren logikari modu hertsian erantzuten diola kontuan izanik, kapitalismoak genero ezberdintasunak birsotzearekin duen loturaz pentsatzera darama (Orozco, 2014). Izan ere, kapitalismoak genero ezberdintasunetan oinarritzen den sistema (patriarkatua) bere intereserako erabiltzen eta birsortzen du. Txanponaren beste aldea begiratzuz, lan erakundeak botere harreman generizatuak betikotzeko ahalmena duten bezala, lan produktiboan zein gainerako bizi esparruetan baldintza hobekoak sortzeko eremu gakoak direla ikusi da (Haas & Hwang, 2007). Honakoa, lagin honetan norberaren enpresan lanean dabiltzan pertsonen azaldu dituzten edukietan islatu da; esate baterako, bizi esparruen arteko bateragarritasuna bilatzea helburu duen lan ereduaren alde eginez. Azkenik, enpresa kidearen analisiak, genero posizioaren analisisian ezkutuan gelditu diren gizonezko batzuen ikuspegi berdintzaileagoa plazaratzea ahalbidetu du, berdintasun gaiekiko duten kezka eta parte hartzea agerian jarritz.

## **b. Lidergoaren irudikapen profesionala**

Lidergoaren irudikapen profesionalean generoak irudikatze prozesuan duen eragina lidergo generikoaren, emakume liderraren eta norberaren lidergoaren irudikapen objektuetan aztertu da, eta azterketa objektuaren arabera irudikatze prozesuan genero pertenezkiak sortzen duen eragina ezberdina dela atzeman da.

Lidergo generikoaren irudikapenean generoak irudikatze prozesuan aldaera nabarmenik eragiten ez duela ikusi da. Maila honetan, lider generikoaren irudikapena ingeniariaren artean partekatua den irudikapena dela ondorioztatu da. Halere, irudikatzen duen pertsonaren testuinguruak (lan egiten den erakunde motak, adibidez) lidergo generikoari atxikiriko edukietan aldaera eragin dezakeela aditzera eman dute emaitzek.

Emakume liderrari dagokionez, irudikatze prozesuan generoak aldaera eragiten duela ikusi da. Horrela, emakume liderraren irudikapena talde arteko irudikapenen markoan garatu den irudikapena da. Izan ere, generoaren arabera eman diren aldaerak endo eta exo talde logikaren baitan garatu dira (Cohen-Scali & Moliner, 2008; Doise, 1973). Emakumeak endotalde logikan kokatuz emakume liderra lidergorako zilegi bilakarazi dute, bi modutan. Batetik, emakume liderraren estilo humanoa azpimarran jarriz, egun lidergorako positibotzat jotzen diren edukiak atxiki dizkiote emakume liderrari (Billing, 2011; Billing & Alvesson, 2000). Bestetik, emakumeek emakume liderrari eginbeharretara bideratua izatea eta efizientzia esleitzuz, oinarrian baldintzapen soziala zenaren positibatzea egiten dute. Hau da, emakumeek gizonek baino denbora gutxiago edukitzearen ondorioz lidergo bereziki efizientea emakumeen dohain propio bilakarazi dute. Gizonei dagokionez, emakume liderra irudikatzerakoan exotalde logikan kokatu direla ikusi da. Honakoa, emakume liderraren estereotipo negatiboari aipamen gehiago egitean ikusi da.

Norberaren lidergoaren irudikapenean generoak irudikatze prozesuan eragina duela ikusi da. Emakumeek beraien lidergoa estilo komunal eta agentikoei aipamena eginez eratu dute. Horrela, emakumeek duten eskakizun bikoitzaren baldintzapean eraturiko irudikapena dela ulertzen da (Bongiorno et al., 2014; Diekman, 2007). Gainera, emakumeek norberaren lidergoa irudikatzerakoan gatazka ekiditearen lidergoa aipatu dute. Honakoa, genero preskripzioen ondorioz aurreiritzi negatiboa ekiditeko emakumeek bere egin duten lidergoa dela ulertu da (Eagly & Karau, 2002;

Koch et al., 2014). Gizonei dagokienez, beraien lidergoa lidergo estilo agentikoen inguruan irudikatu dutela ikusi da. Horrela, gizonezkoek beraien lidergoa genero eta lidergo rolaerako zentralizat jotzen den agentizitatearen inguruan eratu dute (Johnson et al., 2008). Generoaren arabera atzeman diren aldaeren izaera kontuan izanik, norberaren lidergoaren irudikapenak genero bakoitzari atxikiriko preskripzioek baldintzaturik garaturiko irudikapenak direla ondorioztatu da.

## **9.6 EKARPEN TEORIKO-METODOLOGIKOAK**

### **9.6.1 GENERO IKUSPEGIA IRUDIKAPEN SOZIALETAN**

Irudikapen sozialen teoriaren baitan genero ikuspegia kontuan harturik egindako lanak egon badaude ere (ikusi Cassini, 2015; Larrañaga, Valencia & Ortiz, 2012; Lorenzi-Cioldi, 2002; Vinet & Moliner, 2006), lidergoaren, norberaren lanbidearen edota irudikapen profesionalak aztergai izandako ikerlanetan genero ikuspegia ardatz hartu duten ikerlanak oso urriak dira. Maila honetan bi dira tesi honek egindako ekarpenak. Lehen ekarpena edukiari loturikoa da. Hemen, lidergoa eta lanbidearen irudikapenetan genero inplikazioko edukiek zama handia dutela azaleratu da. Horrela, irudikapenen genero soslaiak egungo lan mundua genero ezberdintasunek gurutzatzen dutela erakutsi dute. Lanbidearen eta lidergoaren irudikapenean genero inplikazioko edukien zama kontuan harturik, ikerlanetan genero ikuspegia kontuan hartzearen beharra agerian jarri da. Izan ere, genero ikuspuntua kontuan ez hartzeak, ingeniariak eta lidergoaren irudikapenaren ikuspegi partziala jasotzea ekarriko luke, lanbidean genero botere harremanek duten pisua ezkutuan utziz, eta ondorioz, ezberdintasun sozialen betikotzea ekarriko. Honakoak, ikerlariak botere harremanek jositako errealitatea ikusgarri bilakatzean duten ardura agerian jartzen du, eta errealitate soziala modu neutral batean eratzten denaren auresuposizioa alde batean uztearen beharra.

Bestetik, genero ikuspuntua tesi honen erdigunean kokatu izanari esker, irudikapen sozialen teoriaren baitan genero ikuspuntua kontuan hartzeko ekarpen metodologikoa egin da. Batetik, Blin-en (1997) irudikapen profesionalen azterketa markoa (testuingurua, identitatea eta praktika) lan mundua genero ikuspegitik

jorratzen duten edukiak kontuan hartuz aztertu baita (Acker, 1990; Connell & Russell, 2005; Guillaume & Pochic, 2007; Haas & Hwang, 2007; Russell et al., 2009; Rutherford, 2001). Bestetik, lidergoaren irudikapena lau irudikapen objektuen bidez aztertu izanari esker, bere osotasunean generoa lidergoan nola deklinatzen den ezagutu ahal izan da. Zehazki, lidergo generikoa, emakume liderra, gizon liderra eta norberaren lidergoaren irudikapen objektuetatik jasotako edukiek eta objektuen arteko alderaketak ahalbidetu du genero botere harremanak lidergoan nola gauzatzen diren ezagutzea.

#### **9.6.2 EDUKI GENERIZATUEN AZTERKETATIK PROZESUEN AZTERKETARA: IKUSPEGI SOZIODINAMIKOA**

Ingeniaritza eta lidergoaren irudikapenetan genero soslaiak duten edukiak azaleratzeaz gain, errealitate generizatuaren aurrean pertsonak hartzen duten posizio hartzearen ezagutzan sakondu da. Maila honetan, irudikapen sozialen bidezko markoak azterketa objektuei begirako hurbilpen dinamikoa egitea ahalbidetu du, genero inplikazioko edukiak botere harremanak barne hartzen dituzten kategoria erlazional bat bezala aztertzea ahalbidetuz (Arruda, 2010). Izan ere, lanbidea eta lidergoaren aurrean generoaren arabera posizio hartze ezberdinak azalera dira, eta honen bidez egungo genero botere harremanen nondik norakoak agerian jartzea ahalbidetu da. Zehazki, posizio hartzeetan generoaren arabera eta ikasle ala langile izatearen arabera logika ezberdinak azalera dira, eta aldi berean aztergai izan den edukiak baldintzatu duen prozesua izan da. Hauek dira azalera diren prozesu nagusiak:

Batetik, eduki batzuen aurrean harturiko posizio hartzeen bidez gizonek zein emakumeek talde sozial bezala jokatzeko dutela ikusi da. Horrela, gizonek zabalduko irudikapen sozialen bidez beraien posizio soziala mantentzeko joera dutela erakutsi da (Lorenzi-Cioldi, 2002). Emakumeei dagokienez, emakume izateak dakarren egoera minorizatua gainditze zentzuan doazen irudikapenak zabaldu dituzte (Tafari et al., 2002a; Tafari & Bellon, 2001; Tafari et al., 2002b). Ondorioz, irudikapen sozialak borroka ideologikorako eremua direla agerrarazi da, eta errealitatearen eraikuntza ezberdinen defentsa egiteko erabiliak direla (Howarth, 2006).

Bestetik, posizio hartzeen bidez talde sozial bezala gainditu ezin diren gaien aurrean, gizon zein emakumeek maila indibidualean zilegitasuna lortze zentzuan mugikortasun indibidualerako joera dutela ikusi da (Breakwell, 1993). Logika honen baitan hainbat emakume profesionalak genero ezberdintasunak ukatuz posizio sozial dominanteekin bat egiten duten irudikapenak garatu dituztela ikusi da (Doutre, 2012). Ikasleei dagokienez, *Self*-aren irudikapenaren bidez posizio hartze indibidualizatuak garatzen dituztela ikusi da, endotaldeaz urrunduz eta beste talde sozialei atxikitzen zaizkien edukiak bere eginez (Cohen-Scali & Moliner, 2008; Doise, 1991; Zavalloni & Louis-Guérin, 1984). Halere, *Self*-aren irudikapenak kasu guzietan norberaren talde sozialarekiko mugikortasun indibidualerako aukerarik eskaintzen ez duela ikusi da. Izan ere, ikasleetan ez bezala, profesioaletan *Self*-aren irudikapenaren bidezko kokapenetan ez da mugikortasun indibidualik atzeman. Izan ere, profesionalen norberaren lidergoaren irudikapenean genero pertinentziak dakartzan mugen baitan garatu dira norbanakoen posizio hartzeak. Maila honetan, ingeniari profesioaletan lan testuinguru generizatuak dakarren zama norbanakoaren posizio indibidual batetik ezin direla gainditu agerrarazi da, genero botere harremanen indarra agerian geldituz. Ikasleen artean aldiz, lan testuinguruan murgildurik ez egoteak maila indibidualean mugikortasun gehiagorako aukera ekarri diela pentsa daiteke. Ondorioz, batetik, posizio hartze ezberdinduek genero ikuspegitik egun oraindik gainditu gabeko gaiak zeintzuk diren azalratzea ahalbidetzen du, edota eraldaketarantz doazen edukiak identifikatzea. Bestetik, *Self*-aren bidezko kokapenak mugikortasun indibidualerako eskaintzen dituen aukera askatzaileak testuinguruak baldintzatzen dituela aditzera eman da. Laburbilduz, mugikortasun indibidualerako aukerak testuinguruak baldintzatzen dituela ikusi da.

Azkenik, ingeniariaren irudikapen profesionalen posizio hartzeen azterketak generoak genero inplikazioko gaiekiko hurbilpena egiteko moduan aldaera eragiten duela ikusi da. Zehazki, generoak posizio hartzeetan bata bestearekiko baztertzailak diren posizio hartzeak eragin baino, edukien irmotasun mailan eragin duela ikusi da. Maila honetan, objektu batekiko posizio hartze irmo ala lausoagoak burutzea aipagai den gaiekiko dagoen inplikazio maila ezberdinetik azaldu daitekeela aditzera eman dute emaitzek (Flament & Rouquette, 2003; Rouquette, 1997), profesionalak

berdintasun neurrien aurrean hartu dituzten posizio hartzeetan ikusi ahal izan den bezala.

## 9.7 EKARPENAK MAILA APLIKATUAN

Jarraian, tesi honetan ateratako ondorioetatik lan munduan, eta bereziki testuinguru maskulinoetan, genero ikuspuntutik berdintasuna sustatzeko erabilgarri izan daitezkeen proposamen aplikatuak aurkeztuko dira. Izan ere, ingeniarietza eta lidergoa irudikapen sozialen baitan genero soslaiak duten edukiak eta genero dinamikak azaleratu izanak maila aplikatua eragiteko eremuak identifikatzea ahalbidetu du.

- Esparru teknikoak emakumeengana hurbiltzeko bideak: sozializazio ezberdinetan eragitea eta ingeniarietzaaren inplikazio sozialak nabarmentzea.

Ingeniarietza emakumeen presentzia apala izaten segitzen du. Gainera, tesi honetan egin den azterketa oinarri harturik (lehen atala), ingeniarietza arloko ikasketetan ez da feminizazioarentz bilakaera positibo handirik espero. Ikasketetan emakumeen presentzia apala azaltzeko literaturan ingeniarietza arloko ikasketen prozesuetan lehenesten diren eduki eta baloreak jartzen dira jomugan (Du, 2001; Kvande & Rasmussen 1999). Izan ere, mendebaldeko jendarteetan ikasketetan lehenesten diren edukiak emakumeen sozializazio prozesuekin zerikusi gutxi daukate, eta ondorioz emakumeengan interes txikia sortzen duten ikasketak izaten dira. Hori kontuan izanik, emakumeek gai zientifikoekiko edo teknologikoekiko interes apalagoa edukitzearen oinarrian dauden genero sozializazio ezberdinetan eragitea edo amaitzea urgentziako gaia dela ageri da; esate baterako, eskoletan programa bereziak garatuz. Honakoak, eskoletan bigarren mailatik aurrera (13 urte inguru) emakumeek gai zientifikoekiko izaten duten urruntzea ekiditen lagundu lezake. Izan ere, lehen mailan zientzia arloko gaiei begira neska eta mutilen interesa partekatua den bitartean bigarren mailatik aurrera emakumeek gai zientifikoekiko interesa galtzen dute (Lee, 2002; de Pillis & de Pillis, 2008). Ildo honetan, lan segregazioari aurre egiteko, egun oraindik maskulinoetat jotzen diren interes eta balioak (teknikoa edo arrazionaltasuna adibidez) genero tipifikazioerik gabeko baloreak bilakatzeko ezinbestekoa da, gizon eta emakumeen artean partekatutako diren interesak sortuz. Haurtzaroan eta gaztaroan neska eta

mutilek garatzen dituzten interesak modu askean gauzatzea bermatu beharra dago, generoak baldintzaturiko prozesua izan gabe. Zentzu honetan doa Nafarroako Gobernuak garatu berri den *Skolae* hezkidetzeta programa (Hezkuntza departamendua). Gazteen bizi proiektua modu askean eta aukera askatasunetik garatzea bilatzen duen programa da. Honen bidez, berdintasuna helburu, haur eta gazteetan eragitea bilatzen da; eskola egitura, irakasle eta familien parte hartzearekin.

Genero sozializazio ezberdindua deusezteko tresnak garatzearekin batera, emakumeengan ikasketa teknikoekiko interesa sortzeko bidea teknologien inplikazio sozialak agerraraztean egon daiteke. Honakoak, ikasketetan helarazten diren edukiekiko ikuspegi sozialagoa helarazteak epe motzean emakumeengan interes handiagoa sortzea ekarri dezake, eta emakume ikasleen kopuruak gora egin. Gainera, profesionalen irudikapenean lanbidearen alderdi teknikoak pisua edukitzeaz gain elementu sozialek ere leku handia daukatela ikusi da. Adibidez, ingeniaritza arazo sozialak konpontzera bideraturiko zientzia bezala azalduz. Ondorioz, profesionalen artean emakumeen sozializazioarekin zerikusia duten edukiek presentzia dutela kontuan harturik, ikasketa prozesuetan ikuspegi sozialagoa ezartzeak ez luke zailtasun berezirik ekarri behar. Honakoak epe ertain-motzean aldaketak ekarri ditzakeela pentsatzen da. Maila honetan, tesi honetan identifikatu den irudikapen profesionala emakumeengana hurbiltzeko tresna erabilgarria izan daitekeela pentsatzen da.

- Korrespontsabilitatearen beharra

Lan munduan genero ezberdintasunak azaltzeko denboraren gaia elementu zentral bezala ageri da, bai literaturan, baita tesi honetako emaitzetan. Maila honetan, nagusiki bi dira mahai gainean jartzen diren arazoak, eta bata bestearekin elkarlotzen dira. Batetik, emakumeek zaintza eta etxeko lanari eskaintzen dioten denbora gizonena baino handiagoa izanik (Legarreta & García Sainz, 2015) enpleguan emakumeak gizonen ondoan desabantaila egoeran daude. Bestetik, lan erakundeen egitura eta funtzionatzeko moduetan denbora eskakizun handia eta esparru pribatu eta publikoaren arteko bereizketa zurruna nagusitzearen ondorioz, emakumeek maila profesionalean kaltetuak izaten dira. Finean, generoaren arabera zaintza lanekiko banaketa desorekatua eta enpresetan onesten diren lan ereduak bata bestearekin elkarlotzen eta elikatzen dira, emakumeen inplikazioa esparru pribatuan handitzera

eramanaz eta gizonena esparru publikoan (Haas & Hwang, 2007). Maila honetan, lan munduan eta biziko gainerako esparrutan berdintasunera iritsi ahal izateko gizon eta emakumeen artean zaintza-etxeko ardurak partekatzearen beharra eta jendarteko egitura guzien inplikazioa (lan erakundeak, instituzio publikoak) beharrezkoa dela azaltzen dute adituek (Daly & Lewis, 2000; Torns, 2011). Ildo honetan, korrespontsabilitatea bilatzea helburu duten politikak garatzearen premia mahaigaineratzen da. Honakoak esparru pribatu eta publikoen arteko dikotomia klasikoarekin haustea ekarriko lukeen jendarte eredu sortzea ekarriko luke, zaintza jendarte antolaketaren erdigunean kokaraziz (Daly & Lewis, 2000).

- Enpresetan eman beharreko pausoak

Enpresa esparruari dagokionez, lege mailan 2007an Espainiar Estatuan garatu zen berdintasun legearen sakontzean eta aplikazioan pausoak ematen segitzea ezinbestekoa da. Maila honetan, berdintasun planen derrigortasuna enpresa txiki eta ertainetara igarotzeak enpresa hauetan ere berdintasun gaiak presenteago egotea ekarri lezake. Izan ere, berdintasun plana enpresaka garatzen den tresna da, eta bere garapenean zuzendaritzaren parte hartzea beharrezkoa izateaz gain langileen inplikazioa ere galdetu ohi izaten da. Enpresa txiki eta ertainetan berdintasun planak zabaltzeak berdintasun gaien sozializazio handiagoa ekarriko luke beraz, eztabaida sortuz eta balore aldatetetan eragiteko aukera eskainiz.

Bestalde, berdintasun planen jarraipen handiagoa egitekoa beharrezkoa da. Berdintasun planak egiten diren unean egitasmoen ebaluazioa eta jarraipenerako pausoak zehaztu behar izaten diren arren, horien gauzatzea enpresaren borondatearen esku gelditzen da. Helburuak gauzatzeko bidean enpresako parte ezberdinen inplikazioa beharrezkoa da, eta zentzu honetan sindikatuen inplikazio aktiboa ezinbestekotzat jotzen da. Administrazioaren aldetik ere, berdintasuna planak egiten dituzten enpresei aitortza soziala egiteaz gain, helburuak betetze zentzuan gainbegiratze maila handiagoa garatzea beharrezkotzat jotzen da.

Bukatzeko, legean eta enpresetan berdintasun planetan jasotzen diren neurrien erabileraren normalizaziorantz joan behar da. Maila honetan, berdintasunaren bidean gizonak ere neurri hauek dakartzaten aukerak lan praktikara eramatea beharrezkotzat jotzen da, neurrien erabilera generizatua alde batera utziz. Izan ere, gizonak ere bizi



esparru ezberdinen arteko oreka edukitzea ahalbidetzen duen lan praktikak garatu behar dituzte; esate baterako, ordu luzeen kulturari uko eginez, familia ezbehar baten aurrean lanetik joanez, lanaldi partzialak aukera bezala hartuz eta Euskal AE-en etorkizun hurbilean 16 asteko aitatasun eskubidea hartuz. Horretarako, enpresetan zein erakunde publikoen aldetik gizonenganako komunikazio kanpaina bereziak egiteak gizonen lan praktikan aldaketak sortzeko aukerak ekarri ditzakeela pentsatzen da.

- Gizonen inplikazioaren positibitatea

Berdintasuna lortzeko, dudarik ez da gizonen inplikazioa ezinbestekoa dela. Enpresa mailan aipatu denaren ildotik, gizonengan balore aldaketa bultzatzeak berdintasunerako ateak ireki ditzake. Alabaina, literaturan zein ikerketa lan honetan ikusienez gizonezkoek talde sozial bezala funtzionatzeko joera dute, eta honakoak taldearen posizio sozial altua mantentzera bideraturiko irudikapenak (eta beraz portaerak) garatzera darama (Lorenzi-Cioldi, 2002; Lorenzi-Cioldi, 2006; Doutre, 2008). Honenbestez, berdintasun mailan gizonen inplikazioa sustatzeko ez da nahikoa gizonak jendartean dauden genero ezberdintasun sozialez ohartaraztea. Hain zuzen, gaur egun berdintasunaren diskurtsoa oso zabaldua dagoen honetan arazo honen aurrean gaudela pentsa daiteke; hau da, ezberdintasun sozialen kontzientzia hartzeak norbanakoaren praktikak eraldatzeko nahikoa ez direnaren errealitatearen aurrean. Maila honetan, beharrezkotzat jotzen da berdintasunaren positibazioa egitea. Zehazki, gizonei zaintza eta lan praktikak eraldatzea berdintasunera iristeko betebeharrak bezala azaldu eta sentiarazi baino, oraindik irabazteko duten esparru bezala komunikatzean egon daiteke gakoa. Ildo honetan kokatzen dira *Gizonduz* bezalako inizatibak (begiratu adibidez Emakunde, 2018). Maskulinitate eredu berriak sortzera bideraturiko inizatiba da, eta honen bidez gizonek berdintasunera iristeko bere egin behar duen rol sozial berriaz arto egotea bilatzen da.

## 9.8 ETORKIZUNEN IRADOKIZUNAK

Atal honetan tesi honetan aditzera eman diren mugak gainditze zentzuan proposamenak egitearekin batera sortu diren ikerketa galdera berrien nondik norakoak azalduko dira.

Egindako analisien haritik sortu diren emaitzen ulermenean sakontzeko, etorkizunean bestelako metodoen erabilpenean oinarrituriko diren azterketak burutzearen beharra agertu da. Zehazki, ikasleekin egindako azterketari dagokionez, gogora ekartze teknikaren erabilpenak lanbidea eta lidergoaren irudikapenak ezagutzea ahalbidetu digu, eta irudikapenetan generizatuak diren edukiak identifikatzea. Maila honetan, irudikapenen baitan atzeman diren genero inplikazioko edukien ulermenean sakontzeko beharra agerian gelditu da. Era berean, lidergo eskalen bidezko azterketan, lidergoaren irudikapen objektu ezberdinen analisiak lidergoaren inguruan garatzen diren genero dinamiken nondik norakoak ulertzea ahalbidetu digu. Hemen ere, *Self*-aren bidez gauzatu diren posizio hartzeen barne logika ulertzera iristeko bestelako metodoak erabiltzea aurreikusten da. Bide honetan, ikasleekin etorkizunean elkarrizketak egiteak atzeman diren eduki eta genero dinamiken ulermenean sakontzea ahalbidetuko digu. Alderantziz, profesionalekin egindako azterketan lanbidea eta lidergoaren irudikapenak elkarrizketen bidez aztertu dira, eta honakoak genero inplikazioko edukiak eta genero dinamikak modu sakonean ulertzea ahalbidetu digu. Halere, ateratako ondorioak ingeniarien kolektibo profesionalari orokortzen ahal zaizkion jakiteko, etorkizunean ikerketaren bigarren pauso bezala azterketa kuantitatiboa egitea aurreikusten da.

Aztertutako edukiei dagokienez, ikasleekin egindako azterketan lidergo estilo klasikoak izan dira aztergai (autokratikoa-demokratikoa eta eginbeharretara-harremanetara bideratua). Izan ere, lidergo estilo hauek genero estereotipoen dimentsio agentikoarekin eta komunalarekin harremana daukate eta lidergoaren inguruko genero dinamikak ulertzeko erabilgarriak dira (Cuadrado et al., 2012; Eagly & Johannesen-Schmidt, 2001). Halere, egun literaturan eta lan erakundeetan lidergo estilo berriagoetan (lidergo eraldatzailea) ezartzen da fokua. Maila honetan, genero dinamikak lidergo estilo berriagoetan nola gertatzen diren aztertzea aurreikusten da etorkizunean.

Laginaren ezaugarriei dagokienez, profesionalekin elkarrizketak ingeniari industrial eta zibilekin burutu dira. Bi kolektibo profesionalak ingeniariak izan arren, bakoitzak bere berezitasunak dauzka, praktikan lanbide ezberdina egiten duten ingeniariak izanik. Gainera, ingeniariak arloan ingeniari zibilak bereziki maskulinizaturiko kolektibo profesional bezala ageri dira. Laginaren tamainaren ondorioz ezin izan da ingeniariak adarren azterketa bereziturik egin. Halere, ingeniari zibila ala industrial izatearen arabera lanbidearen eta lidergoaren genero tipifikazioan aldaerak eragin ditzakeela pentsa daiteke, ingeniariak zibila bereziki genero soslaiaren duen adarra agertzea espero daitekeelarik. Honakoa etorkizunean aztertzeko esparru bezala irekirik gelditzen da.

Bukatzeko, maila teorikoan bi dira etorkizunari begira aztertzeko irekirik gelditu diren bideak. Batetik, irudikapenaren alderdi polemikoen eta identitate sozialaren arteko loturaren ulermenean sakontzen jarraituko da. Izan ere, gutxi dira oraindik bi kontzeptu hauen arteko lotura aztertu dituzten ikerlanak (Breakwell, 2001; Lo Monaco & Guimelli, 2011), eta are gutxiago genero botere harremanen markoan egindako lanak (bakarra Muchi-Faina, 2004). Bestetik, irudikapen sozialek hartzen duten forma eta inplikazio mailaren (Flament & Rouquette, 2003; Rouquette, 1980) artean lotura egon daitekeela aditzera eman duten tesi honetako emaitzek. Lotura posible hau irudikapen profesionalean posizio sozialen bidezko azterketa egiterakoan genero gaiei loturiko edukien aipamenean atzeman da (emakume ingeniariak gizonekin alderatuz testuinguruaren dimentsioan berdintasun gaiei loturiko eduki gehiago aipatu izanean, edota dimentsio identitarioan berdintasun politiken alde edo kontra kokatzerakoan generoak edukiak aipatzeko moduan eragin duen aldaeran). Bide honetan, irudikapen sozialen baitan garatzen diren genero dinamiken ulermenean sakontzeko inplikazio kontzeptuak (Flament & Rouquette, 2003) aukerak ireki ditzakeela pentsatzen da.



## 10 AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- Abele, A. E. (2000). A dual impact model of gender and career related processes. In T. Eckes & H.-M. Trautner (Eds.), *The developmental social psychology of gender* (pp. 361–388). Hillsdale, NJ: Erlbaum.
- Abele, A. E. (2003). The dynamics of masculine-agentic and feminine-communal traits: findings from a prospective study. *Journal of Personality and Social Psychology*, 85(4), 768–76. <https://doi.org/10.1037/0022-3514.85.4.768>.
- Abric, J. C. (1994). *Pratiques sociales et représentations*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Abric, J.C. (2001). L'approche structurale des représentations sociales : développements récents ». *Psychologie et société*, 2(4), 81-104.
- Acker, J. (1992). Gendered institutions: From sex roles to gendered institutions. *Contemporary Sociology*, 21,565-69.
- Acker, J. (1990). Hierarchies, job and bodies: A theory of gendered organizations. *Gender and society*, 4(2),139-158.
- Alfermann, D. (1996). *Geschlechterrollen und geschlechtstypisches Verhalten* (Gender Roles and Gender-typical Behaviour). Stuttgart: Kohlhammer.
- Amancio, L. (2003). Gender and Psychologie: the analysis of an unhappy marriage under the light of social representations. In M. Lavalée, S. Vincent, C. Quellet, & C. Garnier (Eds.), *Les représentations sociales : constructions nouvelles (575-589)*. Montréal : Université du Québec à Montréal.
- Andersén, J., & Andersén, A. (2014). Deconstructing resistance to organizational change: A social representation theory approach. *International Journal of Organizational Analysis*, 22(3), 342–355. <https://doi.org/10.1108/IJOA-04-2012-0582>
- Andre, T., Whigham, M., Hendrickson, A., & Chambers, S. (1999). Competency beliefs, positive affect, and gender stereotypes of elementary students and their parents about science versus other school subjects. *Journal of Research in Science Teaching*, 36(6), 719-747. doi: [http://dx.doi.org/10.1002/\(SICI\)1098-2736\(199908\)36:6<719::AID-TEA8>3.0.CO;2-R](http://dx.doi.org/10.1002/(SICI)1098-2736(199908)36:6<719::AID-TEA8>3.0.CO;2-R)
- Apostolidis, T. (2006). Representations Sociales et Triangulation: Une Application en Psychologie Sociale de la Sante = Social Representations and Triangulation: An Application in Social Psychology of Health. *Psicologia: Teoria e Pesquisa*, 22(2), 211–226. <https://doi.org/10.1590/S0102-37722006000200011>
- Arango. L. G. (2006). Género e ingeniería: la identidad profesional en discusión. *Revista Colombiana de Antropología*, 42, 131-156.

- Arruda, A. (2010). Teoría de Representaciones Sociales y teorías de género. En N. Blázquez Graf, F. Flores Palacios, & M. Ríos-Everardo. (Coords.), *Investigación Feminista: Epistemología, metodología y representaciones sociales* (pp. 317-338). México DF: CEIICH-CRIM-Facultad de Psicología, UNAM.
- Augoustinos, M. (2001). Social categorisation: Toward theoretical integration. In K. Deaux & G. Philogène (Eds.), *Representations of the social*. Oxford: Blackwell.
- Avenel, C. (2011). Les représentations sexuées des professions lors du processus de choix d'orientation vers les études de médecine chez les lycéen-ne-s de terminales scientifiques, *Questions Vives*, 8(15). 2-11. doi : 10.4000/questionsvives.732.
- Ayman, R., Korabik, K., & Morris, S. (2009). Is transformational leadership always perceived as effective? Male subordinates' devaluation of female transformational leaders. *Journal of Applied Social Psychology*, 39(4), 852–879. <http://dx.doi.org/10.1111/j.1559-1816.2009.00463.x>.
- Bakan, D. (1966). *The duality of human existence. An essay on psychology and religion*. Chicago: Rand McNally.
- Baker, S. (2013). Gender and graduate school: Engineering students confront life after the B. Eng. *Journal of Engineering Education*, 91(1)41-47.
- Barberá, E., Sarrió, M., & Ramos, A. (2000). Mujeres y estilos de dirección: el valor de la diversidad. *Intervención Psicosocial*, 9 (1), 49-62.
